




Makin



LEKUNATAR MANUEL JAUREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMĀ

III

ARDABERAZ BILDUMA

KARDABERAZ AITARI OMENALDIA (Zenbait idazle) 1972. 198 of.
NEURRIZTIA (Luis Egia) 1972. 323 "
SUGE GORRI (François Mauriac - "Uxola") . 1973. 169 "
EZPALAK ("Uxola") 1973. 191 "
AITONAREN IPUIAK (Ramón Murga) 1974. 140 "
ERREKA ZULOAN ETA... (Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1974. 339 "
SHAKESPEARE - KOMEDIAK, I (Larrakoetxea'tar Bedita) ... 1974. 322 "
LANDARE-JAKINTZA (Botánica) (Larrañaga, Gillermo) 1975. 183 "
GARTZI-XIMENO, eta... (Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1975. 258 "
EUSKALERRIA ETA ERIOTZA (Anastasio Arrinda Albisu) ... 1974. 290 "
SHAKESPEARE - KOMEDIAK, II (Larrakoetxea'tar Bedita) 1975. 271 "
13 SHAKESPEARE - DRAMAK, I-II (Larrakoetxea'tar Bedita) 1977. 468 "
SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, I (Larrakoetxea'tar Bedita) 1976. 358 "
SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, II (Larrakoetxea'tar Bedita) 1976. 293 "
17 GRAMATICA VASCA (Dos vols.). ("Umandi") 1976. 584 ta 208 of
TXIRULIRUKA-OLERKIAK (Loidi'tar Paben) 1977. 145 "
LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME- NEZKO IDAZKI-BILDUMA, I 1977. 341 "
LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME- NEZKO IDAZKI-BILDUMA, II 1977. 323 "
LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME- NEZKO IDAZKI-BILDUMA, III 1977. 396 "
EUSKAL-BETEKIZUNAK ("Umandi") 1977. 222 "

KIRIKIÑO

EUSKAL KUTXA
GALERIA VASCA
Colón de Larreátegui, 11
(Galerías Bilbao)
Urrut. 424 1174 Teléf.
BILBAO · 1



Euskal Biblioteka Labayru




1021845
LITERATURA / N. 2892
v.3



KARDABERAZ BILDUMA - 21

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO
IDAZKI - BILDUMA

III



LEKUONA'TAR MANUEL
JAUNAREN
OMENEZKO
IDAZKI - BILDUMA

III



KARDABERAZ BILDUMA

Ultzama'tik jalkia.
Irurita Almandoz Manuel jauna,
gotzai ta martiria

AGINAGALDE'TAR BITOR MARI, S. I.

Idazpuru onenpean, aurtengo udaran argitaratu det liburuxka bat, Euskadi'ko gaztediari bereziki zuzendua.

Bilduma ortan, gure euskaldun bikain baten bizitza azaldu nai izan diet, ots, Irurita Almandoz Manuel Gotzai Jaunarena, bere jaiotzaren I EUNURTEA aurtan dalarik (1876-1976).

Txosten ontako albisteak xeaki ta zakonkiago jakin gura dunak, jo beza liburuxka ortara.

EUSKADI LURRALDEAN

Ultzama Arana, ta bertan Larraintzar, izan da bere jaioterria. Teodoro Irurita ta Xabiera Almandoz, senar emazteak, gure Manuel izan zuten laugarren semea.

Lenengoz Aita Kaputxinoekin Lekaroz, Basurto ta Ondarrabi'n egonda, gero Maixu bizimodura abiatu zan. Ostiz'ko Irakasle 1897'an, ta Zugarramurdi'koa 1898'an; ta urrengo urtean, Apaizko bideari erantsi zitzaion. Apaiz izateko bultzada aundiena, Aita Leon Inbuluzketa Kaputxinoak eman omen zion, Gotzai Jaun Berak Inza'ko Damaso Aitari Lekaroz'en esan zionez, Gogo-jardunak egiten ari zalarik.

Ordurako bere abots ederra entzuna zan Iruña'ko Abesbatzaren irtenaldietan, baita Iruña ta Balentzia'ko Katedraletan ere.

Irurita Jaunaren bizitza iru zatitan erdibitu ezker, ikusten degu lenbizikoa bakarrik igaro zuala Euskadi lurraldean, ta beste biak, kanpo; ala ere, urteoro Nafarroa'ra zetorren, udaran, atsedean egitera.

BALENTZIA'KO KALONJE

Teolojia osoro ikasi baño leen, Apaizgoa artu zuan: Balentzia'ko Katedralean sartzeko, baldintza ori jarri bai zioten.

Larraintzar'ko Parrokian, Bataioa artu izan zuan Eliza berean, lenbiziko Meza eman zuan 1900'an, dagonillak 6'an, Salvatore egunean.

Katedral'eko Koroan abesteko jardunetik landa, mota askotako lan-saldoa gañeratu zitzaion gure apaiz berriari. Lenengotikan, Teolojiari ekin zion Seminarioan; ta ura bukatutakoan, "DOCTOR"-mallako agiria atera zun, bikain bikaiñez, Filosofian eta Teolojian. Bereala Seminarioan bertan irakasle izendatu zuten.

Garai artan, 1916'an, kalonjia soil baterako leiaketak aldarrikatu zituztela-ta, Manuel Jaunak barne mugira izan zuan, leiaketa oietan jokatzeke. Amabi izan ziran leiakideak. Ta Artzobispo Jauna arriturik gelditzeaño, gure ultzamatarra irten kalonje; ta Garagarrillak 12'an, Koroan bere kalonje aulkian jarri zan.

Geroz eta ezagunago zan Balentzia'n Irurita Jauna. Katedralean urtero sei aldiz itzaldia eukitzeke bearkizuna zeukan. Ziotenez bera zan sermolaririk onena.

Apaizen artean espiritu-suspertzaille bizia, barruan zeukan sua deneri egotzi nairik. "Sacerdotes Esclavos de María" ta "Unión Apostólica" zeritzaten laguntaldeak eratzen eta bultzadutzen oso trebea; Jesusen Biotzaren jaiera Katedralean eta nonnai zabaltzen, adoretua; Maixu Katolikoan Aolku-emaille; Eukaristi Gau-bela'ko Lendakari, ta abar.

Bein batean urrutiko konbentu batetik Mojak deitu zuten sermoi bat eukitzeke. Trena artzera berandutxo eldu, ta osta-osta sartu zan bertan. Bidean zijoala, jakinarazi zioten tren ura etzala gelditzen, bera zijoan erriko geltokian. Zer egin bere estualdian? Oroitu zan Jesus Arraren Teresa Donearekin, eta esan zion:

— "¡Teresatxo! Zer egingo dute Mojatxo oiek, ni joan gabe? Onela utziko dituzu?"

Irurita Jauna gelditu bear zan geltokira eltzean, trena, izugarritzko galgaketata batekin gelditu zan, ta Manuel len-bait-len irten zan. Beste jendearekin joan zan makinistarengana, ta au entzun zion:

— "Moja bat ikusi det, Karmelita jantziakin, eta bera ez arrapazearren, geldierazi det trena. Ta gelditu-ta bereala, aienatu da".

Beste iñork etzuan moja ikusi. Irurita Jaun berak au askotan kontatu oi zuan gero Barzelona'n.

Balentziako Eliz-barrutia oso aundia zan. Alderdi batzuek, menditsu ta urrutiegiak. Zabarkeri kabiak! Ezin zenbatu Manuel Jaunak bazter oietara egin zituan joan-etorriak.

Bere laguntzalle Guardiola'tar Eduardo Jauna, maixu nazionalak dionez, Irurita Jaunak mendiz mendi berreun kilometro kuadratuak, arat eta onat Xabier Santuaren antzera, ikustatu zituan; ta basabazter oiei "Vicariato" izena ezarri ere bai.

LERIDA'N GOTZAI

Kalonje egin zutenean, txantxetan esan omen zuan Manuel'ek:
— "Kalonje izatea, or nunbait. Txarrena da, gero Gotzai izatera elduko naizela".

Ta ala gertatu ere. Abenduak 20'an, 1926'an, Aita Santu Pio XI garrenak Konsistorioan, Lerida'ko Gotzai izendatu zuan.

Aguro jakin zan, Iruña'ko Katedralean Gotzai sagaratuko zutela; ta oikune agurgarri ortarako gertuketa sakon eta osoena egin nairik, Manuel Jauna Almandotz'ko Benta Berrira, bere lengusuen etxera, bi illebeterako lekutu zan.

Elizkizun ospagarri onen dei-agiriak onela zion: "Tedeschini Federiko, España'ko Nuntzio Jaunak, eta Melo Alcalde Prudentzio, Balentzia'ko Artzobispo Jaunak, eta Muxika Urrestarazu Mateo, Iruña'ko Gotzai Jaunak, Irurita Almandoz Manuel Jauna Gotzai sagaratuko dute, 1927'an, Epailak 25'an, Iruña'ko Eliz Nagusian, goizeko bederatzitan, aitabitxi izanaz Nafarroa'ko Forodun Aldundia". Egun ori ostiralez jazo zan.

Aldundiak Gotzai berriari pektoral gurutza adiguriz eman zion; Larraintzar'ko bere erritarrek Gotzai makilla; senideek, Gotzai eraztuna; Ultzamar Apez Jaunek kaliz eder bat, orain ere Larraintzar'ko parrokian erabili oi dana.

Arratsaldean, Aldundiak eskeindutako bazkaria amaitu ondorean, Iruña'ko Abesbatzak saioaldi eder ta kuttun batekin goraiatu zun.

Irurita Gotzai Jaunak emanidako *lenengo Pontifikala*, bere jaioterri Larraintzar'ko parrokian izan zan. Egun aukeratua, Epailak 29'an, asteartez. Goizeko seiretan, txistularien kalejirak. Bederatzitan, Agintarien ongietorria. Amarretan Meza santua, meza-emaille-kide Ultzama'ko zazpi Apez Jaunek zitularik, eta Koroan Iruña'ko Katedraleko Erestaldea.

Amabitan bere jaiotetxean, oroit-arri baten agerketa, Ballarako Alkate Mariezkurrena Eulalio Jaunak euskeraz itzegiñaz. Oroit-arriak onela dio: "Etxe ontan / 1876 garren urtian / yayo zen / Don Manuel

Irurita eta Almandotz / orai Leridako Obispo Yaune / Erritarrak yarri dute arrie / 1927 garren urtian / oroitzera".

Ondoren, Gotzai berriak, itzalditxo bat euskeraz egiñaz, Udaletxean Jesusen Biotza Errege-jargoian ezarri zun. Ordubatean, bazkaria, Ultzama'ko Apez Jaun, Agintari ta Ziñegotzietan. Lauretan, pelota leia-ketak eskuz eta palaz, eta eusko dantzak. Zortziretan, suzko erreberak.

Jorrailla 1'an, Gotzai berriak alde egin zun Nafarroa maitetik Lerida'runtz, Balentzia zear.

Iru urtez bakarrik (1927-1930) egongo zan Irurita Jauna *Lerida'ko Gotzaigoan*. Epe motza; ala ere, ateka ain larritan, Elizbarruti artarako guztiz onurakorra, kristau-espirtua ta kemena beragan bizkorrazten leiatu zalako. Bere ekiñaldian, *lau jomuga* auek izan zitun begien aurrean.

Lenena: artzai maitakari baten lez, bere ardiak ondotik eta ongi ezagutzea. Lerida'ko Elizbarrutiak garai artan 170 parroki zeuzkan: oietatik 94, Huesca'ko probintzian. Elizbarrutiko biztanleak, 140.000 ziran.

Parrokien lenbiziko ikerraldia burututakoan, pastoral bat idatzi zien bere eliztarrei; ta azken aldian, onela zien:

"Erri maiteok! Zuen Erretore Jauneeri itzal izaiezute, biziro maitatu! Zenbat aldiz, *Terreta* edo *Montaña*'ko Erretore Jaun batzuek ikustean, neure burua ertxatu bear izan nun, beaien oiñetara jausi, ta denen aurrean musukatzen ez asteko!" (1929-XII-10'an).

Bigarrena: Seminarioa, Elizbarrutiko biotza bezela zaintzea. Lerida'n idatzitako bere zazpi Pastoral luzeetan, bigarrena Seminario'tzaz egin zun. Ta Pastoral ortantxe agindu zun, San Jose'ren Jaia izan zedilla Seminarioa ospatzeko eguna. Ta Lerida'tik Barzelona'ko Elizbarrutira aldatu zutenean, berak zitun mozkin guziak (20.000 pta.) Lerida'ko Seminarioari utzi zizkion.

Irugarrena: errietan Mixioak eta Gogo-Iñarkunak antolatzea; ta *laugarrena*: Aita Santuaganako maitasuna, bere menpekoen artean er-naraztea.

Lerida'ko Gotzaigoan urte bat zeramala, *Zugarramurdi'tarrek jaialdi eder bat* antolatu zioten, beren antziñako maixu ospetsuari.

Larunbatez, 1928'an, abustuak 18'ko arratsean, Akelarre leizera bideratu ziran kandela piztuekin prozesioan, ta an Irurita Jaunak Lourdesko Ama Birjiñaren Irudi bat bedeinkatu, eta jarri zuten arkaitzetan.

Igande 19'an, goiz-sentian, argiasteko errosarioa. Goizeko Meza txikian, Jauna ematen. Gero Meza Pontifikala, Lekarotz'ko Kaputxi-noek abestu, ta Donosti'ko Ladislao Aitak itzaldia euskeraz egiñik. Ordu bata t'erditan, bazkaria, "Dutari" Jauregian.

Akelarre'ko Ama Birjiñaren irudi agurgarria ez da gaur ikusten, Irurita Jaunak utzitako tokian. An egon zan berrogeiren bat urtez; baiña alderdi aietara, orrenbeste gisako mendilari dijoztela, bein eta berriz iraiñez erabilli zuten fedegabeko gizaki batzuek; orregatik erriko agintariek, oroigallu maitagarria irugarren aldiz ez jartzea erabaki zuten.

BARCELONA'N GOTZAI

Jose Deunaren egunean, 1930 Epaillak 19'an, zabaldu zan Aita Santu Pio XI'garrenak Barzelona'ko Gotzai izendatu zuala Irurita Manuel Jauna.

Lerida'tik urbil zeukan Barzelona'ko Eliz-barrutia, bertako gorabera ta etorkizun latzak ezagutu ta igertzeko. Autatua izan zalako, adiskideen goralpenak entzutean, bere anai Benitori esan omen zion:

—"Benito, urkamendira noatzik". Beste bein ere, Barzelona'n zegola, entzun omen zioten:

—"Naiago nuke Arañotz'en (Ultzama'ko baselizatxo bat) ermitazain izan, Barzelona'n Gotzai izatea baiño". Ala ere, nolako nekeak zetozkion ondo ezaguturik, Aita Santuaren izendatzea biotzez artu zuan, Jesu Kristok, Jerusalem'era igotzean, Aitaren naia artu zuan bezela.

Barzelona'ko Eliz-barrutiak garai artan 170 Parroki zitun: Lerida'koak ainbat; biztanleak, ordea, askozaz geiago, 630.000'tik gora.

Irurita Jauna, Lerida'ko Seminarioatik irten, eta maiatza 14'an Montserratara; an Meza eman, ta gaberako, Tarrasa'ra; or bi egunez gelditu, ta Barzelonan sarrera nagusia, maiatza 16'n, ostiralez, egin zuan.

Bere idazkari izandako Baucells Jaunak, onela adierazten digu Irurita Jaunaren *eguneroko ordu partitzioa*.

—"Jaiera eta penitentziera buruz, eredu arrigarria izan zan bere bizikera Barcelona'n. Eguneroko lau t'erditan jeiki: bostetan asiera eman bere gogaldiari ordubete ta laudenez: sei t'erditan, Meza santua, aurretikan ordu laurdengo gertuketa, ta beste laurden bat, eskerrak emateko, arturik. Gozari kaxkar bat: apaiz otoitzak: ikastaldia: idazkarietara erabakiak: ta amaiketarik ordubata ta erdiraño, ikerleekin solasean.

Bazkalondoan, ordu laurden batez abaro, ta berriz ere bare lanari loturik.

Egunero Errosarioko iru zatiak: arratsaldean ordu erdiko gogaldia, espiritu gaietako irakurtaldia, ta, askotan, Kalbarioko Bidea. Gabe-ko amaikak eta erditan, kapillatik irtetzen zan oeratzeko. Egunaren luzaran, kapilla orretan Jaunari amabi ikerralditxo beintzat egiten zizkion.

Penitentzieren buruz, bere antziñako oiturari jarraituaz, zigorrak, zurdatza, barauak, eta zillegi zitzaizkion atsegin askotan bere buruaren ukapenak, eta beste mota askotako ildurak”.

Arrigarria, benetan, Irurita Jaunak Barzelonan, sei urtez, egindako apostolu lana. Balentzian sermolari bikaiña azaldu bazan, *Barzelonan idazlari ugaritsu ta zorrotza* ere agertu zan. Eundik gora dira berak Barzelonan edaturako Gotzai-idazki (Pastorales), Aolkaldi (Exhortaciones) edo Txarteldeiak (Circulares); denak, berak barruan nabaitzen zuan bertasun eta argiz beterik.

Barzelona ta Lerida'ko kazetariak omenaldi bat antolatu zioten 1932'an, idazlari ain arrigarri, ta, jazaldi garai artan, egia esateko ain ausarti ikusirik; ta bere Gotzai-idaztiak, lareun orri inguruko liburu batean irarri zituten.

Barzelona'ko Eliz-barrutia osorik ikertzeko bost urte bear izan zitun. Ikerraldi au galerazi naiean, oztopo asko jarri zizkioten bidean, eta anonimorik aunitz bialdu ere bai. Ala ere, dena bukatutakoan, Gotzai-idazki batean jarri zitun bere mugira nabarienak. Ona emen azken aldiko zatitxo bat:

—”Erria, katolikoa da: bestelakorik ez luke izan nai: bere Jainkoa maite du: Birjiña ere bai: erlijio-gabekeria, atunez bezela uxatzen du.

Orregatik basakeria da, legeen bidez, erlijio-gabeko araudiak berari ezartzea. Erri katolikoa, katoliko arauz jaurri bear”.

Gogo-Iñarkun txanda bateko bukaerara eltzeko asmoan, Sitges'tik Villanueva y Geltrú errirako bide zabalean, *bildurgarrizko makur bat* sortu zitzaion. Beribilla nola gelditu zan ikusita, arritzekoa da bizirik irten zala jakitea; zugaitz batekin topo eginda, lertuta gelditu bait zan.

Au gertatu zan 1931 maiatzak 8'an. Lenbiziko sendaketak Villanueva'n egin zizkioten; eta burua loturik zeukala, Vendrell'en Meza ematea nai izan zun, eta itzaldi eder bat egin ere bai.

SANTU OTSEAN

Neurri ontako txosten batean ezin lerrotu Irurita Jaunaren aunitz eta aunitz jakingarri. Laburki bada ere, tarteka artutako albiste batzuk emen banatzen ditut.

Egun batean, Meza ondoan, Jaunari esaten dio:

—”Jesus, gaur bertan 10.000 peseta bear ditut”.

Oitura ez zaneke orduan, txintxarria jotzen dute, ta andra batek zorrotxo bat ematen dio atezaiñari.

Irurita Jaunak artzen du zorrotxoa, ta sakelean sarturik, badijoa kapillara, ta onela esaten dio:

—”Jesus, ar-emana 10.000 peseta ziran, ta emen 5.000 bakarrik daude. Dana dala, itxoingo degu”.

Ordu pare bat etzan oraindik igaro, ta berriz lenako andra bera beste zorrotxoakin. Badijoa Gotzaia kapillara, ta:

—”Jesus, ona emen beste 5.000 peseta; orain pakean gaude”.

Beste bein, Erroma'ra ”Ad Limina” deitzen zaion ikertaldia egiteko joan bearra zuan, eta Aita Santuari eskeintzeko gauz aundirik etzeukan.

—”Jesus, esaten dio: au ez da Barzelona'ko Eliz-barrutiari dago-kion aña”. Andik oso laister, txintxarria; ta gizon batek 500.000 peseta ematen dizkio Aita Santuarentzat.

Beartsuei laguntzeko etzuan neurririk; ta bere ondoan bizi ziranak, arriturik gelditzen ziran, dirua bere eskuetara nola zetorren ikusita.

Gaixo askori ere sendaketa lortu zien; onela Margenat Jaunaren alabatxoakin, ta Shelly Jaunaren semetxoakin; ta gero, Ama Birjiñaren mesedea zala esanaz, solasgaia beste bidetik zeraman.

GURUTZE BIDETIK AINTZARA

Itxasontzi-buru trebe baten antzera, lema eskutik utzi gabe, Irurita Jaunak aurrera zeraman Barzelona'ko Eliz-barrutia; ta Jainkoak ala naita, Kristori bezela, gure Gotzai santuari ere nekaldi latza gafiñeratu zitzaion. Ona emen laburki Gurutze-bide orren xeetasunak.

Uztailak 21'an, (1936), *asteartez*. Jendetza bildurgarria Gotzai Jaurgiaren inguruan, bera atxitu nairik. Irurita Jaunari adiskideek buruan sartzen diote, alde egin bear dula. Sotana kendu; soin-gaiñeko arin bat,

abarketak eta txapel bat buruan jarri, ta atezaiñaren etxetik irtetzen da, Eusebio bere txoperraren laguntzakin. Berarekin dijoa Markos Goñi apaiz Jauna, bere illoba.

Abenduak 1'an, asteartez. Erriko azterkatzalleek Tort Jaunaren billa bere etxera sartuta, an arkitzen dute Irurita Jauna. Nor zan galdetzen diote, ta berak MANUEL LUIS zala, apaiz euskalduna. Irurita ta Goñi Jaunak, Antonio Tort eta bere alaba eramaten dituzte Pedro IV'gn. kalera, 176 zenbakian zeukaten gudaletxera. Galdeketa beaiei eginda, Tort Jaunaren alaba azke utzi, ta besteak San Elias'ko txekara eramaten dituzte.

Abenduak 3 ta 4'an (1936). Egun auen tarteko gaberdian, Irurita Jauna beste amaika gizonekin (oien artean Markos Goñi Jauna) besoz beso loturik, kamioi batean Montkada'ko illerri ondora eramaten dituzte. Milizianoz josita zegon alderdi ua. Argi guziak itzali; kamioi gaiñean foko aundi bat piztu, ta danbada bildurgarria. Amabi gizonak erortzen dira; baiñan txandan azkenena zegona, Kanela Juan Jauna, bizirik, zauririk gabe erori zan. Ilda zegolakoa egin, eta gero anka eginda, egundoko testigua izan da.

Ekainak 4'an, asteartez (1940). Albiste pozgarria: Montkada'ko illerrian arkituak izan dira Irurita Jaunaren gorpuzkondokoak. Albiste ori egiztatzeko, neurri guziak artuko dira.

Abenduak 9'an, ostegunez (1944). Barzelona'ko Gotzai-jauregi atarian, oroitarri bat Irurita Jaunaren omenez jartzen dute.

Abenduak 10'an, ostiralez. Goizeko amarretan il-gurdi eder batean Katalaunia enparantzara ekartzen dute Irurita Jaunaren gorputza. Gero, Katedralera, beragatik Meza Pontifikala Modrego Gotzai Jaunak emanaz. Egun ortan eta larunbat goizean, txandaka il-beila egiñaz, izugarrizko jendetza.

Abenduak 11'an, larunbatez. Irurita Jaunak, bere azkenai agirian azaltzen zuanez, Eukaristiaren Kapillan, Lepanto'ko Santo Kristo ondoan, eortzen dute.

Otsailak 12'an, ostegunez (1959). Irurita Jauna, Santuen maillan jartzeko Auzibidea iriki da. Kristoren morroi zintzo ta leiala izan zan. Noiz eta nola gure euskaldun santua aldaretara elduko dan, Jaunaren naian gorderik dago. Alegindu gaitez, une ori len bait len eldu dedin, Jainkoaren aintzarako, eta Eliza guziaren, batez ere, euskaldunen atsegin eta eredutzarako.

Oyarzun en el Archivo Provincial de Protocolos de Guipúzcoa

JOSE MARIA DE AGUIRREBALZATEGUI

*Nere "ia lengusu" ta maixu agurgarriari,
eta artxibo-aztertazalle bikañari biotz-biotzez.*

En el edificio renacentista que para sede de su Universidad (la única del País Vasco desde el año 1540 hasta 1901) mandara levantar en su villa natal el preclaro oñatiarra, D. Rodrigo Mercado de Zuazola, obispo de Avila, virrey de Navarra, presidente de la Chancillería de Granada, etc., se albergan desde el año 1946 los más de diez mil legajos del Archivo Provincial de Protocolos.

La Historia, relatada por los fieles escribanos que en Guipúzcoa han sido desde el año 1440, fecha del primer legajo, hasta los de hace cien años, se encuentra en espera de la mano investigadora que la saque a la luz y puedan conocerla todos los guipuzcoanos y aportando a la Historia Universal (como en el caso de los arrantzales guipuzcoanos que en el siglo XVI iban a Terranova) ,conocimientos hasta ahora ocultos.

Oyarzun, la villa natal de nuestro investigador homenajeado, se halla bien representada en el Archivo Provincial de Protocolos.

Sumándose de todo corazón al merecido homenaje aporto los siguientes datos de escribanos de dicha villa, número de legajos y fechas de los mismos.

<i>Escribanos</i>	<i>Núm. legajos</i>	<i>Fecha</i>
Isasti, Joanes de	9	1554-1581
Zuaznabar, Juanes de	2	1567-1570
Arburu, Miguel de	15	1567-1595
Arpide, Juan de	10	1584-1612
Arburu, Francisco Martínez de	9	1600-1627
Zuaznabar, Juan López de	7	1614-1637

<i>Escribanos</i>	<i>Núm. legajos</i>	<i>Fecha</i>
Arbide, Esteban de	13	1616-1653
Alza, Sebastián de	24	1640-1689
Zubieta, Diego de	8	1648-1655
Magirena de Zubieta, Diego de	16	1656-1684
Albistur, Juan de	8	1663-1683
Arpide, Francisco de	38	1673-1722
Urbieta, Francisco Antonio de	22	1685-1718
Echeberría, Gregorio de	4	1694-1704
Zuloaga, Francisco de	16	1696-1737
Sarasti, Gregorio de	15	1720-1761
Urbieta, José Ignacio de	1	1723
Orendain, José Antonio de	13	1726-1754
Alza y Fagoaga, José Antonio de	13	1733-1776
Irisarri, Ignacio de	12	1738-1753
Indart y Arbide, Luis Joaquín de	19	1755-1790
Mendiburu, José Antonio de	18	1765-1810
Sarasti, Ignacio Vicente de	36	1796-1813
Indart y Arbide, José Ramón de	4	1791-1797
Arrieta, Juan de	12	1805-1819
Noguera, Francisco de	16	1819-1839
Indart, José Ramón de	17	1821-1855
Mendiburu, José María de	20	1828-1854
Indart, Pedro de	14	1855-1868

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Ostiko billau bat

SANTIAGO AIZARNA

Adaska asko dittun zugaitza da Manuel Lekuona'ren buru-zugaitz dotorea, bañan alare, adar punta oietako bakoitzean jakinduria jarioka ikus leike. "Urri, bañan ongi" dio esaera zar batek, bañan ba dittugu gure artean, urri ezik ugari agertzen diranak, eta beti-beti ongi azaltzen dakitenak. Oietako bat degu Manuel Lekuona. Bere jakinduria jendeen mingañetan dabill, bañan ez uste, alare, arroputz biurtua ikusiko duzutenik, baizik apal beti, beti umill, beti bere irripar goxo ori, ezpaiñ, masail, begietan jostalari dakarkiela.

Nundik eta nola asiko ote giñake Manuel Lekuona'ren, aiiñ birtute jakiñak, berriro azaltzen? Nundik artzen asi, gizon oneri, neurriak? Idazlea den aldetik, —eta idazleen maisua gañera— zer gai ote du berak maiten-maiteena duena.

Onelako gizon baten aurrean, eta zer esanik ez, denan gaiñetik erritarra ba-degu, oroimenak busti-bustiak uzten dizkigute biotzaren ertz edo ixkiñ-bizi guziak. Gizon au ezagutu baño len, bere otsa nundik-andik or etorri zitzaigun. Zeiñek egin zituala oraindik jakin gabe or abesten genitun bere idazki zatiak, eta umekeria izango da, bear bada, au esatea, eta bidezkoa ezin ta geiago, orrela gertatzea, bañan zerbait aitortzen asi bear-ta, nik aitortu bearko nukena au da: alegia, bere "Eun Dukat" izan zala nik lendabizi entzun eta ikusi izandako antzerkia, eta nere aurzarroan antzerki onen asierako abestiak pozez beterik abesten nituala:

Jeupa, jeupa! irrintzika
iratzebailleak erritikan;
jeupa, jeupa! irrintzika
zatotik ttantta bat egiñikan

Bañan ez da egoki izango, aurzaroko oroimiñ laztan oietan itxadun gelditzea, eta goazemazute zerbait geiago esatera, gizon aundi onen aldameneko gauzetaz; goazemazute garrantzi aundiagoko gaien atzetik.

GAI ASKOREN ITURBURUA

Don Manuel Lekuona'ren aldamenak aztertzen asi-ta, bere begiko-ñinia baño maiteago duan gai bat billa genezake. Au, denak dakiten bezela, bertsolari gaia degu. Ez du, Lekuona jaunak, bertso-zaletasun au bat-batean bere barrenean jaiotakoa. Ez orixe. Aurrekotik, bere arbasoetik eldu zaio zaletasuna, bañan berak egiñ duana ez da izan zaletasun orretan doi-doi itxo egitea. Lekuona jaunak egin duana, lendabizi, bertsoak eskatzen zuten mailla ematea izan da; gero, bertso oiek artu eta bere jakinduriz busti; gero, landu; gero, aretu, jorratu eta azkenian, bere ale arrigarriak guri eskeiñi.

Ez da denbora asko irakurtzen nuala onelako lan txalogarri oietako bat. Añ zuzen, "GAIK" aldizkarian argitaratzen zan lan ura. Don Manuel'ek, bertsolari batzuen bertso-egiteko oitura ongi begiratuta, lengo antziñako erromatarren bertso-neurketara earmaten gindun.

Arrigarria iruditzen zaiote, geien-geienari nola, gure erriko bertsolariak, bat-batean bertsoa sortu eta azkon zorrotz baten antzera beste bere kontrarioei botzen dioten; arrigarria iñundik orren uste-gabean bezela asmatzea; eziñ ulertu leikena beren aotik itzak añ dotore neurtuak atera izana; bañan don Manuel bezelako bat urbiltzen ba zaigu bere jakinduri garbiakin argi egiñ naian, beste alderdi geiago ikus genezaioke gure bertsolariari. "Pneuma"edo ixpirituko aize berexi batek aizatzen dittu gure eginkizun geienak, eta gure bertsolarien artean ere, "pneuma" dalakoa ori gartsu, zeatz eta batzutan ariñ antzean darabillela eziñ uka. Aldizkari ortan agertzen duan lan orretan don Manuel'en jakinduria bi aldetara sakabanatua azaltzen da: zati bat, antziñako bertso neurketakin uztarritzen da; beste zatia, ega gozoan, an artutako kabi-lumakin gure bertsolarien eginketak laztantzera eldu zaigu. Eta ona nola bi egite oiek, batean bildu-ta eskeintzen dizkigun. Don Manuel'ek arkitua dauka gure bertso eta bertsolarien ezkutapena eta garbi azaltzen digu. Xenpelar, Bilintx, Iparragirre, eta zeñ ez, or agertzen zaizkigu, Don Manuel'en eskuetan larru-gorrian, bilutsik. Don Manuel'ek, zituzten soñeko edo jantzi guztiak kendu ondoren, diran bezelaxeok ager nai dizkigu; bañan alare ez uste izan, bear ez den moduan erakutsiko dizkigula, Don Manuel'en esku eta adimen arrigarrietan sortzen bait da mirari berexi ori: zenbat eta geiago bertsoak beren apainduriz erantzi,

orduan eta ederragoak arkitzen dittugu. Benetan ederrak bait ziran izatez, eta don Manuel'en jakinduriak, ziran bezelaxeok agertuazi besterik ez bait digu egin.

Bañan ez da bertsoetan bakarrean bukatzen, don Manuel'en adimen luzatzea. Euskal-gizonen ondoen sortzen diran gai guziak; euskal kultura guzia ikuitu izan du, eta ikuitzen ari da, orañdik, gizon agurgarri au. Eta bere "Literatura Oral Euskérica", den baño obeagoa ezin ba-diteke izan, beste Lekuona jaunaren lan guztiak onen zeatzasun bera agertzen dute. Naiz erti lanean; naiz izkuntza buruz, zernai ikuitu, bere eskuetan gauzak urrez loratzen dirala dirurite.

TRABAK KENTZEN

Tamalgarria da, benetan, onoko orri gorantzitsu auetara alderdi zeken eta baldarrak ekarri bearra.

Guk, emen, don Manuel'engatik esan deguna ez da berak merezi duen milletik bat ere, eta ori Euskalherri guziak daki. Bañan, alare, mundu onetan iñork esker txarra artu izan ba-du, au don Manuel izandu da. Iñoren kezkek gabe ongi merezi zuan jarritako eserilekutik billatzen saiatu-ta ere, ezin izango zan billatu orrelako gizon bat Euskaltzaindiak bere lendakari bezela lan egiteko. Eta onela izendatu ta jarria zegola, ona nun bota zuten.

Gizatasun arrasto ttiki-ttikiena bere barrenian zeukan arrek, miñ artu zuan don Manuel'eri egin ziotenarekin. Gizon onek daukan jakinduriakin, bere zentzutasunakin, bere apaltasun eta emankortasunekin, iñork ez dauka kezkek gure euskeraren alde lan aundiak egingo zituala. Eta beste gauz bat: or egongo dira nor edo nor "filologo" izeneko aundiputz batzuk; or beren ustez danen gaiñetik dagoztenak; izango dira arrokeriz beteta iñork ezer esatia ezin eraman izaten dutenak, bañan guk uste dugunez beintzat, orrelako oien jakinduria eta don Manuel'ena aukeratu bear-ta, gu beintzat don Manuel'ekin gelditzen gera. Batzu-batzuk, egin dutena egiteko obeagoa izango genuen beti Salamanka'n egon ba-litzaizkigu, emen bazterrak nasten ari gabe.

Batzu oieri jendeak erantzun ez dioten bezela erantzungo zioten, kezkek gabe, ziur, sendo, don Manuel'eri. Eta seguru-aski, orain ikusten ari geran izkuntza-guda nazkagarri au ez genuan ikusiko, don Manuel'ek

ezin eskeiñ izango bait zigun euskera ez den izkuntza euskaldunari. Konkoxoaren gogoa izaten da denak konkoxo ikusi nai izatea, eta lan onetan gogor saiatu izan diranak ba-dittugu gure artean.

Dana dala, barka ditzaigula don Manuel'ek beragandik itzegiten asi-ta, orrelako gizon-ttiki, zeken oietara joan ba-gera. Gu bezela, asko ta asko dira, don Manuel Euskaltzaindiaren lendakari egon izan ba-zan, arren itzak ontzaz artuko ziotenak. Eta iñoiz batasunik egiteko biderik ba-zegon, don Manuel'en babespean egin zitekena zen ori.

Bañan, beste batzuei, traba aundia egiten zien gizona zan, don Manuel ;onen itzalak, itzal aundia egiten zuan; onek zekiana iñortxok ere ez zekien, eta era ontan, zer egin zezateken ostiko bat eman besterik?

Orduko ostiko billaba ura barkatua izango diote don Manuel'ek. Bañan, ostiko ura, ez zijoan gure jakitun aundi onen aurka bakarrik. Ostiko ura, don Manuel'en aurka ezik, gure izkuntzaren aurka, gure euskeraren aurka zijoan. Eta kezki ez dago ostikoa aundia izan zala. Geroztik, euskera gaxua or dabill, eri, baldar, konkoxo, parragarri utzi nai duten eskuetan ezin ta geiago zikindua.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA, 1977

Itxaropenaren babesean

Zortzi poema labur

FRAY PEDRO DE ANASAGASTI

ITXAROPENA

Itxaropenak	jabetu.
egin dit	Naigabe
kabia	ondoren
biotzan.	zerutu.
Euriak busti,	Itxaropenak
otzitu,	kabia
astindu,	egin du :
baña ez ondatu.	sendoa,
Trumoiak	epela,
zarataz	goxoa.
bildurtu.	Eguzki
Aizeak	ugari
lastoak	zabaldu.
dantzatu.	Neguan,
Gizonak	beti udaren
maitasun	kupitu,
sakona	beti loraren
zapaldu.	usaindu,
Kabia	bati pakea
bai goruntz!	luzetu.
Zerua	Itxaropena
tellatu.	nigaz ezkondu!
Izarrak	
Jainkoa	

AMA LUR

Zapaltzen dut lurra	eskeko.
xamurra.	Ama lau milla urte
Azpian aurrekok	dituzte

emengo azurrak
biguinak.
Lur bizi-bizia,
gazia,
gorputz illekorrak
dakona.
Emen zar ta gazte
badaude
turuta kantari
noiz ari.
Azi bat bezela
sabela
eska dio lurrari
berari.
Ezin dut zapaldu
ez artu
bildurrik gabe lur
ain santu.
Atsegin egarri

lan-egin
munduko iturritan
txikitan.
Biotza nai bete,
atseden,
lurreko arboletan
gaztetan.
Maitasun eskari
daneri
dabil, emen ta or,
zartzaron.
Zenbat lore legor
or berton
betiko ito dira
kabian!
Aurrekoan babes,
etxe eder,
ezin zu zapaldu
lur mindu.

G A B E A N

Ikusten dezu gabean,
eguna jeisten danean,
argia nola iltzen dan.
Illuna errege, ixilla lagun,
ta gau txorien kantuak.
Errekak ikaraz dar-dar.
Illargi zeru zabalán.
Izarren diztirak dantzan.
Lotan gizona oean.
Esna Jaungoiko ludian,
biotz bete utsunian.
Begi-biotzez, ikusten ditu
Aitak semeen amesak,
ta euran barrenan uste du
itxaropenaren frutu,
itzalpe onean buru.

Gu lotan gauden artean
asitzen da aberea,
eldutzen dira loreak.
Jaungoiko osoa, isil-misilka,
danekin ari da izketan,
txori, arrai ta loretan,
bakoitzari bere izkeran,
amak umeekin eran.
Iñor ez dago bakarrik,
ez dago iñortxo utsirik,
bakartade bakarrean.
Izarrak dira Jaunaren begi,
gau illuna bere magal,
ixil bere biozkadak.
Nere begietan loa,
biotzean Jaungoikoa.

GORPUTZ BERRI

Lur illuna, garratza,
bakartadeak jana.
Neretzat, gorpuaren
etxe izan bear dana.
Millaka, millaka ar
gorputza jaten ari,
millaka zati-zatik
ondata nere kabi.
Begiak
ez geiago mendiak ikusi.
Eskuak
ezin pianoan soñuak josi.
Mingañak
jan bustik ain itsusi.
Illaren
ats zabaldu itsuski.
Jan, lur, jan nere gorputz

uztel ta maltzur.
Ez izan bildur:
berak zaldu zun
bere edertasun
nun ta nun.

Jan, lur, jan gorputz.
Berria nai dut:
ederra, txukun,
argia, mardul,
betiko zerun.

Lur illun,
jan nere gorputz:
ez du ez miñik artu.

Azia uzteldu,
gorputz miragarria sortu.
Bai, goruntz!

A N A I A

Gizon danen anaia naiz.
Ez det gorrotorik.
Danen anaia naiz noski
Kristoren odolan.
Beltzak eta oriak,
zuri, narru-gorri,
urrezko illekoak; denak
zerate nere anai:
anima berdiña degu.
Aberats, erdiko, eskeku,
neretzat berdiñak:
ez nau itxutu urreak,
ez jantzi bitxirik,
ez pillatu ondasunik:
urre bikañena

or: Aitaren Errefiua.
Ez nau batu ez aldendu
iñoiz politikak.
Bakoitzak beza pakean
nai duen jokera.
Politika zeru bide
izan bedi beti.
Bidetik denak aurrera:
Aita degu itxoín.
Aita bakarra bizitzan.
Etxe zoragarri.
Anima eder berdiña.
Zerk gaituko aldendu?
Arbola bateko kimu,
eutsi zugaitzari.

IZARRA LEIZEAN

Ez noa Jaungoikorantz
 ¿zergatik ibilli?
 Bera etorri zait neri.
 Bera, ixil-ixil.
 Maitasunak ekarri,
 maitasun itsuak,
 biotz motel onera
 —elurrari sua—.
 Ez al dauka zein maite?
 Milloika semeak,
 argi, zuzen, leialak,
 onginai zaleak.
 Bañan ikusi nozu Zuk
 umezurtz, ain zakar.
 Nere lokatzen musu
 eman dit Izarrak.
 Eun arditik, bat galdu
 arantzan ta illunan.

Leize garratz onera
 jetxi zan Kutuna.
 Zure aurka gudan ni,
 ta Zu ni parkatzen.
 Zu zapaltzen ari ni,
 ta Zu ni goratzen.
 Gorroto gorriena
 zalekeriz piztu.
 Nortasun puskatua
 mirariz berriztu.
 Zein zera Zu? Maitasun.
 Zure naia? Argi.
 Zure lana? Parkatu.
 Gabean illargi.
 Umea naiz munduan,
 argal, gaixo, itxusi.
 Badut nik zure odola,
 ezin nozu utzi!

BIOTZ ZABALA

Biotza daukat txikiña,
 mamintxo zati bat, fiña.
 Zainak odol iturriak
 garbitzen ditun zikiñak.
 Gorria, zuezko labe
 keirik eta egurrik gabe.
 Ain txikiña ta ain zabala!
 mundu osoaren ama:
 danak dira zurekiko
 maite-maiteak betiko.
 Besteen min zuretzat min,
 iñoren poza zuk mamin.
 Danen negarrak, zureak.
 Baita danen garaipenak.
 Aberats eta beartsua,

ume, gazte, zar, atsua:
 guztientzat dut kabia,
 nere adimen, nere ogia.
 Sartu bat ta sartu milla.
 Gau ta egun naiz zuen billa.
 Ez det nai gela utsirik,
 ez nere baratza utzirik.
 Jaunak eman dit biotza
 txikiña ta zabala. Lotza
 neretzat ainbet janari
 ta milloika gozez ari.
 Munduko gizon ta andreak,
 nereak dira zuenak:
 naigabeak, poz, maitasun.
 Denak zerate kutunak.

ARANTZAZU

Arantzazun bizi naiz. Mendean erdian.
 Zerua nere eskuan, oideak illean.
 Arbolak nere laguntzat.
 Ixilla nere doñutzat.

Arkaitzak sendo, mendiekin ezkongaitan,
 Margolezko bizarrak lez ta baratzetan.
 Errekatxo bat neguan,
 oporretan gustora udan.

Txori kaiola sugatz bakoiz kerizpetan,
 amorrai lotzor bere ur garbi ta otzetan.
 Zizak loreak bezela
 belarretan euren gela.

Ardien jolasak ikusten ditu euriak,
 belar-leku mamintsuetan. Ta eguzkiak
 parre-parre egiten die
 lore, orbal eta arriei.

Udaran seme-erromes milla Amangana
 esker-frutuz biotz-ontzi beteak dana.
 Negar iturrik artean
 damutasunez lorean.

Emendik ikusten da, argi, zeru bidea.
 Emen bai artu biotzak zeruko gosea.
 Emen zapaltzen bildurra,
 maitatzen aztun gallurra.

Atera zan udazkena. Jaio negua.
 Erromes gutxi jaietan. Illun oiua.
 Bakartadea nagusi.
 Lañuak lañua ikusi.

Txoriak otzan iges. Arbolak erantzi.
 gorputz zar zañezkoa. Elurrekin jantzi.
 Ixiltasuna ixillik.
 Bizitza bera be illik?

Eliz aundia uts-utsik. Sagrarioan Laguna
Andra Mari goitik bera billatzen kutuna,
munduko olatu erdian,
esna goiz ta gaberdian.

Prailleak goiz, eguerdi ta illunabarrean,
biotzak kantu ta salmu biur eleizan
danen izenez kantari
guztien Ama danari.

Arantzazu ez da il negu gogorrean,
Mariaren iturri urre zabaltzean.
Prailleak edur ta ortzakin
anai biurtzea jakin.

Arantzazu, euskaldun guztiaren biotz,
Arantzazu, danaren su,
miñetan goxo, kementsu.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Eresbil. Euskal ereslarien bilduma

Archivo de Compositores Vascos

JOSE LUIS ANSORENA

LA RAZON DE UN ARCHIVO

Nace un archivo cualquiera en aquellos lugares en que la actividad vital obliga a los hombres a una mínima y ordenada burocracia. Los trámites llevan consigo el inevitable papeleo, eso que todos aborrecemos cordialmente, pero que con el transcurso del tiempo se convierte en datos para la historia y en valores inestimables de archivo.

No ha sido éste el origen de ERESBIL (Euskal Ereslarien Bilduma). La contemplación de la música de autores vascos, desparramada en una extensa geografía dentro y fuera del país, es lo que promovió la inquietud por tratar de aglutinar tan rico patrimonio de nuestros antepasados.

Existen índices claros de la música de vascos de siglos pasados. Pero no es fácil comprobar tales afirmaciones con la ostentación de sus partituras, la mayor parte de ellas perdidas sin remedio. Otro tanto ocurriría con las obras de los compositores vascos del siglo XX, tan pródigo en número y calidad, máxime cuando con efemérides, como el Concilio Vaticano II, los eclesiásticos han dado muestras tan palpables de desorientación en la música litúrgica, inhibición e irresponsabilidad en la pérdida de verdaderos tesoros de nuestra polifonía religiosa contemporánea.

¿No sería la solución definitiva la creación de un ambicioso archivo que reuniese la música de los compositores vascos de todos los tiempos?

La idea no era nuestra. Había sido acariciada por diversos espíritus inquietos, aunque su realización siempre se vio aplazada.

Sin embargo, hecha la exposición del proyecto al equipo organizador de MUSIKASTE, en Rentería, fue aceptada con entusiasmo con todas sus consecuencias, como consta en acta de 30 de mayo de 1974. El Archivo de Compositores Vascos se consideró como algo necesariamente unido a MUSIKASTE, puesto que para ediciones posteriores e indefinidas de la semana renteriana de Música Vasca era imprescindible

el conocimiento directo de las obras de nuestros músicos de todos los tiempos. Estos considerandos motivaron el común acuerdo, que se resumió en la escueta decisión: Hágase.

EL NOMBRE

Era fácil prever que un archivo que fuese capaz de reunir la música de todos los compositores vascos de todos los tiempos, adquiriría con los años un prestigio de alto rango. Por tanto, jugaba un papel importante en la cuestión su nombre oficial.

El acuerdo de los responsables fue encomendar a uno de ellos la consulta a diversidad de personas de distintas clases sociales, conocedoras del euskera, partiendo de la idea "Archivo de Compositores Vascos".

Este fue el resultado, tal como respondieron los consultados:

Julián Bergareche: Euskal Eresgilleen Gordallua edo Euskal Ereslarien Gordallua (Bilduma).

Pedro Berrondo, periodista: Musikagille Euskaldunen Biltokia edo Musikagille Euskaldunen Bizi-lekua.

Luis Villasante, presidente de la Academia de la Lengua: Euskal Musika Etxea edo Euskal Musikalarien Artxibategia.

Pedro M.^a Oliveri e Iciar Corta, matrimonio: Euskal Musikagileen Artxiboa edo Euskal Musikalarien Artxiboa.

Felitzu Eraso, Isabel Albisu, Miren Guezala y Antonio Munduate, reunidos en equipo: Euskal-Eresgil Lanen Bildutegia.

Mikel Ugalde, escritor: Euskal Musikagilleen Gordailua, Euskal Musikagilleen Artxibategia, Euskal Musikalarien Altxorra, Euskal Musikagilleen Kabia, Euskal Musikagilleen Aterpea, Euskal Musikaren Bilduma.

Apreciados todos los matices con las correspondientes explicaciones nuestras y de los consultados, se optó definitivamente por EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA. La última duda estaba en la palabra ERESLARIEN. Se creía que la idea de "compositor" se corresponde y expresa mejor con "eresgille". Sin embargo la intención de que el archivo abarcase a compositores, escritores sobre tema musical e incluso intérpretes de la música, influyó para que se escogiese la expresión "ereslari", como más genérica y en la que entran todos.

También se juzgó que el nombre oficial EUSKAL ERESLAREN BIL-

DUMA requería una contracción para su uso diario y popular, puesto que la frase es larga e incómoda. El mismo encargado de la consulta, Antonio Sáinz Echeverría, presentó la expresión ERESBIL, que fue unánimemente aceptada y a partir de entonces comúnmente usada por todos. En resumen: nombre oficial EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA; nombre contraído y popularizado ERESBIL.

EL PRIMER IMPULSO

Tras los acuerdos del equipo organizador de MUSIKASTE, la tarea se puso en marcha a ritmo endiablado.

La gran tradición musical existente entre los capuchinos vascos, a los que pertenece el que estas líneas firma, nos hizo pensar que sus conventos podían ser un primer intento de investigación: Lecároz, con el Archivo del P. Donostia y el incansable trabajador, P. Jorge de Riezu; los Conventos de San Sebastián y Pamplona con sus Escolanías de tan brillante historial; el Seminario de Teología en Pamplona (Extramuros), el de Filosofía, ambulante por Fuenterrabía, Estella y Zaragoza, etc... Los meses del verano 1974 fueron intensamente aprovechados y dieron su fruto inmediato: en setiembre se elaboraba la primera lista, que reunía 300 compositores vascos, que se hallaban representados en ERESBIL con alguna de sus obras. Las visitas se extendieron a los archivos parroquiales, archivos familiares, comercios de música, etc... La visita a Aránzazu fue de excepcional importancia: posee un importante archivo de música coral contemporánea, pero su archivo de música barroca, con más de mil partituras, entre las que encontramos obras de más de 30 autores vascos del siglo XVIII, es de un valor inestimable.

Las visitas a los archivos de la Catedral de Pamplona y Colegiata de Ronvesvalles fueron también altamente positivas. Después han ido sucediéndose las visitas a las Catedrales de Tudela, Calahorra, Tarazona, Burgo de Osma, Santiago de Compostela, Salamanca, Málaga, etc... De todas ellas se ha extraído algo positivo.

Se ha trabajado en conexión con importantes musicólogos nacionales: José López Calo, Samuel Rubio, Dionisio Preciado, Joaquín Pildain, Jorge de Riezu.

Ya en noviembre de 1974 se elaboraba la segunda lista con más de 400 compositores. En abril de 1975 la tercera lista contenía 570

nombres. En octubre del mismo año la cuarta lista abarcaba 680 compositores. En febrero de 1976, 800. Y a fines de 1976, la sexta lista encasilla el millar de compositores vascos.

EL DESCUBRIMIENTO DE NUEVAS PISTAS

A medida que las cifras de compositores vascos catalogados en ERESBIL crecían de forma tan inesperada, podíamos llegar a la conclusión de que se agotaban los caminos de investigación. Pero cuanto más nos adentrábamos en la tarea, más se nos ampliaba el ángulo de visión de nuevas pistas. La adquisición de catálogos de archivos nacionales nos trajo noticia de la existencia dispersa de partituras de vascos en los rincones más inverosímiles. Madrid presentaba particular interés respecto a nuestros músicos del siglo pasado, que ocuparon permanentemente las cátedras de su Conservatorio: la Biblioteca Nacional, la Biblioteca del Conservatorio, la Biblioteca Musical Municipal, el Archivo de Música del Palacio de Oriente, los librerías de viejo, etc... son centros en los que hay mucho que espigar.

Barcelona no es plaza de interés para la investigación de la música vasca.

Los catálogos de las Catedrales de Cuenca, Santiago de Compostela, Tarazona, Monasterio del Escorial, Guadalupe, etc., nos detallan una lista interminable de obras de compositores vascos, que requerirán un gran esfuerzo económico para su fotocopia y catalogación en ERESBIL.

Otro tanto habrá que decir de las obras existentes en los archivos de otras Catedrales, que todavía no han sido catalogados e incluso ni siquiera ordenados.

REALIZACIONES HASTA EL MOMENTO

Todo el material reunido y almacenado en ERESBIL se halla perfectamente ordenado y catalogado.

Podemos hablar de más de 15.000 partituras, pertenecientes a un millar de apellidos distintos.

En ERESBIL figuran: a) compositores vascos de todas las épocas; b) escritores que tocan literariamente el tema de la música y folklore

vascos; c) compositores que no son vascos, pero han tenido relación con la música vasca.

Se tiene noticia de otros muchos compositores vascos, que no figuran en ERESBIL porque no se posee ninguna partitura o escrito de ellos.

Todo el material está ordenado en carpetas, en las que se coloca, si es posible, a cada compositor sus datos biográficos, fotografía, lista de obras, escritos literarios musicales y partituras. Estas carpetas siguen un orden alfabético, lo que equivale a un fichero por autores.

Existe, además, un fichero por materias, que obedece a las siguientes signaturas:

Música religiosa

- 1) Cantos a una voz con acompañamiento.
- 2) Coral "a capella".
- 3) Coral con acompañamiento.
- 4) Coral con orquesta (Misas, Salmos, Oratorios, etc.).
- 5) Orquesta sola.
- 6) Organo y clavecín.
- 7) Varios.
- 8) Trabajos literarios sobre tema musical religioso.

Música profana

- 1) Coral en euskera.
- 2) Coral en otros idiomas.
- 3) Sinfónico-coral.
- 4) Opera y zarzuela.
- 5) Canto y orquesta.
- 6) Orquesta sola.
- 7) Música de cámara (Canto y piano, pequeños conjuntos...).
- 8) Banda.
- 9) Txistu.
- 10) Varios.
- 11) Trabajos literarios sobre tema musical profano.

De todas estas secciones, la más destacada por el número de fichas es la de música de cámara, sobre todo la sección de canto y piano, que comprende más de mil fichas.

En breve se iniciará un tercer fichero por títulos de las obras, de manera que en él podrán verse agrupadas las fichas que correspondan a un único tema, por ejemplo "Uso txuria" o la "Marcha de San Ignacio" y disponer así de una completa información de lo que sobre tales temas se ha compuesto o escrito.

LOS AUTORES MEJOR REPRESENTADOS

En la tarea de recopilación de las obras de los compositores vascos la suerte ha sido muy diversa.

Algunos de siglos pasados conservan la aureola que tuvieron en vida, pero sus partituras no se localizan hasta el momento. Otros menos famosos han llegado hasta nosotros con abundancia de material.

Entre los compositores del siglo XX, se da el caso de gran diferencia de facilidades prestadas por sus propios familiares y herederos en orden a su catalogación en ERESBIL.

De los antiguos destacamos a Anchieta, catalogado con todas las obras hasta ahora transcritas y los mejores estudios sobre su música, biografía, etc...

Los barrocos Agustín Echeverría, José Larrañaga, Arriola y otros (s. XVIII) figuran con importante representación musical.

Juan Crisóstomo Arriaga se halla en ERESBIL prácticamente con toda su producción conocida.

Hilarión Eslava posee en ERESBIL el mejor elenco de obras que de él se conocen, incluida la "Lira Sacro Hispana" (11 volúmenes), adquirida en Madrid a un librero de viejo por 50.000 pesetas.

También está representado con la mayor parte de sus obras Felipe Gorriti.

Muy bien representados se hallan los Albéniz (Mateo y Pedro), los Santesteban, el Conde de Peñaflores, José Ignacio Larramendi, Aranaz y Vides, Emilio Arrieta, Joaquín Larregla, Dámaso Zabalza, Valentín Zubiaurre, Buenaventura Iñiguez, etc...

De los compositores que hemos conocido en este siglo este es el orden de mejor representación en ERESBIL: Isidro Ansorena, Norberto Almandoz, Tomás de Elduayen, Hilario Olazarán, Luis Iruarrizaga, P. Donostia, Eustaquio Azcárate, Eduardo Moco-roa, Francisco de Lazcano, Saturnino de Legarda, Garbizu, Guridi, Olaizola, Otaño, Azkue, etc...

El ideal para ERESBIL es que los compositores se hallen encasillados con toda su producción, no simplemente con una selección de sus obras. Se comprenderá que el trabajo es inmenso para conseguir tal meta. Pero esa es la dirección y el objetivo que hacemos público, con el fin de promover todo tipo de colaboración, que revertirá en bien de la cultura musical vasca.

DON MANUEL LECUONA

Es uno de nuestros hombres polifacéticos, cuya tarea de etnólogo ha rozado frecuentemente con el amplio campo de la música vasca, motivo sobradamente justificado para que figure en ERESBIL, archivo de compositores vascos.

Don Manuel Lecuona no es compositor, pero ha hecho sus pinitos de músico en determinadas ocasiones. Volviendo el recuerdo al año 1936, contemplamos a don Manuel escondido en el Monasterio de las MM. Brígidas de Lasarte, huído de malévolas intenciones. Las religiosas lo cuidaron con mimo y él quiso agradecerles sus atenciones con la moneda que estaba a su alcance: les componía poemas en euskera, idilios espirituales. A uno de estos poemitas, dedicado a la Virgen del Consuelo, le adaptó una melodía popular y le añadió una estrofa, compuesta por él mismo. De esta manera el Himno a Ntra. Sra. la Virgen del Consuelo, que cantan las Madres Brígidas de Lasarte, es una auténtica creación y partitura de don Manuel Lecuona.

Hay un villancico muy popularizado estas últimas décadas en el País Vasco, cuyo texto canta así: "Aintza zeruan, aintza zeruan, aintza zeruan Jaunari; eta pakea, eta pakea lurean gizonari". La melodía la oyó don Manuel en un congreso europeo a unos cantores checoslovacos. Le gustó tanto, que le adaptó el euskera señalado y le añadió una estrofa, tomando la melodía del "Ume eder bat" algo alterada. Como se ve, don Manuel ha sido práctico en trampillas musicales y hábil en la creación de estrofas, esa palabra tan magistralmente analizada por él mismo en su acepción griega y tan relacionada con el teatro vasco de Zuberoa.

También don Manuel trabajó en la adaptación de melodías y textos, para la publicación de su "Jesu Aurra'ren bizitza", obra por la que don Manuel muestra particular afecto.

Como escritor de temas musicales vascos, don Manuel nos ha dejado:

"Aurak nola kantatzen duten".

"Las canciones infantiles".

"Canciones enumerativas"

"La Canción Vasca de Navidad".

"Las toberas".

"La Marcha de San Ignacio: sus textos".

"La Marcha de San Ignacio: examen métrico - una variante de su música".

Todo esto existe en el carpetón correspondiente a don Manuel Leuona en ERESBIL, en donde puede ser consultado.

También debemos añadir que él descubrió en el archivo de la Catedral de Calahorra un "Miserere mei", compuesto por Elejalde (s. XVII), partitura que puso en manos del P. Donostia.

LAS CESIONES

Entre las carpetas existentes en ERESBIL hay una con la signatura "Cesiones". En ella se conservan los documentos que avalan la cesión en depósito de determinadas partituras o lotes de música al archivo de compositores vascos. Estas partituras siguen perteneciendo a los titulares de dichos documentos y tienen derecho a retirarlos en el momento que lo deseen. He aquí un buen sistema de ayuda a ERESBIL, ayuda que no es precisamente monetaria.

Cuando fallece un compositor, la conservación de sus obras, editadas e inéditas, suele experimentar una de estas suertes: a) los allegados las conservan con cariño y aun ordenadamente; b) los allegados se desprenden de ellas y se dispersan en distintas direcciones; c) los allegados, no valorando esta herencia artística y considerándola un estorbo, la destruyen.

La dispersión en distintas direcciones tiene a la larga un resultado inevitable de desaparición de muchas obras, aunque mayor desgracia es la de las partituras, que, tras el fallecimiento de su autor, son destruidas.

El ideal está en que los familiares conserven, como algo sagrado, el tesoro musical de su antepasado compositor, aunque el paso inflexible de los años, ya a partir de la tercera o cuarta generación, enfría el em-

peño de conservación, salvo en los casos de los músicos que gozan de gran renombre.

Todavía añadiremos un detalle más: aun en el caso de celosa conservación de las partituras, éstas se convierten en un museo totalmente olvidado e inútil. Nadie o casi nadie se interesa por ellas. De aquí arranca mi pregunta-argumento: ¿no es ERESBIL su lugar más apropiado? ¿no sería la mejor medida una cesión en depósito, bajo documento, o una generosa donación a nuestro archivo?

En ERESBIL se hallarían al lado de los demás músicos vascos, ordenadamente catalogados y cuidadosamente presentados por un archivero oficial al público, que cada vez visita ERESBIL en mayor número y frecuencia.

ANECDOTARIO

Desde el comienzo de la tarea de recopilación nos asaltó un interrogante: ¿Qué criterio emplearemos en la catalogación de nuestros compositores? ¿Sólo aquellos que han alcanzado cierta categoría? ¿Quién señala esa frontera? ¿Quién le pone el cascabel al gato?

Ante la incertidumbre, se descartó todo tipo de selección: se trabaja con criterio de totalidad, sin exigencias de ninguna clase. Todo aquél que se haya paseado por el pentagrama, irá a parar a los armarios de ERESBIL.

No han faltado opiniones que han recriminado nuestro criterio, pero éste es el camino escogido. De esta manera hemos entrado en contacto con las inquietudes artísticas de vascos de todas las clases sociales.

En ERESBIL figuran obras de tres obispos: José Eguino, Antonio Pildain y Carmelo Ballester, este último no vasco, pero obispo de la antigua diócesis de Vitoria. También del cardenal Merry del Val, catalogado por el donostiarrismo de su familia. El filósofo Juan Zaragüeta también se halla catalogado por sus aficiones pianísticas de improvisador y compositor, e igualmente Ignacio María Lojendio. Junto a ellos, son muchos los que han compartido sus profesiones de arquitecto, abogado, militar, etc... con la dedicación a la composición musical.

Diríamos que al vasco siempre le ha asaltado la tentación de componer una canción algo similar al chisme, que atribuye a ciertos religiosos el cuarto voto: escribir un libro. Convendría aquí recordar la

frase de Ortega y Gasset: "El mayor bien a la humanidad es no escribir un libro inútil". Traducida esta frase al mundo de la música, diríamos que hubieran obrado bien nuestros antepasados, si no hubieran escrito tanta ligereza. Pero nuestro respeto a ellos, como mínimo nos impele a deducir que la música es algo vital para el vasco.

Otra impresión anecdótica de palpitante interés que hemos sufrido en contacto con las partituras de nuestros compositores es el extrañamiento españolismo de muchos de nuestros músicos. Citamos este punto porque los condicionamientos políticos actuales nos permiten mirar con una sonrisa a flor de labios este matiz. El País Vasco, que siempre había tenido problemas con los gobiernos de Madrid, es lugar de origen de muchos himnos españolistas. Recordemos el "Tantum ergo" de Eslava, escrito sobre la Marcha Real. Cleto Zabala, autor del "Eusko Abendaren Ereserkia", no tiene inconveniente en escribir el pasadoble "¡Viva España!". Juanito Tellería, autor del "Cara al sol" y "Canto a la División Azul". El P. Otaño, armonizador en una misma publicación para coro de hombres de los Himnos Nacional, de Oriamendi y Cara al sol. El caso más chocante es el de Julio Valdés, que compone para ocho voces mixtas "Laudes hincmari al Generalísimo Franco". Mientras las voces graves cantan: ¡Franco, vencedor en cien batallas!, las voces blancas responden: Christus vincit! ¡Franco, forjador de la victoria! Christus regnat! ¡Franco, restaurador de la Cruz! Christus imperat!, etc...

Abundan otros muchos himnos españolistas de autores menos sonados, que al mismo tiempo componen en dirección vasquista. ¿Sería el puchero la razón de esta actitud? No somos radicales, y pensamos que todos los datos son interesantes para nuestra historia.

LA UTILIZACION DE ERESBIL

Teníamos prisa por declarar que ERESBIL es un archivo abierto al público y que nació con la formal intención de prestar un servicio a todos los que les interesa de algún modo la música vasca.

Comprendidas las lógicas medidas adoptadas para la conservación del material existente en ERESBIL, estas son las diversas posibilidades de su utilización:

- a) Estudio directo sobre las partituras y escritos en el local del archivo.
- b) Fotocopias de cuanto pueda interesar.
- c) Consultas al archivero sobre la diversidad de materias y autores de ERESBIL.

Hasta el momento pasan de treinta los coros y entidades musicales que se han beneficiado de sus servicios, además de muchas personas particulares.

COLABORACION CON OTROS ARCHIVOS

Ha existido y sigue existiendo una estrecha relación con otros archivos musicales, intercambio de materiales, publicidad de valores interesantes para todos. De estos contactos todos hemos salido beneficiados.

Además se ha participado en la ordenación y funcionalidad de algunos archivos particulares. Se ha ordenado y catalogado en su totalidad el archivo de don Norberto Almandoz, uno de los más importantes del País Vasco.

En la actualidad se trabaja en la catalogación del Archivo Barroco de Aránzazu, que contiene más de mil partituras del siglo XVIII.

EL PROBLEMA ECONOMICO DE ERESBIL

Hasta el momento y en los dos años y medio de existencia que lleva ERESBIL, todo lo realizado se debe al enorme desinterés y espíritu de sacrificio de los componentes del equipo organizador de MUSIKASTE, miembros todos de la Coral Andra Mari, de Rentería.

Junto a este mérito principal debe colocarse la inestimable colaboración del Ayuntamiento de Rentería, que en sesión de la Permanente del 15 de marzo de 1975 adoptó el siguiente acuerdo:

"Se acordó estudiar las medidas necesarias para facilitar a la Coral Andra Mari, de esta Villa, toda la ayuda posible para la creación y sostenimiento del archivo de música vasca, cuya formación se está llevando a cabo en este momento por los miembros de dicha Coral, estudiando incluso la posibilidad de facilitar algún local para el montaje de este archivo".

La realidad de este acuerdo es que ERESBIL realiza la fotocopia de todos los materiales prestados en la máquina municipal gratuitamente, lo que supone una gran ayuda.

Por lo demás ERESBIL no ha recibido ni una sola peseta de asignación de entidad alguna. A pesar de todo, el material ya recopilado es de un valor incalculable.

LO QUE QUEDA POR HACER

Ya hemos dado a entender que queda un largo camino que recorrer en la recopilación de música de vascos, existente en otros archivos.

Debemos añadir que gran parte del material reunido en ERESBIL, ha sido adquirido por el sistema de fotocopia, lo que supone una inquietante incertidumbre: ¿es indefinida la duración de la fotocopia? ¿o a la vuelta de 30, 40 o 50 años se convertirá en papeles ilegibles e inservibles? Téngase, además, en cuenta que muchas de las obras fotocopadas proceden de originales manuscritos muy confusos. Todo esto nos impele a pensar en la conveniencia de que ERESBIL se constituya en una modesta editorial, que vaya publicando en ediciones sencillas pero prácticas y duraderas, por lo menos la música de mayor interés.

Otro importante problema por resolver es el que se refiere a la grafía de las obras del siglo XVIII para atrás. La mayor parte de ellas figuran de manera que requieren una transcripción al lenguaje actual, sin la cual son papeles solamente asequibles a los expertos en paleografía.

EL PROYECTO COMPLETO

El proyecto inicial de ERESBIL comprendía también la realización de una discoteca, que reuniese cuantas grabaciones de música vasca circulan en el mercado público y privado. Este aspecto del proyecto ha quedado relegado por el interés primordial del archivo de partituras y escritos. Sin embargo todo está en marcha, aunque con paso más lento.

Podrá pensarse en la iniciación de ciclos monográficos de la música vasca contenida en los armarios de ERESBIL, siquiera sea entre grupos y para grupos minoritarios, que sueñen con tal aventura. La gra-

bación de todas las interpretaciones pueden ser origen de gran material para la discoteca. En este caso la edición de MUSIKASTE sería la feria de las muestras más importantes conocidas durante el curso.

Todo relacionado y unido: ERESBIL, CURSO MONOGRAFICO, MUSIKASTE, MUSEO, SALA DE GRABACIONES, MONUMENTO A LA MUSICA VASCA, llegarían a formar un foco e inyección constante a nuestra cultura musical.

Rentería, 7 de diciembre de 1976.

D. Manuel, jaun fina da

JOXE MARI ARANALDE *

Asko uste gabeko eskutitz batean, zerbait idatz dezadala eskatzen didate, D. Manuel Lekuonarentzat Omenaldia antolatzen ari omen direla-ta. Azken orduan deitutakoetako ote naizen daukat susmoa; baina ordua ordu, gusto guziz egingo dut, makina besterik aurrean ez dudala egin dezakedantxo. D. Manuelek oberik merezi badu ere, nik ezin eskeini diezaioket orain, nere memori txarra beste lagunik ondoan ez dudala.

Batikanoko II Kontzilioak elizkizunak erri bakoitzaren izkuntzan egin zitezela erabaki zuenean, gureak berea duen ontan emengoak egin zitezen, Gotzaiak apaiz talde bat deitu zuen, misala euskeratzen asi zedin. Talde artako gertatu nintzen ni ere, norengatik edo zergatik ez dakidala. An ere ez nintzen aurrenetan sartua izan, baina bai azkenak arte iraun nuena. Amar-dozena bat urte izan bear ditugu lan ortan paseak; eta urte oietako ainbat eta ainbat ordutan beti D. Manuel izan dugu gure laneko itzulpen-maixu.

Eta maixu ona izan dugu guk D. Manuel, buru ona. Lana, geigizko presarik gabe egin izan dugu, baina alperrikako etenik ere gabe. Jardunaren jardunez ateratzen genuen lan puska bat eskuartetik, ez zalapartaz. Eta jardunaren leen momentutik azkeneraino an aritzen zen D. Manuel, bere boligrafoa eskuan, inguruko oar guzien artetik formularik oberena ateratzen eta idazten. Ez zen, ordea, oraintxe egokiena iruditzen zen ura beti zutik gelditzen. Obe-ustekoren bat an izaten zen laister atzetik eta leena borratu eta berria idazten zuen gure maixuak. Bigarrena azkena izaten bazen ala ere, gaitzerdi. Zenbat ote dira bein eta berriz eta berriz idatziak eta borratuak, osorik edo erdizka edo laurdenka? Inolako ukiturik gabe gelditutakoren bat baldin bada, jaso dezala eskua.

* Bijoazkio Aranalde jaunari Kardaberaz-Bazkunaren esker beroenak, bere idazlan au irartzeko eman dion erreztasunagatik.

Eta D. Manuel antxe beti konponketa guziak egiten. Guk daki-gu zirujia orren berri. Bein baino geiagotan gelditu zen boligrafoa non sarturik ez zuela. Baina pazientziak inork uste baino geiago bait dezake, egiten zituen moduak beti, aren seinale guziak ulergarri izan zitezen kopiatzailearentzat.

Orrela ezagutu dut nik D. Manuel urtetan eta urtetan, beti pake-tsu, beti neurritsu, beti orduko, bere goxoan eta bere grazian, inguru-koen lanarentzat eskertsu eta besten iritzietara idekia. Aren ondoan aur ginakenok ere, ez dugu egundaino desairezko keinu bat jaso. Zenbait aldiz botoz ere erabaki izan ditugu gauzak eta orduan ere gureak, berarenak edo beste edozeinenak ainbat balio izan zuen. D. Manuelek egindako oinarri-itzulpenak berak, gutako edozeinek egindakoak beze-la-bezelaxe jorratu izan dira gure artean. Ortan ez da diferentziarik eza-gutu gure taldean Oiartzungo gizon-bitarte aundi oni eskerrak. Beste-rena aintzat artzeko —zenbaitena batez ere— apaltasun aundia bear da eta doai ortaz sotanaz bezain ongi jantzia da Lekuona "Zaarra". Aatik, gustoa zen aren ondoan lan egitea, eta gustoko lekuan aldapa-rik ez delako iraun dugula uste dut guk ere oinbeste urtean D. Manue-len ondoan lanean.

Baina idekitasun orrek dakarren berdintasunaren barnean, beste doai bat ere aitortu bear diot nik gure itzulpen-maixuari: Bakoitza bes-teak baino egokiago zertan den ikusteko begia. Berdintasun giroa sor-tze utsa, beste au gabe, berdinkeria batean gelditzea litzake. Guk ez dugu orren arriskurik ezagutu gure lanean. D. Manuelek bazekien bakoitzari zer eska, eta bakoitzak berea ematen zuen talde artan. Zerbaitetarako ez denik ez omen da-ta, neri ere amaika aldiz esan zidan "Ia, Joxe Ma-ri, bota. Nola jarri bear dugu au?". An bere lekurik ez zuenik ez zen. Eta lana egiteko eta gustora egiteko, bakoitza berari dagokion lekuan aritzea izango da leen kondiziotako bat. Gureak ez zuen kondizio orren eskasiarik, beste gauza askotan eskasa baditaike ere.

Lana ez zen, ordea, guzia gure lanean. Berritzuketarako tartek ere izan ditugu. Amaika ordü goxo badugu pasaturik alkarrekin lan bi-tartetan eta ondorenetan. Lagunarte aparta izan dugu eta ortan ere ba-zuen parte gure D. Manuelek. Besteak beste, neri gauza bat gelditu zait gogoan: Oiartzuarraren umore fina. Ez zituen txiste asko kontatzen, bai-na bai politikak. Aiexek ziren polit uts. Politetasuna bera zirela esan daiteke, batere zaborrik gabeak, urte utsa, finak benetan, gorputzik

gabeak esateko. Oraintxe bertan ere, gogoratu utsarekin, irria datorkit eta bat kontatu bear dut. Onelatsu da:

"Bi mutilzaar ziren. Bakar-bakarrrik bizi ziren. Iluntze batean bee-ko suaren ondora bilduta zeuden biak pipa errez. Askorik ez zuten itze-giten, baina zerbait bai. Ala dio batak besteari:

—I, Martioxe.

—Zer duk, Permin? —besteak.

—Zera. Guk muttiko ttiki polit bat bagendu, eta or goiko laino oiek arkaitz aundiak balira, eta or tximinitik beera sartu eta gure mutti-ko ttikia ilko baligute, zer pena! E?

—Bai, motel.

Eta... biak negarrez".

Xinplekeria bat dirudi ipui edo txixte edo delako orrek, baina nork esan obeki, eta nola, bi mutilzaar aundi aien biotzaren xamurta-suna eta biguintasuna? Orrelakoxe gauza politikak kontatzen zituen gure D. Manuelek.

Izan ere, ez aal dirudi gure oiartzuarrak politerako eta ederrera-ko jaioa? Badu amaika pitxi literario utzirik an-emenka, aspaldiko "Eun dukat" artatik asita. Eta zer esan gure erriko artearen ezagutzan eta bilaketan ibili duen begiaz? Baina ez nadin sar sail ortan, ni baino oberik izango baita D. Manuel-en arte-gizon alderdia aztertzeko. Nik, gure gizonaren fintasuna adierazteko bakarrrik aitatu dut puntu ori.

Baina Lekuona "zaarra" bere izaera guzian da fina, egokia, neu-rritsua, xaloa, kunplitua, baina ez prantsez kunplimetuz, gizatasun ede-rrak berekin duen erainu atseginez baizik. Aski da D. Manuel otordu batean ikustea, berarekin elkarrizketa bat izatea edo nolanaiko arreman-etan jartzea, Oiartzungo landare paregabe onen egokitasuna ikusteko. Nik arte-itzetan definitu bearko banu, romanikoan sartuko nuke. Ori da nik gure maixuaz dutan irudia.

Argatik etortzen zait bururá ainbat eta ainbat aldiz, gure gizarte egon-ezin ontan nola jokatu bear nukeen pentsatzen egoten naizenean. Nik ez dakit besteri gauza ori gertatzen zaien, baina nik askotan duda egiten dut nere jokabidetaz, izanetaz eta izan bearrekoetaz. Orduan, nere bizitzan ezagutu eta maitatu ditudan maixuak maiz etortzen zaizkit burura. D. Manuel da oieta-ko bat. Guzian ez bada ere, gauza askotan aren ikasle zuzen izan naiko nuke. Berak ez daki ori, baina ala da. Eta omenaldia egin bear bazaio, egin bekio erabatekoa, eta erabateko or-

tan sartzen dela uste dut puntu au ere. Berak jakingo du nori edo zeri eraman, guk ari ematen diogun eskerra; baina guk berari zor diogu eta ar beza eskerrez bederen, beste modu askotara ere eman bear ziztaion ordaina eta izan ez duena.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Jesus'en bizitza (Asera-aapaldiak)

Lekuona'tar Manuel jaunaren Omenaldirako.

ARANBURU'TAR BIZENTE'K

Emen dijoazten aapaldi oek, gertutzen ari naizen Jesus'en Bizitzaren aserakoak dira. Nai nuken zeaztasunekin argitaratzeko milla aapaldi gutxigi izango ditut. Beraz Jesus'en Bizitza osoa geroagoko batean argitaratu bear ko. Baiñan nere irakasle ta adiskide Lekuona'tar Manuel jaunari zerbait eskeiñi nai bere Omenaldirako. Eta or dijoaz aapaldi bakar oek.

1

Buruausteak eduki ditut
eginkizun on batekin.
Txorakerizko lan bat etzala
asi aurretik banekin.
Bera loretan ikusi gabe
onik ez daukat nerekin.
Eta aurrera jarraitu nai dut
Jainkoaren laguntzakin.

2

Nere lanak zer elburu duan
aitatu nai dut aurrena:
itz neurtuetan azaldutzia
Bizitarik ederrena.
Lan ontarako goiko laguntza
neretzat da bearrena:
atozkit, bada, lagundutzera,
zeruko Aita txit ona.

3

Jesus onaren bizitza dugu
bizitzarik bikaiñena;
kristau guztiok oso sakonki
jakin bear gendukena.
Laguntza eske, Jesus laztana,
Zugana nator urrena:
burua makur, eskatzen dizut
apal zure onespena.

4

Aita ta Seme jaungoikozkoak
agurtu ditudanean,
itxaropena jarri nai nuke
Goi-Espiritu donean.
Biengandikan zatozena Zu,
berdin jainkotasunean:
zure argia jarri eidazu
nere adimen aulean.

5

Gorputz t'anima zeruan zeran
Ama Birjiña maitea:
Zuri deiezka nagokizu ta,
arren, oroitu zaitea.
Zure Jesus'en bizitza nai dut
munduan zabalduzea:
Ama txit ona, etzaitetz aztu
zerutik lagundutzea.

6

Amaren urren, Jose santua,
apal natorkizu Zuri,
Jesukristo'ren Aita ordeko,
Birjiñaren senar garbi.
Lagun nazala eska eiozu
zure Seme laztanari:
ainbeste bider besoetan zuk
erabilli zendunari.

7

Egunik etzan garai aietan
Jaungoikoa bakarrik zan:
iru Persona jaungoikozkoak
Jainkotasun bakarrean.
Neurrigabeko maitetasuna
Aita-Semeen artean:
bien arteko Maitasun orrek
biak batutzen zituan.

8

Maitasun orri deitzen diogu
Goi-Espiritu Santua;
Aita-Semeak diran bezela,
egiazko Jaungoikoa.

Irutasun au sinistutzeko
dala egi betikoa:
Jaungoiko Berak eman deigula
sinismen guztiz sendoa.

9

Jaungoikoaren maitasun garbi
mugarikan ez duanak,
ezeretik atera ditu,
ongi naiez, gauza denak.
Oien artean Aingeruk dira
izakirik bikaiñenak:
oen urrena gizonak berriz
guztietan ederrenak.

10

Aingeru eder eta liraiñak
zeruratzeko aurrean,
beren azkena aukeratzeko
Jainkoak jarri zituan.
Jaungoikoaren gogoia egin
etzuten denak orduan:
zeruan beti bear zutenak
deabru gaur inpernuan.

11

Mundu guztia liburu bat da
nai badegu irakurri.
Berak ederki ematen digu
gure Jainkoaren berri.
Bere egintza arrigarriak
gogoratzen ditunari:
gure Jainkoak egingo dio
adimen barruan argi.

12

Begira zagun adimen argiz
zeru alde ta ludira.
Gure Jainkotzaz mintzo diranak
amaika gauza badira.
Oso arretaz jarrietzkerokero
gauza deneri begira:
gizonek nola ezin iritxi
sinismenaren argira.

13

Eguzki, illargi, milloika izar
ageri zaizkigu goitik.
Oen bitartez gure Jainkoa
mintzatzen zaigu zerutik.
Izugarrizko tarte aundia
denak daukate gugandik:
Egillearen aunditasuna
nabai gentzake emendik.

14

Lareun bat milla kilometro da
bitartea illargira.
Eun da berrogei t'amar milloi
daude berriz eguzkira.
Alaxen ere gugandik dauden
gertunetakoak dira:
arriturikan bat gelditzen da
jartzen danean begira.

15

Irureun milla segundoko da
argiaren abiera.
Millaka urte igaro dira
izar asko agertzera.

Zenbat milloika ez ezagunak
dauden oartzen ez gera:
millaga urte oraindik bear
oiek denak ikustera.

16

Eta zer esan jartzen bagera
aunditasunei begira.
Mundu au baiño milloika aldiz
aundiagoak badira.
Milloi ta irureun milla bider da
aundiago eguzkia:
eguzki eta bere antzekoak
izar txikienak dira.

17

Zalantza gabe lurralde ontan
gizon azkarrak badira.
Estualdi ta lan askorekin
eldu dira illargira.
Illargi ori gugandik dago
ain kilometro gutxira!
Illargiraiño elduarren zer?
ezin eldu eguzkira.

18

Mundu ta beste gauza guztiak
zuzendu zituanean,
Irutasunak itzezin zuan
onela bere artean:
"Orain gizona egin dezagun
gure antz ta irudian:
jaun da errege bera izan dadin
lur osoaren gañean".

19

Adan lenengo, Eba bigarren
egin zituan Jainkoak.
Bi oiek dira gizon guztien
aurreneko gurasoak.
Guraso oiek izan baziran
bear bezela zintzoak:
gizon guztiok izango giñan
beti zorionekoak.

20

Errege ta gai ziran gaiñera
zerua irabazteko.
Grazi ta emaitzez jantzi zituan
Jaungoikoak ortarako.
Agindutxo bat bakar-bakarrik
eman zien betetzeko:
"Ona ta txarra jakiteko zan
arbolatik ez jateko".

21

Aingeru eder zan Luzifer'ek,
orain deabru egiñik,
gure lenengo guraso aiek
galdu arte etzeukan onik.
Suge jantzizko deabru arek
maltzurkeriaz beterik:
iritxi zuan Adan ta Eba'k
jatea arbol artatik.

22

Etzutelako egin nai izan
Jaungoikoaren esana:
gure lenengo guraso aiek
galdu zuten zoriona.
Zoritxar ura eldu zan gero
gizon guztien barrena.
Pekatu orri deitzen diogu:
"Sortzez dakargun obena".

23

Esker txarreko Adan ta Eba'k
galdu zuten zoriona;
berentzat lenen, gero guretzat
gure Jainkoak emana:
grazi ta emaitz, ondasun denak,
berdin illezkortasuna:
Jainkoarekin asarretuta
gaizki geldituz gizona.

24

Pekatuaren zor aundi ori
gizonak ezin ordaindu:
negargarrizko iraiñarekin
Jainkoa zuten samindu.
Gizon guztiak bein betirako
ez zezaten Jauna galdu:
Seme Jainkoak mundu ontara
Salbatzalle jetxi nai du.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA, 1977

Los fueros ante el Rey

DONATO ARRINDA ALBISU

"Guipúzcoa, nobilísimo solar, mantuvo su originaria libertad hasta el año 1.200, en que se entregó voluntariamente al rey Alfonso VIII, el Noble".

Así lo confirmó el rey Fernando VI, el Justo, en una Cédula Real del 8 de octubre de 1752:

Que siendo la Provincia libre, se entregó voluntariamente al rey Alfonso VIII, el de las Navas, el año 1200, "*bajo los antiguos Fueros, Usos y Costumbres con que vivió desde su población*" (1).

Lo cantaba también la copla en el siglo XIV:

"Gipuzkoarrak sartu dira
Gaztela'ko etxean" (2).

Subrayemos la entrega voluntaria de Guipúzcoa al Rey, pero manteniendo ella sus Leyes, porque la Provincia ha estado unida al Rey, pero no sujeta a las Leyes de Castilla.

* * *

La Provincia se gobernó durante mucho tiempo sin Leyes escritas "con la experiencia de ser más eficaz en sus pueblos la persuasión blanda y suave de la costumbre". Pero, al fin, también en los guipuzcoanos debió de prevalecer la idea de que "quod non est in scriptis, non est in historia".

Y Guipúzcoa, "ella misma pidió al rey Enrique II que estos Usos y Costumbres se redujesen a Leyes escritas":

(1) Esta "voluntaria entrega" —y lo ponemos porque así lo dice el libro de los Fueros—, a lo mejor ni fue "entrega" y, menos, "voluntaria". Pero nos sirve, en buena lógica, para el "argumentum ad hominem".

(2) "Los guipuzcoanos han entrado en la Casa de Castilla". Y sigue la copla: "Naparrakin batu dira..." (y comienza la guerra con Navarra).

En el gobierno del rey Enrique II, deseando la Provincia el reparo de los males que se cometían en su territorio, reunida en la villa de Tolosa, el año 1375, ordenó algunas Leyes. Confirmólas su Majestad en Sevilla, el 20 de diciembre de 1375.

De esas Leyes escritas fue formándose el Cuaderno de Ordenanzas, y de éste resultó la "Nueva Recopilación de los Fueros, Privilegios, buenos Usos y Costumbres, Leyes y Ordenanzas".

Estos Fueros (3) ampliados con algunas concesiones reales, los ha disfrutado la Provincia "en atención a sus especiales buenos servicios y acreditada fidelidad en todos los tiempos".

* * *

Si el Cuaderno, el 6 de julio de 1397, tenía "veinte hojas de papel y estaban cosidas con hilo", cuando se dio a la imprenta era un libro de tomo y lomo.

Se editó en Tolosa, con real licencia de Carlos II dada en Madrid, el 3 de abril de 1696, y llevaba por título "Fueros de Guipúzcoa".

Felipe V concedió su aprobación a los Fueros de Guipúzcoa el 30 de marzo de 1702, "sin perjuicio del Real Patrimonio y de tercero interesado". Pero, el mismo Felipe V —el 28 de febrero de 1704—, viendo que "un solar, originariamente libre y libremente unido a la Corona, no puede envolver perjuicio al Real Patrimonio ni a los vasallos, en sus Fueros", suprimió el "sin perjuicio del Real Patrimonio y de tercero interesado".

Fernando VI confirmó y aprobó también los mismos Fueros el 3 de julio de 1752.

(3) La palabra "fuero" tiene varios conceptos y es causa de confusión. —"FUEROS": o privilegios concedidos por los reyes, casi siempre en la fundación de una villa, buscando el desarrollo y promoción de ésta.

No tratamos de estos Fueros.

—"FUERO" o derecho foral tiene como origen el Uso, la Costumbre. Uso y costumbre que se hace LEY.

Ley que se transmite oralmente y que, más tarde, se hace Ley escrita.

De este FUERO tratamos. Fuero que no es privilegio Real, pues existía antes que el Rey. (Guipúzcoa se entrega voluntariamente al Rey con "los antiguos Fueros, Usos y Costumbres con que vivió").

Y el mismo Rey, en Cédula Real del 8 de octubre del mismo año subraya que el volumen de los Fueros fue impreso con pública Autoridad y Reales Aprobaciones. Es él quien señala lo de "especiales buenos servicios" y "acreditada fidelidad en todos los tiempos" de la Provincia de Guipúzcoa.

* * *

La primera Ley, aunque no está asentada en la Recopilación del Fuero, fue la del rey Enrique II, dada en Sevilla el 20 de diciembre de 1375.

Vino luego la del rey Juan I, con fecha 18 de septiembre de 1377 y dada en Burgos. Pero, los asientos en la Recopilación del Fuero comienzan 20 años más tarde, en 1397.

Recogemos la Ley que se refiere al mismo Cuaderno de la Hermandad y también las aprobaciones posteriores que de dicho Cuaderno hacen varios monarcas.

Enrique III: "En nombre de Dios. Amén. D. Enrique, por la gracia de Dios, Rey de Castilla, (...), Señor de Vizcaya, a Vos, el Dr. Gonzalo Moro, Corregidor y Veedor por mí en Guipúzcoa y Vizcaya y en las Encartaciones: SABED que me han informado que los de la Merindad de Guipúzcoa, como los de las Alcaldías de Sayaz, y de Arería y de Aystondo (4), no procuraban guardar la Hermandad que fuera puesta por Enrique, mi abuelo, y Juan, mi padre..."

Y manda al Dr. Gonzalo Moro que vaya a la dicha Merindad de Guipúzcoa, que los haga juntar y vean el Cuaderno de la Hermandad, y que lo que atañe al servicio del Rey y en favor de la dicha tierra, lo firmen. Que él, el Rey, lo tendrá por bien hecho "como si yo mismo lo hiciera".

Añade el Rey: "por esta mi carta mando a todos los de la dicha Hermandad, así de las Villas y Lugares como de las Alcaldías y Tierra llana de Guipúzcoa, que tengan y guarden y cumplan la Hermandad que han firmado. Dado en la ciudad de Avila, a 23 de marzo de 1397. Yo el Rey".

(4) Alcaldía de Sayaz: Aya, Régil, Vidania, Beizama, Goyaz.—Alcaldía de Arería: Lazcano, Ychaso, Olaverría, Gudugarreta, Astigarreta y Arriarán.—Alcaldía de Aiztondo: Asteasu, Soravilla y Larraul.

El Dr. Gonzalo Moro, en cumplimiento de la orden del Rey, viene a Guipúzcoa, "haciéndoles juntar por sus Procuradores en la villa de Guetaria".

Tiene lugar la reunión en el coro de la iglesia de San Salvador de dicha villa. Están presentes todos los Procuradores de la Provincia. Son los siguientes:

Martín Sánchez de Tolosa y Marín Martínez de Durango, en nombre de la villa de San Sebastián; Juan Yáñez de Artazubiaga y Pedro Pérez de Oro, en nombre de la villa de Mondragón; Esteban del Cano y Juan de Ybargüen, en nombre del concejo de Fuenterrabía; Juan Martínez de Anduzqueta y Pedro Ybáñez de Ybargüen, en nombre del concejo de Villanueva de Oyarzun; Martín García de Zaldivia y Pascual Pérez de Mendibel, en nombre de la villa de Tolosa; Juan Ibáñez de Picamendi y Juan Yáñez de Asquizu y Pedro Pérez de Verategui, en nombre de la villa de Guetaria; Juan de Aldaola, Vicario, y Miguel Martínez de Ayzarna y Pedro Mz. de Arangutia, en nombre de la villa de Zumaya; Fernán Migueles de Yrarzabal, en nombre de la villa de Monterreal de Deva; Nicolás Pz. de Ayerceta y Pedro Ybáñez de Ybarrola, en nombre de la villa de Motrico; Juan Martínez de Aldaola y Juan Martínez de Corrano y Fernando de Bilbao, en nombre del concejo de Segura; Martín García de Zaldivia, en nombre del concejo de Salinas de Léniz; Juan Martínez de Veangere, en nombre del concejo de Salvatierra de Yraurgi; Lope Ybáñez de Espuru, en nombre del concejo de Villafranca; Juan Martínez de Amassa, en nombre de la villa de Hernani; Martín Sánchez de Aranzaeta, en nombre del concejo de Maya; Juan Beltrán de Amas, en nombre del concejo de Orio; Fernán Pérez de Lasalde, en nombre de Villamayor de Marquina; Juan Pz. de Lasarte y Ochoa de Paris, en nombre del concejo de Belmonte de Usurbil; Martín Pérez de Urnieta, en nombre de la villa de Zarauz; Juan de Santisbin de Zezenarro y Lope Lz. de Yraeta, en nombre del concejo de Santa Cruz de Cestona; Juan Miguélez de Ysiazabal, en nombre de las colaciones de Andoain; Lope Ybáñez de Espren, en nombre del concejo de Placencia de Soraluze; Pedro Díez de Valsagaray y García Pérez, en nombre de Villanueva de Vergara; Miguel de Atau, en nombre del concejo de Villarreal de Urrechua; Juan Miguélez de Churruca y Juan Mz. de Uribe, en nombre de la villa de Miranda de Yraurgi; Juan López de Tolosa, en nombre de la colación de Urnieta;

Martín Pz. de Montoya y Juan Mz. de Lerinda y Pedro Ybáñez de Ybarrola, en nombre de la Alcaldía de Sayaz; Juan de Larrea, en nombre de la tierra de Asteasu; Martín de Alquiza y Pedro de Eizmendi, en nombre de la Alcaldía de Arería.

En la iglesia de San Salvador de la villa de Guetaria.

Guetaria, 6 de julio de 1397.

Fueron testigos:

García Martínez de Elduayen, Alcalde; Pedro López de Anoeta, vecino de San Sebastián; Juan de Aguirre, vecino de Segura; Lope Ybáñez de Barrundia, Ochoa Urtiz de Orme, Merino; Sebastián de Olasegui, Pedro de Laurcain y Martín de Uzcia, vecinos de Guetaria.

Juan Sánchez de Vejar, escribano del Rey, presente a todo, redacta el Cuaderno.

Al final de cada página escribe su nombre y cierra el Cuaderno con el signo de escribano y con su firma. Nos dice también que el Cuaderno tiene veinte hojas y que están cosidas con hilo.

* * *

Este Cuaderno de las Leyes y Ordenanzas de Guipúzcoa, con las que se regía y gobernaba la Provincia, ha tenido la aprobación y confirmación de todos los Reyes de Castilla y de España... hasta Alfonso XII.

Juan II, Rey de Castilla, (...), Señor de Vizcaya, a vos D. Enrique, príncipe heredero, y a vos, don Alvaro de Luna: SABED que la Provincia de Guipúzcoa me ha presentado el Cuaderno de la Hermandad de dicha Provincia. Y yo túvelo por bien. Y mandé dar esta carta de confirmación, firmada y sellada. Dada en la villa de Arévalo, a 23 de abril de 1453. Yo el Rey.

Enrique IV, Rey de Castilla, (...), Señor de Vizcaya, a los Infantes, Duques, (...) y a los vecinos y moradores de la Provincia de Guipúzcoa: MANDE ver en mi Consejo un Cuaderno de Confirmaciones hecho por el Dr. Gonzalo Moro, el cual visto y examinado con diligencia, se halló ser bueno y justo. Es mi merced el aprobarlo y, por la presente, lo apruebo. Dado en la ciudad de Vitoria, a 30 de marzo de 1457. Yo el Rey.

El mismo Enrique IV da poder a Fernán González de Toledo y a Diego Gómez de Zamora para que vean las Leyes y Ordenanzas de la Provincia. Son dos Cédulas Reales despachadas en Fuenterrabía el día 4 de mayo de 1463:

Que añadan o quiten de las Leyes y Ordenanzas lo que pareciere inconveniente; que las reduzcan a un nuevo Cuaderno, con el que pueda regirse y gobernarse la Provincia en todo tiempo.

Fernán González y Diego Gómez vinieron a Mondragón.

En nombre del Rey y usando del poder Real, y con los Principales de la Provincia, hicieron una Nueva Recopilación "para ahora y para siempre jamás".

Y mandaron de parte del Rey que toda la Provincia de Guipúzcoa, "en las cosas y hechos tocantes a la dicha Hermandad, sea regida y gobernada y juzgada por las dichas Leyes y Ordenanzas".

Estaban presentes los Procuradores y Alcaldes de la Provincia. Mondragón a 13 de junio de 1463.

* * *

ISABEL LA CATOLICA

Fijémonos detenidamente en la aprobación y confirmación que de los "buenos Usos y Costumbres" hace la Reina Isabel, la Católica. "Si me reconocéis por vuestra Reina, mantendré vuestros Fueros", dice Isabel.

"Si aceptas nuestros Fueros, serás nuestra Reina", contesta Guipúzcoa. Es la condicional que siempre mantiene la Provincia, desde Alfonso VIII, el de las Navas, hasta Juan Carlos I: "*SERAS NUESTRO REY SI ACEPTAS NUESTROS FUEROS*"

Isabel, la Reina, manda a Guipúzcoa dos Comisarios, Antón de Vaena y Bartolomé de Zuloaga, para que, ante el Escribano de la Provincia de Guipúzcoa, D. Domenjón González de Andía y ante todos los procuradores, Hidalgos de las villas, lugares y alcaldías, haga leer, por el Escribano, dos cartas de la Reina, selladas y firmadas con su nombre.

La Junta se reúne en el campo de Basarte, Azcoitia, el día 2 de enero de 1475.

Primera carta:

Dice en ella la Reina Isabel:

Que hace unos días ha muerto el Rey, su hermano.

Que en Segovia le han reconocido fidelidad y lealtad a ella, como Reina y Señora.

Que eso mismo espera de Guipúzcoa, "por la lealtad de esa Provincia". Y añade:

"Alceis pendones por mí, reconociéndome por Reina y al muy poderoso Príncipe, el Rey D. Fernando (...), y yo les haré el juramento de guardar vuestros Privilegios, buenos Usos y Costumbres...".

Segovia, a 8 de diciembre de 1474.

Segunda carta:

La Reina Isabel da "poder cumplido" a sus dos Comisarios para que, recibida la fidelidad y obediencia y el juramento de homenaje de Guipúzcoa a la Reina, puedan éstos prometer y prometan, en nombre de la Reina, "guardar y confirmar sus Privilegios, Instituciones, buenos Usos y Costumbres, según que los tuvieron y tienen de los Señores Reyes de gloriosa memoria. Y yo la Reina guardaré y mandaré guardar".

En Segovia, a 15 de diciembre de 1474. Yo la Reina.

Leídas las cartas, la Junta toma tiempo para deliberar. Pero, ya adelanta, por medio de los Procuradores de Guipúzcoa, que obedecen las cartas de la Reina. Que harán lo que cumpliere al servicio de su Alteza y al bien común, libertad y exención de la Provincia.

Fueron testigos:

Juan López de Recalde y Gonzalo Martínez de Vizcargui, vecinos de la dicha villa de Azcoitia; Pedro Ybañez de Otalora y Juan Martínez de Olaverrieta, vecinos de la villa de Azpeitia; Pedro González de Andía, vecino de la villa de Tolosa.

Azcoitia, 2 de enero de 1475.

* * *

Trece días más tarde, el 15 de enero de 1475, y en el mismo campo de Basarte, los Procuradores de la Provincia de Guipúzcoa, a los

Embajadores y Mensajeros de la Reina Isabel —Antón de Vaena y Bartolomé de Zuloaga— exponen:

Primero: Que aprueben y confirmen el Cuaderno de Ordenanzas y Privilegios que la Hermandad tiene.

Segundo: Que si aprueban los Privilegios y Libertades de la Provincia, prometan, por virtud de los poderes que tienen en nombre de la Reina, que Ella y el Rey guardarán y confirmarán todo ello.

Antón de Vaena y Bartolomé de Zuloaga, Embajadores y Mensajeros de la Reina Isabel, aprueban y prometen, en nombre de su Señoría, que su Alteza guardará, cumplirá y confirmará todo lo susodicho. Y lo firman.

Azcoitia, 15 de enero de 1475.

* * *

Fernando e Isabel: D. Fernando y Doña Isabel, Rey y Reyna de Castilla, (...), Señores de Vizcaya, a la Junta y Procuradores de la (5) Noble y Leal Provincia de Guipúzcoa: NOS han hecho saber de que teneis Privilegios de los Reyes nuestros progenitores, confirmados y guardados hasta aquí. Que nos suplicasteis que mandemos confirmar y aprobar dichos privilegios.

NOS tuvimoslo por bien, y mandamos dar y dimos esta Carta por la cual aprobamos y confirmamos los dichos Privilegios, para que de aquí en adelante os sean guardados como los habeis guardado hasta aquí.

Dado en la ciudad de Tarazona, a 20 de marzo de 1484.

Yo el Rey. Yo la Reina.

Carlos V: Por cuanto que la Junta y Procuradores de (6) la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa nos informaron que teneis Privilegios y Ordenanzas confirmados por los Reyes nuestros antecesores;

Y nos habeis pedido que los confirmemos;

NOS, por la presente, os confirmamos y aprobamos dichos Privilegios, buenos Usos, Costumbres y Ordenanzas.

Hecho en Bormacia, a 23 de mayo de 1521.

(5) Guipúzcoa: "Noble y Leal": Enrique IV, el 16 de febrero de 1466, en Segovia.

(6) Guipúzcoa: "La Muy Noble y Muy Leal Provincia": Carlos V, el 23 de Junio 1525 (en Toledo).

* * *

De estas confirmaciones Reales, que se guardan en el Archivo General de la Provincia de Guipúzcoa, da fe y certifica D. José Garmendia, Escribano de su Majestad, vecino de Tolosa y Archivero General de la Provincia.

El mismo Archivero certifica que la Recopilación de dichas Ordenanzas, Leyes y Privilegios, repartidos en 41 títulos del Libro de los Fueros, están tomadas al pie de la letra de dichos originales. Y que han sido cotejados.

Tolosa, 4 de mayo de 1692.

A su vez, D. León de Aguirre y Zuurco, Secretario de su Majestad, certifica:

Que D. José Garmendia es Escribano del Rey, y uno de los del número de la villa de Tolosa y Archivero General de la Provincia.

Que en virtud y orden que se le dio por la Provincia, D. José Garmendia ha sacado y copiado los Fueros y Ordenanzas de dicha Provincia.

Que el signo y firma, donde dice "José Garmendia", es el que siempre ha hecho y suele hacer en todos los papeles auténticos.

Y que da la presente "ateniente al dicho testimonio para donde convenga".

Tolosa, 5 de mayo de 1692.

D. León de Aguirre y Zuurco.

* * *

Así ha estado la Provincia de Guipúzcoa, durante siglos, recibiendo la aprobación y confirmación de sus Fueros "por los Señores Reyes, nuestros predecesores".

Fueros que eran "convenientes a la subsistencia de esa Provincia, a la defensa de la misma, al ejercicio de la justicia y al buen gobierno que debía practicarse".

Fueros que, reiteradamente, fueron confirmados "atendiendo a los muchos, buenos y leales servicios que esa nuestra Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa ha hecho en todos tiempos a esta Corona".

* * *

Pero se cometió la injusticia.

Una injusticia que lleva tres fechas: 1839, 1876 y 1937.

Una injusticia que lleva estos nombres: Isabel II, Alfonso XII y Francisco Franco.

* * *

La casa Lizargárate de Oyarzun lleva su escudo con este mote: FORUAGATIK MALEA (Malea por el Fuero).

Estas palabras están resonando durante más de 100 años, como grito de protesta, pidiendo que la injusticia se repare.

* * *

En Estoril, en el jardín de "Villa Giralda", residencia de los Condes de Barcelona, crece un retoño del Arbol de Guernica.

Lo llevó desde tierras vizcaínas el entonces Príncipe Juan Carlos, actual Rey de España y bisnieto de Alfonso XII.

Ojalá que ese retoño del Gernika'ko Arbola, símbolo de los Fueros vascos, dé un respiro a nuestra esperanza.

(Del libro "LOS FUEROS", que el autor prepara en homenaje a Don Manuel Lekuona).

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA - III - KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Areizaga apaizaren egoaldeko ibillerak

ATAUN'GO BONIPAGI A. (O. F. M. CAP.)

ABERASTASUN BILLA

Aberastasunaren egarriak neke aundiak eginerazi dizkio gizonari.

XVI mendearan asieran, eguzkialdean, Moluka itxasoko ugarteetan, berealdiko aberastasunak ziralako ota ibilli zan Europa guzian.

Itxasalde artara joan ziteken Afrikako egoaldetik barrena, eguzkia ateratzen dan aldera. Portugaldarrak ziran, ordea, bide orren jabe; eta aiekin topo egin gabe, ugarte aietara eguzkia sartzen dan aldetik joatea asmatu zuten espāñolek. Orretarako, Ameriketako lurralde luzearen arunzko aldera joan bear zan, eta igarobidea arkitzeko oso egoaldera jo bearo zan.

Moluka ugarteetarako lenengo joanaldia 1519 urtetik 1522 urtera egin zan. Joanaldi artako nagusi Hernando Magallanes portugaldarra izan zan, eta aren bost itxasontziako 264 gizonen artean baziran 23 bizkaitar, 10 gipuzkoar eta iru napar. Gizon aien guzien artea ospetsuena, joan-etorri osoa egin zuena, Joan Sebastian Elkano, Getariko semea, degu. Joanaldi orrek galera aundiak izan zituen ontzietan eta gizonetan.

Alare laixter eratu zan bigarren joanaldia, Joan Sebastian Elkano-ren eragiñari esker. Joanaldi ortarako zazpi itxasontzi egin ziran: iru La Coruña uriko ontziolan eta lau Portugaletekoan.

Joan Sebastian Elkano ibilli zan geienik joanaldi ortarako gizonak biltzen, eta 450 gizonen artean euskaldun asko zan, geienak gipuzkoarrrak. Elkanok bere etxetik bildu zituen bere iru anai eta aiekin batera: Santiago Gebara ezkonanaia, Arrasatekoa, Martin Iniguez Karkizano, Elgoibarkoa, Andres Urdaneta, Ordiziako mutil gaztea, Joan Areizaga apaiza, Urretxuakoa, Gebararen lengusua...

Bigarren joanaldi ortako buruena Frey Garcia Jofre de Loaysa izango zan, Kastillako erregeak ala erabakita, eta bigarren, Getariko Joan Sebastian Elkano. Ontzi aundiena "Santa María de la Victoria" zan, eta bereartako kapitan Loaysa izango zan. Bigarren ontzi aundiena "Sancti

Spiritus" izenekoa zan, eta aren kapitan, Joan Sebastian Elkano. Ontzi txikiena "Santiago" patatxa zan, eta aren kapitan Santiago Gebara izango zan, eta arekin batera ibilliko zan Joan Areizaga apaiza.

ITXASO ZABALEAN

Loaysaren ontzitalda La Coruña uriko kaian bildu zan, eta 1525 urteko uztaillaren 24'garrenean, aizeoialak eraiki eta itxaso zabalera atera zan eguzkia sartzen dan aldetik eguzkialdera joateko asmoan. Etzan orixe lan erreza izango.

Lau illabete luzeak bear izan zituzten Ameriketako lurra Brasilen ikusteko. Abenduaren 28'an La Plata ibaiaren sarrera aldean ziran. Gau artan berealdiko aize eta ur ekaitza sartu zitzaien, eta ontzi nagusia, "Santa María de la Victoria", izkutatu zan. Beste sei ontziak iru egunez aren billa ibilli ziran eta etzuten arkitu.

Aurretik ala erabakia zutenez, sei ontziak jo zuten egoaldera, eta lenengo gauean "San Gabriel" ontzia galdu zitzaien. Beste bost ontziak 1526 urteko ilbeltzaren 12'an iritxi ziran Santa Cruz ibaiondora eta 14'an, "Río Gallegos"ko bokalera.

Buenos Aires'tik Río Gallegos'era 2.800 kilometro dira gutxi gorabera; eta andik "Virgenes" lumuturrera, 90 kilometro gutxi gorabera. "Virgenes" mutur orrek erakusten du "Magallanes" itxasatakaren sarrera.

"Río Gallegos"ko bokalaren iparraldean bada "Buen Tiempo" izeneko lurmuturra, eta mutur onek "Virgenes" muturraren antz aundia du. Orregatik edo, itxasadar ura "Magallanes" itxasataka ote zan ala ez, dudamudan gelditu ziran gure gizonak, bat baiño geiago leenago an ibilliak izan arren.

ITXASATAKAREN BILLA

Joan Sebastian Elkanok zortzi gizon bidali zituen batel batean, ibaian gora, itxasataka zan ala ez ikusteko. Gizon aietakoak ziran Joan Areizaga apaiza eta Martin Elkano, Joan Sebastianen anaia. Itxasataka andik zala igartzen bazioten, iru su egin bear zituzten ontzietako gizonai adierazteko.

Ibaian gora zijoazela, asi ziran gure gizonak eztabaidan: Bustamante eta Roldan'ek, leenago an ibilliak biak, itxasataka zala ura eta iru suak egin bear zirala; Areizaga apaizak eta Martin Elkanok berriz, ura etzala itxasataka eta suak etzirala egin bear obeto ikusi arte. Eztabaidak lau gizonak irten ziran bateletik legorrera, beste lau gizonak batela zaintzen utzita. Bazala eta etzala, iru bat leguako bidea egin zuten oiñez, eta noizbait ere etsi zuten lauak urbide ura ibaia besterik etzala.

Bitartean, bateleko gizonak etzirala ageri eta surik ere etzutela egiten ikusirik, ontzietakoak itxasoaldera jo zuten itxasatakaren billa, zortzi gizonak legorrean utzita.

Areizaga apaiza eta bere iru lagunak itzuli ziran batela utzi zuten tokira eta, urberaldia zalarik, batela uretik urruti, ondarra jota, arkitu zuten. Ugoraldiaren zai egon bearra izan zuten itxasaldera joateko. Gau artan urak goraldi gogorra izan zuen, eta batela, ibai baztarrean, urez beteta, ondaturik gelditu zitzaien. Eta zortzi gizonak, batela legortu eta ibiltzeko eran jarri arte, bost egunez, ibai ondoan ibilli bear izan zuten, belar zuztar batzuek eta ibaian bildutako maskulluak janez.

Ibai erdiko ugarte koskor batetik ibai baztarrera jan billa txori asko zetorrela ikusita, bostgarren egunean bereartara joan ziran zer ikusi eta txori asko arkitu zuten. Baziran uso antzeko egazti zuri batzuek, moko eta anka gorridunak, eta beraietako asko il eta bildu zituzten gerrogo jateko. Ugarte beraren beste alde batean ikaragarritzko itxasantzarrak arkitu zituzten. Aietatik ere il zituzten nai zituzten guztiak, eta danakin batela bete zuten aal guztian. Eta abiatu ziran ibaia beera, ontzietako lagunak billa; eta egun berean iritxi ziran bokaleraño. Eguraldi txarrak etzien utzi ixasoratzen, eta batela ondarreratu eta eak ere legorrera irten bear izan zuten, gaua bertan igarotzeko. Ontzien arrastorik etzan.

Biaramon goizean, uretaratzeko asmoetan zebiltzalarik, Joan Sebastian Elkanok aien billa bidalitako bost gizon agertu zitzaizkien eta aren eskutitza ekarri zieten. Eskutitzak adierazten zien beste lagunak itxasataka barruan zirala, "Sancti Spiritus" ontzia ondatu egin zala eta, eskutitza irakurri ondoren, ontzia ondatu zan tokira bildu zitezela.

Batela eta egaztiak antxe utzi eta bertatik lotu zitzaizkion bideari. Bide latza zan: ez mendikoa; bai, ordea, txarakadi beltz eta zuaitz askokoa. Eta ala egin zituzten ogei legua bide neketsu artan.

"Sancti Spiritus" Elkanoren ontzia ondatu zan tokia, "Magallanes"

itxasatakaren sarreran, "Virgenes" lurmuturretik gertuko itxaszokoa da; eta Areizaga apaiza eta bere lagunak ara iritxi ziranerako, Joan Sebastian Elkano beste ontziak babes tokira eramatera joana zan.

"Sancti Spiritus" ontziaren ondaketa ilbeltzaren 14 gauean gertatu zan. Bederatzi gizon ito ziran, eta beste guztiak ere larri-larri ibilli ziran. Bizirik atera ziranak izpazterrean zeuden, artarako egin zituzten txabolaen aterpean, Joan Sebastian Elkanok agindu bezela, ontzietakoen bat jasotzera etorrizai. Aiengana bildu ziran Areizaga apaiza eta bere lagunak.

Ilbeltzaren 24'an agertu ziran, "Virgenes" lurmuturretik zear, galdu usteko "Santa María de la Victoria" eta "San Gabriel", eta aiekin batera "Santiago" patatxa. Santi Gebara kapitana, Areizaga apaiza ontzira jasota, Loaysarengana joan zan, "Sancti Spiritus" ontziaren ondamenaren berri eman eta ingurune ura arrisku aundikoa zala eta aurrera jarrai zezala esatera; eta iru ontziak zuzenean, itxasatakaren barrenean, "Virgenes" lurmuturretik ogei bat leguatar, iparraldeko izpazterrean dan zokoaren babesera joan ziran.

Biaramonean eldu zan Joan Sebastian Elkano bi karabela ta "Santiago" patatxarekin, bere ontzi ondatuaren gizonak eta gauzak jasotzera. Jendeak gogor lan egin zuen, legorrera bildutako, gauza guztiak ontzietan sartzen. Eta lan ori bukatu orduko, berealdiko ekaitzak eraso zien. "Santiago" patatxa bereartako erreka baztar batean sartu zan. Beste ontziak itxasoan aurrera joan bear izan zuten, itxaso baztarrean aizeak ondatu etzitzan. "Santa Maria del Parral" karabela, Jorge Manrique de Nájera kapitanarekin, sartu zan nolabait ere itxasatakan barrena; "San Lesmes" karabela berriz, Francisco de Hoces kapitanarekin "lurraren azkeneraño" (Cabo de Hornos) eraman zuen aizeak. Babes ustean ziran beste ontziak ere kalte aundiak izan zituzten ekaitzaldi ortan; batez ere, Loaysarena erdiondaturik gelditu zan.

Urrengo egunean, bildu ziran ontzietako kapitanak eta, itxasatakan aurrera jarraitu baiño leen, guztiak Santa Cruz ibaira itzuli eta ontzi nagusia berritu bear zala erabaki zuten.

Alatan, bost ontziak Santa Cruz aldera jo zuten. Bidean, ordea, "Anunciada" ontziak, otsaillaren 12'an, besteak utzi eta iges zuen bere bidetik, eta ez omen zuen iñork geiago ontzi aren berririk izan.

LARRITASUN AUNDIETAN

Anartean, "Santiago" patatxekoak beren errekabaztarrean zeuden, eta etzekiten batere ekaitzaldian beste ontziaz gertatua, eta nora jo etzekitelakoan ziran. "Victoria" zokoan izan bear zutelako ustean, Gebara kapitanak eta Areizaga apaizak erabaki zuten apaiza bere beste iru lagunekin buruenarengana joatea lau egun eta ogei leguatarako otamenaekin.

Abiatu ziran gure lau gizonak izpazterretik aurrera, eguzkia sartzen dan aldera, ibilli eta ibilli. Bidean etzuten ikusi igeska zijoazen piztitzarren batzuek besterik; eta laugarren egunean eldu ziran "Victoria" itxaso zokora eta an etzuten iñor arkitu.

Legua bat aurrerago joan ziran eta patagoi jendearen bizileku eta txabolategi aundia arkitu zuten. Patagoi jende orrek amairu arraeko gizabetea ba omen zuen. Gizaseme ta emakumeak neurri batekoak omen ziran. Gure gizonak ara agertu ziranean, txabolaetan emakumezkoak besterik ez omen zan. Gizonezkoak eizera joanak omen ziran. Emakume guztiak atera omen ziran gure gizon oien aldera eta oska eta keiñuz bertan gelditzeko esaten omen zien. Gure gizon oiek ere asi omen ziran, izkilluak lurrean utzita, "O! O! O!" oska eta besoai eragiñez; eta batzuek besteengana eldu ziralarik, bereala asi omen ziran guztiak batak bestea maitetasun aundiz besarkatzen. Kristau aietako iñor ez omen zan irixten buruarekin ere emakume aien lotsakizunetaraño, ezta eskuarekiñ burugaiñeraiño ere. Alare, Areizaga apaiza etzan nolanaiko mutil koskorra, gizapuska aundia zan.

Koskabillo, jostorratz eta beste zenbait gauzatxo eman zizkien emakume zentoi aiei; eta jolas aundiak egin omen zituzten, koskabilloak belauburuetan jantzita. Gero, txabolaetara eraman zituzten eta andre aundi aiek oso abegi ona egin omen zieten gure gizon txikiak.

Eldu ziran andre aien gizonak eizetik. "Tapira" bat (txerri antzeko piztia) zekarten ilda. Senarrak agertzen ikusi beziñ laixter, andreak irtzen zitzaizkien bidera, eta jakiñerazi zieten txabolategira lau gizon txiki nola agertu ziran.

Gizon zentoiak besarkatu zituzten gure lau gizonak, eta bereala asi ziran ekarritako eizakia ebaki eta gordiñik jaten. Apaizari eman zioten bi librako puska bat eta berak, gordik jan nai ez ta, sutan jarri zuen

eta ez arritu eundalako itz-zerrenda luze bat entzutea: bai, gaurko gizarzte ta erri-arazoak, diru-kontu ta jakintza-gora-beren egoerak eta abar ori eskatzen dutela alegia. Aa!! itz oiek aundi ta dotoreagoak dira... "itxurazkoagoak".

Ala ta guziz ere, ezertarako ba-zenituzke edo... itz bi esan nai nizkitzuke.

—Erlijioa, gizakiaren ezagutze bat da, ots: gu guzian eta gauz guzian Egille ta Jabe degun Jaungoikoa, ba dala ezagutzea.

—Uka eziñezko ezaguera ortatik, berez sortzen zaizka gizakiari eginbear batzuek; eta eginbear oiek betetzea, orixe da erlijioa.

—Erlijioa, gogapen uts eta irudikeri bat besterik ez izatea nai ez badegu, gizakiak Jaungoiko orren menpean bizi bearra dauka; ez itzez bakarrik, baita egitez ere.

—Erlijioa ez degu gizonek asmatutako zerbait, gizakiaren izakera-ri berez dagokion zerbait baizik.

—Erlijioa agertu, Jaungoikoarekin arremantetan jartzen gaituen itz, egite ta jarreraz agertu bear degu. Orrixe deritzaio yauresketa edo gurtza.

Itz batean; gizakiak yauretsi edo gurtu bearra dauka bere Jaun da Jabea.

Ori ontzat ez artzea,
oixe da Jainko-gabea;
Jainko-ukatzallea izatea;
Ez bere buruaren jabea.

LEKUNA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Lurdes'ko egia

BERGARETXE'TAR JUAN JOSE

Gure On Manuel'en omenaldi-idaztirako nik ere lantxo bat egiteko eskatu zidatenian, nere aurtengo oporraldiaren zati on bat Lurdes'en igitzeko asmoetan nebillen, eta gai jakiñik izentatu ez zidaten ezkeru, auxe esan nion nere buruari: Antxe bertan, Lurdes'en, egingo det nere lana, Lurdes bera gai artuaz. Zer egokiagorik neretzat Massabielle'ko arzulo bedeinkatuaren aurretik, otoitz bero batekin batean, gure irakasle izanaren eta danarentzat, nere idatz-oparitxoa eskeñi al izatea baño?

Naizta irakurleak, bearbada, jakintsukeriaren usaia artu lan onen izen-buruari, aipatu dedan egi ori, jakintza bide soilletik ateratako ondorena baño, sentipenen lore-baratzan bildurako txorta izango da neretzat. Eta, sentipenak ere badu bere egia!

Paul Claudel, gizon leñargi eta idazle ospatsuak, auxe utzi zuan idatzita, Lurdes'ko gertakizunari buruz: "Ama Birjiñak munduari Lurdes'era deitzean, Bernardatxo'ri lez, lurreko belarra jatera eta bertako lokatz-ura edatera deitzen dio, au da, maitasun uretan bustialdi on eta apal bat artzera; bataioko uren antzo, gure anima au ere sakonki garbitzen duten ur auetan murgiltzera; bai, Jainko beraren irudia dan anima auxe, Berak bakarrik ezagutzen duana eta ainbeste maite duana. Jainko berak deitzen gaitu Lurdes'era, Bere errukiaren billa".

Guztion ezaguna dan Gilbert Zesbron'ek berriz orra zer dion: "Auxe esango nieke gogoz kristau guztieri: Inñolaz ere ez zaitezela ara ibiltari uts bezela juan, ez eta ikusmiraz ere. Ez duzute orretarako esku-biderik. Juan zaitezte Lurdes'en biotz barrura, bada eun da geiago urteren buruan, toki ortan, milloika ta milloika gizon da emakumek atsekabea erruz jasan dute, otoitz egin dute, itxaron izan dute, alkarri lagundu diote... Au dalata iritxi da Lurdes gizadiaren tokirik bikañeneta-ko bat izatera. Bereala somatzen da ori ango arnas-aizean bertan".

Lurdes'ko egia aipatzean, Pilatos'ek bezelatsu erantzungo luteke gaur zenbaitzuk, egia zer da? esanaz.

Izakien eta gertakizunen egi osoa astertu eta ezagutzea ez da be-

netan lan erreza. Izan ere, izaki bakoitzak ainbeste alderdi dauzka nundik begiratu!, eta danak astertu bearrekoak, gauza, ondo, zeatz eta osoro ezagutuko bada. Lojika ikastean, izaki bakoitzak ogetabostmilla alderdi dituala errepikatzen zigun eten gabe, orduan gure irakasle zan, On Manuel'ek. Eta ala izan ere! Badira ordega gauzak, euren aurpegi guztiak erakutsi gabe ere, daukaten zera, nortasuna eta bikaintasun nabarmenak garbi aurkezten dituztenak. Zenbat alderditik begiratu bearra ote dauka eguzkiak, guretzako aski dan neurrian, bere izatasuna erakusteko? Edota illargiak, gizonak bere oñak arengan jarri bearra ote zuan, bere egitekoaren berri guri eman al izateko? Erromatarren eunkari edo zenturionak etzuan izan Jesus'en bizitza osoa ikasi bearrik, Kalbario gañean Au benetan Jainkoaren semea zan" aitortzeko. Aren eriotza besterik etzuan ziurki ikusi, eta ala ere, "Ni naiz egia" esan zuan ura bera bapatean ezagututa gelditu zan aren baitan.

Lurdes'ko gertakariari buruz, auxe bera esan genezakela iruditzen zait, eta aski dala, ango egiaz jabetzeko, bertara ikustaldi bat egitea, aren biotzera alegia, Zesbron'ek dion bezelaxe; bada eguzkirik argi ta beroena ere ez du ikusiko leize zuloan eskutatzen danak, edota begiak ixten dituanak. Lurdes'era jua egin bear da, ango egia somatu eta ikusiko bada. Eta jua ere onelaxe: aurre-iritzi guztiak etxian utzita.

Sarri xamar izandu naiz Lurdes'en. Geienean egun bat edo biko ikustaldia egiñaz. Bañan oraingo ontan amar egun igaro ditut bertan. Ze pozik egongo nitzan beste amarrean! Au dalata beraz, badur eskubide, nere ustez, an gertatzen danari buruz zerbait adierazteko, batez ere toki artan bein ere izan ez diraneri, eta oraindik geiago, an sekula ankarik jarri gabe, Lurdes'en aurka ari diraneri.

Lurdes'ko gertakizunaren asiera, edo Subirus'tar Bernardatxo'ri gertatua, zeatz, sakon eta leiatsu aztertua, miatua, astindua eta azkenian baietzua izan da, eun da geiago urteren buruan, gizamota asko ta ezperdiñen aldetik, sinismendun eta baita sinisgabeen aldetik ere. Elizgizonak, errigizonek, jakintsuek eta ez diranek, asko eta asko izan dira, kupida gabe zorrotz, persona eta gertakizunak epaitu dituztenak. Bernardatxo bera nola erabilli zuten, bere bizi-denpora guztian! Arrezkero gertatzen diran mirari-usteko guztiak, nola aztertu eta epaitzen dituzten!

Ezer gutxi naiz ni nere aldetik Bernardatxo'ren Ama Birjiña "ikus-te" ura nolatariko ikustea izan zan, aztertzen asteko. Lan ori ez da erreza, inñundik ere: Ama Birjiña an aitzuloan ala Bernardatxo'ren buruan

eta nola ikusi zuan, alegia, aur xalo eta tolesgabe arek. Edozeinetara ere, guk ikusten degun guztia, naizta begiak kanpoko izakietatik irudia jasota izan, ikusi, gure buru barruan egin oi degu beti. Eta aski degu begietatik burura dijuazen bideak eta lokarriak ebakitzea, begirik osasuntzuenaz ere, ezer ez ikusteko. Gu egin ginduzanak berriz ondo daki onen berri, eta Berak naita beste gabe egin lezake, gugandik at gorputzki bearrik gabe, gure buruan Berak nai duan irudia sortu eta ikusi-arazteko, egoki dana. Eta irudi egizkoa noski. Onela izan ba-zan edo ez, xeetasun onek gutxi ajola digu orain. Gauza bat ikusten da emen garbi: Bernardatxo'k bere aurrean edo buru-barruan bakarrik zeukan ura Ama Birjiñaren, Jesus'en Amaren, irudia izan zala eta irudi arrek itz egin ziola, eta neskatxak ondo ulertzeko itzak esan ere. Baita ere, itz aien bitartez, albiste arrigarriak adierazi zizkiola, albiste bezela Bernardatxoren burutik inñolaz ere urten ezin zitezkenak: Sortze Garbia zala bera; ikusten ez zan putzuan ura edateko eta bertan garbitzeko —eta or nun Bernardatxo'k, irudiak adierazitako tokian, atzamartu ondoren, sortzen da, ordurarte inñork esagutzen ez zuan iturri ugaria—; pekatarien alde otoitz eta baita penitentzia ere egiteko; jende talde aundika, prozesioan, ara juatea nai zuala ere adierazi zion egun batez. Eta lendabiziko agerketaren aurretik Bernardatxo'k nabaitu zuan aize-otsa?... An inguruko zugatz eta sasirik astindu ez zuan aize durrunda ura? Pentekoste egunean, Jerusalem'en, ez al zan orixe bera gertatu Espiritu Santua jetxi aurretik?

Auxe entzun nion bein gizaseme bateri, Lurdes'ko agerketari buruz sinismenik ez zuala agertu naian, izketan ziarduala: "Bernardette'k gosea galanta eukiko zuan, eta jakiña, era ontan edozer ikusi oi da". Eta entzun ere bai noski? Orrela baldin ba-zan, etzeukan ez gose makala. Bañan orra orain nere galdera: Goseak orrenbesteraño auldutako aur gajoa nola jua ere egin ote zan bere etxetik Massabielle'ko artzuloraño, inguru artan txotxabarrak bildu, bizkar edo buru gañean artu eta berriz etxera biurtzeko asmoan? Ala, goseak begi-bixta bakarrik aultzen ote du? Eta errosario osoa belauniko, —arreta aundiz gañera—, erreza-teko, nundik atera ote zituan indarrak goseak ainbesteraño makaldutako aurrak? Bernardatxo'ren etxeok aseak bizitzeko askoren bearrean arkitzen ba-ziran, ere, ez du inñork esan artaraño gosean bizi ziranik.

Ondorenak garbi erakutsi zuan Bernardatxo'k emezortzi alditan ikusi eta entzun zuana ez zala gezurra izan, ez bere aldetik eta ez azaldu

zitzaion irudiaren aldetik ere. Jaungoikoaren gauzak beti arrigarri eta askotan ulergaitz dirala eta izango zaizkigula sinisteko gertu baldin ba-gaude, Massabielle'ko arzuloaren inguruan Jainkuaren eskua bereziki dabillega ikustea ez zaigu oso zail izango.

Bernardatxo'k, ain ezjakiña izan da ala ere, eman zituan erantzunak burua oso bere tokian zeukanaren erantzunak izan ziran, gertakizunari buruz itz egitera beartu zuten guztian. Pentekoste ondorenean, apostoluen itzaldi miraritsuak entzun zituztenen artean ere, izan ziran apostoluak "edanta" zeudela esan zutenak. Oraindik goizeko bederatzirak jo gabe, eta dagoneko "edanta"?...

Gezurrian arrapatzeko edo burua naastu-araziaz, gertatua itxuragabetzeko asmoz, zenbat oztopo bide jarri zizkioten, Bernardatxo berak beste inork ez du jakingo. Diru opari bidez erosi ere nai izan zuten, bein baño geiagotan. Bañan Bernardatxo beti berean, eta beti argi eta berdin ematen zuan ikusi ta entzunaren berri. Eta bai inoiz erantzun zorrotz eta politik eman ere. Egun batez, argazkia atera nai omen zioten. Garai artan argazkintza aurkiberria zan munduan, eta orduerdi inguru bear omen zan geldi-geldi egonda, argazki leiarrean irudia sortu-arazteko. Asmo onekin, argazkilariak, bear zan denporan Bernardatxo geldi eukitzearren, onen burua zurezko euztai bateri lotu omen zion. Era ortan Bernardatxo geldi bai geldi omen zegoen; nola ez ba? Bañan nolatan irriparre egin egokera artan?... An omen zan bere erretore zan Peyramal jauna ere, eta ikusirik onek neskatxaren aurpegi errukarria, onela esan ei zion: "Egizu irripar, Anderea aurrean ba-zendu lez". Bernardatxoren erantzuna: "Esaiozu etortzeko, erretore jauna!".

Gertatu guztiaren testigantzarik ederrena bere bizitzarekin egin zuan Bernardatxo'k. Aldareetara jasoaz izateraño bizi santua eramanez zuan il zan arteraño. Gaxotasuna, iraiñ mingarriak eta gurutz-bidea eten gabeko lagun izan zituan mundu ontan bizi izan zan bitarte guztian. Bai ondo egiztatu ere Ama Birjiñak berari agerraldi baten esana: "Ez dizut agintzen ludi onetan zoriontsu izango zeranik, bañan bai bestean". Ogeitaamabost urte zituala juan zan mundu ontatik zoriontasunera.

Emen gelditzen da guretzat berak asiera emandako Lurdes: Oñaze toki, otoitz toki, itxaropen toki... Paul Claudel'en itzekin esanda: "Guztiok batean Jaunaren errukia eskatzeko eraikitako toki aparta... Ez gera emendik juango, Jauna!, zure onespina artu arte!".

Eta zugaitza bere fruetatik ezagutzen baldin ba-da, ona emen Lur-

des'ko zugaitzak eskeintzen dizkigun frutuak, danak Jesus'en lagun kurtinak, denak Beronek, aginduz edo konsejuz, Ebanjelioan guri emanak. Danak beraz, frutu onak, santuak, Jainkozkoak.

Lurdes oñaze toki. Oñazea aragi bizian ikusi nai duana etorri bedi onera. Azken aldi auetan, urteoro, irurogei milla inguru gaxo etorri omen dira Lurdes'era. Zenbatu ditzagun al badegu, eun da amairu urteren buruan bertan bildu diran guztiak, gaxo ta elbarri, eta antzeman gero munduaren nungo bastarrean bildu ote zitezken beste ainbeste negar-iturri, eritegiak alde batera utzita, alegia. Itxura baten, guztiak sendakuntza billa, edo gaxotasuna ondo eramateko indarraren eskean. Eta baita askok iritxi ere bata edo bestea. Bañan kristautasunaz at oso arrigarria dan beste eskabide bat egiten omen dute anitzek Lurdes'en, zera: leen baño oñaze geiago izatea!, eta ori Kristo'ren antz aundiagoa izatearren eta baita euren nekeen bidez beste askoren ezbearrak eta oñazeak arintzearren, eta batez-ere pekatarien alde zerbait egitearren. Auentatik bizi bera ere eskeintzen dutenak zenbat diran, Jainkoak bakarrik omen daki, eta baita Jainkoak eskeintza oiek onartu ere, eta Lurdes'en bertan ilda geldituak. Gorputzaren osasun gabeak baño anima gaxodun geiago dijuazela Lurdes'era diote ango animen artzaiak. Eta oiek bai irixten dutela sarri euren eritasunen sendakuntza. Zenbat borondateko korapillo! Zenbat sinismen aul eta zenbat illak ere! Zenbat asarre ta gorroto; zenbat alperkeri; zenbat arrokeri... Izan ere auetxek izaki gaxorik errukarrienak Ama Birjiñarentzat eta ez da arritzekoa ainbesteren sinismena indartu ta piztea; asarre ta gorrotoak desegintzea; alperkeriak zuzpertztea; arrokeriak apaltzea. Ona emen gizaseme baten aitormena: "Izan nuan nik korapillo bat, nere borondate kaxkarraren erruz, sei urteren buruan naastuta euki nindua. Ementxe askatu zitzaidan. Su ondoan jartzen dan argizaia bezelaxe nere naimena bigunduta, aldatuta, arkitu nuan gabetik goizera; nere eskubiderik ziurrenak ere usteko prest, Kristo'ren antz pixka bat geiago eukitzearren. Orain iraupena eskatzen diot Jainkoari, Bere Ama'ren bitartez".

Lurdes otoitz toki.—"Otoitz egiten ikasi nai ba-dezu zoaz itxasora", dio esakun zaar batek. Esaera orri ezer kendu gabe, auxe esango nuke nik: Otoitz gogoz egin nai ba-dezu zoaz Lurdes'era. Otoitzakin asi zan Lurdes'ko gertakizuna. Bernardatxo'ren lenengo lana, Massabielle'ko ar-

zulo aurrean, AITAREN egitea izan zan, irudipen txarrenbat ote zan susmoz eta bildurrez an aurrean ikusten zuan irudia, eta bera uxatzearren. Oarturik neskatzak ala ta guztiz ere, irudiak bertan jarraitzen zuala, errosariua erreztatzen asi zan, eta orra berriz, irudiak irripar egin eta nun laguntzen dion otoitzean. Bernardatxok Agur Maria'k esaten zituanian, irudiak eskuan zeukan errosariuaren aleak beatz artean pasatzen omen zituan, ezer esan gabe, bai, bañan AINTZA AITARI ETA SEMEARI ETA ESPIRITU SANTUARI Bernardatxok esatean, itzal aundiz, burua makurtzen omen zuan.

Irudiak emandako aginduetan bat pekatarien alde otoitz egiteko izan zan, eta beste bat toki artan elizatxo bat jasotzeko, otoitz leku berexi bat alegia. Agindu au erriko apaizentzat eman zion.

Batere bildurrik gabe esan genezake, Lurdes'ko ikuskizun otoitza besterik ez dala: Otoitza Massabielle'ko artzulo aurrean, otoitza inguruko elizetan, otoitza ango uraska bedeinkatuetan, otoitza zelaietan, otoitz beroa Gurutz-bide mendian goora eta beera, otoitz asko bertako ostatu eta kaleetan barrena ere. Zenbat ikusten diran an, taldeka edo banaka, Lurdes'en lenengo aldiz euren oñak jarri orduko, errosariua eskuan artu eta otoitzean, Massabielle'ra bidea artzen! Badira esango dutenak salosle geiegi dagola ango kaleetan zear, otoitza ondo egiten laguntzeko. Bai, bearbada, bañan aietxek ere ez dute galerazten otoitz egitea. Une ontan, eta bidebatez, auxe esango niteke salosle oietan oztopo bidea arkitzen duteneri: Saletxe oietan erosi oi diran bitxi eta irudiak laguntzen diotela Lurdes'ko otoitz giroa euren etxeetara eramaten. Ez dala beraz dana txarra. Eta oraindik geiago esaten ausartuko nazaizue: Salosle oiek ez-palira, Lurdes'ko inguru guztia atzamartu eta larrutu ere egin genduala onuzkero ara juan geron guztion artean; batak arriak, besteak ostroak edo belarrak, danok atera naiko genduan andik zertxobait, gure ikustaldiaren ezaugarri eta oroigarritzat, bakoitzak bere etxera eramateko. Salosle guztien asmoak erabat santuak ezpadira ere, zer du onek arritzekorik, gizonak dabiltzan tokian? Belar txarra ateratzeko garaia etorriko da, Jainkuak nai duanean. Bien bitartean, arkitzen degun landara ona zaitu eta obetu dezagun al ba-da eta al dan neurrian. Intxaur batzu utsak edo ustelak diralako gure zorroan, ez degu pardel osoa erretzen edo erre kara jaurtitzen.

Beti otoitza: Ainbeste ta ainbeste apaizen Meza ematean eta milloika sinismendunen alkarrekin Meza entzutean; arratsaldetako gaxoen

ibildeunean eta Jaunaren onspena artzean; Otoitza gabeko errosariokoan, munduko erri guztiak, ortxe ortxe, alkartuta egin oi duten ibildeun zoragarrian, aspertzen ez duan otoitza, ñori logurarrik ematen ez dion gau-abesti gozoa. Orixe da bakarrik ainbeste milloi gizaseme eta emakume Lurdes'era erakartzen dituan ikuskizuna: otoitza.

Lurdes itxaropen toki.—Otoitz jatorrak bere ondoren dakar gizonaren itxaropena indartzea ta aunditzea. "Eskatu eta emango zaizute", dio Jesus'ek. Eta Lurdes'en otoitz gogotik egiten dalako, Jainkoaren itza beteko danaren ustea aunditu eta sakondu egiten zaigu biotz-ondoan. Eta zeren itxaropen bereizia sortu edo aunditze ote da Lurdes'ko toki aparteko ortan? Garbi ta soil erantzunda, gure eskabideak beteko diran itxaropena, ots gure eguneroko otoitzetan egin oi ditugun eskabide berberak, gorputz eta animaren osasuna, bizitzarako erosotasuna, pakea, alkarmaitasuna... izen auetan mamitzen bai-dira gizonen eskabide edo geienak beintzat. Bañan bakoitzak bere etxean edo dabilten tokian egiten duan otoitzak ez al du indarrik itxaropen ori pizteko? Ez diot ukatuko zuurtasunik, galdera au egingo lukeanari, bada Jesus'ek berak esana da au ere: "Benetako sinismena ba-zenduteke, eta aurreko mendi oneri esan, zuaz atzerago ortik, itxasoraño, zuen naia beteko litzake". Ez dago beraz Lurdes'era juan edo etorri bearrik, benetako sinismendunak Jainkoaren grazia, eta mirariak ere irixteko. Bada ordea eragille bat gizonaren jokabidean garrantzi aundia euki oi dunaa, ots, giroa! Eta auxe da nik eta milloika sinismendunek, eta ez diranak ere, Lurdes'en arkitzen dutena: Jainko sinismen giroa. Giro onek arnas garbi eta osasunkor bat eskeintzen die Lurdes'era dijuazeneri. Giro ontan kristau-sinismena indarberotu, esnatu, pizkortu egiten zaigu. Eta, ondoren bezela baita itxaropena ere.

Alor ontan auxe ere gertatzen da Lurdes'en: Itxaropena nun lendabizi jarri bear degun obeto ikastea. Ba-dira anitz, eritasunenbategi jota, gorputzaren osasuna eskatzeko asmoan Lurdes'era bidea artu, eta bertara irixten diranak, bañan ango giroan sartzean, gorputza aaztu eta euren animaren osasuna lendabizi eskatzen dutenak. Eta oraindik geiago: ikusirik ainbeste eta ainbeste lagun urkoren bearrik euren inguruan, beren buruaz erabat aaztu eta besteen alde otoitzean an igarotzen duten denpora guztia ematen dutenak. Garbi somatzen da Ama Birjiña'k Bernardatxo'ri esandako itzen oiarzuna —"ez dizut aginzen mundu ontan

zoriontsu izango zeranik, bañan bai bestean"— an dabillega itzali gabe. Eta gogo oneko kristauak, oartzeke ere, entzun egiten giro garbi artan. Orregatik gertatzen dira Lurdes'en ainbeste asmo zuzentze, gogo-iraultza jator, Jainkoaganako eta lagun-urkoaganako biurtze arrigarri eta egi-korrak.

Lurdes maitasun toki.—Massabielle'ko txoko ontan ba-dagola aize mairagarrienbat, dana leundu, danak biguntzen dituana!, ara dijuazena anaikiro alkarganutzen dituana; batak besteri laguntzeko gertu ta prest jartzen gaituana; lenengo aldiz ikusten degunari ere, betiko laguna balitz bezelako agur bero bat egitera bultzatzen gaituana. Jainkoak bakarrik jakingo du zenbat adiskide berri eta jatorren sorleku biurtu zaigun. Ango maitasun-giroaren ezaugarritzat, begira, esate baterako, gaxo-laguntzen ibilli oi diran ainbeste gizaseme eta emakumeren aurpegietara. Ba-dirudi pake-ur miraritsuenbaten garbitu dirala goizean ogetik jeikitzean. Inor gutxik dakite nolatariko gaxoa eman dioten zaitzeko. Dena dela, Kristo balitz bezelaxe darama eskuburditxuan aruntz eta onuntz, naiz elizkizunetara, naiz ibilli bat egitera, inguruko baster polit aiek erakutsiaz. Ez da arritzekoa gaxo oien artean batzuek erreak eta zitalak izatea, bakoitza bere etxeetan beintzat. Bañan gauza arrigarria: Nik beinipein ez det oraindik somatu inor zitalkeriak esaten edo adierazten bere inguruko inori. Eta atsegin izaten zait eureri begira egotea, ez aien gaxotasunak ezetariko pozik edo jolas-biderik ematen dualako, baizik aien eramantasun eta baretasunak animan on aundai egiten digulako. Iruditzen zait, bigunki eta apal auxe esaten dizutela: Etzazula izan zuk nik daraman gaxotasun au edo antzekorik ere; nere au eskeintzen diot Jaikoari eta bere Ama'ri, munduan danak osasuna izan dezaten. Begira dagoanaren erantzuna berriz, gaxo aren eta guztien alde otoitz egitea izan oi da, osasuna edo on zaiona Ama Birjiñaren bitartez Jainkoa eman dezaien.

Ala ere maitasun arloan, gaxo-laguntza Lurdes'ko arpegi bat besterik ez degu. An ikusiko dituzu ainbat gazte ta ez diranak ere, Lurdes'era dijuazen erromesen laguntzalle, bertako inguruen berri emalle, ostatu billatzen, Lurdes'ko gertakizuneri buruz, askok ez dakizkiten berriak irakasten, baita ere, erlijio eta Elizatzaz anitzek egin oi dituzten galdereri egoki diran erantzunak ematen, buru naastuak argitzen eta pa-keatzen.

An dauzkagu baita ere Lurdes'en ostatua ordaindu ezin dutenentzat antolatutako bost edo sei osta-etxe egoki ta eder, denak kristauen eskuzabalarari esker jasoak eta mantenduak. Bertako serbitsua ere, utsaren truk egiten dute ortarako euren buruak eskeintzen dituzten munduaren alderdi guztietako kristauak. Oraingoz urtian amabi milla egun-oso ematen dira esandako ostal-etxe auetan. Erabilli, Karitas'ek erabiltzen du.

Mixio sailean berriz, gutxik uste duan bezelako lana egiten da Lurdes'en. Eten-gabeko mixio erakusketak, itzaldiak, erakunde berri sortzeak, opari biltzeak, batzarrak. Bertan biltzen dan diruari esker lagun-tza aundiak bialtzen dira urteoro Iugarren Mundura.

Prantzi'ko eta mundu guztiko Katoliku-Ekintzak antxe egiten ditu bere billera garrantzitsuenak, apostoltzaren bultzagarri indartsu gertaturik. Noiz nai sortzen dira Lurdes'en, gizoneri euren bearretan laguntzeko, erakunde berri eta eginkorrak. Izan ere ango Pentekoste giroak orretxetara bultzatzen dio edozein borondate eneko pertsonari, lagun-urko beartuaren alde zerbait geiago egitera, alegia. Sarritan borondate on ori itzalita dagoen pospolo burua bezela euki oi degu, eta, Lurdes'ek ematen digun sarraztadaz, piztu egiten zaigu pospolo buru txiki ori. Eta bera bakarrik da aski mundu guztia erretzeko.

Eta askenez *Lurdes sinismen toki.*—Zer eratariko sinismena agertzen ote da Lurdes'en? Asieran esan det ba-dirala Lurdes'en aurka ari diranak. Bi eratarikuak ditugu. Batzu Jainko gauzetan ezertariko sinismenik ez dutela diotenak. Auek, Lurdes'en, gezurra, sorginkeria eta diru-grifia besterik ez dute ikusi nai. Erdi-erditik asmatuko nuke esanaz, auek Lurdes'en ez dirala bein ere izan, eta gutxiago oraindik bertan egon; urrutitik ari dirala itxu-itxuan arri-jaurtika, Gizamota auekin obe da ez izketan asi, Lurdes bertara eraman eta ango giroan sar-arazi arte. Ez dira gai alkar-izketa jator bat eurekin egiteko.

Bigarren aurkezle oiek berriz ez dira sinisgabeak, baizik, euren ustez inork baño sinismen sendo eta garbiagoa daukatenak. Eurok diotenez, Lurdes'en kristauak, bear baño geiago aintzat artzen dute Ama Birjiña eta Jainkoaz aaztu edo aldamenara bastertu. Ori orrela ba-litz, Eleiza'ren leenengo egitekoa izan bearko luke munduari Lurdes'ko gertakizuna aaztu-araztea eta bertara juatea ere kristaueri zorrotz dabekatztea. Kristo Beraren agindua bai-da "Zure Jaungoikua bakarrik gurtuko dezu eta bere esana bakarrik egin". Beraz, Ama Birjiñaganako jaiera

agindu orren aurka baldin ba-dago, naitezkoa degu beratzaz aaztutzea, naiz Lurdes'en, naiz beste edozein lekutan.

Bańan gauzak orrela ote dira gure Lurdes onetan? Nork egiztatu eta ońarritu ote lezake ateraldi ori? Izango dirala norbaitzu, euren ezjakintasunaren erruz, an ere siniskerietan txirristatzen diranak? Ez det erabat ukatu ere egingo, bańan ez eta arritu ere ez naiz egingo, gizonen artean gabiltzan ezkeru, an edo emen itxuragabekeri batzuk ikusten diralata. Izan da izango tentelkeriak munduan, gizona gizon dan bitartean, eta gizamalla guztietan. Gauzak orrela izateak ez digu eskubiderik ematen gertakizunaren muńari erasotzeko, eta gutxiago oraindik aldezaurretik erabat ukatzeko eta ezetzeko.

Lurdes'en gertatzen diran gauzak banan banan aztertu eta miatzen baldin ba-dira, auxe da garbi ikusten dana: Ama Birjińiak ez diola Jainkoari ezertxo ere kentzen, ez itzalik egiten. Bera, Ama Birjińa, da an itzalean dagoana eta egon nai duana, Massabielle'ko artzulo bazterrean. Gertakizunen asiera asieratik adierazi zion Berak Bernardatxo'ri, gizonen gurtza oso osoa noientzat izan bear zuan. Etzuan alperrik burua makurtzen, Bernardatxo'k AINTZA AITARI ETA SEMEARI ETA ESPIRITU SANTUARI errezatzen zuan aldi bakoitzean. Orra garbi aditzen eman munduari, Jainkoa dala gauza, guztien gańetik gurtu ta goratu bear deguna, eta beste izaki guztiak, naiz santuenak, Aren aurrean burua makurtu bear dutela.

Lurdes'ko gertakizuneri buruz auxe bakarrik jakitea aski litzake, siniskerietan ez eroritzeko, ez Ama Birjińaren aurrean otoitzerako belaunikatzean, ez ango ura edatean edo bertan garbitzean, ez kandela-argia eskeintzean eta ezta bertako kaleetan oroigarriak erostean ere. Bakoitziari berea eta berea bakarrik-emango bai-zio.

Egia da Lurdes'en Ama Birjińaganako maitasuna bero eta sakon agertzen dala, bańan egi aundiago eta nabarmenagoa da oraindik, Lurdes'ko elizkizunak euren muńa eta ardatza Eukaristian daukatela: Meza eman eta entzutea, Jainkoaren itza agertzea, Jauna artzea, Bere onespina gureganatzea, Gurutz-bidea egitea, auetxek dira ara dijuazen erromesen eginkizun berezienak, naizta errosario Santuaren esatea ere egunero eta sarri egin, naizta Ama Birjińari aspertu ezin ala abestu, naiz bakarka naiz ibildeun eta prozezioetan.

Guk Ama Birjińa'ri abestu aal dizkiogun goratzen bidez, ez degu jaso al izango Jainko Berak jaso zuan bańo goorago. Ez al zuan ba

goratu Bere Ama izaterańo? Ontaz gańera, ez al zigun ba Berak gure amatzat ere eman. Zer arritzeko beraz ain Ama maitagarriarengana kristauak milloika ta geiago, maitasunez beteta urreratzean, eta guk bear deguna Jainkoagandik irixteko berari eskatzean? Gai ontan oso zailla ikusten det nik geiegikeriaren arriskua. Errez ote da gizonon biotz koxkorrak orrelako Ama geiegi maite izatea?

Ara, Kanaan'go eztaietan gertatua: Ezkonberriak ardoezean arkitu ziranean, Jesus'ek Ama Birjińiak bańo leenago zekian an gertatzen zaren berri; ala ere etzuan miraririk egin eta itzik ere aipatu, arik eta Bere Ama'k eskatu zion arte. Eta mesede arengatik eskonberriak eskerak ematerakoan, arritu ote zan Jesus, Berari bańo leenago norbaitek Bere Ama'ri eskerrak eman baldin ba-zizkion? Ebanjelioak ez du ortaz garbitasun aundirik ematen. Bańan zerbait orrelako gertatu ba-litz, esango zigutela uste det.

Eta zer Lurdes'ko iturrietan ura edan eta jaso bearrari buruz; ango ur-asketan garbitu bearrari?; ango kandela eroste eta eskeintzeari buruz? Ori ez al da siniskeria? Gai ontan jakintsu eta zuur jokatu nai duanak, pertsona bakoitzaren barrua ezagutu bearra dauka, nai ta ez, ińoren jokabideak epaitzeko. Persona bakoitzean arkitu lezake batek siniskeria, bańan ez guztietan. Noizean beingoak ez du gauza osoaren izatea aldatzen. Beste edozer gaitan ontzat artzen degun astapena degu au, beraz zergatik ez erlijio gaitan?

Lurdes'ko uraren berri dakianak, ba-daki nola agertu zan eta zer agindu eman zion Ama Birjińiak Bernardatxo'ri: Juan eta edan zazu ur ortatik, eta garbitu zaite bertan. Ez dago emen zalantza biderik, Ama Birjińiak agindu ura zergatik eman zion Bernardatxo'ri jakiteko: apaltasun egintza batera bultzatzearren, eta pekatutik guztiok daukagun garbitu bearra adieraztearren, ots ezaugarri bat, simbolo bat bezela. Auxe jakitea aski da ur aren erabiltzeari berea bakarrik emateko. Zenbat ote dira ba, Lurdes'ko erromesen artean, ango urari buruz, orrenbeste ikasi ez dutenak?

Eta ango argi-eskeintza neurri-gabea? Argia Lurdes'en gure sinismenaren ezaugarri bat besterik ez da. Eleizak beti bere eskuetan daramana, eta baster guztietan eramango duana: beste ezaugarri edo simbolo bat. Asko ta asko dirala eskuetan daramatenak eta Ama Birjińaren aurrean jartzen dutenak. Eta zer? Gizon asko badira, zer arritzeko euren

eskuetako argiak ere asko izatea? Gai ontan geiegikeria nun egon leiken ez det ulertzen.

Esanalak esanda ere, ba-dakigu gizonok oso trebeak gerala gauzarik santuenari eta Jaungoikozkoenari ere gure gizonkeriak eta iñoiz itxusikeriak ezartzen. Ala-ere Jesus Berak agintzen digu uzta-garairarte irakari ere pakean uzteko, landara ona ateratzeko arriskua ikusten degu-nean. Juan'en bataiua artzen zutenen artean ere zenbat ote ziran, euren biotzeko damutasunean eta gogo-onean baño ibai artako uraren indarrean uste eta sinismen geiago zutenak? Ala-ere Jesus Bera ibai artan-txe sartu zan, Juan'en eskutik bataioa artzeko, eta baita, bataioa artzen ari zan bitartean Bere Aita zerukoaren eta Espiritu Santuaren onespena artu ere.

Auxe bera esango nuke Lurdes'eri buruz: Baleikena da norbaitzuk ango azaleko gauza eta ikuskizunetan bear litzaken baño uste eta arreta geiago jartzea, bañoan ala ta guztiz ere Lurdes'ko zerak Jainkoaren onespena nabarmen agertzen duala; Lurdes'en bene-benetako sinismenaren ezaugarri asko eta arrigarriak ikusten dirala, Jainko ta alkarmaitasunaren berogarri eta itxaropen eder baten esnatzalle diranak.

Eta, bestiak beste, auxe beintzat ba da Lurdes'en egia.

Lau olerki

"BORDARI"

FIDANTZA

Ikusi al dituzu
beinere
ainara kumeak
kabitxoan
ao-xabal
aita-amak
eltxoarekin
datozenean?

Gurasoak
txandan txandan
dituzte pazkatzen
Aiek azkurri billa
aldegitean
Kumeak, ixil-ixillik
Itxaropenik
Ez dute galtzen

Gizonezkoak
ikasiko al degu
uste ona eukitzen!

Gure egilleagan
fidantza izaten!

BRITS! BATEAN DOA

Emezortzi urtetan
Irurogei urteak
Oso urruti nekuskin

Orain;
 Irurogei ta sei urtetan
 Nere gazte denbora
 Or bertan dakust.
 Beetik gora begiratuz
 Dana urrun!
 Goitik beera ikusmiratuz
 Dana urbil!
 Zergatik ote?

 Bai dala laburra bizia!!

JESUS'EK MONJATXOARI

Monjatxoa, erruki-etxean josta-jostari;
 josten ari.
 Denbora galduetan brodatzen,
 Sagrarioako urrezko xingolak atontzen.
 Eta bitartean, otoitz-izketaldi.

—Ene espos maite,
 Ikusten nolako sedazko oial fiñak
 ditudan sagrarioako atondu?

—Eskerrik asko, nere.
 Jaso dut zure borondate;
 ordea, oberik dut maite.

Begira alboko zarpail orri;
 prakak eta txamarrak orpo-besoetan
 luzetxo dauzkan orretan
 ez al nauzu ikusten ni?

Ori neurritz jantziko bazenu...

Benetako sagrario bizi,
 Urkoan dagoala bear duzu ikasi.

Oyartzun'go erriak 1967'ko Jorrailla'ren 23'an, bere seme ospetsu Don MANUEL LEKUONA'ri OMENALDI bat egin zionean, bertso aukeratuak eskeñi nizekion, bertako Udal-etxeko arkupean izan gendun bazkalandoan.

Bederatzi puntuan
 artu dut tamaña
 Neurri ori neretzat
 zailtxoa da baña
 Nik gaurkoan, ordea,
 buru ta mingaña
 Kantatzeko gertuak
 dauzkat bear aña
 Maixutan gain-gaña
 Danetan apaña
 Jakintsu bikaña
 Don Manuel Lekuona
 Oyartzun'ek damaizu
 merezi-ordaña

Berrogeitamar urte
 apaiz egin zala
 Amaika fruitu goxo
 eman dun arbola
 Urrezko eztaietan
 gaztetan bezela
 Begiak urdin-bizi
 ta gorri masalla
 Biotza zabala
 Zintzo ta leiala
 Jakintsu apala
 Grazizko itzala
 Jainkoak urte askoz
 begira dezala
 Euskal-erri orotan
 oso ezaguna
 Euskaltzaindiko maixu

Nagusi ta Jauna
 Apaiz otoizlaria
 santu ta otzana
 Eginkizun danetan
 zearo gizona
 Gidari txukuna
 Biotza biguna
 Anima euskalduna
 Don Manuel Lekuona
 Apaiz degu oraindik
 Obispo bêr zuna.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
 OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
 - III -
 KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Algunas notas en torno al topónimo «bidea» en el Valle de Yerri (Navarra)

MIREN EGAÑA

Me ha parecido oportuno tratar del topónimo "bidea" por ser bastante frecuente en el valle de Yerri y porque se pueden observar fenómenos lingüísticos de distinta índole en torno a su evolución. El punto común de todas las piezas en que entra en composición *bidea*, es que se hallan efectivamente al borde de un camino.

La lista de topónimos con componente *bidea* = camino ha sido extraída de la tesis de Licenciatura que con el título "Toponimia del Valle de Yerri-Navarra" presenté el año 1974 en la Universidad de Deusto. Los datos de toponimia fueron recogidos principalmente en encuesta personal en la que colaboró básicamente Fermín de Leizaola, en el catastro del Ayuntamiento de Arizala que amablemente nos dejó consultar el secretario D. Francisco Echeverría, en archivos parroquiales, así como libros de fundaciones de los diferentes lugares y finalmente en el Archivo General de Navarra.

Situación geográfica del Valle de Yerri.—El valle de Yerri se halla situado en la Navarra Media Occidental, en la comarca llamada popularmente como "Tierra Estella". Su forma es alargada, siguiendo un eje Norte-Sur, y su extensión de 246,35 km²., confluyendo, debido a su situación próxima a las montañas y a las sierras llanas, grandes contrastes geográficos.

El valle limita al Norte con las sierras de Urbasa y Andía, al Sur con la villa de Villatuerta y la ciudad de Estella, al Este con el valle de Guesalaz, el pantano de Alloz y con la villa de Cirauqui, y al Oeste con el valle de Allín y el lugar de Abarzuza.

El valle de Yerri, que constituye un solo ayuntamiento, cuya capi-

tal es Arízala, está formado por los siguientes lugares: ALLOZ, ARANDI-GOYEN, ARIZALA, ARIZALETA, AZCONA, BEARIN, ERAUL, GROGIN, IBIRI-CU, IRUÑELA, LACAR, LORCA, MURILLO, MURUGARREN, RIEZU, UGAR, VILLANUEVA, ZABAL y ZURUCUAIN; además de cuatro cotos redondos: MURU, ERENDAZU, MONTALBAN y ZUMBELZ.

El topónimo bidea.—Se puede apreciar a la vista de los topónimos recogidos que el valle de Yerri tiene un sustrato lingüístico netamente vasco y es lógico que así sea, puesto que en 1778, según A. Irigaray (1) todavía se incluía como zona vascofona de Navarra, no siendo así 85 años más tarde según aparece en el mapa de L. L. Bonaparte de 1863. En efecto en ese documento no aparece nuestro valle como vascoparlante, y sí en cambio el lugar de Iturgoyen del valle de Guesalaz lindante con él.

Entre los fenómenos que se pueden constatar al estudiar el topónimo que nos ocupa, tenemos en primer lugar en cuanto a vocalismo se refiere el cierre de /e/ > /i/, como en *Irunbidia*, *Estelevidia*, *Bidaldia*, etc.

El término *bide* aparece acompañado de artículo la mayoría de las veces; así por ejemplo *Abarzabidia*, *Arnabidia*, *Bastabidia*, entre otros.

En los compuestos en los que aparece en primer término, sigue fielmente la ley usual en Euskara /e/ + /a/ /a/; como por ejemplo *bide aldea Bidaldia*, *Vidaldia*.

En cuanto a consonantes se refiere hay algún caso de metátesis: *Estibilidea* por *Estilibidea*.

A veces se puede constatar una pérdida de /-d-/ intervocálica, pasando sin duda por una fricación, así:

Iturbide *Iturbie*, aunque hay que hacer constar que esto ocurre en casos aislados, puesto que la mayoría de los topónimos han conservado la consonante.

Con respecto a la representación de /-b-/ por /-v-/, se puede pensar que no es más que una variante gráfica de un mismo fonema, puesto que la oposición oclusiva sonora, fricativa sonora se pierde muy tempranamente en el romance castellano, y puesto que el Catastro consultado es de 1883, fecha en la que nuestro valle ya ha dejado de ser vascofona, no hay ninguna razón para creer que sí había una distinción. Además esta /-b-/ intervocálica tenía que haber dado algún caso de pérdida, como es usual que ocurra y no ha sido así. En efecto según

Alarcos Llorach el confusionismo de estos dos fonemas en castellano es antiguo y se debe al parecer a influencia del euskara, puesto que lo atribuye a las hablas nortefías.

En cuanto a la consonante /-b-/ intervocálica, al entrar en composición, aparece ensordecida en algunos casos como: *Erapidia*, *Lapidia*. Este ensordecimiento puede tener su explicación en la persistencia del romance navarro-aragonés en conservar las oclusivas sordas intervocálicas, en oposición con el castellano que las sonoriza. Este fenómeno se debe según algunos lingüistas como Saroihandy y Rohlf s a influencia del euskara; sin embargo Elcock y Menéndez Pidal opinan justamente lo contrario. En cualquier caso me inclino a pensar que el ensordecimiento de estas oclusivas sonoras se debe a la influencia de conservación de las sordas.

Hay por fin algún caso de asimilación romance en fonemas marca de plural como en el caso de *Irunbideas*.

Entre la lista de topónimos que aparece al final del trabajo cabe destacar aquellos que se refieren a toponimia mayor y que reseño a continuación.

Abarzabidea > *Abarzuza* + *bidea*. Al entrar en composición ha habido una elipsis de la sílaba interior /-zu-/ debido quizá a la cerrazón de la vocal.

Carratavidia, *Tarratavidia*, *Zarratabide*

Carrata + *bide*, *Tarrata* + *bide*, *Zarrata* + *bide*.

Se podría aventurar como posible denominación autóctona de Villatuerta a *Tarrata* (2), puesto que estos topónimos que en el fondo deben de ser uno con variantes gráficas, aparecen en el Catastro de 1883 como piezas de Murillo, lugar mugante con Villatuerta. Estos topónimos están perdidos en la actualidad.

Errezubidea *Riezu* + *bidea*. Como es sabido el euskara rechaza la vibrante múltiple en posición inicial por lo que es normal la aparición de esa /e-/ en posición inicial en Errezu.

Al parecer el nombre del lugar de Riezu debió de ser romanizado muy tempranamente puesto que aparte de la pérdida de la /e-/ inicial, la /é/ tónica ha evolucionado como /e/ procedente del latín dando lugar a un diptongo /e/ > /ie/, igual que ha ocurrido con otros to-

pónimos muy conocidos como Javier, Javierregay... Ya en los Fueros de 1366 aparece como *Rieçu*.

Estelebidea, Estelevidea, Estellavidea...

Hemos recogido en el valle diez topónimos que se refieren a *Estella*, apareciendo con pequeñas variantes gráficas. Aparte de aparecer /b/, /v/ para un mismo sonido, anteriormente comentado, aparece la /-l-/ intervocálica de Estella tanto palatalizada como sin palatalizar.

Garisoenbidea Garisoen + bidea

Garisoen por *Garisoain* —valle de Guesalaz.

Ilumvidia Iruña + bidea

Aparece en el caso *Ilum* el rotacismo /l/, /r/ muy frecuente en euskara.

Tanto *Ilumvidia*, como *Irunbideas*, topónimos ambos del lugar de Zabal, están en el camino que se dirige a Pamplona. No ocurre así con *Irunbidia* de Iruñela que es camino de Iruñela y no de Iruña (Pamplona).

Murubidea, Muruvidia Muru + bidea

Muru es un coto redondo lindante con Eraul y Murugarren que es donde aparecen los topónimos citados.

Yurrevidea Yurre + bidea

Yurre es un lugar del valle de Guesalaz que muga con el de Yerri.

Ugarvidia Ugar + bidea. Ugar es uno de los lugares del valle.

Los topónimos que aparecen a continuación son todos aquellos que de una fuente o de otra hemos podido recoger y en cuya composición entra el término *bidea*, siempre dentro del valle de Yarri.

Abarzabidia	pieza en Eraul	C., E. P.
Abarzabidea	pieza en Eraul	C.
Aldicoladevide	pieza en Iruñuela	C.
Arnabidia, la cuesta de	pieza en Iruñuela	E. P.
Astabidia, rincón de	pieza en Azcona	E. P.
Astavidea	pieza en Azcona	C.
Bastavidea	pieza en Villanueva	C.
Bastabedi	pieza en Villanueva	E. P.
Berkusetabidea	viña en Eraul	E. P.
Bidaldia	pieza en Eraul	C., E. P.
Bidelauna	pieza en Iruñuela	E. P.
Bidilaona	pieza en Iruñuela	C.
Bordabidea	pieza en Lacar	E. P.

Carratabidea	pieza y lleco en Murillo	C.
Carretavidea	pieza y lleco en Murillo	C.
Erapidia	pieza en Eraul	C.
Errezubidea	pieza en Ugar	L. F. U.
Estelebidea	piezas en Grocin, Lorca, Ugar	E. P.
Estelevidea	pieza en Ugar	C.
Estelevidia	pieza en Grocin	C.
Estellabidea	viña en Lacar	C.
Estellavidea	lleco en Ugar	C.
Estellavidea	viña en Lorca	C.
Estellevidea	lleco en Ugar	C.
Estibilidea	pieza en Ugar	C.
Estilibidia	pieza en Ugar	E. P.
Estilividia	pieza en Ugar	C.
Galbidia	pieza en Eraul	C.
Garisoenbidia	pieza en Lorca	E. P.
Gastanbide	pieza en Ugar	E. P.
Granjavidia	pieza en Arízala	C.
Igaravidea	viña en Villanueva	L. F. V.
Ilumvidia	pieza en Zabal	C.
Irunbideas	pieza en Zabal	E. P.
Irunbidia	pieza en Iruñuela	C.
Iturbie	pieza y lleco en Eraul	C.
Lapidia	pieza en Eraul	C.
Lapidea	pieza en Eraul	E. P.
Lauzadiavidia	pieza en Eraul	C.
Leuzadiabidia	pieza en Eraul	C.
Lozabidia	pieza en Eraul	C.
Mendividea	pieza en Villanueva	L. F. V.
Murubidea	pieza en Murugarren	E. P.
Murubidea	pieza y camino en Eraul	E. P.
Muruvidia	pieza en Eraul y Murugarren	C.
Ordavidea	pieza en Lacar	C.
Ordavidea	yermo en Lorca	C.
Ozadiabidia	pieza en Eraul	E. P.
Ozabidea	pieza en Eraul	E. P.
Salbidea	pieza en Eraul	E. P.
Salbidia	pieza en Eraul	C., E. P.
Salvidia	pieza en Eraul	C.
Tarratavidia	pieza en Murillo	C.
Ugarvidia	pieza en Alloz	C.
Vidaldea	pieza en Eraul	C.
Yurruvidea	pieza en Villanueva	L. F. V.
Zaldabidea	pieza en Ugar	C.

Zaldavidea	pieza en Ugar	C.
Zaldavidia	pieza en Azcona	C.
Zaldevidea	pieza en Ugar	C.
Zaldebidea	pieza en Ugar	C.
Zarratabide	pieza en Murillo	C.

ABREVIATURAS:

- C.—Catastro del Ayuntamiento del Valle de Yerri-1883.
 E. P.—Encuesta personal realizada en el valle durante los años 1972-73 y 74.
 L. F. U.—Libro de Fundaciones de Ugar.
 L. F. V.—Libro de Fundaciones de Villanueva 1642-1800.

BIBLIOGRAFIA

- ALARCOS LLORACH, EMILIO, *Fonología Española*. Madrid 1971.
 APAT-ECHEBARNE, A., *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*. Pamplona 1974.
 MICHELENA, LUIS, *Fonética histórica vasca*. San Sebastián 1971.
 MENENDEZ PIDAL, RAMON, *Manual de gramática histórica*. Madrid 1968.
 MENENDEZ PIDAL, RAMON, *Orígenes del español*. Madrid 1972.
 ZAMORA VICENTE, ALONSO, *Dialectología española*. Madrid 1970.

San Sebastián, 14 de abril de 1977.

LEKUNA'TAR MANUEL JAUNAREN
 OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
 - III -
 KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Anaforikoak aldez edo moldez

E. ERKIAGA

Darabiltzanak aldaratzen ditu gauzak. Izkuntza ere, darabilenak mugiarazten du; itzegille, iztun, idazle, auek bait dituzu izkera-eragille.

Gogoan dugu arako istillua. Egun-bukaeran diruzaiñak, an egon dagoenaren azterketa egin du; eta orra ba; ez dator bat kontuarekin, diruments nabaria da, ez da behar lukeenik an ageri. Zorigaitz au artez-kari jaunari adiarazteko garaia eldua denean, onek: —Nori gertatu zaio oker ori? —Azterkari jaunari ez —erantzuna diruzaiñak— neuri, neu bait nabil diruaz. Ondorio: erderaz ari denak, ez du noski euskerarik onduko.

Izkera-eragille bakoitzak, erabilliaz zaindu egiten du, gal ez dadin; landu egiten, gogor ez dadin; bestelakotu ere bai, aldatu apurka apurka, il ez dadin. Geldia eriotza izanik, oro aldakor den lurgain onetan, izkuntzek ere lege edo noraezeko indar izkutu orren atzaparkadak beuren gan pairatuko nahi eta nahi ez.

Gizasemeek, premiari egokitu beharra izan ohi dute beuren jardun, lanbide eta joeretan. Iñoiz, benetako premiarik gabe ere, izaten dira al-daketa txiki ala larriagoak. Bizitzaren ibilliek beurek, gauzen eta arazoen joan-etorriek, gizadi belaunaldi berriek asmo ta asmakari bitartez ere, igitzen eta mugitzen dituzte zerik anitz.

Nolabait sortzaille den gizona, aldatzaille ere baita. Mudantzazale ere bai, maizenik. Are gaur den egunean.

Euskeraren iraupena opa dutenak erruz ugaritu dira azken bolara onetan. Zale aspaldietakoez gaiñera, gure mintzoz behiñere ari izan ez direnak ere euskalmiñak jo ditu, zorionez.

Elebitza delakoaren arazoa, bero ta gori, griña ta gar aundiz artu bide dute, ageriko zantzuak egiaren lekuko zintzo baldin badira, bai mintzatzaille eta emengo semeek eta bai erbestetik eldurik, gure Errion bertan-goxo egin dutenen seme-alabek ere. Zuzentasunaren ukitua duen sentimendu au, ezin onuragarriago litzaioke Aitor ospatsuaren izketa oni.

(1) A. APAT-ETCHEBARNE (A. IRIGARAY, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*. Pamplona 1974.
 (2) Esta hipótesis me fue comentada verbalmente por A. Irigaray.

Fenomenu gure artean ez ezagun au, ikasgarri dute, noski, gure soziologoek. Izkeralarientzat agian, arrigarri daitekeena; errikerientzat, ez ordea.

Mende luzeetan, mairu-aldiko kutsua duen arako "hable en cristiano", gure asaben asabek ere amaika bider entzunak ere, agian, iraultza izanen, gure izkuntzarekiko. Ailitz.

Alabaiña, gertakizun au, ez bedi izan aspaldiko esan arek daukan muiñekoa, nahiz eta alderantziz. Alegia, "erdera ahantzi, eta euskera ez ikasi". Bego ortxe gogoetagarri.

MINTZATUZ

Auxe izan du gehienbat bere ibilpidea euskerak mendez-mende: ahotik belarrira, maizenik —antziñeko berri zuhurrik ez dugu— bere bizikera ta iraupena. Mintzatzailleek iraurazi diote batipat aillagiñean.

Izkribuzko laguntasuna euneko urri izan du, eta mende laburreta-koa, irakurleak dakianez. Etxeko izkuntza izan da batipat, basetxekoa, kaiekkoa, baserri ta uri txikietakoa, kaleetan, elizan, gizartean bizi izan dena. Uri txikietan diñogu, uriok aundi egin alean, erdalduntzen soma ditugu ta.

Lekuona zaharrak, GERO IV garren argitaraldiaren Aitzin-solasean aipatzen digun arako izkuntzaren jatortasuna, zera, gatz, grazi, bereiztasun, argi ta ez illun ez astun; erabat izkera bizia, bizidun eta beraz, euskera gazte, ta gazte bigun... dohain guzti oietaz ornitua eta txukundua ikusi nai genuke gerorantz ere mintzaira (1). Egikor dea?

IRAUPENA

Euskeraren iraupen historia bitxia da, agian. Bidasoaz unaindi, berrogei urteko traba-bizimodua galerabide larri izan zaio, kaltea izugarri ezagutu du, gutxiespena, atzeratze, baztertze ta murrizte ikaragarria;

(1) Ezin ahantzi J. M. Mokoroaren barne oihu au ere: "...ausencia del "genio idiomático", el mortecino dejo de traducción que nos hace insoportables ciertos escritos, por otra parte correctos y sustanciosos..." (Genio y Lengua, "Ibar", 31 orr.). La salvación del euskera está en la defensa y vigorización de su genio (33 orr.).

agintarien jazargo nabarmenez eta erdal-elderiez gafiñeratu zaion galtzaia ez da nolanaikoa.

Baiña, orraitio, berrogei urteko jaurgoera jauntxukoia erori xamar deneko, jende jator ala erdal-jatorriko anitz, euskeraren alde aitortzen eta aldarrika. Mende onen asieran euskal-pizkunde azia ereiña zegoen, politikaz eta izkuntzarekiko.

Bidasoaz araindi, ordea, euskerak legetarik laguntasunik izan ez badu ere, jazarpenik ere ez du izan, Egoe euskalerrietan ikusi dugun gisakorik. Zergatik baztertu eta murriztu ote da Ipar euskalerrietan mintzaira zaharra ain nabarmen, ain lazkarriro? Agian, iraupena, galtzaiaz ere, izan du nolabait; baiña ez pizkunde garrik.

Bitxia benetan, diñogu berriro ere.

Aldi berria ote datorkion ba. Egiazko aizarapen eta zuzpertz bal-
din bada, ala behar luke. Ez du txantxetako garaia izanen, burruka eta proba aldia baizik. Frogantza emateko aro ta epea.

Nor den edo zer den erakutsia eman beharreko une itzuriezina, eta alaere, esperientzi aurreztikabea. Plaza gizona iduri, plaza izkuntza bilaka daiteke. Belarri zuhurrek Etxepareren oihua jasoteko une dardaretsua.

Burruka-zelaiera daramate oraingoan euskera, dakitenek eta are ez dakitenek. Orraitio, euskalmin erdi orokor onek, uberka eta ezaupide oiñarri egokirik ez baldin balu, ohidura izkera, aspaldikoa, arrunta erabat esan, erbail eta maingun bilaka daiteke, agian.

Esaterako, irrati-esale batek euskerarik ez baldin badaki, itz bakar-
ka jakiteak ez dio, borondate ona gorabehera, euskeraz mintzatzeko eskubiderik ematen toki aretarik, erriari begira. Aurki, kalte egiten dio, nabarmen ari den bakoitzean. Eta ohar au bego izlari, idazle, irakasle eta andereñoentzat ere; zera, euskeraz arlote xamar ari baldin badira, ez direla iñor jendaurren akats eta makets agertzaille izateko. Beste izkuntzenganako aña errespetu eskatzen dugu euskerarentzat ere.

IDATZIZ

Estatu espainola delako erakunde orren esian dauden Errien artean, gureak du izkuntza zeharo berezia. Egoe euskalerrietako gizalabek eta gizasemeek, menderik-mende, izkera ofizial delakoaren uztarpean artu izan dituzte kultura eta jakitegaiak. Ortik ba, orain, euskaldun gazteek

aurki daitekeen aukera berria; alegia, jakitegaillu, beuren asaben izkera erabilli ahal izatea.

Epe laburren bitartez beharko duen etorkizun ernagarria. Lan berri eta ugaria eskatuko duen lillurabide ainbat bider amestua.

Bidenabar aipa dezagun urrats-lan axola aundikoa or dagoela gertu; alegia, aditz laguntzaille bateratua deritzana, Euskaltzaindiak 1973 gnean. taxutua ta argitaratua.

Literaturarako batipak erabillia izan den izkera, jakite eta eder arlo edozeinetarako trebatzea, erantzupen goreneko zeregiña dela aitortu beharko. Ortografia arazoa eta lexikoarena ere alderoka dabiltzan arren, liztor izan orde erle maratz izatez gero, zubigilleak izan daitezke gure artean, geroko geroan mesiasi begira loak artzeke.

Pizkunde berriko goizabar onetan, moldezko letretan iñoiz baiño maizago ta usuago agertarazi ohi dituzte emen Bilbon, ere. Gehienbat, itzulpen-puxketak dira, lan laburrak, gizarte eta politika ohar eta deia-darrak, orri eta orrikkak, elebiko maizenik.

Lerro oietan barrena, erdal-itzak, udaberrian belardian txibirita zu-riak gisa, erruz. Arrimenez galdetzen digute euskera ez dakitenek gure vernacula iztegia orren murrizta eta urria ote den, testu modako oiek irakurtean, beurek ere poliki xamar ulertzen baitute. Jakiña, itzak; ez esaldiak.

Salba nahi dugunaren zati eta itz asko ez erabilliz baztertzen eta leizeratzen baditugu, dudan jarteko ez ote, zer salbatuguran ari garenz, gurea ala besteren izkera.

ITZULKETAK

Al ofrecer al lector estos datos, muchos inéditos, lo hacemos, sí, en este homenaje tan merecido a D. Manuel de Lecuona, pero también queriendo reparar en algún modo la memoria de este preclaro sacerdote zaldibitarra, tan entrañado en las gentes de nuestros caseríos de otros tiempos, y tan entrañable aún en nuestros días para nosotros.

Nik ikusi ta ikasi nuena

GOIKOETXEAUNDIA'TAR JOAKIÑ

"KARDABERAZ BAZKUNA" aldetik deitu naute zerbait esan edo argitaratu nai ote dedan Lekuona'tar Manuel jaunaren omenaldi ontan. Zalantzik gabe, bai pozik, ontzat artu nuen eskari au; aundia baita nere zorra beti nere ongille izandu dan Lekuona jaunarekin. Urrutiko oroi-men batzuk etorri bitez ba gaurko egunera gu guztion onerako.

Ni Gazteizko Seminario Konziliarren 1921 urtean sartu nintzan, lau urte Andoaingo Seminarioan latínakin burruka ibilli ta urte bat Gazteizko "Aguirre" zeritzaion Seminarioan Filosofi jakintzaren alde eginda; ez bait zan guretzako tokirik Konziliarren, ain beteta zegon. Beraz, bigarren Filosofian Konziliarko Seminarioan lenengoz ikusi nuen Lekuona'tar Manuel agurgarria.

Sei urte ikasle (1921-1927) apaiz egin arte; iru urte Erroma aldean; gero, irakasle-lagun Seminario berriaren asieratik (1930), ni filosofo'en bizitegian eta Manuel jauna teologo'enean. Guda samíñak sakabanatu ginduzen (1936) Jaungoikoak dakin bezela. Obe izango degu antsi ta larrialdi aiek gogora ez ekartzea. Geroz, ikustaldi batzuk bein edo beste ta norbera bere lanetan zorrotz, Jaunak lagunduta.

Orain ¿zer esan? Orra nere iritzi ta lan bidea: LEKUONA GIZON - LEKUONA APAIZ - LEKUONA IRAKASLE. Nik ikusi ta ikasi nuena azaltzea eragin naute. Barkatu nere gauzeza ta ezerestasuna, batez ere nere euskera gaixoaren jantzi arlotea. Nere eramate au baño ugarigo ta sakonagoak izango dira noski omenaldi ontan. Ala bear. Pozez artuko ditugu ta benetan, baño ez nuke nai iñork aurrera artzea nik sekula ta beti On Manueli izan diodan begirunezko maitasunean.

LEKUONA GIZON

Gizon-gizonak gizartean ondo ematen du beti. Erdi gizon asko ikusten baita alde guztietan, naiz azaletik begiratu, naiz barrungo ma-

miak miatu. Gazteak gizon izan nai du; bere ondoan era bateko gizonak ikusten baditu, geienetan gizon egingo da. Esaera da: "Zer ikusi, ura ikasi ta ala izan". Amazazpi urtekin gu Konziliarren sartu ta ¿nola oraindik gizon izan, nola gizon neurriak bete? —Gizon izateko utsune asko agirian eta gure barruan zer esanik ez...

Umetatik atera giñan Andoaingo Seminarioan. Gure Erretore jauna, Joakin Antonio Ustoak, bein batean, baratzatik Seminaria begira, bere apaiz lagun bati erdiparrez, esan zion: "Siempre desasnando burros y siempre la cuadra llena". Egia esan zuan. Lau urtetan umeak gizon antzera biurtzea ez da lan erreza ta urteero urteero gizaseme legun eta biribilduak Gazteiz'era bidali ta berriro "astotxo" berriak, poteka ta punpaka, "ikullan" sartzea, nekagarri da benetan erakuslarientzako. Gu ongi ezi ta aziak giñan... Eskerrak gure aurreneko apaiz maixuai. Bañan oraindik, erdi gizon... Baten batek ekin bearko zion ziñez lanari gu guztion gizatasuna osatzen. Eskerrak baita ere Filosofiko iru urtetan izan ginduzen apaiz-zaindari ospetsu ta ongilleai. ¿Nola aaztu Jaunak gure bidean, Tobias'i goiangerua bezela, jarri zizkigun laguntzalleak?

Goazen orain teologiko aizken lau urteetara. Orduan ezagutu genduan eta gertutik, ber bertan, gure Manuel jauna. Gure begien aurrean gizon gazte, egoki ta polita, alde guztietatik begiratuta; arpegi gorri, ille ori-gorri, goitikan beera garbi, ibilleran arin, jazkeran txukun txukuna. Asko ikasi genduan basarritik etorri giñan arloteok: ortzak egu-nero garbitzen, bizarrak maiz kentzen, eskuak sarritan garbitzen, azkazaletako loiak ateratzen, anakak maiz garbitzen, galtzerdiak aldatzen, izardi usaiak aizatzen, sotanak astindu ta eskobillatzen, zapatak dizdiratzen, gela garbitzen, ikas-maia txukuntzen, oi-azpiko autsak aienatzen... Nola ikusi, ala ikasi, nola ikasi, ala egin. Bai, Manuel jauna garbizalea zan benetan. Guk ezkenduan Seminario zaarrea, ez dutxarrik ez bustiontzirik, txarro ta palankana bat besterik. Gogoan det gaixo-tegian zan bustiontzia. Ez det beñere jakin zertarako, sendagillearentzako ala gaxo-zaindariarentzako. Gaurko aurrerapenak Erroman lenbizi ta gero Seminario berrian ikusi nituan.

Azal oneko gizonak, geienetan mami ona. Intxaur alea, naiz agirian egokia, gertatu leike barrundik ustela. Orixe bera iñoiz gertazen da gizonetan. Bañan, Manuel jaunak barne-muñak pin-piñak ditu. Buruz jantzia ta biotz aundikoa; gizon egizalea: egia buruan, egia biotzean eta egia ezpañetan; egiaren serbitzua izandu zuan bere eguneroko lanaldia;

etzan izan batzuek bezelakoa, ao-zuri, gezur ontzi makurra, an eta emen lagun urkoaren esaera ta gertaerak itxura-gabetzen dabillena. Gizon dan gizonak ez du gezurrik, ez malzurkeririk, ez da ere zurikeririk. Manuel jaunak gure biotzetan egi-zaletasuna nai izandu zuan, zintzotasuna ta leialtasuna. ¿Eskuratu ote nai zuena? —Ez beti, apaiz artean ikusten danez. Seminarioan, sustraitik atera ez ziran makurkeri ta azpikeriak, or dabiltz gure ta gure erriaren kalterako!

Manuel jauna, zure asteroko itzaldi, jardun aldi ta ikaskizunak, danak ez ditugu aaztu. Izketa aietan trebe ta egokia ziñala benetan!... Ez da edozein, ain apain, lirain eta dotore erderaz mintzatzen!... Gure utsegite ta zentzu-gabekeriak zeñen argi ta garbi gure begien aurrean azaltzen ziñuzen: gure ikas-lanetako nagitasunak; gure aruntz eta onuntz ibilli bearrak; gure ixil tokitako itzeginbearrak; gure arteko zakarkeri ta trakeskeriak; gure deadar eta irrintziak; gure jolasetarako neurri gabeko griñak; gure ordutako atzerapenak; gure eliz-aldare, eskola ta abarretako moldakaitzkeriak... Zuk gu gizon egin nai, ta guk umekeriak ez utzi nai!... Betiko gizonen burruka!...

Bein edo bein, Manuel jaunak bekoki illuna ekartzen zuan eta zorrotz jardun ere bai. Gogoan izaten det bein bota zigun trumoi jasa. Nunbait eskallemaillertzak gure oñetako lokatzez igurtziak ikusi zituan. Sutu zan, eta nola esan: "Zuek oraindik zapata ormak igurtziko dituzute aldareko kalizaren ezpañetan". Gogorra izandu zan egun artako eraso. Bañan dana bear, gure buru kaskallutan, gizonari dagozkion oitura ta jokaera onak sartuko baziran. Apaiza, erriaren gizargia dalata, ezin moldekaitz izan. Olakoak giltzapean edo lakaripean gordetzea askoz obe litzake. "Zuen argia gizaurrean dizdiz bego, zuen egite onak ikusazten eta zuen Aitagoikoa goretzi dezaten". (Mt. 5,16).

Bein baño geiagotan, Manuel jauna, gaur gure artean ikusten dienak ikusita, esango zenduan onezkero, lengoak ikusita esaten zenduana: "¡Me valga Zorobabel!".

LEKUONA APAIZ

Oso gogoan daukat Manuel Jaunak meza santua nola esaten zuan. Aldarean ezagutzen omen da apaiza. Geienetan egia dala esango nuke. Bein baño geiagotan, meza-lagunzalle bezela, ikusi nuen egokia ta txukuna, bai astiro ta garbi otoitzak irakurtzen, baita ere beste aldareko

siñu guztiak zuzen da zearo osatzen. Ta, meza ondorean, ixillik eta be-launiko, Jaunarekin alkar izketan. Zenbat aldiz gure alde ta erriaren alde erregutu ote zuan... Ori berak bakarrik daki.

An, Seminario berrian, oso goian zeukan On Manuelek bere bizi gela. Onen ondoan terraza eder bat, kanpai torrearen inguruan. Antxen, bakar bakarrik, zerua goian da lurra beeran, errezo liburutik Elizak apaizari erriaren alde agintzen dizkion eguneroko otoitzak, egiten zituan su ta gar. Eguneroko meza ta eguneroko otoitz aldia erriaren alde ta mundu guztiaren alde.

Urte aietan Gazteizko Seminarioan Mixiotako zaletasun ugari ta sendoak sortu ziran. Besterik ez zegoalako, Erligiosoren bidetatik, batzu batzuk jua ziran Mixiotara. Beste asko, eragozpen aunditxoazalata, atera zien gogotatik. Baño, azi aiek on egin ziguten danori: apaiz zaletasuna gure biotzetan sendotu. Geroago etorriko ziran egun on ta ospetsuak Gazteizko barrutiarentzat. Begira nun dabiltzan, ogeita zortzi urte oetan, gure apaiz lagun bulartsuak. Begira Amerikara, begira Aprikara...

* * *

Apaiz kontu au ez da gaur goizekoa. Apaiza, kristau erriaren buru, agirian dago beti, mendi-tontorra gure aurrean egunero dagoan bezelaxe. Nai ta nai ez, ezin leike gorde. Ez bear ere, danen onerako jaiki baita erriaren erdian Naiko lan izango du noski danen naierara biltzen. Denbora berriak apaiz berritua eskatzen omen dute. Ala diote geienak. Batzuk ordea berritze ori ontzat emanik, geiegi berritzea lengoa galtzea dala diote.

Gaur, esan leike, apaiz geienak aurrerapidean daudela, bañan aurrerapideak ere baditu bere eragozpenak. Entzun orain, bein batean basarritar batek esan zidana: "Ni urte askotan nere idi pareakin mendi lane-tan ibili nintzan. Urtea jua da urtea etorri, gauz bat ikusi nuan garbi garbi; idiakin ez zegoala aurrerapenik". —¿Zer ba? "Aldapean gora eziñik, zelaiean ainbestean, eta gainbera artzen zutenean, laisterkago jua bearrean, atzeaka jartzen ziran buruak jasota. Bildur bai ziran kargak mendeatuko ote zituan. Olaxe ba, noizbaiten, zori onez, idiak saldu ta kamion bat erosi nuan, geroago beste bat... Lasai bizi naiz".

Guk ere aurrera jua bear degu, ez atzeraka gelditu, idiak bezela. Baño, kontuz! Motorrak ere baditu bere eragozpede ta galerak. Geiegi

ematen badiogu, petrilla jo ta putzura juango gera. Ez bat ez bestea. *Modus in rebus*, esaten zigun Joakin Antonio Ustoak. Ez geiegi, ez gu-txigi. *In medio virtus*. Or zeok koxka.

Leengo apaizak eta oraingoak ez degu alkar moztu bear. Ez degu alkar epaitu bear. Ortarako Jauna dago ta, bere orde, Eliz Agintariak. Ez da erreza beti asmoatzen. Euskalerriko apaizak ez dira lendik oraie-tara begira egon. Zenbat eta zenbat aurrerapide gure erriak zor dizkion apaizari, ez da bi itzetan esatekoa. Oraingoak ere, bere ustetan, erriari gaur dagokion bezela jokatu nai dute. Batak besteari, leengoak eta oraingoak, ezagutu iogun alkarri onginau au. Etsaikeririk ez degu bear. Alkarrengana bildu sarritan, ori bai. Alkar izketak bateratu ta berdintzen ditu gure arteko gora-berak. Eta... iñoiz ezin baliteke, beti leike alkar maitatzea. Buruz ez baidegu berdin ikusten, bañan biotzak ez du lege bat baizik: *maitasuna*. Kristau izateak eta apaizgintzak ez zituan berdindu gure adimenaren neurriak, ez da gure fedearnak ere, naiz fedea bat izan. Ontan ez dago okerrik. Okerra egon leike maitakizunean. Agindu bat daukagu, Jaunak jarria, aginduetan berezieta: beti alkar maitatzeko, danak maitatzeko, onak eta gaiztoak, iñor baztarrean utzi gabe, mugarik gabe maitatzeko. Bide au guztiontzako irikia dago, naiz askotan guk itxi. "Sit in necessariis unitas, in dubiis libertas, in omnibus caritas". Esaera zarra, Juan XXIII'ek sarritan berritzen zuana.

Esan nai nuan nik Seminarioan ikusi ta ikasi nuena: apaizak goi-argi ta goimaitasunez betea bear duana; Jesukristoren jarraizaille "purrukatua", arren itza entzun, ausnartu ta erriari zabaltzeko, baserritarrak soroan arbi-azia bezela; Jesukristoren Espiritua ontzat eta gogoz artu, gizonen biotzak eta egintzak berpizteko. Orra alderdi bat; apaizak badu ordea beste alderdi bat. Jaunaren eta gizonen bitartekoa da, Kristoren antzera, Kristoren izenean eta Kristo berbera baliz bezela. Goitik dakar Berri Ona (Ebangelioa), beeran, gizartean zabaltzeko. Apaiza jakin bearrean dago ziur nun da nola azia bota. Basarritarrak ere zertsu diran bere soro-lurrak ondo asko jakiten du, batzuk gordiñak eta sakonak, besteak axialak eta goseak. Samurtu egin bear danak, azia bota baño len eta gero gozotu edo ximaurtu bere neurrian. Era berean apaizak ezagutu ta aztertu bear ditu gizonen gora-berak, gogaerak eta oiturak, bai ta ere gizarteko giroa, otza, epela edo beroa dan. Gure Eliz barrutietan ere arte aundikoak eta txikikoak ikusten dira. Jakin bear ba nun eta nola Berri Onaren azia bota.

Esan zagu garbi, Gazteizko Seminarioak ez giñuzela gure garaietan bear aña erriari begira jarri. Askotan entzun genduan Paulo Santuak esana: "apaiz dana "pro hominibus", gizonen onerako". Orregatik esan det gure len leengo apaizak, gure artean geienak, erriaren alde ziñez jokatatu dirala. Baño, alaz guztiz ere, ¿ez altzan bear bearrekoa guk gure erriaren izkuntza sakon-sakon ikastea? ¿Nola ba bear bezela gure erriari itzez eta idaztez Ebangelioa argitaratu? ¿Ez altzan bear bearrekoa Euskalerrriaren histori edo edestia, antziñatik asi ta gaurko egunetaraño-koa, zerbait azaltzea? ¿Ez altzan bear bearrekoa guk euskerazko liburu batzuk eskuartean ibiltzea ta danok alkarrekin otoitz batzuk euskeraz egitea? Bai, alde ontatik parragarri gelditu zan orduan, baita geroago ere, euskaldunen Gazteizko Seminarioa.

Bañan, dana esan bear da garai aitan ere argi bide piskabat ikusten zan urruti-urrutian. ¿Nork piztu ote zuan urrutiko izar ori? —Esan bearrrik ez dago. Barandiaran'tar Joxe Miguel eta Lekuona'tar Manuel jaunak. Garai aietan giro aundirik ez zegon eta oien bultzakadak ez ziran on artuak izaten goiko malletan. Gazteak bai ziran eta beste irakasle aundikiak gazteen asmo ta burupideari muziñ egiten zien.

Konzilio Vat. II baño ondotoz ere lenago, gure irakasle gazteok oartu ziran nundik nora dijoan apaizaren eginkizuna. Jesukristoren ordezkari, apaiza erriarentzat da, "pro hominibus". Beltzak eta zuriak, alde askotako erri-gizonak ludi zabalean ikusten dira. Danentzako etorri zan gu guztion Salbatzallea, danen alde il eta piztu zan. Berri On aundi au erri guztiari ematera bere ikasle taldea biali zuan. Geroz Ebangelioaren otsa alde guztietan zabaldu da. An da emen, erri bakoitzak, bere era edo gisan kristau sinismena aitortu ta adierazten du. Jesukristok gizonari ez dio puskarik kendu, ez da erriari ere, edertu baizik, goratu ta garbitu. Euskalerrriak, beste erriak bezela, saiatu bear du erri-jakintza kristau-jakintzarekin bateratzen. Erriak, zerbait badiralata, errez itxutzen dira beeren bideetan. Arrokeriak berekin bait-du begietan lausoa ta belarrietan goraizea. Apaizan aotik ikasi dezatela erri guztiak: kristau ona, gizon ona; kristau onena, gizonik onena; kristau erria, erririk bikañena.

LEKUONA IRAKASLE

Era askotako irakasle izandu da beti gure On Manuel. Hebreotarren izkuntza zerbait erakutsi zigun, ez baita erreza atzetik aurrera ira-

kurtzen. Salmudia Katedralean abesten degunean, beti gogoan daukat berak esana: olerkariak errenka batean edo bitan agertzen duan gogapen edo burutapena, ori bera urrengo errenketan beste itz batzuekin berritzen duana. Orrela erriak errez asko buruz artu ta abesten ditu olerkiak. Euskalerrriko bertsolariakin iñoiz orixe gertatzen da; orregatik ain errez euskaldunak erriko plazan entzun ditun bertsoak arin arin, doñu berean, abesten ditu. Zenbat eta zenbat bertso, an da emen, Euskalerrriko bazterretan On Manuelek bildu dituan, Jaunak daki. Bai ta ere, bein baño geiagotan, itzaldi goxoetan, gure biotzak ikutzeaño, erri bertsoen barne muñiak adierazi dizkigu.

Eusko izkuntza gure maixuak benetan, gazte gaztetatik, maite izanduala, esan bearrrik ezdago. Urte otan apaiz artean berpiztu dan KARDABERAZ BAZKUNA, an, Gazteizko Seminarioan, apaiz gaien artean sortu zan. Antxe Lekuona jauna, buru ta erakusle, euskera ikasi ta oberendunai zuen guztientzako. Amaika bider ikusi genduan luma edo lapitz gorriakin aurreko papelai oarkerak egiten edo aizken ikusia ematen. Lan nekagarria izandu da beti Lekuona jaunarentzak, andik eta emendik datorzkion paper ta liburu-gai guztiari on-iritzia edo gaitz-iritzia ematea.

Idazle onak aizken urtetan ugaritu dira Euskalerrrian, Jainkoari esker, baño Lekuona jaunak aspalditxoan onenen txapela irabazia dauka. Euskera beti goxoa, beti samurra, euskera garbia Lekuonaren euskera... batez ere, erri kutsu ta usai gozoa berekin darama.

Irakasle Seminario barruan, irakasle etxetik ateratzen zanean. ¿Nola aztu Arabako zelaietan gurekin egiten zituan ibilketak? Zenbat aldiz Arabako eliz polit eta txukunetan sartu giñan gure maixuari entzun naiean... Jaunari agur egin da, aldare nagusira lenbizi, gero beste aldarretara, ponte, sakristi ta koru aldeko baztarrak ikustera... Guretzako ikusmira bat, baño gure Manuel jaunarentzako gozamen aundia zan. Barenago atsegiña begietan zuela elizak eta elizetako torreak erakutsi zizkigun, baita ere noiz egiñak ziran gutxi gora bera; erretablo batzuen edertasun da egokitasunak, baita ere nork egiñak ziran; Andre Maria-ren eta Santu batzuen irudiak, ain politak, ain bikañiak...

Manuel jauna etzan beñere maixu utsa; bere jardun aldietan apaiz onaren tanto atsegingarriak gure biotzetara ixuri zituan beti.

Gaurko omenaldi onetan, biotz biotzez agurtzen eta eskertzen det Manuel jauna, guretzat eta askorentzat "Christi bonus odor" beti izandu dalako.

Aozko euskal literatura

JOSE ANTONIO GOIRIA, KARMELDARRA

On Manuel Lekuona apaiz jaunak idazlan mamitsu bat argitaratu zuan 1936'garren urtean Gazteizko Apaiztegiko Izkuntza ta Euskal Literatura-irakasle zala. "AOZKO EUSKAL LITERATURA" du izena. On Mateo Mujika zan bertako Gotzai. On Joxe Miguel Barandiaran izan zan eliz-eslari. Erderaz idatzi zuan. Zergaitik erderaz eta euskaraz ez? Erderaz eginda irakurle ta ikasle geiago izango zitualako noski. Aundi-aundia ez da; bai ostera interesgarria. Aita Santi Onaindiak be zerbait idatzi du gai ontaz bere euskal literatura-idazlanetan eta Enbeita Kepa Urretxindorraren liburuan. On Manuel Lekuona euskal idazle jator-sakonari omenaldia egiteko asmoz lantxo bat eskatu dauste. Amaika zor dautso Euskerak On Manuel Lekuonari. Geldituteke ta bizkor erabilli izan du beti bere idaztortza ainbat gai eder-azalduz. Ainbat aldiz egonak gara bere itz argi-erreza eta egokia aditutzen. Gaiñera esker txarra be artutakoa da.

Kardaberaz-taldeak eskini nai dautsan omenaldia berezkoa deritxat. Zorra.

Asieran aitatu dodan "Aozko Euskal Literatura" bere idazlana askorentzat ez ezaguna izan daiteke bear bada. Orain 42 urte egindako idazti onen barri emon nai dot, baiña azaletik, laburpen bezala bakarrik, egillearentzat omenaldi bezela ta guztion pozerako ta erakusbiderako.

1936'garren urtean azaldu zan liburu au esan danez. Euzkadi gure Aberria odol-bidean jarriko zuan guda naskagarri-madarikatua sortu aurretxutik. Colombian irakurri nuan 1937'garrenean euzkal idazle trebe izan zan Juan Antonio Irazusta Aldun eta adiskide mamiak emonda.

Liburuaren zatirik edo irakatsirik urtenenak bakarrik jarriko ta azalduko ditut idazlan onek labur izan bear du-ta. Eta dana egilleari jarraituta. Aozko literatura zer dan, aozko literatura osokoa ta erri-euskal literatura ta bera agertzeko bideak diran bertsolaritza, Kopla zaarrak eta olerki edergarria.

AOZKO LITERATURARI BURUZKO EZAGUTZA BATZUK

Pentsaera ta esaera oneik dakarz egilleak ezagutza oni buruz.

Irarkola-egunetako gizonak ezin dute ontzat artu aozko literatura. Idaztirik gabeko literaturarik ezin dute ulertu. Ala ere ba-da idatzi gabeko literatura, aozko literatura. Gizona beti agertu izan da ertilari, naizta izan ez lenengotan pentsaerak eta gogaiak idatziz azaltzeko ta agertzeko erarik. Aoz azaltzen eta agertzen zituan eta onela mendez-mende ainbat pentsaera, asmo ta esakun eder eldu dira gaurdaño. Antxiñako gizona itz-ertilari izan zan, elerti-zale. Idazten ez ekian. Aoz azaltzen zuan bere elertia, bere pentsaera.

Euskaldunaren literatura-elertia aozkoa izan zan. Bazituan orduko gizonak eta beraz euskaldunak elertia azaltzeko erak eta bideak, eta euren artean izkuntzaren kidetasuna, neurria, doiñua ta dantza; oroimenaren lana, irudimena ta esan-aldiak (improvisación). Oneikin osotzen eta azaltzen zituan ertilariak bere gogaiak eta pentsaerak. Aozko olerkariak kantuarien eta dantzaren bidez azaltzen ditu bere barruko naiak eta asmoak.

Antxiñako gizonak ez eukan idazkerarik. Antxiñako gizonak bere etorria ezin ezarri eikeon idazkerari. Ez zuan ezagutzen idazkerarik, ez paperik. Bere oroimena besterik ez eukan bere etorri ta esanak iraunderazteko. Idazkerarik ez-da, bere oroimenean irarri bear izaten zituan bere esanak. Au olan-da, itza bere oroimenean irartzeko bideak osotzea onena antxiñako gizonarentzat bere literatura gizaldiz-gizaldi iraunderazteko. Argi ikusten eta oartzen danez antxiñako kondaira ta kultura-gizonak oroimena zuten biderik onena ta euren erak oroimenari laguntzeko. Era oneik ziran: neurria, amaia, doiñua ta igidura. Asko laguntzen eutsoen oroimenari lau erok. Laguntzalle aundi ziran. Ainbat gauzetan erabilli oi da gaur be era au zerbait ikasi gura danean. Adibidez, bertsoak, esakunak, kristau-ikasbidea, izkuntza, zenbakiztia errezago ta lenago ikasteko doiñua erabilli oi da; onela errezago ta bizkorrago beraganatzen du oroimenak. Antxiñako grezitarrak onelako erak erabilli oi zituan batez be kantu ta dantza euren kondaira ta egite arrigarriak erriaren oroi ta aintzarako azaltzeko. Baiña ez zan au elburu bakarra onelako erak erabiltzeko; elertiak be ba-zuan bere indarra, bere zergaitia ortara jokatzeke.

AOZKO IZLARIEN ETA ENTZULEEN OROIMENAREN AGERKIA

Gai ontaz be pentsaera ta iritxi zorrotzak gogoratzen ditu Lekuona jaunak.

Ondoren eta egite arrigarriak sor-erazten zituan oroimenak aozko olerkari ta izlarietan. Bardin entzuleetan. Jesukristo ilda berrogei ta amar urte geroago idatziak dira onen esanak eta itzaldiak. Zelan gogora ekarri al'izan zituen idazleak ezertariko idazkerarik ezpa'zan orduan? Aozko literatura kultura-giroak ortarako osotuta, tinkatuta, moldatuta eukezalako seguru asko. Oroimenak oso eratuta eukezan entzundako edo ikusitako jazoerak eta esanak zintzoki gogoratzeke. Adibide bat dakar Marcel Joussek Julit aitatutzean. Antxiñako gizonak erlojurik gabe ekien ordua Gaur erlojua erabiltzeak kendu egin dausku, galdu-erazi almen au. Irarkolak eta batez be idazkerak moteldu egin du guban oroimena.

Gizon geienetan lan gitxi egin oi du oroimenak eta zearo galdu ezpa'da be, ez du lengo indar-almenik. Antxiñako gizonak oroimendunagoak ziran. Kristau-erako lenengo mendetako judutarrak, zerbait kultura eukenak beintzat, buruz ekien Talmud, liburua eskuetan artu gabe. XIII'garren eta XIV'garren gizaldietan be buruz ekiezan eskuratu ezin zituen idaztiak.

Adibide bat dakar On Manuelek esandakoa egiztatutzeko.

Koplakari ospetsua zan Milován. Bertsoak esan oi zituan buruz erriaren aurrean. Bere oroimena ez zan apartekoa. Ala ere, 40.000 ta geiago bertso buruz esateko beste ba-zala diño Kraussek.

Milovanen oroimenak errez gogoratzen zituan ikasitako bertsoak. 458 eskema esan-erazo eutsazan Kraussek bere aurrean 1885'garrenean. Itzez-itzez esaten zituan Molivanek zazpi illabete geroago; Molivanek barrero be gogoan zituan naizta zerbait aldatuta.

IRUDIPEN BIZKORRA TA ESAN-ALDIA

Argiro azaltzen ditu egilleak jarraian gai biok. Zertzelada berezi bi ditu aozko literaturak: aoz-esatea ta doiñuaren bidez oroimenean iraunderaztea. Gaiñera bereizgarri bi ditu aozko literaturak: Arritzekoa da aozko olerkari-koplakariak zelan erabilli oi duan ain bizkor eta ziurta-

sunez bere irudimena bere pentsaerak eta esanak azaltzeko neurria, amaia ta aria ausiteke.

Ziur eta ardua aundiz josten ditu olerkariak paperean bere irudi-penak eta pentsaerak. Astiro ta ixilean dagi bere lana; baiña neketsua-goa ta motelagoa bezela agertzen da aozko koplakariaren lanaren aurrean. Eta iduri bat jartzen du egilleak au argiroago ikusi dedin.

Olerkari idazlea eulia bezela ezti-ontzian, au da, bere pentsaera-mizkerian gozartzen dagoala esan daiteke. Kantatzen duan olerkaria ostera, erleak bezela da. Erleak txastatuzten duten loraren inguruan dabilta egaz geldituteke, ta lora batetik bestera ibilli oi dira geldi-aldirik barik. Idazten duan olerkariak atsedan artzen du ta bere irudipenari be atsedena damotso. Olerkari kantariak geldituteke ta bidean doala bezela dagiz bere koplak.

Berezko da. Gaurko olerkariak bere olerkiak ainbat geienek irakurri dagiezela nai du. Ori billatzen du. Aozko koplakariak une baten entzun dagioen kantatzen du. Orregaitik bere kantua beste era batekoa da. Berezkoagoa.

Antxiñako olerkariak kantatzean sor-erazten zuan eta kanturako. Literatura-legeak eskatzen du au. Kantatzean danak biziak, laburrak, bizkorak eta autuak izan bear du. Ebertarren olerkirik geiena aozko literatura-barruan sartu bear da. Oartzen danez bein eta barrero esaten diran bertso-gogaiak —naizta sor-eraziak izan— irudimenak tximista bezin bizkor darabiltza; orobat olerkiaren aapaldiak eta bertso bakoitza.

Beste onenbeste esan daiteke jaioen olerkiaz. Birjiliren Eneidak alako moteltasun-nagitasuna agertzen du. Homero'ren Odise'ak eta Iliada'k ostera bizitasun aundiagoa agertzen dute. Bai, ba, Homero'k erriko gaiak erabilli zituan eta aozko koplakarien erara. Birjili'k maian, gela-barruan sor-zituan bere pentsaerak eta koplak. Birjili mai-gizon eta patxaradun azaltzen jaku; Homero biziago, berezkoago ta errikoiago.

ESAN-ALDIA

Zabalkundeak eta jarraitusunak idazkera dute bide gaur egunean. Papereko lanak egas egiten dute ta betiro iraun. Antxiña ostera biltzar-rak ziran gogaien zabalkunde-bidea. Erriko merkatu-eguna abere, egaz-ti ta igali-sal-erosteko aña ziran izparrak, asmoak, gertakizunak eta goraberak jakiteko ta zabaltzeko. Orretan parte aundia izango zuten seguru

asko olerkariak, bertsolariak eta koplakariak. Egunerokorik eta irrati-televisarik ez-da, orri agiriak biderik onena barriak iragarri ta zabaltzeko. Ta erriak pozarren entzungo eutsen koplakariai. Koplakariak beingoan beraganatzen du erriaren biotza. Kantatzen dago olerkaria. Erria adi-adi entzuten. Burkideren bat laister jagiko da. Bertso-burruka ari da bien artean. Erantzun bizkorak, biziak, zorrotzak, zurrak, jostagarriak. Ta dana doiñuz, neurritan eta esan-aldi (improvisación) errez-arrigarrian. Olerkariak gai-ebardiñak erabilli ditu ta neurria, amaia ta doiñua galduteke esan-aldi argi-jarraian.

Bat-batean egin du dana. Beste gai ebardin batera bultzatu ta eroan du burkideak. Bereala ta egokiro erantzuten dautso doiñu berean eta neurria ta amaia osoturik. Esan-aldiaren doaia.

AOZKO LITERATURA OROKORRA TA EUSKAL LITERATURA

Aozko literaturari dagokiozan ezagutzari ainbat argi egin ondoren aukerako zertzeladak emonaz, aozko literatura orokorra ta erri-euskal literatura azaltzen du Lekuona jaunak, batez be aozko koplakaritzan esan-aldiak duan indar-garrantzia sakonduz. Jarrai dagoiun idazle trebe-argiari gaitetik eta azaletik baiño ezpa'da be.

ESAN-ALDIA - ADIERA BATZUK

Esan-aldia (improvisación) da ezbairik gabe gauzarik arrigarriena aozko euskal literaturan. Esan-aldia osoa bai eran eta bai bizitasunean.

Esan-aldia onek ez bardintasun-giro aundia du gaurko idazkerazko litaraturarekin.

Beraz ezin epaitu daiteke neurri ta era bardiñarekin. Aozko koplakariak daukozan erriak nolako erti-giroa duan jakitzeko, poemarik daukan ala ez galdetzea ez da bearrezko. Erri onek olerkia bizi du. Koplakarien gogoia du bere barnean. Poemarik ezpa'du ere, poemak bizi ta egokiro kantatzen dituzten koplakariak ditu. Ta au naiko izan beretzat, erri au berez ertilari baita. Barnean daroa poema-sugarra.

Iturria daukanak ez du oziña daukan auzokoaren bekaitzik. Orrelako erriak naiko ta aski du bere koplakarien iturriarekin. Eta koplakariak eurak be erria kanta-bidez pozik eukitzeko, ez dute idatzitako poe-

maren premiñarik: gai bat naiko dute. Gai au azaldu kantuz erriari. Euskalerrriak beti izan ditu koplakariak eta ugari euki be. Olerki-zale agertu izan da beti gure erria. Poema aundiak baiño koplakariak euki naiago izan du. Onela euki al'ditu jaietan-da pozaldiak koplakariai entzuten.

ESAN-ALDIAREN TAIUA TA IRUDIPEN BIZITASUNA AOZKO EUSKAL LITERATURAN

Arrigarria da benetan gure bertsolarien esan-aldiaren taiua. Batzuk beste batzuk baiño aundiagoa, baiña euskaldun bertsolari danak euki dute doai au. Enbeita, Xenpelar, Musarro, Pello Errota, Otaño, Txirrita, Prantxexa, Matxin, Larralde, Zepai, Xalbador, gogoratzea naiko. Batak besteari adarra jotzen orduak eta orduak. Ura esan-aldia. Ura etorria! Ura bertsoak neurtitza! Ura gaia beste batek barrita ta neurri ta doiñu berean!

Irudipen-bizitasuna be oso arrigarria da gure bertsolarietan. Ez du antzik eta bardintasunik idatzitakoarekin. Olerkari idazleak bere irudipenaren ispilluan geldi-erazi oi duala bide bere pentsaera. Aozko olerkariak ez. Aozko olerkariak egaz bezela azaltzen ditu kantuz bere pentsaerak. Bizitasun onek ez du nai esan txirotasuna, irudimenik-eza, arintasuna; osten, bizitasun onek aberastasuna, ugaritasuna ta edertasuna emon oi dautse bertsoai.

Egilleak diñoanez akatz batzuk oartu daitekez iñoiz aditzan aozko bertsoetan. Bardin oker batzuk joskeran eta aldiari buruz batez be edes-ti-gaian. Ain bizkor aldatzen du sarritan bertsolariak bere irudimena ta esateko era bai itzetan eta bai aditzan. Kantua izan du bertsolariak bere lagunik onena; bardin entzuleak. Ezin onartu dasakegu erri-euskal olerkirik kanturik gabe. Kantatzen dala sortzen du koplakariak bere bertsoa. Kantua da ba koplakariaren iturria ta kantua orobat olerkiak mendez-mende errian irauteko bidea. Ta esandakoak naiko bigarren gai oni buruz, egilleak zerbait geiago azaltzen duan arren.

BERTSO IRU AGERPEN

Oar eta esaera interesgarriak dakarzki Lekuona idazle argiak aozko euskal literaturari buruz bertso-iru agerpenetan, au da, bertsolaritza, ko-

pla zaarrak eta olerki edergarria azaltzean. Egilleari jarraituz iru erak azalduko ditut emen. Bertsolaritza zerbait geiago berak egilleak bezela.

BERTSOLARITZA

Bertsolaritzak indar aundiagoa eukan len antxiña. Sartuagoa egoan errian. Lengoak oraingoak baiño esan-aldia aundiagoa eukan. Ez Euskalerrian bakarrik; mundu osoan. Lege Zarrean Igarleak ezeze Job santuak eta bere adiskideak eta beste askok esan-aldia eukan. Eta Lege Barrian Zakariak apaizak, Simeon zaarrak, Ama Birjiñak eta Jesusek Berak. Gure Aberrian —Euzkadin— beti izango ziran erri-bertsolariak. Usoa Alos Anderea agiri da Deba'n XV'garren mendean eta Lasturko andereñoa Arrasate'n Peru Gartzia orokoarekin ezkondata egoana.

Gaur egunean gitxik dauke doai au; geien baten baserrietan jaio ta azitakoak.

BERTSOLARIA

Euskaldunak bertsolaritza-zaleak agertu izan dira beti. Alan be bertsolariak, bertsoz kantatzen dakienak, esan-adia daukatenak oso gitxi dira. Bertsolari-izena damotse onei erriak. Bertsolaria bertsoak asmatzen, egiten, sortzen dituana da. Sortuta kantatu. Aozko literaturak bear dituan doai guztiak euki bear ditu bertsolariak, au da: oroimena, irudimena, esan-aldia. Baiña ez ditu naiko bertsolariak doaiok.

Geiago bear du. Adimen argia, zorroztasuna, bizitasuna, arintasuna, zirikeria, erosotasuna ta ateraldia. Erriak batez be zirikeria nai du bertsolarian. Onela betiko izena itxi dute errian Xenpelarrek, Pello Errotak, Musarrok, Fernando Amezketerrek, Txirritak, Enbeitak, Matxinek eta beste askok. Zirikeria da jabe bertsolari oneitan. Onela jabetu zuten erria.

ERRIA

Bertsolaritza bertsolariak bakarrik ez du egiten. Erriak be bai. Erriak be parte du ta aundia. Kanta dagian bertsolariak eta entzun dagian erriak dagie bertsolaritza. Sarritan gogo bera, biotz bera egiten dira bertsolaria ta entzulea.

Bein baiño sarriago erriak txaloak jota berak bukatzen du bertsoa bertsolariaren itz berakin.

Bertsolaria gartsua ba'da, erria pilpilka jarriko du, batez be politika-gaiak azaltzen ba'ditu. Inoiz agintariak zigortu be egin ditu onelako bertsolariak eta atzerrira bialdu be bai. Geuk be ezagutzen ditugu onelako bertsolariak. Eta bat baiño geiago. Izen bat bakarra gogoratu dagi-gun. Iparragirre. Euskalerriak bere Lege Zarra galdu zuanean Iparragirek bere bertso aberkoiak abestu zituan ainbat tokitan. Tolosan espetxeratu zuten agintariak. Onela abestu zuan bertsolariak bere zoritxarra:

Zibillak esan dute
bizi, egoki,
Tolosan bear dala
gauza au erabaki.
Giltzapean sartu naute,
poliki-poliki...
negar egingo luke
nere amak ba'leki.

BERTSOLARIAREN IZEN AUNDIA

Gure erria bertso-zale da. Barru-barruan daroa griña au. Orregaitik maite ditu bertsolariak. Ikusteko da gaur be. Naizta kirolak eta beste ainbat jolas euki errian, bertsolariak iragarri ezkerero ara doa erria dana itxita. Eta ba-dira gaur be zorionez bertsolariak eta onak izan be Euzkadi osoan.

Bide bi ditu bertsolariak erriarengana urreratzeko: bertsoak agi-rian kantatuz eta bertso paperak argitaratuz. Lenengoa biderik onena ta au dogu gogoan bertsolaritza aitaturtean. Bertsolaritza au da aozko literaturaren agiririk osoena; koplak zaarrek eta olerki edergarria baiño be bai.

AOZKO LITERATURAREN BEREIZTASUNAK BERTSOLARITZAN

Ez da emen esan bearrik esan-aldiak, pentsaera ta gogaien-neurke-
ra ta igikurak eta oroimenak bertsolaritza dauken garrantzia. Asieran esandakoak naiko.

Auxe bakarrik ezarriko dot an pentsaera-neurkeraz esandakoai: bertsolariak koplakariak bezala bertso-azkenerako izten duala gogairik garrantzitsuena. Onela jokatuta geiago ikutzen du entzulearen biotza. Onetan zuberotarrak maxuak dirala diño Lekuona jaunak. Zuberoako Larraineko Ligeix bertsolaria aitutzen du.

AMAIA, DOIÑUA, METRIKA TA DANTZA BERTSOLARITZAN. AMAIA

Auxe esan bear da lendabizi: Bertsolaritza amaiak kanta-doiñuan du bere indarra, bere mamia. Kantuan uztutzen du bertsolariak bere etorria, bere pentsaera. Bertsolariak ez du gogoan zenbat bertso-izki esan dituan. Doiñua bakarrik du gogoan. Askatasun osoz azaltzen du bere pentsaera, bere etorria. *Puntuak* bakarrik ditu gogoan. Orobat amaiak. Bederatzi *puntuak* bertsoak dira zallanak. Egilleak diñoanez bertsook dira bertsolari on baten *tour de force*. Maxu agertzen dira onetan Xenpelar eta Bilintx "Betroyaren tratuan eta Zaldi baten bizitean".

Kantu aundia du euskaldun bertsolariak amaian. Ez du ontzat artzen oskidez (asonante) amaitzea; idekez (consonante) amaitzea nai du. Bestetik ontarako *da ta du* aditzak bein eta barriro bertso baten esan arren ez dagie *pofo*; bardin *bat* itzak.

DOIÑUA

Doiñuan datza aozko literaturaren edo erriko olerkien igidura. Ez da bardin doiñua bertso berrietan eta esan-aldietan. Bertso berrietan esan-aldietan baiño doiñu-dezbardintasun aundiagoa dago. Esan-aldietan bertsolari bakoitzak bere doiñu begikoak daukaz asko ezpa'dira be. Onelako bertsoak neurrik ez daukela esan daiteke; ostez igidura aundia dute. Beingoan sortzen ditu bertsolariak bere gogaiak eta itzak eta bertsoa osatezko ez du bear aldirik. Kantatuaz batera sortzen ditu. Ezaguna da gaur be Pello Joxeperen kantua. Lau alditakoa da. Gaurko bertsolariak ez darabille, obeto esan, aldátuta darabille. Naizta doiñu au erabilli euren kantu-bertsoetan, zortsiko bezela kantatzen dute, arin eta bizkor-zamar eta punturik gabe, alako gregoriano kantaren erara.

Bertsolariak euren be konturatzen dira euren doiñua zerbait dez-bardiña dala aldian eta kanta-era au "*kaletar*" bezela kantatzea omen

da. Zerbait aldatu ta ikutu egin dute bertsolari barriak doiñua. Gaiñera alderdi bakoitzak bere zera, bere bereiztasuna du.

Auñamendi aldeko aozko bertsolariak obeto biribilduta kantatzen dabez. Musika-aldetik be obeto esanak. Lekuonak berak dionez Enbeitak era barria sortu zuan Bizkaian. XIX'garren gizaldiko Euskal taiukoak alegia, zortziko eran. Berak dionez, Enbeitak era barria sortu zuan Bizkaian. XIX'garren gizaldiko Euskal taiukoak alegia, zortziko eran. Enbeitarenak aparteko doiñua ta igidura zeukaten. Arrese Beitiaren *Arbola bat zan paradisuan* bezelakoa edo antzekoa.

METRIKA TA DANTZA

Metrika-aldetik zortziko aundia ta zortziko txikia dira geien erabiltzen diranak. Zortzi pikuko bertsoak be erabiltzen dira. Oneitarikoak dira adibidez *ikusten duzu goizean* eta *Uso txurian*.

Dantzaren aldetik ez du kantuarekin bat eginda egon bearrik, au da, gorputzaren ibilteak ez du izkiarekin balerazi bearrik. Lekuona jaunak dionez Laburdiko ta Zuberoako bertsolariak izlari bezela ere agertzen dira erriaren aurrean. Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak geldi egon oi dira, eskuak eta besoak erabilteke.

KOPLA ZAARRAK

Bertso berriak eta koplak zaarrak bardiñiak edo antzekoak dira; Koplak zaarrak gabetako eske-ibilladietan esan oi dira; Gabon Gabaz, Urte Berriz, Santa Ageda gabaz, iñauteritan, eta San Juan gabaz. Pandereta-dantzan eta antzekoetan be bai. Buruz kantatzen diran arren, lenengotan esan-aldiak ziran. Au sortze-aldetik. Trebetasun-teknika-aldetik bertso berriak añako dira. Bere alderik onenean alegia. Poesi-igiduraren aldetik, bertso berriak baiño bizitasun aundiagoa dauke. Gaia ez da ain egokiro osotzen. Aria be koplarik-koplara ez da ain jarraien azaltzen.

KOPLAREN TEKNIKA

Kopla bakoitzak lau bertso daukez. Lenengo biek gogai ta pentsaera berezi bat azaltzen dute. Gogaiak gizaditik edo ertitik artuak'izan oi dira. Azkeneko biek sailleko gogaiak azaltzen dituzte. Teknika onen

bidez koplakariak azkenerako izten du bere pentsaerarik zorrotzena. Lenengo zatia bigarrena gertatzeko dala esan daiteke. Bata besteagandik ez bardiñiak dirudie.

Sarritan koplatako zati biak alkartu-eziñiak dirudie. Baiña ez da onela. Ba-dute ziñez alkartasuna, ar-emona. Alkartasunik ezpa'luke erriak elukez ontzat artuko, ezetsi egingo leukez. Erriak bertsolari txarren bertsoak beti ezesten ditu.

Guk bear bada ez dugu oartuko alkartasunik, baiña erriak bai, erriak alkartasuna oartzen du zati bietan. Jakintza adimenaren elburua izango da; baiña olerkia biotzaren eta irudimenarena. Egilleak geiago azaltzen du gai au adibideakin, baiña idazlan ontarako naiko esandakoak.

OLERKI EDERGARRIA

Ots-izenak eta itzak dagie geien baten olerki edergarria. Lelo kantua dira. Lekuona jaunak dionez lelo kantak ez dauke esan gurarik. Gizaditik artutako itzak dira.

Ots-izenok (onomatopeya) gauzen mintzoa adieratzen dute. Oso ai-patuak eta erabilliak dira euskeran ots-izenok. Gaiñera euskerak erreztasun aundiak ditu ots-izenak erabiltzeko. Olerki edergarriak onura aundia iriste du ots-izenokin. Indar aundia dauke gauzak esateko ta azaltzeko. Seaska-abestietan batez be asko erabilli oi dira ots-izenak. Samurtasuna, goxotasuna damotsoe olerkiari.

Ots-izenak asko bereiztutzen du kantua. Bereiztasun onek urritasunean du oiñarria. Erti guztiak urritasunean dute indarra. Urritasunean goi-maillan jartzen du elertia ta beraz olerkia. Au olan-da ots-izenak ar-emon aundia du olerki edergarrian. Baiña bereiztasunak urritasuna bakarrik ez du nai esan. Bereiztasunak gaiñera gogoetatatu ta edertu dagi aukeratutako pentsaera.

Egilleak beste iritxi ta lege batzuk be ba-dakarzki olerki edergarriari buruz, baiña aurrean esandakoak naiko dirala deritxat idazlan au geiago luzatzerik ez nuke nai-ta.

Algo sobre la ermita de S. Juan Barrio Iturreta, Marquina

On Manuel'eri atsegín aundiz eta xaloki

KARMELE DE GOÑI

Expreso mi admiración y cariño a D. Manuel, ofreciéndole este pequeño dato que someto a su valoración e interpretación.

Recorriendo las ermitas de Vizcaya a la busca de fotografías interesantes para el Concurso, que a este fin había organizado la Sección de Etnografía de la Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi en el año 1967, llegamos a Marquina donde entre sus muchos motivos artísticos y monumentales destacan sus primitivas y sencillas ermitas.


Por la entonces recién abierta carretera subimos al barrio de Iturreta, que preside su ermita de San Juan. Sencilla en su estructura de nave a dos aguas con pórtico que le rodea por el frente y lateral derecho, presenta dos detalles curiosos:

El primero lo constituye el trabajo de madera del revestimiento interior de la cubierta que con un trazado de nervios y claves de este material imita rústicamente un abovedado gótico. A señalar los remates de las vigas del coro que con diseños diferentes recuerdan los canes de las catedrales góticas.

El segundo es la clave de su puerta principal, de diferente calidad que el resto de la sillería, que presenta una leyenda latina y unos grabados que reproduzco ampliados por entender que es la mejor descripción.

La piedra mide 85 cms. en su eje longitudinal por 55 cms. de anchura en su parte superior y parece como si la esquina superior derecha no estuviera completa, lo que afectaría a la primera línea de la leyenda.


Los vecinos de Iturreta siempre la han conocido en su actual estado y situación.




CLAVE PUERTA PRINCIPAL
ERMITA DE SAN JUAN
ETURRETA, - MARQUINA



Detalle del arco, con los grabados de su clave.




Nervadura de madera en una de las columnas.



Markina. - San Juan de Iturreta. Puerta principal.



Interior de la Ermita. Detalle de la bóveda en madera.



Banco

Euskal «Hache»ren yatorria

JUAN GOROSTIAGA

Noiztik dauka Euskereak H edo aspirationea? Zar-zarra, euskera zarrenena da, ala geroztik etorria?

Zegaitik euskalki batzuek bakarrik —iparraldekoak— eta ez egoaldekoak (mugatan izan ezik) oraingoan beintzat?

Eta zegaitik H-dun euskalkiak ez euren artean, ez bakotxean, ez dabe H ori tink eta beti era batean erabilten?

Azkenez, zegaitik geldi-geldika galtzen doa H ori?

Argigarri batzuk :

- 1) Eskualeri (r-rr), Eskualheri eta Heskualheri (BN)
- 2) hun baña untsa (S)
- 3) harma baña "arme/arma" erderatan
- 4) Haizkora baña "asciola" latíñean
- 5) Hordi(a) baña "odrina" españeran; bardin hudio baña "odio", ahi(a) "puches" "farineta" baña "harina" españeraz, uhe "palo" "vara" baña "fouet" ("fué" otsean)
- 6) habia baña "cavia" ("cavea") latíñean, Hauzi baña "cause" frantzezean
- 7) aurpegi (BN) baña ahurpegi (S)
- 8) koorro baña "cor" (callo, dureza, etc., frantzezean)
- 9) lardeki eta lahardekatu ("larru"), ahaire ("aire"), mihimen ("vimen") ahari, ari baña frantzez (dialect) Aré, aret (lat. ariete).
- 10) Haidor ("aire" españ. "airoso").

Ikus zertzelada eta zehetasun geiago Gramatikaetan eta Iztegietan.

Irakurri orain Grammont'ek diñoana (Traité de phonétique, Paris 1933, pág. 177): "Certaines des causes qui tendent à fixer la langue peuvent dans d'autres conditions devenir un motif de changement, en particulier la *mode*. On imite la prononciation d'un personnage en vue, ou d'un groupe de personnes (cour, académie), on subit l'influence d'une

orthographe artificielle ou non adéquate, etc. Les changements volontaires ne s'étendent ordinairement pas au delà d'un groupe social étroit (incoyables, argots); au contraire l'imitation plus ou moins inconsciente d'un idiome prépondérant peut se développer dans de vastes régions et s'étendre à des populations tout entières".

Irakurri orain latínean zer gertatu zana. Niedermann (Aita Rufo Mendizabal "Compendio de Fonética histórica latina" biurturik, Madrid 1920, págs. 60-62): "Al comenzar el período literario... esta aspiración (h) pronto se perdió totalmente en ambas posiciones (inicial y medial)... Sin embargo, la gente culta por influjo de la ortografía restableció la aspiración, y el descuidar una h, en la época clásica, era señal de gente baja y poco educada. Pero como esa pronunciación era puramente artificial, pronto se produjo el fenómeno que hoy, en Inglaterra se conoce con el nombre de "to drop one's h's", es decir, el empleo abusivo de la h en palabras que no debían tenerla (ejemplos, bertan). Nadie extrañará que desde entonces una de las principales preocupaciones de los gramáticos romanos fuese definir los límites precisos de la aspiración. Sus esfuerzos, las más de las veces estériles, son comparables a los de nuestros maestros de francés, cuando se empeñan en hacer distinguir a sus alumnos, la h aspirada de la h muda, siendo así que por lo menos desde hace dos siglos no hay en francés h aspirada, a no ser en el habla local de algunas provincias como la Normandía".

Ta frantzezean era zer gertatu zana (Meillet, Linguistique historique et ling. générale, Paris 1926, pág. 86): "Toutefois durant longtemps les conquérants (franc. méroving) ont gardé leur langue qui avait le prestige d'être la langue des maîtres. Le gallo-roman a donc emprunté beaucoup des mots à la langue des Francs... le latin vulgaire n'avait pas d'h, alors que h était fréquent en germanique... les Francs que parlaient latin ont gardé h... dans les mots germaniques qu'ils mêlaient à leur latin, et les populations galo-romanes ont tenu à prononcer correctement ces mêmes mots germaniques (ejemplos bertan)... ceci montre que, pendant un temps, il a été élégant de prononcer ces mots latins avec un "accent" germanique... l'h, elle s'est maintenue davantage; mais elle a fini par disparaître... et l'on sait que le français actuel n'a pas d'h; la présence ancienne de h se traduit seulement par des hiatus".

Bardín ere Dauzat (Histoire de la langue française, Paris, 1930, pag. 55): "...l'effacement de l'h avait déjà commencé en latin classi-




Oyarzun. 1925. Zalakain' dar Ramon'en meza-berrikoan. Lekuona jauna ta apaiz-berriaren bienartean, Irigoyen' dar Pablo, erriko apaizburu jauna. Atzean, zutik, zazpi apaizgai erritar. Eskubitik asita irugarrena, Lekuona'tar Martin, gure Lekuona jaunaren anai zana... gero apaiza zalarik, gure etsaiak, guda garaian su-izkilluz erail zutena (†).

Calahorra'n. 1947-XI-22. Pedro Gutierrez ereslari adiskidearekin.



1926- VIII - 12. Iraeta'ko elizan
«Greco» margolari espetsuaren San
Pablo laukia aurkitu zuan egunean.
Irri-par gozoa dario D. Manuel'i...
eta ez gutxi gorako!



1961-VI. Escudero ereslari otsaundikoarekin, «Zigor» eres-antzerkiari begiraldi bat emanaz. - Escudero'renak eres-lanak; Lekuona'renak izkiak. - Eskuin-aldean, irizlari-zorrotz, Pio Montoya apaiz Jauna.



que...; il est complet dans la langue populaire dès l'époque de Cicéron. L'influence du germanique, par l'intermédiaire de nombreux mots d'emprunt, reintroduit cette consonne dans la Gaule, sauf dans le Sud-Est, qui échappa en fait à la colonisation germanique". Eta oarpen baten: "La présence de l'h en gascon dans les plus anciens textes et le recul de l'h vers le nord, qu'on observe en langue d'oïl dès le XVI siècle, font présumer qu'au moment où l'influence germanique atteignit son maximum (vers le VIII siècle), l'aire de l'h devait être cohérente en Gaule et englober une grande partie de la langue d'oc (la région soumise à l'influence des Wisigots). L'effacement de l'h, propagé du Sud-Est, a dû commencer de bonne heure". Ikus ere pag 99: "L'h, que le latin avait éliminé dès l'époque de Cicéron et que l'influence des envahisseurs germaniques avait rétabli dans la plus grande partie de la Gaule, disparaît de nouveau aux abords de la Renaissance... l'h n'est plus conservé que sur la lisière du domaine germanique et une partie de la Normandie côtière. Au XVI siècle, Scaliger note qu'on ne sait plus pronocer l'h et que ceux qui veulent emettre ce son le font d'une façon forcée, comme s'ils aboyaient...".

Gogoratu geinke. "...si los oyeres hablar te acordarías de los perros que ladran, pues tienen una lengua de todo punto bárbara". Codex Callixtinus (biurturik, Marqués de la Vega Inclán; Madrid 1927).

Grammont berak h-dun izkuntzak zelakoak diran diñosku (Rev. 1. rom LX LX 438): "Les langues sont, comme toutes les institutions humaines, plus ou moins perfectionnées, plus ou moins civilisées... A mesure qu'une langue s'affine, elle se débarrasse de ce qu'elle pouvait posséder de rude ou de violent... Une langue qui gaspille du souffle à des aspirations... est à un degré de civilisation inférieur. Le français qui est sans aucune espèce de contestation possible la plus affinée de toutes les langues du monde, ne connaît pas d'aspirations... Le français n'avait pas érite d'aspirations du latin, qui les avait perdues dès le siècle d'Auguste; quand il s'est mis à en articuler sous l'influence des invasion germaniques, il a subi un recul. Il s'en est débarrassé assez vite. L'espagnol et le gascon, qui n'en avaient pas érite non plus, en ont refait par évolution des F; mais le gascon que les garde encore est à un degré de civilisation bien moins avancé que l'espagnol qui les a depuis longtemps évincées".

Bertan era diño zelan Italian (Toscanan) erriko semeak "questa

Casa Costa troppo" esan ordean, "questa Hasa Hosta troppo" esaten dabela...

Ta ez bakarrik H ori, Euskereak ba-dauka beste ez-yatorrizko otsak; begira L eta LL, N eta Ñ, S eta Z, V eta B, I (yota) eta JOTA, indar —azentu edo "acento de intensidad Zuberoan eta, H-kin, germaniko kutsuaz.

Moda au (Hachena) gure egoaldeko euskalkietan, idazkeran beintzat, Naparroan kluniazense —aldian sartu zan, baña gero galdu zan yatorrizkoa ez zalako (Ikus Grammont, *Traité de Phon. len aitaturikoan* pag. 164).

Iparraldeko euskalkiak beti euki dabe egoaldean sartzaira andia, ex bakarrik lenengo Renazimentoan, bigarrean ere (Echepare; Leizarraga); bardin frantzezak, provenzalak gure euskal-yakitunetan indar andia euki eben (agirietan zarrenetan, Refranes y Sentencias 1956 eta).

Gaur, gaur norbatzuen asmoa H ori esakeran (pronuntiation) eta idazkeran (eskritura, ortografía) barriz sartzeko, nire lantxo au irakurri dabenak erabaki begi. Eta ez-yatorrizkoa, eta ez-bearrekoa (idazkeran?) eta bai kampotarra eta ez iraunkorra. Euskal-batasunerako egokia?...

Akitano-inskriptionetan ugari eta sarri agertzen da benetan H ori, baña yakin bear dogu Keltatarrekin batera azpiratuta edo lotuta Germanotarr-talde batzuk etorri zirala. Gure ANDERE (ANDRAKA, Bizkaian) euskalki guztietan H-gabe da; bardin NESKA (ez NESKHA) alemanez NIX (Ikus Lizop; *Le Cominges et le Cous. Toulouse-Paris* 1931 pag. 62) "Niskae" inskription batean. Beste baten geiago onetzaz.

Amaitzeko. Itzaldi edo Konferentzia batean idatzi nebana agertu gura dot orain.

Euskera da gure erriaren izena eta izana, Euskalerrarena; bere biziaren suspergarria da, baña bakarra eta bakartuta dagoanezkero, edo nundik arnasa artu-bearra dauko. Eta Palestinan gertatzen dana, gure artean era gertatu da aspalditik. (Patai "On Cultura Contact and its Working in Modern Palestine", 1947) Konferentzia orretan esaten neban Melville J. Herskovits tik artuta: "Para los judíos éste (el lenguaje, como la agricultura en las nuevas tierras) ha sido cuestión de interés y debate como resultado de los muchos problemas que entran en la utilización del hebreo en una colonización moderna. Los árabes, no obstante, han dedicado poca atención al lenguaje. Así es que encontramos

rápidos cambios y la incorporación de palabras árabes al hebreo de Palestina; pocos cambios y pocas palabras hebreas al árabe de Palestina. En un caso, el lenguaje es de interés focal, opuesto a la manera en la cual el árabe ha dado por bueno su modo de hablar.

Otras culturas también, como la vasca, aportan un ejemplo de conservación de un foco original bajo transculturación forzada.

La vieja etnia vasca conservando lo esencial se dejó penetrar y ampliar de las influencias civilizadoras dominantes en el período histórico al compás de los tiempos.

El impulso carolingio que detuvo la decadencia de Occidente supuso en la vida general del Pueblo vasco un paso si no tan decisivo y dominante como el romano sí más rico y progresista, al cristalizar dentro del área los embriones de una Euskalerría ilustrada y de una Navarra imperial clánica.

Si comparamos el estado inicial de la evolución histórica con el final, lo que resalta no son las supervivencias y conservatismos sino las novedades y las innovaciones. Cuando tras el baño en el Renacimiento carolingio y superada la prueba islámica, el Pueblo vasco emerge a la observación, se revela no ya resto aborigen inerte ni engendro mestizo aberrante sino producto original de plena historia, reviviscencia del sentimiento nacional, revitalización del idioma ancestral, renovación del fondo cultural, trazado territorial doblado, población y autonomías desbordantes.

En particular el idioma —el elemento más tangible de la etnia— cobra categoría (eskuara paralelo al Theotiska lingua) y asistimos al punto de partida de una literatura popular (bersolarismo, canción) y de un cultivo gramatical intenso, de neta escuela monacal.

Más importante que el mero nacer y perdurar en la oscuridad es el injertarse y prosperar tomando lo mejor de las civilizaciones superiores en contacto, asimilando lo que de útil se encuentra en derredor"...

Xalbador'ekin gure iru azken- -alkar-izketak

HERNANDORENA'TAR T. (ONDARRABI'N)

LEHENA

Aurtengo Ekainaren 20'an 1976 Donibane Lohitzun'en Xalbador'eri egindako omenaldiaren ondotik, susmur txarrak zabaldu ziran bere osasunari buruz: begi bat galdu eta biozetik eri zela.

Egun artan, goizetik Donibaneko omenaldian izan arren, berarekin itzegiteko aukerarik ez gendun izan, mezetik lekora, etxeratzea beartuak izan giñalako.

Orregatik, susmur oriek jakin bezin laixter, Urepel'eko bere etxera jo gandan, gure kezkek arindu asmoz. Eta Xalbador'ekin solasaldi bat egin ondoren ¡XALBADOR ERI! izenburuko idazkitxo bat argitaratu gendun "Goiz-Argi" astekarian, Xalbador'en eritasunaren berri emanaz.

Idazkitxo ura borobildu nai degu gaur, orduan ixiltzera beartuak izan giñan xeetasun bat aipatuaz.

KEZKATI BAÑO ITXAROPENTSU

Xalbador'ekin izan gendun solasaldi artatik, kezkatu baño itxaropentsu etxeratu giñan eta ona zergatik.

Etxe aurrean biok buruz-buru solasean giñala, izketaldiko tarte batean "ekatzak eskumuturra" esan genion, pultso ori artu dezadan. Ordu-rako esan bai zigun sendagilleak biotzetik arras eri aurkitu zutela eta osagarriak artzen ari zela berriro ospitalera itzuli aurretik, operatuko zuten edo ez jakiteko.

Guk eskatu bezela, Xalbador'ek eskumuturra ixil-ixilik zuzendu zigun. Arrituta, ezin sinisturik gelditu giñan, zeukan pultsoa ikusirik: bata bestearen ondotik taupada berdingabeko pultsoa zan, izugarri desberdiña, "arrítmico" esaten dana, eta beraz, arrunt txarra.

Ori ikusirik, len aipatu galdera bat itaundu genion: Ondo sentitzen aiz...— Zonbaitetan ez dek nekealdirik nabaitzen...?

Eta berak iardetsi: Len ere esan dizut: "Orain dela bizpairu urte gaixorik egon nintzan. Sendagilleak urdailekoa zala esan ziraten. Ura pasa zan eta geroztik ustez beintzat, ongi naiz. Nere biotzeko mina, begiko ezbeharak argitarazi du".

Ori entzunik, berak Errexil ebetsolatiarengatik kantatutako bertsoa bururatu zitzaigun:

Bainan norik erran holako gaitzik
Bazegola haren baitan.

* * *

Xalbador'ek, pultsoa zer nolakoa zeukan etzigun galdetu eta gure iritzi latzgarri ura guretzat gorde gendun, ez berari, ez familiari ez eta "Goiz-Argiko" irakurleeri deusik aipatu gabe.

Itxaropen bat gendun: Osagillen eskutan zegon Xalbador eta gaitzak aztertu eta sendatzeko dauden gaurko aurrerapenekin, Xalbador'en biotz miña, sendatu ez bada ere, beintzat miña arindu eta bizia luzaariko zioten itxaropena.

Orregatik kezkatu baiño itxaropentsu etxeratu giñan, Xalbador oraindik luzaroan gurearteko izango gendun itxaropenarekin.

* * *

AZKEN AURREKO ALKAR-IZKETA

Illabetetsu bat pasatu zan guk Xalbador ikusi ezkerotik eta bere berririk ez gendun. Ezin ukatu kezkatu giñala.

Orregatik, Agorreko lehen egunetan Baigorri'n erreboteko partida bat jokatzekoa zala jakirik, egun ura autatu gendun, partidaren ondotik Urepel'era inguratzeko.

Donibandarrak eta Atharraztarrak partida izugarri ederra eta luzea jokatu zuten, ederrez eta emozioz, aspaldian, bear bada beinere ez, ikusi ez dan bezelakoa.

Orregatik beranduxko, ordu biak pasatuak ziran gu Urepel'eko Xalbador'en etxera iritxi giñanerako.

Etxekoandreak errezibitu gindun. Agurtu ondoren "Nola da Xalbador?" itaundu genion. Eta berak erantzun: "Ongi da ongi, mila esker. Baina sar zaite barrera, otoi. Orain pausan dago Bazkal ondoan pausa txiki bat egiteko oitura du".

Begira etxekoandre, Xalbador'ek nola jarraitzen zuan bakarrik jakin nai gendun. Zure esanarekin lasaitzen naiz eta ez du balio gizona altxaaraztera. Utzi, pakean pausatzen".

"Ez, ez, iardetsi zigun etxekoandreak, bera ere pozik izango da zu ikusirik eta bereala etorriko da. Zaude instant bat".

Binbitartean Xalbador'en seme Mixel'ekin gelditu giñan sukaldean kontu kontari.

* * *

Etxekoandreak esan bezela, bereala agertu zitzaigun Xalbador. Lehen kolpez sasoi onekoa, ez beintzat eritasun aundi batek mendean zeukan itxurakoa; pausoa senda, izpiritua argi eta arpegi oneko gizona azaldu zan gure aurrera.

Agur Xalbador eta barkatu, beranduxko etorri nauk. Pausa moztuari dit. Baigorri'n jokatu dan erreboteko partida zoragarria dek errudun. Egun batez, joko oneri bertso zonbeit eskeini bear dizkak. Len ere esan izandu dit.

"Badakit, erantzun zigun Xalbador'ek. Baina zure eskutitza nik ukan ordurako, bertsoak pilotako sariketara bialiak nitun".

ERITASUNAREN BERRI

Utzi dezagun, Xalbador pilota jokua eta esan, nola jarraitzen dek biotzeko eritasunarekin. Etxekoandreak esan zirak ongi aizela eta berri orrekin asko poztutzen nauk.

Xalbador'ek itza artu eta antxe, sukaldean familiaren aurrean, berak gauzak esaten eta aztertzen zekin eran, gora-bera danak, Bordole'ko ospitalean egin prueba eta examina guziak garbi kontatu zizkigun.

Examina orien ondotik, sendagilleak operaziorik etzela bear erabaki omen zuten eta jarraitzeko etxeko pausan, emozio aundirik gabeko

bizimodu lasai bat eramanaz. Osagarri batzuk errezetatu dizkirate eta ontan jarraitzen det”.

Bainan, ikusten deranez, pipatzea eta bear bada arno txirripa bat edatera ere ez ditek debekatu. Eta ori seinale ona dek, nabariazi genion Xalbador'eri.

Zoritxarrez,, bertso saioketan ez degu geiago ikusiko Xalbador...!

”Ez, erantzun zuan Xalbador'ek, neronek igartzen diot orrek asko nekatzen naula eta utziarazi dirate”.

ETXEKO PAUSAN BERTSOAK EZARRI...

Orain, Xalbador, etxean ongi laketuz eta pausatuz, naiko denbora daukak, bertso ederrak egiten jarraitzeko. Azken denbora orietako bertso paperen sariketa geienak, denak ez bada, irabaziak dituk ”Mendaro Txirristaka”... Xenpelar saria... eta abar, denak zein baiño zein bertso ederragoekin. Len ere esana dit, neretzat denetan ederrena ”Jiankoa eta ni”. Ori zoragarria dek, paregabekoa.

Aurrerako ere gaiak ez dituk eskas izango, baiño nik gaur liburu bat ekarri dit iri eskeintzeko. ”Bombas y mentiras sobre Guernica”dik bere izena. Liburu onek bi gauza nabarmenduazitzen dizkik: euskaldunak gerla ortan jasan bear izan dituzten sufrikarioak batetik, eta gure etsaien maltzurkeria bestetik, Gernika guk euskaldunak kixkali degula esanaz.

Liburu onek, bear bada, zerbait esanaraziko dik.

Ori esanik, etxeoandrearari luma bat eskatu genion liburuan gure eskeintza Xalbador'eri egiteko.

OROITZAPENAK

Sukaldean, familiarekin egin solasak bukatu ondoren, Xalbador'ek etxe atarian utzi gendun berebillera lagundu gindun eta antxe gure solasak luzatu.

”Zenbat urte Xalbador elkar ezagutzen degula...?”.

”Ez dakit zuzen baiño, ogeita amar inguru, erantzun zigun”.

Bai, aurten juxtu 30 Donibane Lohitzun'en 1946'ko Agorrean, Ipar aldeko Euskalerrian guk eratutako lehen txapelketan.

Orduzkeroztik, Xalbador, zenbat ibillaldi elkarrekin eginak!... Noizian beinka gure gora-berak, alako diferentzi txikiak izanak gaituk: i txapelketaren aurka, eta nik berriz txapelketak bear errian, garai artan ezagutzen etzan bertsolaritasuna sortu eta zabaltzeko.

Baiño zenbat egun eta memento onak ez ditugu elkarrekin pasiak! Gogoraari, Urruñia..., Paris..., Gernika..., Sara..., Hasparren... Louhossoa..., eta..., eta.

Or goien, solairuan, sari-oroitzapen franko ikusi dizkit: zillarrezko txapel mexikanoak... kopak... euskaldun txapelak..., batzuk nere eskutik artuak. Ontzako urreak ez dituk ageri...

NERE OROITZAPENAK

Barkazak, Xalbador, nik ere neretzat gogoangarri diran oroitzapenak gordetzen dizkit eta irekin emen berriztea atsegin zaidak.

Oroitzapen ederrenetako bat 1958'an Urruñia'n gertatua dek, eta gainera bertsolaritzaren ixtoriarako garrantzi duna. Bear bada go-goan dek.

Saioketa artan bertsolariak lendabiziko aldiz kantatu zenduten LAU

ITZ ALDREBESEKIN borobildutako bertsoa.

Urruñia'ko saioketa artan Mattin'ek eta biok kantatuak ditut xixtema ortako BI LEHEN bertsuak.

Mattin'ek itz oriekin: Gezur... ezur... elur... beldur.

Ona iri jarritakoak: afal... ahal... apal... itzal.

Mattin'ena ez dit gogoan. Ona itz oriekin ik eman bertsuak:

Gorputzez gora bainan jakitatez apal

Famatua naiz eta badut aunitz itzal

Etixerat ez banaute eramaten ahal

Egun bearko dut emen bertan afal.

Ori dek xixtema ontan ik kantatutako lehen bertsuak.

Geroztik amaika eman ditut, zein baiño zein arrigarrigoak!

Xalbador'ek irripar-ezti batekin, deus esangabe, erantzun zigun.

D. MANUEL LEKUONA IZLARI

Neretzat beste garrantzi aundikoa dan oroitzapen bat ere barkatu bear dirak. Louhossoan gertatua.

Egun artan saioketaren aurretik, ik ziur ezagutzen deken D. Manuel Lekuona jaunak, Juan Mari'ren osabak, bertsolaritzari buruz eman-dako konferentzia. Nere iduriko, saioketa baten aurretik gisa ortako itzaldiak garrantzi aundikoak izan litezkek bertsolarien kultura-eziketarako, ta berdin bertsolarien eta entzuleen bertso-jakintza sakontzeko, batez ere gai orietan aifñ jakintsu dan D. Manuel Lekuona bezelako gizon batek emanak badira.

Ez dit uste sekulan orrelako itzaldirik berriztu danik. Eta tamalgarria dek.

Bueno Xalbador: Naikoa mintzatu nauk gaur, i ixilik egonaizen denboran eta agurtzeko garaia dek.

Xalbador'ek berriro irripar-ezti batekin erantzun zigun, guk agurtzeko luzatu gendun eskua berarenarekin lotuaz.

Orrela bukatu gendun gure bigarren solasaldea.

Nork pentsa zezaken etxeko azkena izango zanik...!!

* * *

IRUGARREN ETA AZKENEKO ALKAR-IZKETA

Azaroaren zazpia zan, Urepel'en Xalbador'eri egiten zioten omenaldiko eguna.

Eguzki ederreko giro goxo batekin Urepel'era jo gendun, Xalbador'en ondoan egun ori pasatzeko asmoz.

Bertara irixterakoan, berebillarentzat tokia billatzen etzen erreza. Bizkaitik, Gipuzkoatik, Napparroatik, Lapurdi, Xuberoatik eta Baxenapar bertatik jendea parrastaka. Erri inguruko bide bazter denak berebillez josiak zeuden eta gendarmak, berebilla uzteko, oso urrun bialdu gindun.

Eliza bete-betea egon arren, barrena sartzeko suertea izan gendun, eta antxe aldare azpiko eskubi aldean ikusi gendun Xalbador, beinere ez bezela gorbata polit batekin, dotore apaindua, lerroan iru bertsulari



*Napparroa'ko aldun Jaun Iturralde'k Xalbador'eri omen-oroitza eskeñiaz.
(Urepel'en 1976-XI-7)*

Hernandorena'n argazkia

zituala: Xanpun, Larre eta Mattin. Meza emaile erriko jaun erretora, amar bat apaiz laguntzailekin, tartean Aranalde eta aita Zabala.

Jaun erretorak, Xalbador'en omenez egiten zan egunaren ospakizuna adierazi ondoren, Mattin'ek, bertso batean ongi etorri eta meza debozinez entzuteko eskatu zigun entzuleeri.

Jaun erretoraren sermoia, egunari zagokion erakoa eta aipatzea intergarri dena, Xalbador'en bertsoekin borobildua. Xalbador arras fede sendoko bertsolaria zan. Goiz artan bertan aita Zabalaren eskutik Jauna artu zuan.

Oso meza ederra, dena euskeraz.

* * *

Mezatic lekora, korrika bazkaltzeko txartelaren billa juañ gifañ, baño gu lerroan gifañala, Itzainak, egunaren erazailtako bat, ez geiago txartelik saltzeko agindua eman zuan. Ezagutzen bai gendun gizon ori, guretzat toki txiki bat ez ote zan izango geldetu genion eta buruarekin... ezezkoa adierazi zigun.

OMENALDIKO ARETOAN

Andik omenaldiko aretora juañ egiñan eta aurreko exertoki batean jarri.

Len lehenik Urepel'ko alkatea erriaren izenean jendeari ongi-etorri eta Xalbador'eri goresmenik biotzkorrenak zuzendu zizkion.

Ondotik, arratsaldean kantatuko etzuten bertsolariak bertso bana eskeini zioten Xalbador'eri, antxe maina baten atzean exerita zegoñ adixkideari.

Ona bertsolari orien izenak: .Alkat, Mendiboure, Clemente, Enbeitaa aita-semeak, Elgezu eta Mitxelena.

Ondoren, guretzat unkgarriena eta garrantzirik aundienekoa NAPARRO'ko ERRIAREN OMENA. Naparroa'ko Diputazioaren izenean, Iturralde, Diputadoak, itz batzuk Xalbador eta bertsolariak goratuaz esan ondoren, Xalbador'eri plaka eder bat eskeini zion Naparroako armarriarekin.

Ori izandu zan Xalbador'ek mundu ontan artutako AZKEN OMENA.

Bein baño geiagota goratu zuan Xalbador'ek NAPARROA eta napartarren euskaldun-anaitasuna.

Guretzat sinbolo bat bezela geratu da Naparroak Xalbador'eri egin-dako azken eskeintza ori, anai arteko lokarri bat.

Goizeko ekinaldia bukatzeko, Aranalde jaunak, Xalbador'ek argitaratu berri liburuaren aurkezpena egin zuan. Liburuari "ODOLAREN MINTZOA" deitu dio Xalbador'ek, eta izenburu orrek zerbeit esan naiko duala uste degu.

Aranalde jaunak, eskutan zeukan liburutik bertso zoragarri batzuk kantatu, beste zonbeit irakurri eta liburua, esan litezken itz goragarriekin goretsi zuan.

"OBEAGORIK... EZIN", aitortu zigun bukatzeko.

XALBADOR'EKIN GURE AZKEN SOLASAK

Etzen erreza, goiz artan Xalbador'ekin itzegiten. Baiño alako batez, guk ere tarte txiki bat izandu gendun.

Gure lenengo galdera: Nola sentitzen aiz Xalbador...?

Eta Xalbador'ek itzik gabeko jestu triste batekin eta sorbalda altxatuaz erantzun zigun.

Ondoren, zorionak Xalbador, esan genion omenaldiaren goizeko asiera oso ederra izandu dek. EuskalERRI guzitik jendea ugari, Meza un-kigarria, ire bertso zonbeit entzun dizkigu. Naparroako Diputazioaren eskeintza, neretzat eta iretzat oso atsegiña.

Antxe mai ganean zegon oroigarri ura, Naparroako eskudoa zeukan plaka bat, artu eta eskutan jarri nion Xalbador'eri, eman ari emen-txe esanaz, Naparroako armarrria onen aintzi nean eta euskal ikurriña-ren babesean. Argazki bat atera nai dit.

Xalbador'ek itzik atera gabe obeitu zigun eta mundu ontako azken argazkia atera genion. Guretzat oroitzapen paregabekoa.

Gero, bazkaltzeko tokirik ez gendula billatu eta etxeratzen giñala esan genion.

"Nola ez dezu aurretik manatu, asarre antzera, erantzun zigun Xalbador'ek. Gizona, inguruko ostatu batean edo bestenaz ementxe bertan bokadillo bat izango dezu eta geldi zaite arratsalderaarte".

Ez dik balio ni emen gelditzea Xalbador. Etzeukat deus egitekorik. Elduden asteen, aita Zabalak liburuak ematen dizkiran bezin laixter fa-

miliarekin ire etxera etorriko nauk eta antxe lasai, mintzatuko gaituk eta liburuak izenpetuko dizkiak.

Xalbador'ek onartu zuan gure esana, eta bostekoa emanaz eta be-rriro zorionduaz, agurtu gendun betiko gure adixkide mina.

* * *

Urrengo goizean, eriotzaren berri latzgarria jakindu gendun.

Egun batez Xalbador'ek, aitontzera zijoala jakindu zuanean, bertso au kantatu zun:

Beti ez gaitzen higa
tristeak diren gauzetan
zorion tokia ere
bada gure biotzetan.

Urepel'eko egun artan, Xalbador'en biotzean ez da naiko toki izan, zorioneko emozioak gairiturik, lertuta, antxe bertan gelditu zan.

Azken itz oriek era ontara eman litezkek...

Urepel'eko egun artan
Xalbador en biotzean
Etzen naiko toki izan
Zorioneko emozioak gairiturik
Lertuta, antxe bertan gelditu zan.

1976'ko Azaroaren 29'n.

Semblanza de D. Manuel

HIJAS DE JESUS (Andoain)

Siempre es difícil hacer la semblanza de una persona, sobre todo cuando ésta vive; nos puede tachar de exagerados o de poco gusto; pero resulta más difícil cuando se trata de una persona sencilla, que hace el bien sin redoble de tambor, escondida, humilde, sin dejar de hacer lo que, en conciencia, cree que debe de hacer, le dé brillo, o lo enlode, y, siempre con la mirada fija en el bien del prójimo. Así es D. Manuel Lecuona; así lo conocimos durante 20 años, día tras día. Puntual a pesar de los años y de los pequeños o grandes achaques que, toda persona humana, va sufriendo conforme avanza en la vida. Siempre sostenido por el cumplimiento del deber, más aún, por el servicio que podía prestar. Sin embargo el rasgo principal —algo así como su signo— es su vocación como confesor y consejero. Por el confesonario de nuestra capilla —antigua caballeriza, como muy bien nos explicaba él— y por la sala de ventana gótica, pasaron personas de todas las edades, sexos y condiciones sociales; a todos acogió como un padre, y a todos dedicó su tiempo hasta solucionar sus problemas. Dio paz, dio bondad, perdonó en nombre de Cristo con el amor y sencillez de los primeros Apóstoles que se sabían rudos pescadores y, no hacían gala, de ser los fundamentos de la Iglesia.



*Guda-ondoan, Altzaga'n, zenbait adiskideekin erti-azterketa baten ondoren, atiz-
-atarian.*

*Andoain, Arregi jaunaren etxean. Gure Lekuona, Lopez-Mendizabal dar Isaka to-
losarrarekin solasean.*





Oyartzun. 1960-VIII-12. Eliz-atarian, Lekuonatarrez inguraturik.

Erroma'n. 1965-XI-9/13. Liturgia-gaiak zenbait izkuntzetara itzulketak egin zituztenekin batera. (1) Lekuona jauna. (2) Oñatibia'tar Iñaki (biak oyartzuarrak).



LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Gure txanpon zaarrak

TXOMIN'EK

— "Aizu, Txomin; Ta... emen gure artean aurreko gizaldiek nolako dirua erabiltzen zuten?"

Orrelatsuko galderak bein baiño geiagotan egin izan dizkirate, txanpon zaar-zale ta biltzaille naizela-ta.

Erantzuna, ordea; batere tajuzkoa izatekotan, itz gutxitan ezin eman inñolaz ere, zeartasun batzuk aurrez jakiñarazi gabe.

Asi gaitean, ba, errazenetik. "Emen gure artean" esaten didatenak, Euskalerrria dute gogoan. Euskalerrriak berriz, edesti-zear, zati asko-aukeran geitxo-izan ditu ta ditu gaur bertan ere. Ori olaxe izan da ta ez dagokigu, oraingoz, etsipen pixka bat artzea besterik. Gerokoa gerorako.

Ta gure Euskalerrri zatitu ontan, gaur probintzi diran Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko esparruan ez da beñere dirugintzarik izan eta azoko erreinuetako diruaz baliatzen ziran artu-eman guztietarako.

Naparroa'k bertan bertako erregetza zualarik, dirua ere berekin zuan. Eta erregetza galdu-ta gero ere, dirugintzan jarrai zuan irureun urte ta geiago, zorioneko fueroak galtzea-kentzea gertatu zan bitarte guztian, alegia.

Alare, beste gure Probintzietan ezik, Naparroa'n ere erabiltzen zan Espaiña'ko beste erreinuetako dirua, urrezkoa ta zillarrezkoa batik-bat.

Ipar-Euskalerrriari buruz, gaurko gure mugetatik goruntz, alegia, berdintsu gertatzen zan. Agintari, Naparroa'ko Errege zutenean, Xuberoatarrek eta Be'Naparrek Iruña'n egindako dirua diru-naparra erabiltzen zuten. Osterantzean, prantzesa.

Orduan ere, gaur ezik, diruaren balioak aldaketak eta goraberrak izan oi zitun mugalde batetik bestera, erreinu batetik bestera. Ta alakoetan, aldearen araberran ordaiña emanaz egiten zuten kitatzea, gaur bezelatsu.

Dirua muga batzuetatik bestera nola ematen zuten, paper zaar as-

kotan azaltzen da. Batzutan, irabazi-zurrian eraman oi zuten, bertako diruaren kaltetan. Diru-igesa aspaldi ikasia du gizonak.

Oraindik urte gutxi, Deba ta Zegama'ko eliz-nagusietan lanketa batzuk egiten ari zirala, langilleek eliz-barruko lurpean tupikizko (kobrezko) txanpontxo batzuk arkitu zituzten. Eta bi eliza oietan Bearne'ko txanpon txiki bana, izaten dan txikitxoenetakoa. Amaseigarren gizaldikoa. Mugaz-andikoa. Ikus nolakoa:



Zegama ta Deba'ko apaizen erresponso-sari ote ziran?... Auskalo! Baiño, goazen arira.

Naparroa'k, beraz, ba-zuan bere dirua. Noiztik? Noiz arte? Zaarrena ta gazteena, leenengoa ta azkenekoa iruditan ematea bezelakorik ez da, noski, ta ona bertan bi diru oiek:



Gazteena, Ixabel II-garrenarena 1834-garren urtekoa. Ez du esankizun aundirik azkeneko onek. Azkena izatea ez dala gutxi...

Leenengoa, ordea, Santxo III-garrenarena da. Batzuk NAVARA irakurtzen dute. Beste batzuk NAIARA, ta gaurko NAJERA adierazten duala. Baiño, egia esan, naiz NAVARA irakurri, naiz NAIARA, Santxo III-garrenaren txanpontxoa da, IMPERATOR zanekoa; orduko GAZTEL-erria mende, Naparroa'ko erregeren mende zegonekoa. Ta orretxegatik DIRU NAPARRA da, Naparroa'ko Santxo III-garrenaren dirua. Alere, geienak Espainia'ko Gaztelerriko diruetan aipatzen dute.

Noizkoa? Orain dala bederatzireun-da-berrogeita-amar urte-ingurukoa, 1.025-garren urte-ingurukoa, noski.


Beste leenagoko Naparroa'ko zortzi-amar erregeen dirurik ez da ezagun gaurdañokoan. Ez-bide zuten eragin.

* * *

Ontan geran ezker, edozeiñek galdetuko du, Naparroa'ko Erregeztaren asiera-aurretik erabiltzen zan dirua nungoa zan, zeñek egiña, eragiña? Orduko euskaldunek nolako dirua izaten zuten esku-artean?

Garai artako gauzak zeatz jakitea ez da ain erraza izaten. Gaur ezik, ba-zan orduan ere naasteririk asko. Baiño diruari buruz, edozein zan ona. Orregatik, zetorrena zebillen. Asi erromatarren garaiko diru ugaritik eta bisigotoak eta mahomatarrek bitarteko, urre-zillarrak guziak ontzat eman oi ziran. Eza bait-zan nagusi.

Ba-zebiltzan, besteak beste, Iruña'n Jesukristo baiño leenago egiñikoak ere. Ona nolakoak ziran:



Or ikusten dituzun izki oiek gaur onela irakurtzen dira: BASKUNES. Euskalerra dan orduko lurraldeetan ba-ziran diru-gintza zuten beste uri batzuk ere: zaldizko enda-gudariak adierazten dute; ARSAOS etab.

Azkenik, asti pixka bat artzen detanerako, ba-det diruari buruzko liburuxto bat egiteko asmo-erabakia.

On Manuel, irakasle maiteari,
Panpa'tik, ikasle batek, omen-sari

IAKAKORTEKARENA'TAR TXOMIN

Nundik zabilta, nundik agertu,
gure Emanuel maitea...?
Illobi illun bat izan ote da
berexi gaitun tartea?
Sarraski beltzak banandu gindun
alako lagun artea!...
Nork itz goritan edestu baiña
ark egin zuan kaltea!

Atze latz orri begiratzeke,
so daigun danok aurrera;
Kardaberaztar lagunak biltzen
ekin baituzu osterara;
Apaiztegia nork aaztu zukin
egin gendun len billera?
Panpa zokotik bil nadin orain
ni ere zuen artera.

Omen xamur bat nai dizute egin
ikasle zar ta gazteak;
gutun batean goralduz zure
gaitasun, doai, antzeak;
gizuren baten garaitza baitu
goitu dituzun nekeak,
ainbat min ordeztu, bemaizu poza
zitu ederrok biltzeak.

Iatorri leinu oro aipatzen
saia ba'lediz lagunak,
orri goxo ta sakonik aski

ekarriko du gutunak;
 aúrriiz aítzi, gogoz bestera,
 sor bear izan zitunak,
 abes nai ditut, oiek baitira
 bizitzan urrats astunak.

Nork ez du urteetan, begien aurrez,
 aren betarte xaloa?
 Nork ez kilika, biotz muñean,
 aren irripar goxoa?...
 belarrietan itzots apala
 irudimenan sointxoaa...
 izenak ere gomunta nai du
 Belen'en sor zan aurtxoa!

Orra ba nundik izenda zuten
 apaizikasleen ertzaiña!
 Lanbide gaitza, senetik goiti,
 gor íardun bear au baiña.
 Nola goibeldu eguzti aratz
 zirudin aren bekaíña?
 Irripar ura nola ark itzali
 estu zimurtuz ezpaiña?

Aren bizitzan, neretzat beintzat,
 au da mirari gaiñena;
 ezin obeki bete baitzuen
 orren lanbide aiñena:
 Oar gabe ark etzan gertatzen
 Utsegiterik xumeena;
 saiets guztitik baitzenun ura
 íakiñtsu ta giz urena.

Urtean aldiz bil oi giñuzen
 obenen batzar nausira;
 oroitzez ere, nire barrenak
 dal dal dal íartzen baitira:
 Gure uts eta biurrikeriak

azaltzen zitun argira;
 Iosepeta'ko zelaian nekez,
 ain garbi íakingo dira.

Utsanaidían zegonak soillik
 íasotzen zizun kandela,
 gaizkiña gordez, obena astintzen
 auzi íaun baitzan itzela;
 eskerrak zurtziz, auzitegia
 argi illez uzten zuela,
 masail gorriak, naiz soin ikarak,
 sala gintzazken bestela.

Izkin zitalak, mingainluzeak
 ba zitun auspozapoak;
 baitirña nunai akerkumeak
 lan ortarako íaíoak:
 Aukera ona emango zien
 laxter gudate giroak,
 nork íakin zenbat malko ta kalte
 sortu zun aien miztoak!

Aietako bat, guda galtzear,
 topa nun Bilbo kolean,
 "Salatuko aut, zipozki diraut,
 zuriak emen sartzean":
 Aren ezpala ez ba guk izan,
 etzan oartzen artean,
 nori zor zion, sendo ba'zeukan,
 kalia lepo gaiñean.

Ixilkaririk zizikuenak
 ikas nizkion batetan,
 arrats apalez arrapa nitun
 leiar sapaira ari izpetan;
 zut bi ler ziran, egatza gaindi,
 adarrak leio ertzetan,
 txapeloker bi, asperrezíñak
 gautegun erne zeletan.

"Zuek, purtzillok", ekin nintzaian;
leiotik, gelan sar ala,
"bear zenuten izan, doillorrok,
atzerri enda zitala;
ez izan zuek, euskal aritz zar,
sendo zindoen ezpala;
íakingo dut nik zer neurri artu
ez gaitzazuten xor sala".

Gau beranduko ixilunean,
apaiz txapel bi ditut ar;
ler erpiñean nere aiekin,
aida baten naiz katamar;
íantzi dizkiet, egoki aski,
naiz zula aiek, naiz zitzak sar;
txapeloker bi zai dituztela,
oro ditezen goiz oar.

"Ken zaizkiguk, ken, laido txapelok",
leiora as zaizkit eskari:
"Gaurtik ez gaituk, ona zin egin,
diarduren salatari":
"Dakusagun ba, ez esan ezer
galdezka datorrenari;
biar etzitan ekingo ziot,
erazte orren lanari".

Arrats apalez, kuxkuxor dute,
zer íakin, ertzain nausia:
Leio zokotik larri nago ni
entzuten erne erausia:
"Nor ibilli dut zuen adarrez,
íalki idazute guzia";
Mintzul zeudela, oartu zan da,
laxter artu zun etsia.

Beste ertzain orde, apaizgai bat zun,
malputz, minduru, ezeza,
salaritzan gizentzen baitzan,
arek xebilkin laíñeza!
"Bi txapeloker, izan ba'zait ba,
mintzul uztea ain erreza,
au be zentzatu nezake noski,
gure launak nai ba'leza".

Negu gau illun, ekaiztsu bat zan,
maindere xuriz íantzia;
bigarren txandan egin oi genun
íakin batzuk aparía:
Gela guziak, ixil, illunik,
bakarran dago argia...
txerren guziak zirika as zaizkit,
"au duk au ire aldia".

Lau pillota gor biribil ditut,
edurrez esku moldera;
baita bat íaurti, nor dan so dagin,
leio ertzean lertzera;
bestea zuzen, leio erdira,
ager zeikenez otsera...
mutur zabalán doi lertzaió ta
zerraldo íaus da lurrera.

Albo lagunok, parrez lertzeaz,
ni aldiz as naiz larritzen;
itzal murrú bat iduri zait ba
lorio buruz igitzen;
mailladi billa, ío dut igeska,
aztal tximixtak íaurtitzen,
aren zankotsak gain gain entzutez,
atzi naula as naiz etsitzen.

Leiar atē bat igan bear nun,
zabalik, zori onetan;
alde pixka bat irabazteko,
tanpa, itxi diot surretan;
mailladi gora abia orduko,
ona otu bat batetan,
ixkintxo egin, itzulia artuz,
mailladi bi sarbidetan.

Ura batetik sartzeaz zala,
nik bestetik doi doi bira;
mail orma atzean kuku farri naiz
igo zanekeze erdira;
nire aztarnik ez sumatzekin,
zirdoi geldi da begira;
albeta gaitzan entzuten nuen,
zantzu txikinan adira.

Illunpe artan, ixilune ark,
sutu du odol beroan;
ni nola suntsi al nintzaioken,
ezin sar zaio kaskoan;
galdu lagunak topa lekura
suar itzul da beingoan...
Baiña aiek ni lez, gezur zurrunkaz,
dartzate oe gozoan.

Biramoneko arrastiriaz
onax ateaz zabaldu,
ixil ixilik ertzain nausia
or zait atean azaldu;
ixilune bat izugarria...!
bildurrak ia nau saldu,
txit uzkurdu naiz, etsia artu ta,
betiko ote naizen galdu.

"Eskaritxo bat egiten nator",
ixilla autsi zun beingoan;
lasai erei bat zabal zait gorputz
zain estu sare osoan:
"Gelarte luze ontan nai nuke
fardun dezazun zaingoan,
nire lan zail au arin bearrez
esku bat eman asmoan".

Ezi nai gaitun Irakasle au
ez da ziziku makala;
laxter oar naiz zigor ederra
xotil sakatu dila;
gaiztakeririk ez egiteko
esku loturik naukala,
ertzain lerroan ezin fokatu
biurri baltsan bezala.

Ala be ez nuan egiten noski
ain ongi ertzainarena,
askoz obeki, sortzez bainekin,
gazte biurriarena;
txerren guztiak sar bide ziran
solairu artan barrena...
ertzaingo lana, neri kentzekin,
baretu ziran azkena!

Baldintza batzuk far dizkiate
lagunak baltsan artzeko;
ertzain izanaz, damu zindo bat,
egin bear dut asteko;
arao luzez ari izan zaizkit,
kutsu danak garbitzeko,
iru zigarro xorta eskaindu
oben zorra ordaintzeko.

Muxilka lortuz oben sariok,
 ba goaz danok gogara,
 nire itzultze au ospa dezagun
 Saturrarán'go ondartzara;
 bana banaka sartu bear zan
 pipatzera etxolara,
 aldra ondartzan oinpilotan da
 ni zaintzen lau aizetara.

Bat sartu da ta etxola asi da
 ikatz txondar bat lez keetan;
 ertzain nausia, bat batez dakust,
 giltza zulotik zeletan:
 Sor ta lor nago, ezin sinistuz,
 nundik íalki dan asmetan:
 "Osuna, salga!" xakerre xamar,
 agindu dio batetan.

Ni nenbillela ark uste baitzuan
 ertzain keiñuak asmatzen,
 giltza zulotik ke pilla dio
 sur zulora zurrustatzen;
 urtzin, eztulka, íarri azi du,
 biriak ia botatzen,
 etzekin baiño, poilliki aski,
 erakuts zion pipatzen!

"He dicho, Osuna! que salga a fuera",
 berriz ío zion oíua;
 atea ark pixkat zirrikítuta,
 ilki zun kezka burua;
 ertzaiña aurpegiz an ikustekin...
 aren begien izua!...
 An eraman zun etxe barrena,
 kuzkur atxilo artua.

Ameika bider itzuri bait naiz
 ertzaiñen eskuetatik!...
 Bai ta sei bider urten al izan
 espetxe ta zigatatik;
 Zukin ain ongi oitu bait giñan...
 esker anitx, orregatik;
 zuri zor dizut, zindo ba'daukat,
 lepoa lengo zamatik.

Zure egun ontan, ar zazu bada,
 ikasle onen omena,
 ainbat íakintzan izan bait zaitut
 Irakaslerik onena;
 egun orotan egiten diot
 Iaungoiko onari arrena,
 Izan dezagun besarkatzeko
 zorion ta zoramena.

Lekuonatarrak


KEREXETA'TAR JAIME

Aspaldian nerabilen buruan Lekuona jaunaren omenez zerbait idazteko asmoa; zorretan nengokion, egia, argitaratu neban leenengo liburuai —"Orbelak" liburutoxari— berak egin eutsan itzaurrea-ta, orain emeretzi urte!

Eta zein gai aukeratzeko zalantzan niarduala, or ba!, leengo egun batez adiskide batek telefonoz esan eustana:

—Gaia? Lekuona abizenari buruz, gizon!

—Ai ene! —nik—: Lekuona'k nik baiño askoz geiago daki,



urrean, bere abizenari buruz; orain, gaiñera, liburu batzuk baiño ez daukadaz eskuetan gai orretzaz...

Ez dot gogoan nire adiskideak zer erantzun eustan, baiña baiezkoa esan neutsan.

Ona, ba, labur-labur, Lekuona jatorriari buruzko zeartasun garrantzitsuenak: Oiñetxea edo jatorria, esanaia, aitoren semetasuna (*bidalgua*), eta ikurdia.

1) *Oiñetxea*, edo bardin dana, jatorria sortu zan tokia, sorburua, iturburua: oiñetxe bi daukaz Oiartzun-aranean, "garaikoa" eta "azpi-

koa" izenekoak. Oneixek dira antxiñakoenak, eta andik, ango semeak, Legazpia'ra ta Gipuzkoa'ko beste toki batzuetara zabaldu ziran (Legazpia'n euren izeneko etxea bat be egin eben), Bizkaï'ra be bai (Maiñari'ra, Markiña'ra ta Orduiña'ra), baita Chile ta Ecuador'era be.

2) *Esanaia*: guztiontzat argi dagoala uste dot: *leku on-a*. Alan be, Lopez Mendizabal'dar Ixaka jaunak, erderazko *retamal* dala diño, beronen eritiziz *Lekona* ta *Likona* diranez: *iku*, *eku*: *retama*, eta *-ona* toki-atzizkia, L protetikaz.

3) *Aitoren semetasuna* (edo odolgarbitasuna: odolgarbikoak ziralara egiazteko egiten ziran auzi-agiriak, erderazko "pruebas de hidalguía"): Lekuonatarren agiritan, jatorri ori "casa de notorios hijosdalgo" dala agertzen da. Izan be, toki askotan egiaztu eben euren odolgarbia: Azkoitia'n (1567, 1709 ta 1774'garren urteetan), Oiartzun'en (1623 eta 1792); Ernani'n (1623 eta 1725), Elgoibar'en (1682), Tolosa'n (1759 eta 1800), Ondarribia'n (1711 eta 1773), Irun'en (1710 eta 1741), Donostia'n (1733 eta 1734), Eskoriatza'n (1626), Arrasate'n (1708), Bilbo'n (1799, 1806 eta 1819), Bizkaï'ko Batzar Nagusietan (1768, 1791 eta 1806), eta Valladolid'eko Chancillerian (1778 eta 1793).

4) *Ikurdia*: Oiartzun'go etxeak: zelai urdiñean, arrano txiki baltz bat, egaz. Beste Lekuonatar batzuek, geroago: zelai gorrian, sei erle urrezko, iru goikaldean eta beste iru beekaldean, erreskadan.

5) LEKUONA'TAR MANUEL'EN JATORRIA.

Lekuona'tar Jose Etxebeste'tar Inesa
 Lekuona'tar Felipe Sorondo'tar Josepa
 Lekuona'tar Sebastian (1767) Arrieta'tar Joakina
 Lekuona'tar Manuel Intxaurraundieta'tar Nikolasa
 Lekuona'tar Manuel Isidro (1824) Etxeberria'tar Mari Prantziska
 Lekuona'tar Jose Luis (1866) Etxabeguren'dar Prantziska Antoni

LEKUONA ETA ETXABEGUREN'DAR MANUEL,
 1894, Otsaillaren 9'an, Oiartzun'en jaioa.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
 OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
 - III -
 KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Lekuona'tar on Imanol apaiz goragarri
 ta euskeraren euskarri agitz sendoari

LANDAJUELA'TAR ANDONI

Bilbo'tik, Azilla'k 1-1976,garrena.

Agur, jauna, agur t'erdi:

Arratia'n, basoz estu esituriko ibartxoan jaio ta azia naz; eta leen andik eta aspaldiz Bilbo'tik, euskal-baratzean egin daroazkiguzun lan sakon eta garbiaren aldezko jarraitzalle zintzoa.

Gure izkuntza gozo-bigunak bere-bereak ditun pitxi izkutu aberatsak ikasten eta, ezdagikunai azaltzen eta irakasten erre daroazuzan urte askoren ondoren, ongi irabizitako gorazarre egunean, jaso eta zuretzakotu begizatzu biotzez igortzen dautxudan gorazarre-agur gartsua au:

Gora Lekuona euskerearen guraso arduratsua!!!
 Jai-antolatzalle ta jaikideai besarte bete gorantzi.
 Betitik eta betirarte beti J. E. L.-pean.

Euskaldun gotzai bat:
Clément Mathieu jauna (1882-1962)

LARRAÑAGA'TAR ELADI'K

Ongilleeri esker ona agertzea guziori dagokigu: gizonari eta errieri. Irakurleak ikusi beza lantxo onen azkenean Mathieu Jaunari euskaldunok esker onik zor diogun ala ez.

Ez nua Jaun orren bizialdia eta biziera urratsik-urrats adieraztea, xeetasun zenbait ematea baizik.

I

Azparnen, Lapurdiko errian jaio zan. Gaur ere euskaldun ba'dirau erri orrek, joan zan eunkiaren azken-urteetan areago.

Gure Clément oraindik aur zala, ala esaten omen zion amak, bere bizialdian gauza aundirik etzula egingo adierazi nai zionean: "Mutil! Landes'etako antzarrak zaintzeko ere ez aiz i on izango!" (1). Etzun asko uste ama gajoak egunen batean seme ura lurraldi artako Gotzai izango zanik. Ogeitamaika urte luzeetan izan ere. Eta nolako Gotzai! Landes'tarrek ez daukate aaztua (2).

Baionan, Erroman eta Lovainan egin zitun bere ikasketa nagusiak. Azkenengo uri ontan Mercier Eleiz-gizon ospetsuaren ikasle izan zan. Ez nolanaikoa ere, nunbait. Ain zuzen, Mercier Jaunak ango Ikastetxe Nagusian irakasle bezela gorde nai izan zun.

Ori jakiñik ala erantzun omen zun Baionako Gotzaiak: "Lovainan

(1) Ez beza iñork uste "antzarra" Landes'tarren gaitz-izena danik, Lazkautarrena bezela. Egizko antzarra, egazia alegia, ango nekazarien aberastasunetako bat da. Saill aundiak ikusi oi dira ango zelaietan eta egazti oriek zeuzkan buruan Clément'ek amak.

(2) Landes'etako Eleiz-Barrutiak Baionakoarekin muga egiten du eta Akitz (Dax) du erri-buru. Erromatarren "Aquis".

erakusteko on ba'da, emen irakasteko ere ez da txarra izango, eta datorela onera".

Irakasteko doai berezia zala era askotan adierazi zun. Baionako Apaizgaitegian lenik urte asko igaro ondoren ere, ala zioten bere ikasleek: "Ua zan erakustea, ua". Izlari bezela, gero. Eztarri oneko zana, eta eskuak ara ta onera errez erabiltzen zekiana omen zan izlari on nere amandre zanarentzat. Matthieu Jauna etzizaion oso on irudituko. Erakutsi egiten baitzun batipait bere itzaldietan eztarriaren eta eskuen ajola aundiegirik gabe.

Adiñ guzietako entzuleen aurrean itz-egiten ikusia naiz, eta batzuen eta besteen adia berealaxe pizten eta bereganatzen zun. Oso zan yayoa ortarako. Aren bizkarretik etzun esango nere osaba batek zenbait izlarien bizkarretik esan oi zuna: "aritu eta ezer esan ez".

Idazle bezela, azkenik. Garizumaren asieran Prantziko Gotzaiak idazti luze bat bidaltzen diete beren Eleiz-Barrutietako Kristaueri. Sakonak eta mamitsuak oi ziran Akitz'eko Gotzaiarenak. Ara zer omen zion Eleiz-gizon batek: "Nik ez ditut Gotzai guzien idaztiak irakurtzen, bañan Mathieu'renik ez dut beñere irakurri gabe uzten".

"Bañan, mutil, nundik ateratzen duk ik esaten digukan guzia". Orra beñ beste Gotzai batek Mathieu'ri esana.

Agustin Donea oso zun gogoko. Amaika aldiz aipa zun saindu orren irakaspenen bat bere itzaldi ta idaztietan. Ez da arrigarri irakasle orren "Aitorkizunak" izeneko idaztia euskeratu zezala "Orixe" zanari eskatzen. Entzun "Orixe" k berak itzulpenaren itz-aurrean diona: "Jauna: zuk eragin ninduzun emeki, obeki esan bultzatu ninduzun bortizki Augustin Gurenaren Aitorkizunen liburua gure izkuntzara biurtu nenzan. Emen duzu eskuetan, aspaldion ametsetan zenerabillana".

II

Ogeitamaika urtez Akitz'eko Gotzai izan zala esan dut. Etzan aiñ luzaro Akitz'en egongo Españiko zoritxarreko guda izan ez ba'litz. Entzun Toulouseko Gongotzai edo Arzobispo izanak beñ esan ziona: "Matheiu: ba-dakik Garbitokian dagola i Eleiz-Burruti aundigoko Gotzai izatea eragotzi zuna", eta ordurako illa zan Españar Elei-gizon baten izena eman zun. Etzidan au Mathieuk berak esan. Apalegi zan orrelakorik aipatzeko. Bañan entzun zun norbaitek esan dit.



Azkaine'n 1937 - V - 22

Mathieu gotzai jauna, apaiz euskaldunez ingur aturik.

J. Elosegui'ren argazkia



*Clément Mathieu, Akitze'ko gotzai
jauna
Azkaine'n 1937-V-22*

J. Elozegui'n argazkia

Zorigaiztoko guda ori dala ta ez dala, zer egin ote zun ba, gure Mathieu Jaunak? Euskaldun Gotzai itzateak Jainkoaren aurrean agindu eta eragin ziona. Besterik ez.

1936'go Iraillean Donibane Loitzun'dik Bermeora itxasoz joan zan eta andik Bilbao'ra lurbidez. Ango agintariekin egon nai zun. Alde barteokok eta bestekok giltzapean zeuzkatenen "besteari biurtze" edo "canje" erreztu nai zun batipait. Ondo artu zuten Bilbaon; de la Torre jaunak lagundu zion giltzapetu orietako batzuk ikustera.

Burgos'era joan zan geroxego, Asmo berekin. Au etzun bere asmoa betetzeko erreztasunik arkitu.

Gudari iges-egin naiean euskaldun askok Prantzira jo zuten. Eskuartean ezer askorik etzeramatela jo ere.

Euskaldunak kristauen aurka eta gorrien alde guda egiten zutela sifistarazi nai izan zuten Frankotarrek.

Atzerrian geiegiak sifetsi zuten gezur ori, eta etzieten arrera ona egiten euskalduneri. Kristauek batipait.

Miñ aundia eman zion jokabide orrek Mathieu Jaunari. Ondo eza gutzen baitzitun euskaldun doakabe oriek: kristau zirala eta kristauki joka zirala ba-zekian.

Miñ izatea ez da aski. Zer egingo? Beste gizon ospetsu batzuekin "Association des Amis des Basques" edo "Euskaldunen Adiskideen Bazkuna" sortu zun. Bera izan zan bazkun orren buru. Bazkideen artean ona emen batzuen izenak: Maritain, Mauriac, Herriot, Verdier Parisko kardenal Jauna.

Orri esker, egia zabaltzen asi zan kristauen artean eta euskaldun atzerriratuak lasaiago arnas artu zuten.

Mathieu Jaunari nagokionez, berak egindako zerbait aipatuko dut.

Amaika ta amaika euskalduneri etxeak irikierazi zizkien bere Eleiz-Barrutian. Apaizeri apaiz-lana eman zien eta apaizgai batzueri apaiz-bidean jarraitzeko Apaizgaitegia.

Ba-zan orduan zer-egiña, eta ala esan zidan atzerriratuaren arreta zun adiskide batek: "aldi batez, astean iru ta lau bider Mathieu Jaunarengana jo bear izan nun eta beti arrera ona egin zidan".

"Morroi-eske ez-bañian morroi-egite" ba'zan Mathieu Jaunaren Gotzai-ezagupidea, ezagupide ori ondo beterazi genion euskaldunok, Bai orixe!

1938'go Lotazillean Erromara joan zan Aita Sainduarekin egote-

ra. Pio amaikagarrenarekin. Ara zer zion itzulitakoan idatzi zun eskutitz batean: "Euskaldun atzerrirakuek, esan diot Aita Sainduari, barren-barrindik bizi dute beren kristautasuna. Esan esan ori oiñarritu-naiean argibide batzuk ematen asi nintzaionean, Aita Sainduak geldierazi eta au esan zidan: "Alperrik jarraituko duzu; zerbait neronek ondo ezagutzen ba'dut euskaldunen egizko kristau-bizia da. Zute esan dezaidakezunik ez dio ezer erantsiko erri orri buruz dakidanari, jakin eta aundiesten dudanari".

Alkarrizketa amaitzerakoan beste au esan zidan: "Eskerrak eta nere biotz-agurra ematen dizkizut euskaldunen alde ta euskaldun apai-zen alde bereziki egiten duzunagatik...". Eta agur-egiterakoan, eskupeko aundi bat eman zidan atzerriratuentzat".

Ordurarte asko lagundu ba'zien euskalduneri, jakiña, gerora etzien gutxiago lagundu.

Iñoren eta ezeren beldurrik gabe lagundu ere. Argi adierazi zun Lendakari Jaunaren illetan, 1960'go Epaillaren 28'an Donibane-Loitzungo eleizan. Berak egin zun itzaldia; eta ez nolanaikoa.

Ara zer idatzi zion Eleiz-gizon batek, ondoren: "Zorion bat izan du beintzat Joze Antonio zanak: zu baño lenago iltzea, alegia. Bestela etzan izango zuk esana esatera ausartuko zanik".

Prantzeraz egin zun itzaldia. Españeraz eta euskeraz argitaratu nai genula-ta, neronek eskatu nion eman zezaidala itzaldi ori. Eman ere, eman.—Zer irabazeraziko dit neri itzaldi orrek Erroman, esan zidan, berriro ere Francotarrek an salatu nazatela"... eta neri ajola gutxi... adierazten zun irripara egin zun.

—Len ere salatu zutela bai baitzekian.

Izenpetu gabeko eskutitzak bidali zizkioten... Españara joateko "pasaporte" edo "igarobidea" eskatuko zunean, itzaldi ori etzala baztarreran utziko ere idatzi zion Paris'tik norbaitek. Ezagutzen dut, baño ez dut onen izenik emango jokabide oriek etzioten pakerik galduerazi. Ala esan zion beñ nere adiskide bati: "Zer egin bear dudan ikustea etzait beti erreza, baño ikusten dudanean ez nau ezerk beldurtzen, eta euskaldunak gudan kristauki joka dirala ikusi dut. Politika-auzia ez da nere auzia".

Eri zegolarik, ill baño egun batzuk aurretik, Mathieu Jauna ikusterera joan giñan adiskide bat eta ni". Guk geldierazi dugu zure bizi-maillan aurrera-joatea", esan zion adiskide orrek, eta arek irriparez au

erantzun: "Bizi-maillan aurrera joatea! Berriro asi bear ba'nu ere, len egiña egingo nuke!".

Garbiago adierazi aal ote Mathieu Jauna nolako zan?

Jaunak dezala zeruan! Bañan euskaldunok ez dezagun aren oroia aaztu. Gakion esker oneko.

III

Lekuona Jaunaren omenez zerbait idatzi nezala, ta gaia neronek aukera nezala, eska zidan lagun batek.

Garzeizko "Kardaberaz" bazkunean, irakasle orren laguntzarekin euskerea sakontzen ari izan nintzanean, ez nekian Akitz izeneko erririk lurrean zanik, noski. Ez naiz beintzat ezertarako gogoratzen. Ezta ordu-rako Mathieu Jauna an Gotzai zanik ere. Nola jakingo ba!

Asko uste ez genun geroa etorri zan, ordea eta gero orrek Gotzai Jaun au ezaguerazi zidan.

Lena ta geroa batean lotu ditut. Bieri, euskel-irakasleari, eta Gotzai Jaunari natzaie zordun. Bijoakie bieri nere esker ona.

TZA, ZA ta abar

LARAKOETXEA'TAR BEDITA YON

Gitxi landuta dugu oraindiño euskera-arloa tamalez eta, oréxegaitik, ezin erakutsi bere edertasun eta bikaintasunak ; au dala-ta, len baño len guztiok lan egin-beaí gofian aurkitzen gara ; batek eztakusana bestek ikusiko dau ; guztion arteko lana da ; arkaleri irakatsi-beaíean aurkitzen gara ; iñok be eztagiala uste berak dana dakianik ; gitxien uste danean datorko argialdien bat norbaiteri eta bestek orain arte ikusi ez tuana berak argi dakus eta, bere baíuan usteltzen euki бага, besteai, iragari beaí dutse, astirik galtzeka. Baíña iñor be eztaítela arotu argialdi ofetan ikusi ta ikasi duanagaitik. Olloak be amaika azterka egiten dabe yatekoaren billa ; txariak be ez induska gitxi agokada gozoren baten billa, baíña saíitan batzuek eta besteak agoa bete aginegaz gelditzen dira, alangoren baten eta gitxien uste ebenean zer gozoren bat idoro. Ekin egin beaí, ekin ezik, berez eztatof ezer onik.

Azterka ta induska nabil ni be nire astialdietan, gure euskera zaía landu-nai gofian eta zerbait baíirik idoro dut-eta, nik idororiko zertxo barzuk, gure irakasle maite Lekuona'taí Manuel jaunaren goratzaíe au dala-ta, argitaratzeko abagunea eldu yat.

—TZA atzizkiagandik asiko naz nire lantxo onetan. Gure Azkue langille amofatu lanean aspeí-ezinak iru taldetan banantzen ditu atzizki onen egikizun eta esan-naiak : a) garitza, artatza, bedartza, sasitza, dirutza, askotza, arbitza, yentetza, uretza, ardantza... g) eriotza, bizitza, yaíotza, ezkontza, laguntza, bidegintza... k) atxurlaritza, argintza, artzaintza, aíantza, gudaritza...

Zer dakusgu :

a) Taldeko itzetan? Ugáritasuna ala beste zerbait? Zeren ugáritasuna bera baño geiago ta leenago dakusgu itzon bidez iragarten dituguzan zeren naste, alkaíen ondoratze, arkaleri intsigitze edo itxikitze ; esaterako, sasi, bedar, gari ta ganetikoen arkaleri yosita egotea. Orégaitik-edo, zer andi ta alkaíegandik banandurik dagozan zeretan TZA ordez

DI, DOY, DUY atzizkiak erabilten ditugu. Esaterako, arizti, artadi, gorosti-di, piñadi, pagadi, ameztoi. Batzuetan zer bat beretzako TZA ta DOI biak be bai, esaterako ardantza esaten ba'dute batzuk, guk Zeanuri'n maastoi esan daroagu ardantzaren orde.

g) Taldeko itzetan TZA'ren orde TE imini leitekela nik uste, talde ofetako itzetan TZA'k aldia esan gura du-ta.

k) Taldeko itzetan TZA'k ogibide-lana esan nai du.

Idazlan au argitaratzeko geien zirikatu gaituana ezta izan TZA atzizkia, Za itza baño. ZA'gana goazen ba.

ZA

ZA dalako au ezto gu atzizkirik, itz oso baño, naizta aspaldi of mafopean estalita egon. Berez txiki, berez labur, noiztik ona egon ete da of mafopean inok ikusten izan eztauela? Batek ba-daki!

Baña nondik atera duzu itz ori ta euskerazko itz ba'da, zer esan nai du? Itanduko dustazue nonbait.

Leenen esan bea duguna zera da, itzak leenen soñaren egikizunak iragarteko asmauk dirala, gero itzok eurok gogoaren egikizunetarako be erabilteko.

ZA itzaren leenengo esan-naia "zutun edo zutikotik gitxi aldenduta dagon luña" izan zan, aldapa bizi, gerora "okerketa", "makurtze", erderazko "inclinación, afición".

Of dituzu Zanburu, Zatafoa, Zakutse, Zabala... toki-izenak, ZA itza eurretan daroenak:

Zan-buru = aldapa biziaren buru edo goiena.

Zatafoa = za-t-foa = aldapa biziko sakostea.

Zabala = Za-bala = aldapa biziko malla.

Zakutse = Za-ako-utse = aldapa biziko makuruneke itufi.

Zeanuri'koak dira lau toki-izenok eta nire irakurleen artean sinisgogorik ba'lego, bertara yoan eta berak ikusi baño ezta.

Of dugu ZAAR be. Zaa = Za-a; bai ba, zartzaroan buru-sorbaldak makur ditugula ibiltzen gara geienok; Ofiati'ko zaa batek bein esan eustana: "guk orain atzetik neuri geiago aurretik baño".

Or dugu ZAAL be, eta zer da zaale, zerbaitegana, naiz norbaitegana mukurtzen dana baño. Ez ete da erdeldunak esaten duten "inclinado, aficionado, devoto"?

ZABALA toki-izen eta abizenak luzaro erabili izan nau kezkatu, nondik ete letorken. ZA itzaren esan-naia ikasteak argitu daustaz, begiak noizbaiten.

Ofetarako, aztu бага gogoan euki bea dugu BAL, BALA, BALDA, MALLA, ta MALDA danak dirala zer bat bera, erderazko "peldaño" esan nai dabena. Zeanuri'ko ZABALA Ozerinmendi auzotegian dago, Urizar-aldetik izan ezik, alde guztietatik aldapa bizi duala ta berak malla-antza du an goian.

Zeanuri'n bertan dago Muñegiko Zabala be; au be aldatz biziko malla da. Bergara'ko ZABALA be olangoxe lekuan ei dago, bertako batek esan dustanez.

Idazti zafetan agiri diran, baita gure efi ta auzo-izenetan azkenean ZA duten izenetako ZA ori beti TZA ete da, ala geienetan ZA? Gure Euzkadi geien baten menditsu, aldapatsu da izan eta, ofexegaitik, toki-izen eta abizenetako ZA ori benetan ZA ta ez TZA izango dala nik uste.

Erderapearn itoten gagozanok, arnasea artzeko baño ezpa'da be, azpitik urten bea goian aurkitzen gara, gure izkuntzeak bizirik urten-go ba'dau; oindiño urte askotzarik ezta nekez izanafen be, oindiño arnasarik artugeinkean, baño orain zail edo ezin da. Gure kale ta bideak euskeraztu bea duguz eta leen baño leen egin bea dugu onako au, baño leen okef egoana ez al dugu okefago iminiko gure ezyakinez. Toki-izenen azkeneko ZA ori noiz dan ZA ta noiz TZA yakiteko, toki ori zelango dan ondo begiratu bearko.

ZA'ren anai edo afeba bat be ba-dugu; oi yako izena anai edo afeba oferi. OIALDEA toki-izena dugu Zeanuri'n eta toki-izen berbera Leiza Napafoa'ko efi, eta "aldapabizi-aldamena" esan nai du.

TXABIL

Txabil dalako au izatez ZABIL baño ezta, euskerearen yokabideak ezagun dituana bereala oartuko danez. Izen au Zeanuri'n artilezko aria iruteko erabilten dute artzaiak, Gorbaie'koak beintzat eta artile ta guzti zofoan aldean erabilten dute, non gelditzen diran antxe lan egiteko. Iru-teko lanki au egiteko lodieran aldetik aldera zortzi bat metro-eunen dituan zur-zati bat (luzeran 25 bat metro-eunen dituana) ertz bietatik erdirantza bea fago ta bea fago egin baño eztozu; olan alango baten erderazko "cono truncado" bi alkaferi deusela dituan zera egin duzula

aurkituko zara, euren ardatzak biak leíro zuzen bat egiten dabela. "Cono truncado" diralako zer biok goiko bedarune biak bat egiten daberen lekuan gimeletraz zulo txo bat egin eta an kakotxa bat sartu ta oí dozu TXABIL dalakoa eginda ta artilea iruteko gertu-gertu.

Aztertu daigun orain lanki ofen izena, Txabil edo Zabil; lanki orek zegaitik duan izen ori. Erderaz "cono" dalakoa zelango da? Bere aldamenak zutunetik edo zutikotik alde egindakoak dira, eta ez toki baten bakarik bira edo inguru osoan, bil osoan baño eta egin-eginean ori esan gura dau ZABIL'ek. Orazkero, erderazko "cono" esateko berebizi-ziko izena dugu ZABIL. Egia esateko, zabil bik osotuten dabe gure artzaien iruteko lanki ori, baño oí agiri da izenetan zeaztasun osoren billa ez tala ibiltzen ez gure euskerea, ez beste izkuntzak be.

Olan, ba, ZABIL naiz TXABIL, bietatik zein yatsun begikoago, oí dozu erderazko "cono" esateko euskerazko itz yatorá; eta Txabil, naiz Zabil moztu "cono truncado" esateko euskal-itx aro-txukuna.

TXORI, ZORI

Eíomatarák etorkizuna ikasteko txori ta beste egaztien efaiak aztertzen ei ebezan. Gure artean be Urkiola'n, San Antonio'etan, len beintzat, txori-papelak saltzen ebezan. Ofetarako auzetik papeltxo batzuetan aztuok au ta bestea idazten eben; txori bana be eukiten eben papeltigitik aldiko bere piku edo mokotxoaz andik bat aterateko, eta txoriak aterako eban zure etorkizuna iragariko eban papela. Amaikatxo baseítar eta baseítar eztiranak be euren txakur'andiak an izten ebezan aztuon eskuetan eta batzuk ezti-pozetan, besteak oldozkoí eta motel etofí etxera zori oneko txori-papelokaz.

Txori izena, agiri agirian Zori izenetik datoí-eta, ortik agiri danez, lenagoko euskaldunetatik datorku txoriak gure etorkizuna ezagun dabelako siniskerea.

Iraduz baño iraduzago idatziriko lefook amaitzeko eta esku artean darabilgun arloari bastaírrera eragin baño leen, egingo neunke baietz izan ZA'gaz senidetasunik beste itz batzuen artean ZAIL eta ZAKAR'ek; izan be, zail da ZA edo aldapa biziak gora, naiz zearka euretan ibiltea eta Za bera be zakarik asko da: ZA-zale gitxi dago mundu onetan; mendi garaien tontofen billa dabilzazanak eurak be eztabiz nekearen billa, neketik datorken edo etofí leikien entzutetxo edo aintzaren billa baño;

nekea bera ezta inorentzako be atsegin eta maitagarí, alan be neke ori galbidetsu ba'da. Nik darabildan nekebide au berau be ezta atsegingarí, baño bai onen ondorena, euskerea geroago ta ezagunago izatea. Oí dogu AR atzizki aberatsa be, bein-beinean beaí litzaken aña onura ateraten etxakona, zegaitik dan susmotxorik nik izanaíen; oí dozu, esaterako, *eíketatar*, naiz *eíketa*. erderazko "político"ren orde ez erabilteko; eta abar eta abar.

Erriak erritar bati omenaldi (23-IV-1967)

LARTAUN aldizkaritik

Egun goguangerri artan ez nuan inungo xehetasun eta detallerik artu. Alare, nola aztu orduko jaialdia? Orregatik, zerbait esan bear ta, aztu ezifekoak ditut emen artu eta erabilliko ditutenak.

Omenaldi D. Manuel Lekuona apaiza, jaiotzez oyartzuarrari. Berrogeitaamar urte meza berria eman zuala ta, erriak jai ori bere berea egin du. Erriko-etxeak, "Lartaun" taldeak eta oiekin Euskaltzaindiak dintasan guzizko eguna eratu ziguten.

Omenalduak esan zuanez, erriak etzion auxe besterik zor: "Del Oyartzun antiguo" liburua idatzi izana, gure erriaren kondairari buruz; Oyartzun zaharraren berri eman izana. Ez da gutxi. Edozeñek daki noinai ez dala sortuko era ontako gizona: gure erria bere istori-azpilduretari ain ondo ezagutu ta metodu jatorrean eman lezakeana, alegia. Urte askotako lana batetik; eta guretzat mesedegarri, bestetik, gure gizatasuna sustraitik ezagutu ta bizitzeko.

Nere iritziz oyartzuarren omenaldiak ba-zuan beste oniarri bat. Etxetxikiko apaiza Oyartzun zaharraren ezaugarri bat da. Asko da Oyartzun'ek D. Manuel Lekuona'ri eman diona. Etnoloji gaietan, T. Aranzadi lenengo gidari zuala, Basategañeko azterketa egin zanetik; kondaira alorrean, S. Mujika erakusle zualarik, istori-zale aundi au gure erriko artxibua aztertu ta tajutzen aritu zan garaitik. Folklore saillean, "Lexoti" zaharra ta "Aitona" izan zituan iturri bizi ta ugariak bere jakindurirako. Geroztik Lekuona'k azaldutako zientifiku-lanetan ez du ale bat azaltzen Oyartzun'go gauzetaz aitamen bat egin gabe.

Bestalde, berriz, bere jaioterria erakusbide biurtu du, erri-nortasuna sakonduaz. Erriak emandako datoak —bertsolaritza, kontu xahar, musika, etxe-egitura ta abar—, bildu ta zientifiku moldetan eman ditu. Oyartzun'go erakusbidea beste errientzat argi-emalle egin eta teori biur-

tu. Gure gertakizunak jakinduri egin. Oyartzun erakusbide Euskalerrri osorako zenbait erri-kultura muñezko gauzetan.

* * *

Apillaren 23 zen. Eudi eguna, egun ezea. Lehen-pesta Meza nagusia. Señalagarri au izan zuan: irratiak eman zuan Euskalerrri osorako elizkizuna. Batetik gauz ederra izan zan baserri guziak, urrutikoenak ere bai, gure elizeko itz eta kantzak entzuten. Bestetik, jaiak izan zuan zabalkundea: jaso ditut entzundako berriak Ondarrutik, Mondragoetik, Azpeititik, Aranaztik... "Lartaun" eresbatzak lan bikaña elizan: sarre-rako salmo zoragarri ura, J. Oñatibiaren Meza, Uruñuela'ren "Agur Maria", A. Madina'ren "Aita Gurea"... Eliza leporaño jendez. Antxe ziran Donosti'ko Gotzai Bereziartua Jaun agurgarria, eta beste iru gotzai mi-xiolari, Aita Altzo, Aita Larrañaga eta Aita Lekuona jaun agurgarriak; baita ere Lazkao'ko eta Belok'eko bi Aita Abatak, eta irureun apaiz in-guru, auetan geienak D. Manuel'en ikasle izanak. Aita Ilario'k itzaldia. Berak dakin bezela, aberats mami aldetik, maisu euskera aldetik, apaiz-arnasa leial eta aundia bere atzen-itzetan. Gutxitan ikusten dan beze-lako elizkizuna. Ondoren elizan bertan antolatu zan itz eta eres-jai eder eta interesgarria. Mintzaldi bikañi eta politik entzun-arazi zizkiguten Mañarikua'tar Andres, Oñatibia'tar Iñaxio'k eta Arrazola lekaime argiak. Azken mintzaldia Don Manuel berberak egin zuan.

Gero erriko plazan, "Lartaun" taldeko txistulariak, toberak, bertsolariak, omenaldua bait-da, ain zuzen, tobera ta bertsolaritzari buruz lanik sakonenak azaldu dituana, esan degun bezela, Oyartzun'go sena jakinduri biurtuz. Aspaldiko palanka otsa, Arraldekoak eta Arkale'ko Luxiano'k atera zutena.

Bazkaltzeko garaian, mai-buruan, Oyartzun'go eta Andoain'go alkate jaunak. Euskaltzaindi'ko idazlari J. San Martin, ifar-euskalerrriko euskaltzainak, bizkaitarrak, gipuzkuarrak... Urgazlek ugari. Euskaltzaindiaren izenean mintzaldia Haritselar Baigorri'ko semeak egin zuan. Bein bear eta, jarduera aparta bazkalondoko "Basarri"ren jarduera, batez-ere erdi bertso erdi-itzaldiko ariketa aspertu-eziñekoa. Beste bertsolariak ere jator aritu ziran, Uztapide buru zutela.

* * *

Egun artako xehetasun asko joan zaizkit burutik. Arkitu nitzaz-kean orduko egunkarietara joan da. Bañan auxen da nigan egun arek utzi zuan arrasto aztu-eziñekoa: Errespetuzko giza-taldea, talde aundia, elizkizunetan, naiz maiean, naiz kaleko jai-aldietan... Erriko-seme talde trebeak denerako prest eta ikasiak, borondate onenarekin jai erutzen... Kanpotik etorri ziranak, asko ziran eta nonnaikoak, gurera biotz-diosala gozoa ekarri ba-zuten, etzan txikiagoa emendik eraman zuten arrera-goza, emengo jai eta egiteko era ikusita. Ori izan zan gauzarik ede-rrenetako bat neretzat: erriak, Oyartzun zahar eta berriak, erritar bati, gure kultura muña obetoen ezagutu duanari, biotzez omenaldia.

Algunas consideraciones sobre las construcciones de falsa cúpula en Euskalerría (1)

FERMIN DE LEIZAOLA

*Miembro de la Sección de Etnología de
la Sociedad de Ciencias ARANZADI de San
Sebastián.*

INTRODUCCION

Tanto el problema de las construcciones de planta circular como el problema de las cubiertas en falsa cúpula han sido abordados en múltiples ocasiones por otros autores tales como: Aranzadi, Barandiarán, García Bellido, García Berlanga, Krüger, La Lastra, Lampérez, Veiga de Oliveira y Urabayen.

En esta nota escrita en homenaje a la labor realizada por D. Manuel de Lecuona hacemos algunas consideraciones sobre estas construcciones de falsa cúpula y planta circular existentes en el País Vasco a la vez que aportamos el área de distribución señalado en un mapa así como algunos datos sobre su tipología y arquitectura. Estas construcciones en falsa cúpula están difundidas por Europa, Asia y otros continentes pero sobre todo en Europa su área preferente es la mediterránea. Así por ejemplo nos encontramos con elementos con bóveda falsa desde épocas prehistóricas tales como el dólmen denominado El Romeral en Antequera, el sepulcro megalítico de los Millares, el Tesoro de Atreo en Micenas, Las Nuragas de la Isla de Cerdeña o los talayots de Baleares. Pero tam-

(1) Un trabajo titulado "Área de distribución de las txabolak cupulares en el País Vasco" leímos como comunicación en el I Congreso Español de Antropología celebrado en Barcelona del 28 de Marzo al 2 de Abril de 1977.

bién fuera ya del área mediterránea existen construcciones con falsa cúpula como son los "trulli" de las islas Hébridias o los "brochs" de las Islas Británicas que son de época moderna y han sido utilizados hasta la actualidad. Todavía hemos podido ver construcciones abovedadas en zonas agrícolas y ganaderas de Italia, Yugoslavia y Grecia y en la Península hay gran abundancia de estas chozas que reciben diferente nombre según las zonas: en Portugal "chafurda", en la Mancha "bombo", "culties" o "cacherulos" en Levante, "chozos" en Santander como los existentes en el Puerto de San Glorio, "barraca de viña" en Cataluña, muy abundante en el Penedés así como en la Conca d'Odena.


LAS TXABOLAS CUPULARES

En principio se observa sobre la geografía de Euskalerría (País Vasco) que este tipo de construcciones se da al sur de la línea divisoria de aguas que separa la vertiente cantábrica al norte y la mediterránea al sur, con algunas muy contadas excepciones (véase plano n.º 1).

Dentro de esta zona mediterránea todavía cabe hacer una subdivisión que afecta a aspectos de funcionalidad principalmente. Veamos, primeramente tenemos una región al sur de la Sierra de Cantabria en plena Rioja Alavesa y Logroño en donde existe una multitud de refugios en viñedos. Sirven de resguardo a los labradores y viñadores durante las épocas de cavado, sulfatado, podado y vendimia. Muy a menudo estos refugios suelen tener un murete adosado que posee varias anillas sujetas al paramento y en ellas son enganchadas las mulas que tiran de los aperos en las distintas faenas. Poco a poco esta tracción animal que ha llegado hasta nuestros días y todavía se emplea en muchos lugares, es sustituido por ingenios motorizados que están revolucionando el mundo campesino tradicional.

Dentro de este mismo tipo de construcciones de falsa cúpula tenemos una región que abarca la zona Media de Navarra, La Ribera Navarra y la parte sur de la Tierra Estella en donde también existe este tipo de refugios pero con menor intensidad y de fábrica menos depurada. En este caso encontramos estas txabolas de falsa cúpula tanto en viñedos, olivares como campos de cereal.

A estas pequeñas construcciones los naturales les llaman "casillas"



en la zona de la Rioja Alavesa y Logroño y en zonas más nororientales les denominan "cabañas".

En la Rioja Alavesa y en zonas de Logroño es frecuente ver construcciones de falsa bóveda de aspecto cónico con la punta achatada y en algunos casos rematadas por algún pináculo u otro adorno. Son de planta circular. Estos refugios suelen ser de fábrica de sillar de arenisca y sus dimensiones oscilan entre 3 o 4 metros de diámetro interior. De 3 a 5 metros de alto interior, 0,65 metros de espesor de las paredes, puerta estrecha y alta de 0,60 por 1 metro. El suelo interior de tierra apisonada.

En el interior generalmente hay un banco o poyo de piedra concéntrico y adosado a la pared. En el centro suele haber un fogón bajo y el escape de humos se realiza o por varios huecos laterales a una cierta altura o por la parte superior de la "clave" de la falsa cúpula.

También se pueden ver ejemplares que poseen en el interior uno o varios huecos a modo de alacenas para guardar vituallas y otros productos.



La orientación de estas "casillas" no es fija pero la más frecuente es la sur, teniendo algunas una orientación entre el SE. y el SW. (véase fotografía n.º 1).

De estas "casillas" de forma cónica todavía se pueden ver ejemplares bien conservados en el término municipal de San Vicente de la Sonsierra (Logroño) así como también en los pueblos navarros de Oteiza de la Solana y Luquín.

En la misma Rioja y asimismo en la zona de Navarra antes mencionada existe un tipo de construcción de falsa cúpula al que pudiéramos llamar menor ya que está ejecutado con una técnica menos depurada.

La planta suele ser en muchos casos cuadrada o también de esquinas redondeadas conservando en el interior el mismo aspecto. También existen algunos ejemplares de planta circular pero no son tan frecuentes. La puerta muy a menudo suele estar desplazada del eje de simetría y sus medidas en algunos casos son ridículas: 0,40 metros de ancho por 1 metro de alto.

Estas construcciones son por lo general de piedra arenisca y las paredes tienen un grosor de 0,60 metros. Los muros son de mampostería en seco ligeramente enripiada. La falsa cúpula está construida por el sistema de avance progresivo hacia el interior de las hiladas de lajas sucesi-

TIPO	EN VIÑEDOS, OLIVARES Y PIEZAS DE CEREAL	EN PASTOS DE MONTAÑA		
CÓNICO				
	<p><i>RIOJA - Logroño: S. Vicente de la Sonsierra Navarra: Oteiza de la Solana y Luquín.</i></p>	<p>Planta circular Sillarejo de piedra arenisca.</p>	<p>Sierra de ANDIA Lexaun (Na)</p>	<p>Planta circular Mampostería en seco de lajas de caliza.</p>
HEMIESFÉRICO				
	<p><i>RIOJA en general</i></p>	<p>Planta circular Mampostería en seco piedra arenisca.</p>	<p>Sierra de ARALAA (Na)</p>	<p>Planta circular Paredes en seco de grandes mampuestos de piedra caliza.</p>
APLANADO				
	<p><i>RIOJA alavesa Tierra Estella Ribera y Zona media de Navarra.</i></p>	<p>Planta circular y Planta cuadrangular</p>	<p>Sierra de URBASA y ANDIA</p>	<p>Planta cuadrangular Mampostería en seco de lajas de caliza</p>
MIXTO				
	<p><i>RIOJA Ribera y zona Media de Navarra</i></p>	<p>Planta cuadrangular Mampostería en seco Viga del caballete lajas sobre las cobrias</p>	<p>Sierra de URBASA</p>	<p>Planta rectangular Mampostería en seco de lajas de caliza Dos aguas. Avance mensular</p>

TIPOS DE CONSTRUCCIONES DE FALSA CÚPULA EN EUSKALERRIA

vas hasta llegar casi a cerrar el círculo en donde va situada la falsa clave. En algunos casos esta losa está perforada y sirve de escape de humos. Las hiladas que forman la bóveda están dispuestas de manera que constituyen una poligonal que vuela hacia el interior. Las lajas están dispuestas en forma atizonada y son contrapesadas desde el exterior para soportar el vuelo mensular de las mismas.

La falsa bóveda así construida suele tener por el exterior una forma hemisférica y las más de las veces achatada (véase fotografía n.º 2).

Estos ejemplares son a menudo de menores dimensiones que los anteriores ya que llegan a tener 1,50 por 1,50 metros de planta y en su interior justamente entra en pie una sola persona. El suelo es de tierra apisonada y como asiento tienen a lo sumo una losa.

De este tipo de construcciones existe en toda la zona antes mencionada pero hemos podido constatar su existencia en los lugares siguientes: Labastida, Abalos, San Vicente de la Sonsierra, Laguardia, Elciego, El Villar, Assa, Oyón, Viana, Torres del Río, Los Arcos, Lodosa, Barga, Estella, Urbiola, Luquín, Legarda, Morentín, Larraga, Tabar, Sangüesa, Allo, Lern, Falces y Tudela (véase fotos n.º 3 y 4).

El otro tipo de construcciones de falsa cúpula que existe en el País Vasco es el que se destina para el uso ganadero-pastoril. Bien sea como txabola habitación del pastor durante la estancia veraniega y otoñal en los pastos de montaña o como refugio hecho por los pastores o ganaderos para guardar y proteger el ganado menor de las alimañas o simplemente como paridera de cerdos en la montaña.

No es común ver este estilo de construcción en las zonas de pastoreo pero sí son lo suficientemente abundantes como para no considerarlas como un hecho aislado. Así por ejemplo D. Telesforo de Aranzadi ya en 1919 en la Revista Internacional de Estudios Vascos, describía tres ejemplares de este tipo existentes en la Sierra de Aralar navarro que le habían causado fuerte impresión por la rareza, primitivismo y severidad de línea que tenían.


Nosotros hemos podido ver estas tres construcciones cupulares, hoy muy deterioradas, y que se encuentran en el fondo de una dolina en el lugar denominado Mugardi no lejos de la majada de Bustintza. Hemos localizado además otras construcciones del mismo estilo en la Sierra de Aralar en los lugares de la majada de Txemiñe una, en la majada de



Fot. 1. — Refugio cónico de falsa cúpula en un viñedo del término municipal de San Vicente de la Sonsierra (Logroño).



Fot. 2. — Refugio en viñedo de falsa cúpula de forma hemisférica y muros de mampostería en seco. Término municipal de Laguardia camino de Assa (Alava)



Fot. 3. - Refugio de viñedo de planta cuadrada y falsa cúpula achatada. Laguardia - Rioja alavesa.



Fot. 5. - Cabaña de falsa cúpula de forma cónica hecha a base de lascas de caliza. Refugio de los vaqueros de la zona de la Sierra de Andia. Se le conoce con el nombre de la «Cabaña Blanca» en el término municipal de Lezaun (Navarra).




Fot. 4 - Reducidísimo refugio de planta circular y falsa bóveda muy achatada en un viñedo del término de «Los Villalba». Laguardia - Rioja Alavesa.



Fot. 6. - Txabola de pastor en el lugar denominado El Rincón de Zalbide (Urbasa-Navarra). - Construcción de planta cuadrada y falsa cúpula achatada. Tx. de M. Zubillaga.



Fig. 7. - Txabola de planta circular y falsa bóveda de tipo hemisférico en la antigua majada de Domingonekoa en el monte Insausti de la Sierra de Aralar navarra. A estas construcciones de falsa cúpula se les conoce con el nombre de «arkoak» - «arkuak» - o también «arkupe».



Txabola de falsa cúpula de Saroi aundi. Urbasa.

Domingonekoa, en la ladera del monte Insausti dos y en la majada de Urdaneta-ko Tutturre tres. Todas ellas en la parte de la sierra perteneciente a Navarra.

Las de Mugardi y las tres últimas citadas están situadas en el fondo de dolinas y están dispuestas tangencialmente de tal manera que cada uno de los grupos tiene comunicación interiormente por medio de puertas.

La técnica que se ha utilizado para su construcción es similar a la descrita anteriormente o sea por avance mensular de cada hilada hasta llegar al cierre, hoy algo arruinado. Las paredes son de mampuestos en seco de piedra caliza del lugar (fotografía n.º 7).

El nombre que dan los pastores a estas curiosas construcciones es el de "arkoak", "arkuta" o "arkupe".

Según informaciones que hemos podido recoger de labios de pastores el destino que se les daba a estos refugios era el de guardar a los corderos durante la noche y si eran muy jóvenes también durante el día para protegerlos de los lobos que en otro tiempo fueron tan abundantes en nuestras montañas.

La puerta de entrada es reducidísima, de 0,50 por 0,60 metros, el espesor de los muros llega a ser de un metro, el diámetro interior de 2,50 a 3,00 metros y parecida es la altura hasta la "clave". Como cierre de la puerta colocaban una gran piedra que corrían y descorrían hasta obstruir la entrada.

Sin embargo en la Sierra de Andía y Urbasa (Navarra) hemos podido ver aparte de construcciones de este tipo destinadas al alojamiento de ovinos, otras construcciones de mayor tamaño que han sido utilizadas y en algunos casos lo son todavía como txabola del pastor durante la estancia estival en la sierra.

En estas montañas la planta de estas chozas es por lo general cuadrada o rectangular salvo dos casos de txabolas de vaqueros situadas en la Sierra de Andía, que son redondas (fotografía n.º 5).

Las dimensiones medias de estas txabolas son de 4 a 5 metros de lado. El espesor de las paredes de 0,60 a 0,80 metros y el alto a la bóveda de 2,25 a 2,50 metros. Las paredes son de mampostería en seco hecha con lajas de caliza y la cúpula exteriormente es muy achatada (fotografía n.º 6). (Véase dibujo n.º 1).

La abundancia de estas chozas de falsa cúpula en esta sierra es probable que obedezca a dos factores: El primero pudiera ser la antigua prohibición que existía en el País Vasco de que en los pastos comunales no se podía cubrir con teja las construcciones ya que la teja en Euskalerría está considerada simbólicamente como signo de propiedad y los pastores en los pastos comunales sólo son usufructuarios de las txabolas que ocupan tradicionalmente aunque las hayan construido ellos; y el segundo sería el hecho de que en esta zona existe una caliza que meteorizada y en excesivos y alternativos cambios térmicos se desprende en lajas que conservan muy bien sus cualidades de resistencia. Es muy corriente ver en estos lugares lajas que llegan a medir 0,40 por 1,20 metros y 5 centímetros de grueso. Este tipo de material que brinda la naturaleza y abunda por doquier es rápidamente utilizado en la construcción de estas txabolas cupulares y hoy en día se utiliza abundantemente para el levantamiento de largos y gruesos muros de piedra en seco que hacen de límite entre las diferentes propiedades.

En la Sierra de Andía, entre otras citaremos de este tipo de falsa cúpula los siguientes ejemplares en los lugares de: Majada de Mirueta'ko sarioa, Osaleze, Esteniturri y en el Hoyo de los Latxeros. En la Sierra de Urbasa tenemos entre otros los siguientes lugares: Astigardia, Saroizarra, Majada Vieja de Arbizu, Majada del Rincón de Zalbide, Majada de Gaztansoro y etc. (véase fotografía n.º 6).

Para terminar diremos que en la zona de la vertiente cantábrica hemos localizado construcciones cupulares en el pueblo guipuzcoano de Gaztelu en el caserío Gabirondo, también en la ladera del monte Oiz (Vizcaya) en un herbal, así como en la falda del monte Auza-Gaztelu (Zaldibia-Guipúzcoa) junto a una txabola de pastor.

Como recopilación de todo lo enumerado adjuntamos un cuadro en el que intentamos hacer una clasificación tipológica de las construcciones de falsa cúpula existentes en el País Vasco.

San Sebastián, Abril de 1977.

BIBLIOGRAFIA

- 1.—ARANZADI, TELESFORO DE. 1919. "Apriscos recientes a modo de Tholos prehistóricos en el Aralar Navarro". R.I.E.V. Tomo X, pág. 72 a 82. Varias fotografías.
- 2.—BARANDIARAN, JOSE MIGUEL DE. 1928. "Contribución al estudio de los refugios en el País Vasco. Anuario de Eusko Folklore. Tomo VIII, pág. 43 a 47. 22 fotografías. Vitoria.
- 3.—KRUGER, FRITZ. 1949. "Las Brañas. Contribución a la historia de las construcciones circulares en la zona astur-galaico-portuguesa". Bol. del Instituto de Estudios Asturianos. Excma. Diputación de Oviedo. Núm. VIII. Diciembre. Pág. 151-160. Láminas, fotos y mapa.
- 4.—LAHOVARY NICOLAS. 1946. "Les peuples Européens". La Presse Française et Etrangère. Oreste Zeluk editeur. Pág. 271 a 273. Fotos y grabados. París.
- 5.—LASTRA VILLA, ALFONSO DE LA. 1970. "Chozos circulares pastoriles en Cantabria". Instituto de Etnografía y Folklore "Hoyos Sainz". Diputación de Santander. Pág. 151-160. Láminas, fotos y croquis. Santander.
- 6.—PEÑA BASURTO, LUIS. 1956. "Hallazgos prehistóricos y etnográficos en Castilla la Vieja". Homenaje a D. Joaquín Mendizábal Cortázar. Sociedad de Ciencias Aranzadi. Publicación núm. 12. Pág. 336 a 342. Fotos y dibujos. San Sebastián.
- 7.—URABAYEN, LEONCIO. 1929. "Geografía Humana de Navarra. La Vivienda". Edit. Aramburu. Tomos I y II. Pamplona.
- 8.—VEIGA DE OLIVEIRA, ERNESTO. 1969. "Construções Primitivas em Portugal". Centro de Estudios de Etnología. Lisboa.

LEKUONA TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Erri literaturaz. Atsotitzak eta esakerak

JUAN MARI LEKUONA *

Erri literaturaren gaia ez da bere osoan ematen gure artean. Bi zati dira aozko literaturan geienbat aipatzen direnak: poesia eta teatroa. Baina, espezialisten ikerkuntzez aparte, literatur jakintza dakarten gure esku-liburuetan aipatu ere ez dira egiten ez narratiba eta ez esakera zaarrak (1).

Utsune onen aipamena egin ondoren, aurkezten ez diren bi atal oietatik erri esaerak artuko ditut gaur gai bezala. Eta berauen literatur azterketarik emango ez badut ere, lerro auek izan bitez gure "jakinduri liburuei" ezarritako sarrera eta atari bezala.

Bistan da erriak erabilitako atsotitzek eta esakerek aozko literaturan duten garrantzia. Erriak berak sortu eta jasotako jakinduriarazko eta literaturazko ondare aberatsa dira. Denek erabiltzen ditugun "erran komunak" bilakatzen dira, historiaren oiartzun luzea dakarten adierazpide landuak. Itz batetan, erri mailako artelariak, —bertsolariek, kontuesaleek, ditzolariek eta abarrek—, darabilten eskola goiena.

1.—BI ZATITAN

Euskaldun batzuk, Azkuek dioenez, itz bakarra omen daukagu erdarazko bai "proverbio" eta bai "modismo" adierazteko: adibidez Gipuzkoan, "esaera zaarrak" "proverbio" adierazteko, ("esanera" ere norbaitzuk erabili omen); eta "modismo" adierazteko, berriz, esanera, esaera, esakera (2).

* OARRA.—Kardaberaz-Bazkuna'k esker beroa damaio Lekuona jaunari, bere idazlana argitaratzeko eman digun erreztasunagatik.

(1) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*. Zarauz, 1965. L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid, 1960. S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*. Tomo I. Bilbao, 1972. P. LAFITTE, *Herri Literaturaz*; en "Jakín" 9. Oñate, 1974, pp. 243 y ss.

(2) R. M. AZKUE, *Euskalerraren Yakintza*. T. III. Madrid, 1954, pp. 8 y 233.

Lekeitiar egileak berak bi gauza auek ondo bereiztea erabakitzen du. Ala dio: "Irakurri nituenean (Rodriguez Marinen itzak, alegia) irakspendun esakuntzak atsotiz artera eraman nituen; beste guziak esakera artera" (3). Esaera errikoiak bi zatitan banatze au, argia eta ero-soa ezezik, aski ere bada gure asmoa bete dezagun.

Bestalde, gaia bitan zatikatze onek badu zerikusirik euskal kulturaren historiarekin. Oro ar, esan dezakegu Garibay-tik asi eta gaur arte, historiaren garai guzietan, eta euskalki guzietan, beti egon direla atsotitzen bildumak. Bainan, Azkuek esaten digunez, "esakera biltzailerik ezta gure egunotararte, dakigula beintzat, Euskalerrian ezagutu" (4).

Baina gure paremiologiari gain-begiratu bat ematen badiogu, garbi azaltzen da nondik-nora ibili izan oi diren gure kultur mailako ardurak. Asera batetan, —eta orrela XIX. gizaldi arte—, moral filofosofia da, dirudienez, batez ere, gure paremiologian historigileek nabarerazi nai luketeena. Leengo gizalditik onutz, berriz, leengoez gain, badirudi folklore eta linguistik arazoiek agintzen dutela. Baina ez da azaltzen esakerei buruzko bildumarik.

Gure XX. gizaldi ontan, gainera, besteak beste, literaturaren esparruko arazoibideak tartean sartzen dira: ala nola euskararen batasuna eta gaurko kultur sistemarako izkuntza egoki bat sortu bearra. Arrazoi auek guziek arduratu ditu gure autoreak atsotitzak ezezik, esakerak ere bildu eta sistema pean ezartzera, bai teoria mailan, bai praxis mailan.

2.—ATSOTITZAK

"Atsotitza" da, Azkueri jarraituz, guk emen "proverbio" adierazteko aukeratu dugun itza. Badira beste zenbait itz gauza bera adierazteko euskaldunok erabiltzen ditugunak. Ala nola, "esakune", "supita", "esakuntza", "errefrau", "esaera zaar", "arrapu", "erasi", "errakune", "erranki", "errankizun", "erran zuur", "esalege", "itzur", "itz zaar" eta abar (5).

Atsotitz bildumarik zaarrenak, guk ezagutzen ditugunetan beintzat, —eta denboraren arabera ematen ditugula—, auek dira: Garibay-k

(3) ID., *ibid.*, p. 14.

(4) R. M. AZKUE, *ibid.*, p. 234.

(5) P. MUGICA, *Diccionario Castellano-Vasco*. Bilbao, 1965, p. 1.528.

Juan de Idiakes-i bidali zizkionak; "Refranes y sentencias de 1596" deritzatenak; "L'interprect..." izenburua daramatenak, 1640. urtekoak; Lope de Isasti-renak; Oihenarte-renak; Bela-renak; eta Saguis-enak.

RIEV sortu zuenak dioenez, ikerkuntzak egin naiz gero, gai asko ditu 1596.ngo bilduma zaar onek, bai izkuntzalarientzat, bai historigileentzat, bai folklore-zaleentzat (6).

Gero, XIX. gizaldiari gagozkiolarik, eta orduko atsotiz-lariek ezagutu ditzagun, Azkuek bere laguntzaileen izen-andana bat dakar, il diren izen andana. Eta auek datoz: Mogel, Uriarte eta Segura Bizkaitik; Iturriaga Gipuzkoatik; Darthayet, Duvoisin Laburditik; Inchauspe Zuberatik; eta Landerretche Behe-Nafarroatik. Oiekin batera, aipatzen du ere euskaltzale eta euskalari azkarra den Humboldt sonatua (7).

Egile auen bildumek, jakina denez, ez dute elburu bera erabili: batzuek literatur liburu baten barruan datoz, beste batzuek pedagogik elburua atzeman nai lukete, eta beste batzuek, berriz, izkuntza arloa dute beren jomuga.

Gure XX. gizaldiari begiratzen badiogu, iru dira izan Azkuek aipatzen dituen egileak, atsotitz-zaleak: J. Urquijo, D. Inza eta F. Irigaray (8). Bidezkoa denez, auen artean Azkue bera ere sartu bearra daukagu, beronen bilduma izanik, bere 2.936 atsetitzekin, ugariena; oso urbiletik badoakio ere D. Inzaren bilduma berria bere 2.500 atsotitzekin (9).

Alor oni dagozkion jakintza gaiak aipatzekotan, J. Urquijo-ren lanei esker, jakingarri asko aurki daitezke. Berak argitu digu "zernolako lotura eta artueman estua dagoen askotan gure erriko eta gure alboerrietako atsotitzen artean" (10). Eta ikus daiteke nola Europako izkuntzek ondare bera duten beren esaera zaarretan, erri mailako pentsamoldearen egituran eta zeaztasunetan.

Ala ere, J. Urquijoren iritziz, ez dugu etsirik artu bear atsotitzei buruzko ikerlanetan. Aztertu bear ditugu beroien jatorria eta esanaia. Eta ari ontan urrats interesgarriak markatzen dizkigu berak.

(6) J. URQUIJO, *Los refranes vascos de Sauguis*, en RIEV 2 (1908), pp. 678-680.

(7) R. M. AZKUE, *ibid.*, pp. 16-23.

(8) ID., *ibid.*, pp. 26-27.

(9) D. INZA, *Nafarroa-ko euskal-esaera zarrak*, Pamplona, 1974.

(10) J. URQUIJO, *Los refranes de Garibay*. San Sebastián, 1919, p. XXVIII.

Eta ikusirik ere, izkuntza guzietan berdintsuak direla atsotitzen sustraiak eta izateko arrazoiak, berdin edo antzeko formulapenak, orduan ere aztertu bearrak izango dira beti Euskal Erriak esakuntza auei ezarri dizkien bereizgarriak (11).

Atsotitzek nortasun aundia dute erriaren aozko espresabideetan, bertsotan bezala itz lauan. Bein baino geiagotan bertsoaren atzena osatzen dute, poema baten unerik gorenena. Bertsolarien iritzian, atsotitzak lirateke bertsogintzaren giltzarriak, esaundarik egokienak, bai azalaren aldetik, bai mamiaren aldetik. Eta beste orrelako zerbait esan daiteke baita ere narratibari buruz. Badira ipui zarrak au beste elbururik ez dutenak: atsotitz bat oinarri artu eta gero, ipui onen azkenean, atsotitz ori bera aipatu eleketaren koro eta erremate bezala.

Erabili ezezik, sortu ere sortzen dituzte bertsolariak atsotitz berriak. Ala dira giza-emakume sonatuen errepiñak, une historikoetan esanak, eta gero, erabiliaren erabiliz, esaunda errikoi biurturikoak. Gogora ditza-gun Aaide Nagusien arteko gerrate-kanten pusketak; gogora, baita ere, leinu zaarrei buruz esandakoak, edo Erdi Aroko gudateci buruz esandakoak. Formula biurtu oi dira orduko balentien aipamenak, orduko ekintza sonatuak, orduko pretensioak (12).

Gure arteko jakintzalariek, berriz, atsotitzen garrantzia ez dute beti ikusmira berdinekin ikusi. Aipatu dugunez, bilduma zaarrenek historia mailako ardura dute maizenik eta leenik. Erri kultura eta izkuntza bera ere "mortalasunezko errepin ugariz" ornituak ikusi oi dituzte (13). Eta moral filosofia errikoiaren demostrapen bat bezala atsotitz andana bat jarri oi dute heraldika kezka egindako liburuetan.

Bainan XIX. eta XX. gizaldietan, gero eta nabariago dagerzkigu linguistika eta folklore mailako ardurak eta axolak. L. L. Bonaparteren, J. Urquijoren eta R. M. Azkueren lanek alde batetik; eta J. M. Barandiaran-en lanek bestetik, —joera ontako autore bakar bat aipatzekotan—, oiek guziek egin dute atsotiz-mundua tresna garrantzizkoa izan dadin euskal kulturaren lingusitik eta antropologik ikaskuntzan.

Gauza interesgarria litzateke sistematikoki gure atsotitzen literatura

(11) ID., *Los refranes vascos de Sauguis*, pp. 686-687.

(12) J. CARO BAROJA, *Los vascos y la historia a través de Garibay*. Torosa, 1972, pp. 341-343.

(13) E. GARIBAY, *Refranes vascongados*. Madrid, 1854, p. 632.

balioa aztertzea, euskal poetika eta euskal narratibaren ari nagusien barruan. Geiago egin izan dira itzen ulerkuntza finkatzea eta erri esaren sintaxis legeak nabaeraztea. Baina, oiez aparte, ikusten dugu, baita ere, zeinen interesgarri litzatekeen atsotitzen sistematizatzea euskal estilistikaren legeak eta erak azalduz, idazlerik onenek intuizioz eta sormenez zabaldu diguten bidetik.

Ontan dagoke ikerlan berri baten premia, bai literatura sorkuntzarako, bai itzulpenetarako izkuntza bizi eta giartsua finka nai badugu. Ezin aaztuzkoa dugu erriak gizaldiz-gizaldi landu diguna. Eta agian, gure erriko eta alboerrietako atsotitzek molde berekoak izanik auetan aurki ditazkegu itzulpen lan baliotsu baten legerik nagusienak.

3.—ESAKERAK

Modismo auek izkuntzaren biotzean bizi oi dira, beste antzeko zenbait formula bezalatsu: atsotitz, esakun, zuur-itx eta abar. Eta orregatik erri mailako espresibide bezala jotzen dira: erriak bere eginak ditu, izketan ari denean itzetik-ortzera erabiltzen dituela. Geienbat norbaiten ateraldiren batek sortuak izaten dira; gero, gauza bera adierazteko, denek erabiltzen ditugula.

Oso desberdina daiteke izan esakera batek eduki dezaken asera eta geroko erabilkera. Ala ere, denek oso antzekoa dute beren jatorri legea: izketan ari denak uste izaten du zenbait itz indargabe eta belaxka direla une artan erabiliak izateko. Eta orduan, izketan ari denak esakera baten bidez estilistika indar aundiagoa eman nai izten dio bere mintzaldiari; orretarako esakuntza biribilak eta biziak sortzen dituela.

Bestalde, izkuntzalarien artean gauza jakina da esakerak duten garrantzia, izkuntza baten sustraia eta benetako gakoa ezagutu dezagun (14).

R. M. Azkuek, bere aipaturiko "Euskalerriaren Yakintza" liburuan, eta "Esakerei" buruz ezarritako itzaurrean, esaten digu, ez duela esakera biltzailerik egunotararte ezagutu, eta iru direla izan gaurregun berak ezagutzen dituenak: Altube, Inza eta Ormaetxea (15). Esan bea-

(14) G. BLEIBERG-J. MARIAS, *Diccionario de la literatura española*. Madrid, 1953, p. 480.

(15) R. M. AZKUE, *ibid.*, p. 234.

rrik ez dago Azkue bera dela laugarrena, bere bi milla inguru esakera auekin, "geienok erriaren aotik artuak" (16).

Gaurregungo modismozaleak aipatzez gero, ezin aaztu, besteak beste, bi ezagunenak: J. Mokoroa ("Ibar"), eta L. Villasante. Leendabizi aipatutakoak "Ortik eta emendik" deritzan bilduma prestatu du. Oraindik argitara eman gabe dago. Kopurua 70.000 fitxek osatzen dute, atso-titz eta esaerekin. Bigarren aipaturikoak, berriz, Axularren hiztegitik bereizketa eta entresaka bat egiña du, sistematikoki egiña ere, itzei ezezik, esakerei, "modismo, itzulika eta esanmolde jator-bereziei" oartzuz (18).

Bi gertakizun auek: batetik, modismo biltzalerik gure egunorarte ez egona, eta, bestetik, ain zuzen Azkue, Altube, Inza, Ormaetxea, Villasante eta J. Mokoroa izanak gure modismo biltzailerik sonatuenak, zera aditzera ematen digute: modismo-zaleen mundua eta berau aztertzea oso loturik daudela euskarak gaurregun dituen oinarritzko arazoekin.

Zerbait aipatzekotan, alboerrietako literaturekin dugun artuemanetan, euskal geinuaren arazoa agertzen zaigu: euskal ikuskera eta pentsamoldea gorde bearra. Eta euskal geinua erri esakerekin loturik dagoenez gero, ez da arritzeko "Ibar"-ek modismo bilduma ain ederra bildu eta landu izana (19).

Literatur sorkuntzan, batez ere itzulpen lanetan, beste modismologo baten izena aipatu dugu. Eta Orixerekin euskarak musika ots berriak atera ditu; eta Uitzikoak euskarari baliabide berriak aurkitu dizkio (20). Ori guzia oso loturik dator Orixek zuen erri jakintzarekin, modismoen ezagupenarekin.

Bestalde, zenbat eta geiago objetibatu euskal nortasuna eta euskal gordairu jatorra, ainbat zuzenago eramango ditugu egungo euskal arazorik larrienak: izkuntza egungo kultur sistema batetara biurtu bearra, izkuntza batu bearra, beste erriekiko artuemanetan itzulpenez une oro baliatu bearra. Eta arazo auetan guzietan erri esakerak dira, besteak beste, gure kulturaren erreferentzi utzi-ezina eta jatorra.

Beraz, ikus daiteke onenbestez modismoen arazoa gramatikarena baino askoz zabalagokoa dela. Estilistikari dagokion zerbait da, eta, aldi berean, lingusitikarekin eta literaturarekin zerikusia duena. Eta, atzenik, gure izkuntzaren geinu eta zentzu biziemailea.

(16) *Id.*, *ibid.*, p. 234.

(18) L. VILLASANTE, *Axular-en histegia*. Oñate, 1973. p. 15.

(19) J. MOCOROA, *Ibar, Genio y Lengua*. Tolosa, 1936, *passim*.

(20) L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, p. 149.

Magister dixit

IÑAKI LINAZASORO'K

Maixuak esana!...

Gure Don Manuel agurgarriari omenaldi berezi bat eskeintzen zaiola ta, ezin lerro batzuek idatzi gabe gelditu.

Magister dixit...

Izan ere, maixu begiragarri onen erakutsiak ez dira nolanaikoak eta uste det, Euzkadi guzia berakin zorretan arkitzen dala.

Gizaseme eta emakume asko gera Don Manuel'en esan, idazki eta bultzadari eskerrak, jakintza bidean jarri geranok.

Magister dixit...

Baña tajuzko maixu onen egintzak, ez dira Seminario, ikastaro, itzaldi eta liburuetan bukatzen. Bizi guztian, une guzietan, nun nai eta atsegiñez zabaldu ditu, erriaren neurrian jarriaz.

Ba dira bai, munduaren zear, ba dira noski, gizon jakintsuak, argiak, asko dakitenak, bañan beragaitik ezin esan dezakegu:

Magister dixit...

On Lekuona *Zarrak*, arretaz gogoratzen du Ebanjelioko Doaian parabola: Neurri gabe maite duan Jaungoikoagandik artutako doaiak izkutatu bearrean, zabaldu egin ditu. A zer gauza ederra!

Biotzez esker milla, Don Manuel, zure maixularitza ori larogei urte auetan Euskalerrian onerako jarri dezulako. Mota askotako ikasgaiak gañera: kondaira, oitura, izakera, abesti, eresi, izkuntz (*Literatura Oral Vasca* aitatzeta aski da) eta artea.

Gogoan det, zure *Magister dixit* orren billa, orain dala sei urte nola joan nintzan.

Orexa'ko eleizan, sagraioan atea arte-lanean anitz miresgarria zala

ba genekien. Baña norena? Norek sortua? Antxieta goresgarriak?... Auskalo!...

Laxaga, euskel idazlea zan Orexa'ko erretore, Don Manuel'en adiskide zintzo eta ikasle trebea, ain zuzen. Sagrario-ate eder au, zeñena ote?

Uli bizkarreko zelaietan zear pasiaran, erabaki gendun, izendaturako Maixua eta Maria Asunción Arrazola Orexa'ra eramatea.

Bazkalondo baten, Justo Azkue adiskideak eraman zitun Euskalerriko bazter pollit ortara.

Arratsalde zoragarria!... Orduan jakin gendun eta zergatik, Orexa'ko artelan txiki ori, Azpeiti'ko Joanes de Antxieta'na dala edo agian, bere ikasle onenetako batek sortua, baña ziur ziur esan dezakegu, Antxieta pamatuan eskolako. (Nere edergarrian arkitzen dezu arte-lan ori).

Magister dixit...

Eta Don Manuel'ek adierazten zigun: "Ebanjelio Santuak, Jesus'en bizitzako gertakariak esatean, askotan urri-antxa ibilli oi dira. Bear bada, guk nai baño urriagi ta zuurrago, batez ere Jesus'en bizitzako gauzetan.

Ortikan sortu da —zion Don Manuel'ek— artistak gertakari oiek agertu nai izan dizkigutenean, Ebanjelioak baño zenbait zertzelada ta detalle geiago ipintzea beren sorkarietan.


Gauza ori argi asko ikusten degu, gure aldareetan ditugun eskultura lanetan. Auetan arkitzen ditugu zenbait detalle Ebanjelioan ez dagonik".

Ori bai; guk ez degula naastu bear Artearen mundua, Ebanjelioaren munduarekin.

Nai gabe, denbora pasa, umil, apalkiro, irriparrez, Lekuona Zarrak eman zigun erakuspen berezia.

Antxieta'n lana erraza da ezaguaraztea, —zion *Magister dixit*—, irudien erropari tolesketa dotoreak emateagatik, oñak plano diferentetan jartzen zitun: bat bestea baño gorago. Orexa'ko arte-lanean, iru personaje daude egoera orretan jarriak. Ama Birjiña berriz baztertua, xe-xee, txiki-txiki. Zergatik? Bear bada, ikusleengan, sentimentu apur bat sortzeagatik. Ama Bakarne, bakartasunean alegia, Ebanjelioak dion bezela.

Artearen mundua, zoragarria da. Mundu ameslaria. Gauzak nolabait adierazi bear eta olako amets-modura eratzen dituana...



Lekuona Zarrak dionez, Antxieta'n arte-lan bat degu Orexa'ko sagrario-atea.

Iñaki Linazasoro'n argazkia.

Eleizatik atera ondoren, ibillaldi labur batean, danori buruz-bera jarri arazi zigun, Urkieta'ko mendia, Aralar eta beren gañean zeuden odeiak aztertzeke. Eta Maixuak zion bezela, buruz-bera, izadiak ere beste edertasun bat izaki...

Udaberriko arratsalde batean, zenbat erakutsi mamitsu ikasi nitun Don Manuel'en ezpañetatik, Platon'en antzera, bidezko, liburutik gabe. Orregatikan gaur nere zerrenda auek, atal-buru ori daramakite:

Maxister dixit...

Ez det titulo obeagorik arkitzen. Eskerrikasko, Don Manuel, zuegan-dik ikasi ditudan erakutsi guziagatik. Artezko amets pollit asko izan ditut zure jarraitzalle naizen ezkerro eta urte askoan itzal agurgarri orrek babes nazala.

Fernando V jura los fueros de Vizcaya (1)

ANDRES E. DE MAÑARICUA

Querido Don Manuel: No quiero que en este homenaje falten unas líneas mías. La urgencia del tiempo me impide ofrecerle el estudio que yo deseaba. Que hagan sus veces las siguientes palabras pronunciadas hace poco en ocasión memorable. El cariño que Vd. sabe suple todo lo demás.

Aquí, donde hace 500 años juró los Fueros, Fernando V, Rey de Castilla y Señor de Vizcaya, terminamos nuestro recorrido en la ruta foral.

Si leemos los textos legales del *Fuero Viejo* (2) y del *Fuero Nuevo* (3) veremos que el caminar de los Señores de Vizcaya, en su jura de los Fueros, terminaba en Bermeo. Nosotros, por razones que son obvias, lo terminamos en Guernica.

Guernica tiene para nosotros, una honda significación, como la tuvo entonces también, y lo prueba que el texto de la jura fuera transmitido cuidadosamente a la posteridad, insertándolo en todas las impresiones de los Fueros de Vizcaya, edición tras edición, a lo largo de cuatro siglos.

Aquí, el 30 de julio de 1476, juró Fernando el Católico. Necesitamos hacer un esfuerzo de imaginación para sustituir estas paredes recientes por el recuerdo de la iglesia de Santa María la Antigua de Guer-

(1) Conferencia pronunciada, el 23 de octubre de 1976, en el salón de sesiones de la Casa de Juntas de Guernica, con motivo del quinto centenario del memorable juramento.

(2) *Fuero Viejo de Vizcaya*, 1452 (Bilbao, 1909) cap. 3 (p. 10-11).

(3) *El Fuero, privilegios, franquezas y libertades del M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya*, reformado en 1526, tít. 1, ley 2.

nica. Hoy no nos preside, como entonces, la imagen de Santa María la Antigua, desgraciadamente perdida por incuria de los vizcaínos. La sustituye otra imagen de la Virgen, que también preside este lugar con todos los honores y lo convierte en capilla, porque un día del año 1876 fue elegida la Inmaculada Patrona de Vizcaya, por las Juntas del Señorío. Eso no quita evocación a estos lugares. La Sala de Juntas, el Arbol de Guernica, es el lugar diríamos más apropiado para recordar esta efemérides.

Voy a tratar de condensar en pocas palabras, en primer lugar, qué fuera la ceremonia del juramento de Fernando el Católico; después cuál su significación, y finalmente su trascendencia.

I. CEREMONIA DEL JURAMENTO

Estaba Fernando el Católico dentro de la iglesia juradera de Santa María la Antigua cuando se presentaron ante él todos los componentes de las Juntas Generales del Señorío, ya de antemano reunidas.

Ante el Señor de Vizcaya comparecen el Corregidor, su Teniente, los Alcaldes de Hermandad y de Fuero; los señores que se llaman vasallos del Rey y con ellos numerosos personajes cuya lista vereis en el recuerdo que se os entregará. Una lista larga de personajes, que representan a toda Vizcaya.

Presentes están los representantes de las Merindades de Busturia, Uribe, Arratia, Bedía, Durango, Zornoza, Marquina, Llodio y Orozco, y además, 45 representantes de las Villas entre las que destacan Bermeo, Guernica, Tabira de Durango, Bilbao y Lequeitio. En total 154 personas. Adviértase que, entre los representantes que se presentan al Rey, encontramos a varios de territorios que hoy no son Vizcaya: la Merindad de Llodio y la villa de Castro Urdiales.

Y el texto del acta añade que, con estos, se presentaron, otros muchos buenos hombres del dicho Condado de Vizcaya (4).

(4) El acta levantada puede verse reproducida en todas las ediciones del *Fuero de 1526*, por ejemplo, edic. D. ARBITIO (Bilbao, 1950) p. 220-225. En el acto conmemorativo en que se pronunció esta conferencia se repartió a los asistentes una reproducción del acta, transcripción literal de la copia autorizada más antigua que poseemos y que se conserva en el archivo de la villa de Valmaseda. Fue hecha esta copia en dicha villa el 14-VII-1488.

Presentes ante el Rey y siguiendo el ceremonial de costumbre, exponen su petición.

Apenas llegados al trono Isabel y Fernando, una comisión enviada por el Señorío fue a Segovia a rendir pleitesía a los nuevos soberanos y, al mismo tiempo, a rogarles que siguiendo la costumbre inmemorial vinieran a Vizcaya para personalmente en ella jurar los Fueros.

La venida del Rey a Vizcaya no pudo ser tan inmediata a causa de la guerra con los reyes de Francia y Portugal, con motivo de la sucesión al trono, y se demoró hasta el año 1476.

Las Juntas Generales recuerdan al Rey esta petición. Le recuerdan también cómo, antes de haber llegado al trono Isabel y Fernando, cuando todavía eran príncipes, Vizcaya se había alzado por ellos en contra de los posibles derechos de doña Juana "La Beltraneja", eligiéndoles sus señores.

Años ha, una comisión de Vizcaya, se había presentado, entonces en Aranda, a Isabel y le había presentado su pleitesía y pedido que ella, viniera también a Vizcaya. Isabel, confirmó los Fueros, en una carta que escribe al Señorío en la cual si bien mantiene su principio de no adoptar el título de Reina mientras viviera su hermano Enrique IV; sin embargo acepta y utiliza personalmente el título de Señora de Vizcaya (5).

Bazkunaren lenengo lana kistar-ikasti berria egitea izan zan. Baziran goterkian sei kistar-ikasti euskeraz eginak, eta seirak ezberdinak. Lau Astete'tik artuak eta beste bi beste egille batzuenak. Kistar-ikasti berri bat egin eta gero apaizak eta erriak on artzia lan andia eta zailla zen. Jaungoiko-Zalek eskatu eta gotzainak lan ori egiteko izentatu zituen iru idazle. Onek euren lana agertu zioten teologo talde bateri eta gero eleizburu (arziprezte) guziak bildu eta aste osoan egon ziran lanian. beren itzez eta egitez bayezteko. Gotzainak gero goterki guzian kistar-ikaste ori bakarrik erakustea agindu eban.

Jaungoiko-Zalek irarri eta agertu eban Kistar-Ikasti berria, bere bazkide eta apez lagunak erriz eson asi ziran umieri eta gurasoeri erakusten. Etzen lan erreza izan, baina gogo andiekin eta gizon argiak lagunduta lana bururatu zan ondo.

1923 urtean Jaungoiko-Zale asi zen Bizkaiako erri guzietan kistar-ikasbide zein geyagoketak egiten. Bazkunak autatu eta erri guzietara bialtzen zituzten bere bazkide batzuk azterketak egitera. Erri bakotxean ongien zekiten umiek sari bat izaten zuten, eta sari ori albazan erri guziaren aurrean emoten zan. Azterketa orrek etxe guziak ume eta guraso lanian ezartzen zituen. Gero urte bakoitzean arzipreztazgo batian beso inguruko erri guzietako aurrak biltzen ziran. Azterketa agiria egiten zan, eta gero denen aurrean, ikasle onenak ziren aurreri, sariak emon. Jai eder orrek ondorio onak ekartzen zituen. Zenbat jende biltzen zen jai orretara...!

Amar urte iraun eben Kistar ikastiko umien jaiak. Azkenengoa egin zan Zornotzan 1935 garagarrillaren 10 gn. Beste urtean erritako asterketak egin ziran, eta azkenengo jai bano len etorri zen guda eta gure jaiak amaitu ziran.

Liburuak Jaungoiko-Zale Bazkunak liburuak irartzeko asmoa lenengo egunetik izan eban. Orretarako irarkola bat erosi eban, ez andia,

baina bai gure diruaren neurrikoa. Ogei eta lau urtetan liburu asko agertu ziran, orriak, liburutxoak eta andiangoak, eleiz gaiak ibiltzen ziran beti liburu orreitan. Ez nago Bizkayan eta ezin idazti guztien izenak emon, baina izango de norbait egun batez Jaungoik-Zale'ren edestia egingo duena ziatzago.

"Jaungoiko-Zale" aldizkaria agertu zan lenengo lau orrikoa eta gero amaseiraino. Gaiak beti eleiz-gaiak. Baita aldiskari biurtu zanean ere.

ELEIZ-ORRIA erri askotara zabaltzen zan. Txaunburuak eskatuta orri bereziak ekartzen zitun erri talde bakotxarentzat. Gaia beti eleiz-gaya izaten zan.

1926 gn. urtean agertu zan et gudarano iraun eban "Zeruko-IZPI-TXOAK" izenakin Mariaren alabentzat egiten zen orria. Ondo irakurtzen zen, eta mutilentzat agertu zan 1931 gn. GAZTIEN LAGUNA illebeta guztietan gazteri beren kistartasuna nola bizi erakusteko. Au ere gudak il zuen.

Askenez bear ordu andia ikusten zalako Bazkunak EKIN asterokoa argitaldu eban, izparringi baten itxurakin. Errietako berriak eta baita ludi guzikoak ere, baina beti Ebangelio eta kistar ikastiko gai batzuek sakon eta argi argitaltzen ziran. Iru urte iraun eban gudaraño, eta beste lan guziekin baten il zan.

Bazkunak bazuen bere batzordea bear zen guztian biltzen zana, eta urtean bein egiten zan Zornotzan bazkide guzian batzar aundia. An biltzen ziran guziak beren asmoak agertu, lanak obiago nola egin zitezkean ikasi, zuzen etziran gauzak bide obean ezarri... eta gero bakoitza bere etxera itzultzen zan, lan egiteko gogo barrituakin.

Jaungoiko-Zale Bazkuna inguruan idazle talde pollita agertu zan eta ugaritu ere bai. Ezin denen izenak eman, baina batzuk agertuko ditugu; Izurrategui, Eguzkitza, Ibargutxi, Manterola, Oararteta, eta abar eta abar. Ordaindu gabeko langille onak denek, eta geyago egiteko ere beti gertu zegozenak.

Euskal Erriren etsaiak guda irabazi ta laster asi ziran Jaungoiko-Zalaren lana lurreratzen eta bere bazkideak jasartuten. Badira bere bazkiden artean apaizak, 150 gutxienez, jazarkatuak izan ziranak. Illak, espetxeratuak, erbesteratuak, beste erri batzuetara bialduak... eta denak euskal-zale zirelako bakarrik. Baina erri maitasuna Jaungoikoarenakin

batian badago, ezta ez eriotzarik, ez espetxerik ez neke ta oñazerik bareneko garra itoko duenik. Ortarako gaur eta pozez euskara burua jasotzen ikusten degu, eta idazle taldeak Jangoik-Zale bezala sortzen eta edertzen Kardaberaztarrak bezala.

Lantxo onek Lekuona On Manuel'i poza emango diola usteakin idatzi det. Bertze norbeitek osotuko al du egun batian.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- III -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Gure «Lekuona zaarrari»

PEÑA'TAR XABIER

Agur, jauna :

Omenezko liburu bat eskeiñi nai omen dizute maite zaituzten lagun idazleek. Eta neri ere etorri egin zaizkit, idazlantxoren bat egiteko eskean. Ongi dakizu idazle ez naizena (eta bestelakoa dala nere egitekoa). Ala ere, ezin ukatu nezaizkizu itz batzuk bederen. Gaiñera, zortetan nagokizu aspaldion. Ba dira iruzpalau urte, baiña ez daukat aaztuta, alako idazlan polit bat eskeiñi zenidala Kardaberaztarren aldizkarian. Biotz-ukitu aundia egin zidan zure oroipen arek, eta esker onezko onginairik beroena sortu zuan ene barru-muiñean.

Egia esan, doi-doi zaitut ezagun, eta mintzatu ere gutxi-gutxitan egin natzaizu. Zure idazkiak, ostera, gaztetandik izan ditut ezagun, eta betidanik ederretsi ere. Arriturik utzi nau sarri askotan zure jakituriak. Izan ere, nola ote diteke kristau bat ainbeste arlotan zu bezain jakitun izatea? Ez ote da arritzekoa? Arkeologia dala, naiz Erri-literatura, naiz euskal-kondaira, naiz Liturji-gaiak... edozertan agiri da zure buru argia ta zure erakutsi bikaiña.

Orrezaz, baiña, nere aldean askoz ere jantziago diran beste batzuk goratuko dute zure bizitza luze-ederrean egin duzun lan ugari ta balio-tsua. Nere aldetik, alderdi berezi bat aipatuko dut soil-soillik: zure euskera-irakasle lana, zure iturri oparotsuan edaten eman diguzun erakutsi-ur bizi ta jatorra.

* * *

Aipamen ori egiterakoan, barka ezaidazu nere buruaz zertxobait esatea. Ogeita-bederatzi urte dīra Bilbo'n euskera irakasten asi nintzala. Ondo gogoan dut. Etor-berria nintzaizun uri aundi onetara, guda-osteko gorabera latzak igaro ondoren. Gazte jator batzuk ezagutu nituan laister, Aberri miñez euskera ikasi naiak erreta. Aien egarria asetzen saiatu bearrean aurkitu nintzan...

Ba-nuan orretarako oiñarri sendoa: aita-amak erakutsia. Aien eus-

kera (mendi-aldekoa bata, bestea itxasaldekoa, "Garoa" ta "Kresala", biak batera) aurtzaroen zurrupatu nuan, eta betirako itsatsita gelditu zitzaidan. Edozein izkuntza gramatika-bidez irakas al izateko, ordea, norberak ikasi bear lenengo. Orrela bada, zeregin orri lotu nintzaion jo ta ke. Euskera-maixuen liburuetan murgildu nintzan eta... belarriz ikasia liburuetan azaldua ikusteak, a zer nolako atsegiña ematen zidan! Bein eta berriz esaten nuan kolkorako, pozaren pozez: —To, egia duk... Batzuetan orretara esaten diagu, ta beste batzuetan beste era orretara. Ta orra, orain ba zekiat zergatik dan ori, eta nere ikasleei erakusteko ere ba nauk gauza".

Nortzuk izan ote nituan maixu asiera artan? Bi, batez ere: Azkue ta Altube. Gramatika-lege ta arauak beraien iturri gardenean edan nituan.

Ala ere, edo nere buru txarragatik, edo gai batzuen zailtasunagatik, bein baiño geiagotan aurkitu izan naiz zalantzan eta argibide baten bear gorrian. Nora jo, orrelakoetan? Orra eldu zure aipamena egiteko ordua. Aitortu bearra dut, agirian aitortu ere, izugarritzko mesedegarri izan zaizkidala beti zuk an ta emen idatzi oi dituzun gramatika azalpenak, labor, mamintsu ta argiro eman ere.

Kardaberaztarrei eskabide bat egitera ausartzen natzaie. Ezin ote ditezke lan oiek bildu eta liburutxo batean argitaratu? Benetan esker-tuko genduke argitaratze ori, ta gure ikasleak oro euskera jatorrez jazteko urrezko bide bat izango luteke. Ona emen, esate baterako, oraintsu egindako idazlan eder batzuk:

- Kardaberaz liburuan (1973):
Noiz "bere"? Noiz "aren"?
"Z" atzizkia (modal-instrumental esan oi zaiona)
"A" artikuloa, noiz jarri, noiz ez.
- Kardaberaz liburuan (1974):
Euskeraz idazteko, euskeraz pentsatu
"Zuen" ala "zuan"
"Reflexivum-reciprocum
Euskerazko "relatiboa"
- Kardaberaz liburuan (1975):
Gramatika-formak idaz-lanetan
"garri, kor, koi" atzizkiak

Ziur nago beste orrelako lan mordoxka ederra bildu ditekela liburu bat osotzeko, eta zoragarri izango litzake oraingo millaka ikasleen eskuetan liburutxo ori jartzea.

* * *

Zugan, Lekuona jauna, beste zerbaitek ere arritu izan nau. Eztabaidetan eta iritziak ematerakoan beti erakutsi izan duzun neurritasuna, zentzuna. Aizkolari edo orrelakoren bat ba'ziña, "plaza-gizon" ziñake, zalantzarik gabe. Gai baten azterketa egitean, alako susmamen bat, usaimen berezi bat agertzen duzu. Kardaberaz idazlea aztertzean, esate baterako, "bait" partikularik ez zuala iñoiz erabilili esan diguzu. Alde batetik arritzekoa dala, baiña beste alde batetik ezetz. Ona emen zure itzak, gogotan artzekoak bait-ditugu:

"Gure klasikoak, idazterakoan, beren ideiak erdal-iturrietan edaten zituzten; eta beren Gramatika bera ere, erderazko Gramatiketan kalkatua egin oi zuten... Itz bitan, Euskera OSORIK ikasi nai duanak, klasikoak irakurriaz gaiñera, Peru Abarkaren Basarteko Unibersidadera joan bearra daukala: buru-belarri baserri-baserrian sartu bearra".

Batasun gaiak istillu aundiak sortu dituala jakiña da. Eta orretan ere, zuk beñola idatzitakoa ondo gordea daukat, aspaldian konturatu bait nintzan nere ikasleekin zuk diozuna egi-egia dala. Zillegi bekit, lan onen bukaeran, zure iritzi ori aldatzea:

"Nik gai ontan (batasun gaian) beti ere gauza bat uste izan det: batasuna egiteko, erretzeko, azkartzeko, bide bat (eta ez txarrena) "Gramatikan gora joatea", "Gramatika formaetara jotzea" dala; forma osoetara, fonetismoak-eta alde batera utziaz. Gramatika-formak garbi erabiltzen dituana, batasun-bidean dijoa. Ez da izango bide bakarra, baiñan bai onenetakoa. Arian-arian, ezarian-ezarian egiten da bidea... leendik ere egiten ari giñan bidea. Eta, besteak beste, beti jarraitu bear degun bidea: Gramatika-bidea".

* * *

Eta geiagorik ez, esandakoa baiño askoz geiago barruan gelditzen ba'zait ere. Eskerririk asko, On Manuel, eta Aintza ta Aintza Jainkoari, zu bezelako gizona eman digulako!

Bilbo'n, 1976-Gabonillak 8.

Oleta'ko euskal aditza: ikako jokabidea

PUXANA'TAR PEDRO

Oskera:	tt=	t bustia
	dd=	d bustia
	ts=	tz
	dx=	frantzerazko j gutxi gorabera
	tx=	españerazko ch
	x=	frantzerazko ch
	z=	s

GUZTITARIKO OARKIZUNAK

—*Ikako jokabidea zer dan.*—Azkue'k onelan dirausku: "La familiaridad de la conjugación consiste en hacer que la persona *i* (tú) con quien uno habla, intervenga afectuosamente en flexiones que no sean tuyas, de segunda persona, como lo son, por ejemplo, *ator* 'tú vienes', *daramak* 'tú, hombre, lo llevas', *natorkin* 'yo vengo a ti, mujer'..." (Morfología Vasca, Bilbao, 1925, 517 orrial.).

"La tal característica de familiaridad precede al núcleo, generalmente mediante la característica temporal, e inmediatamente después del núcleo se pone la característica sexual: *k*, tratándose de hombres; *n*, si la persona con quien hablamos es mujer" (Morfología, 588 orrial.).

—*Ikako ezagarrri ori adizkiari zelan ezarten jakon.*—"La *i* familiar se aplica o por incorporación (convirtiendo a *n* en *ñ*, a *d* en *dd* y a *l* en *ll*: *ñagok*, *ddagok*, *llegokek*), o por mera agregación, mediante la vocal epentética *a* (algunos sin epéntesis) *naiagok* o *naiagon*, *diagok* o *diagon*, *laiegokek* o *laiegoken*. Tratándose del segundo caso, o sea, de la aplicación de la *i* familiar al objetivo *d*, en dialecto vizcaíno siempre hay incorporación: *ddagok* o *ddagon*, nunca como en AN y BN *diagok* o *diagon*. Y esta hermosa incorporación vizcaína se pronuncia de cuatro maneras diferentes, según las zonas: *y*, *x*, *dx* y *j*: *yagok* en Arratia; *xagok* en Oñate; *dxagok* en Lekeitio, Gernika, Bermeo... *ja-*

gok con *j* gutural en Marquina, Eibar, Vergara, valle de Lenitz. Las otras dos incorporaciones *ñ* y *ll* son particulares de algunas zonas bizkainas, y también de Aezkoa. Por lo general decimos *naiagok* y *laiegokek* en vez de las lindísimas *ñagok* y *llegokek*" (Morfología, 588 orrial.).

—*Ezaugarriak*: *-k* ta *-n*, lenengoa gizonaekoarena ta bigarrena emakumearena. Beti azkenengo lekuan doakiguz.

ñ- ta *-ll*. Adizkiari aurretik itsasten jakoz.

dd- (*y-*, *x-*, *dx-*, *j-*). Aurreko aldean doakizuz.

ia- ta *ie-*. Erdizkiak dira.

OLETA'KO IKAKO JOKABIDEAREN BEREZITASUN BATZUK

Oleta'ko auzoa erriz Aramaio'ri loturik dagoan arren, berbetaz, artu-emonez eta bizitzaz Otzandio'ko zati bat milla bidar geiago dala emoten dau Aramaio'koa baiño, egon be, Otzandio'tik ber-bertan dago ta. Ori dala-ta, ikako jokabideari buruz aitatuko ditugun berezitasunak Otzandio inguru guztikoak dirala esango neuke. Puntu au aztertu, ez dot zeatz arteztu, baiña onelantxe dalakotan nago. Zukako jokabideari bagagokioz badira, bai, alde txiki batzuk Otzandio'n eta Oleta'n erabilli oi diran jokoetan. Ikako jokabideari buruz diardugula, ostera, besterik esan bear. Nik dakidala beñik-bein, ez da esateko alderik.

Idaz-lan onetan Oleta'ko (edo Otzandio aldeko) ikako jokabidea artuko dot jardun-gaitzat, jokabide orretan gallurtzen diran jakingarri batzuk aitatu.

Gurazizko erari ta aginte erari (subjuntivo ta inperativoari) gago-kiezala, esate baterako, adizki berezi-bereziak erabilli oi dira.

Adibidez:

Gurazizko era (orain aldia): *Osabak ekarri dxok erbi au euk dxan daida* 'el tío ha traído esta liebre para que tú la comas'.

Eta leen-aldian: *Ixekek ekarri dxoa atzo ollasko au euk dxan eidxá* 'la tía trajo ayer este pollo para que tú lo comieras'. *Daida* ta *ei-dxá*. Onelantxe, *-n* barik.

Aginte era: *Dxan daigúá arrapalada baten gero mendire dxuteko'* 'comamos de prisa para ir después al monte'. *Ein daiguzá bierrok eguerdi baiño leen*, 'hagamos estos trabajos antes del mediodía'.

Era berean eta aldi berean *dxeguá* ta *dxeguzá* be erabilten dira. Adizkiok, *daidxeguá* ta *daidxeguzá* adizkien laburpenak izatea badaiteke.

Aurrera egin baiño leen, zera esan dagidan: ikako adizkiak esaldi nagusietan bakarrik erabiltzen dirala Oleta ta inguruan, ez menpeko esaldietan.

Adibidez: *Aittek ekarri dxok ogidxe* 'ha sido el padre quien ha traído el pan'. Baiña: *aittek ekarri dauan* (zuka) *ogidxe*, *gozue dok* (ika).

Atzo goxeko amarretan Durango'tik ñentorrá 'ayer a las diez de la mañana venía yo de Durango'. Baiña: *Atzo goxeko amarretan Durango'tik nentorela* (zuka), *erbi batek urten dxustá* (ika) *bidera* 'cuando ayer a las diez de la mañana venía yo de Durango, me salió una liebre al camino'.

Ikako berbetea bizi-bizirik daukagu alde guzti onetan, zukakoa beste baietz esango neuke zalantzarik barik.

Emen ezin daikedaz berezitasun guztiak aitatu, luzeegi joango litzakit eta. Leen-taldiko adizkiak bakarrik ekarriko ditut, Oleta'ko aditzaren berezitasunik nabarmenatariko bat orixe da ta. Zati bitan bananduko ditut adizkiok: lenengoa, aditz laguntzailleen adizkiak ekarriko ditut. Bigarrenean, barriz, aditz sintetikoan jokoak.

ADITZ LAGUNTZAILLEA

EGITE ERA: LEEN ALDIA

NOR-dun adizkiak

(ni)	nitzá/nitzá
(i)	itzá-itzá
(a)	zá/zá
(gu)	giñá/giñá
(areek)	zi(r)á/zi(r)á

Jakingarriak: —Orra joko berezi-bereziak, beste iñon entzuten ez diran lakoak, bearbada. Azkue'k berak be aitatzen dau apartekotasun au bere Morfologian, zein tokitan ez naz gogoratzen baiña. Eta beste non edo non be joko orreen antzekoak erabiltzen dirala esaten dau, oker ezpanago.

—Jokootan, leen aldiari dagokion *-n* ezaugarria galdu egiten da, aditz-joko guztietan orixe jazoten dala, aurki ikusiko dogunez.

—Azkue'k onelan diñosku: "Aunque parezca chocante, son dos nuestros verbos sustantivos: *izan* y *ukan*... El sustantivo absoluto *izan* no admite la conjugación familiar que tiene el relativo *ukan* y que la

tienen todos los verbos conjugables... La familiaridad de este sustantivo (*izan*) consiste simplemente en la sustitución de sus flexiones por las del sustantivo relativo. *Naiz*, en trato familiar se hace *nauk* y *naun*, contraídos en *nok* y *non* (B) o *nuk* y *nun* (AN, BN, L, S). *Nintzan* 'yo era' se convierte en *nindukan* y *nindunan* (Morfología, 515 ta 517 orrial.).

—Azkue'k damoskun arau au leen aldian ez da betetzen Oleta-Otzandio aldean. *Nitzá/nitzá, itzá/itzá* ta abar *izan* laguntzaillearen adizkiak dira, ez *ukan* laguntzaillearenak. Ezta bizkaieraz egiten dan beste lekuetan be. Ikus argibidez eta konparabidez Lenitz aldean erabilli oi diran adizkiak:

(ni)	nintzoan/nintzonan
(i)	intzan/intzanan
(a)	zoan/zonan
(gu)	gintzoan/gintzonan
(areek)	zittuan/zittunan

Zittuan/zittunan kendu ezkerro, beste joko guztiak *izan* laguntzaillearenak ditugu.

—Leen aldiko adizkeretan azentoa guztiz nabarmena da Oleta'ko euskeran: ez *nitza, nitzá* baiño. Eta olantxe beste aditz-joko guztietan.

—Gizonekiko/emakumerekiko bereizgarririk be ez da aldi onetan. Joko bera erabilli oi da gizonezko bategaz naiz emakume bategaz itz egiterakoan: *nitzá/nitzá, itzá/itzá*...

AAL ERA: LEEN ALDI URRUNA

(ni)	ñeikiá/ñeikiá
(i)	eikiá/eikiá
(a)	lleikiá/lleikiá
(gu)	geinkíá/geinkíá
(areek)	lleikizá/lleikizá

Jakingarriak: —Oleta'n erabiltzen diranez, jokoon esan-naia auxe da: yo podía (ir), baita: yo pude o hubiera podido (ir).

—*Edin* laguntzaillearen jokoak dira.

—Konparabidez, ikus Zeanuri'koak:

(ni)	neintekean/neintekenan
(i)	eintekean
(a)	yeitekean/yeitekenan
(gu)	gaieintekéazan/gaieintekenazan
(areek)	yeitekeazan/yeitekenazan

NOR-NORK-dun adizkerak

NI		GU
niñdduan/niñdduan	(ik)	giñdduazá/giñdduazá
niñdduá/niñdduá	(arek)	giñdduzá/giñdduzá
niñdduen/niñdduen	(areek)	giñdduzá/giñdduzá
A		AREEK
ñoá/ñoá	(nik)	ñoazá/ñoazá
(e)ba/(e)ba	(ik)	(e)bazá/(e)bazá
dxoá/dxoá	(arek)	dxoazá/dxoazá
genduá/genduá	(guk)	genduzá/genduzá
dxoén/dxoén	(areek)	dxoézán/dxoézán

I

(nik)	iñddudá/iñddudá
(arek)	iñddudá/iñddudá
(guk)	iñddugúá/iñddugúá
(areek)	iñdduen/iñdduen

Jakingarriak: —*Ukan* laguntzaillearen jokoak. Leen aldiaren ezau-garria dan -n emen be galdu egiten da.

—Adibidez: *Ikusi bá atzo erbirik mendidixan? Ez, eñoá ikusi...* 'Viste ayer alguna liebre en el monte? No, no la vi'. *Nok jo iñddudá atzo? '¿quién te pegó ayer?'*

—*Nebazan, ebazan, ebezan* jokoak barriak dirala, Azkue'k berak sorturikoak edo dirala bein baiño geiagotan entzun izan dot. Ez dot uste esan ori egia izan daitekenik. Azkue munduratu baiño leenago *ebá/ebá, ebazá/ebazá* jokoak Oleta'n bizirik ziran.

—Ikus, konparabidez, Angiozar'en erabilli oi diran adizkiak:

		GU
NI		
niñdduan/niñddunan	(ik)	giñdduen/giñdduenan
niñdduan/niñddunan	(arek)	giñdduan/giñddunan
niñdduen/niñdduenan	(areek)	giñdduen/giñdduenan

		AREEK
A		
najuan/najunan	(nik)	najittuan/najittunan
euan/eunan	(ik)	ittuan/ittunan
juan/junan	(arek)	jittuan/jittunan
genduan/gendunan	(guk)	genittuan/genittunan
juen/junen	(areek)	jittuen/jittunen

		I
	(nik)	iñddudan/iñddudan
	(arek)	iñdduan/iñddunan
	(guk)	iñdduguan/iñddugunan
	(areek)	iñdduen/iñdduenan

NOR-NORI-NORK-*dun* adizkiak

		GURI
NIRI		
ustá/ustá	(ik)	uskuá/uskuá
dxustá/dxustá	(arek)	dxuskuá/dxuskuá
dxusten/dxusten	(areek)	dxuskuen/dxuskuen

		AREI
ARI		
nutxá/nutxá	(nik)	nutxá/nutxá
utsá/utsá	(ik)	utsá/utsá
txá/txá	(arek)	txá/txá
guntxá/guntxá	(guk)	guntxá/guntxá
txén/txén	(areek)	txén/txén

		IRI
	(nik)	nustá/nustá
	(arek)	ustá/ustá
	(guk)	gustá/gustá
	(areek)	ustén/ustén

Jakingarriak: —Agi danez, adizkiok itxuraz aldatuta edo bestelakotuta agertzen jakuz; obeto esanda, zearo laburtuta. Adizki osoak *Ari* taldean, esate baterako, *Oleta'n* erabiltzen diranez, onelangoak izango litzatekez: *neutxá/neutxá*, *eutsá/eutsá*, *dxentxá/dxentxá*, *geuntxá/geuntxá*, *dxentxén/dxentxén*. Eta onantxe beste taldeetan be.

—Ikus, konparabidez, aldi berean Angiozar'en erabili oi diran adizkerak.

		GURI
NIRI		
ostan/ostanan	(ik)	oskuan/oskunan
jostan/jostanan	(arek)	joskuan/joskunan
josten/jostenen	(areek)	joskuen/joskunan

		AREI
ARI		
najotsan/najotsanan	(nik)	najotsen/najotsenan
otsan/otsanan	(ik)	otsen/otsenan
jotsan/jotsanan	(arek)	jotsen/jotsenan
jotsaun/jotsanaun	(guk)	gontsen/gontsenan
jotsen/jotsenen	(areek)	jotsen/jotsenan

		IRI
	(nik)	ostan/ostanan
	(arek)	ostan/onan
	(guk)	ostaun/onaun
	(areek)	ostan/onan

ADITZ SINTETIKOAK

NOR-*dun*. adizkerak

		EGON
ETORRI		
ñentorrá/ñentorrá	(ni)	ñenguá/ñenguá
entorrá/entorrá	(i)	enguá/enguá
dxentorrá/dxentorrá	(a)	dxeguá/dxeguá
gentozá/gentozá	(gu)	gengozá/gengozá
dxetozá/dxetozá	(areek)	dxegozá/dxegozá

Jakingarriak: —Ikus, konparabidez, Zeanuri'ko jokoak:

ñentorran/ñentornan	(ni)	ñengoan/ñengonan
entorren/entorren	(i)	engoan/engoan
yetorran/yetornan	(a)	yegoan/yegonan
gentoazan/gentonazan	(gu)	gengoazan/gengonazan
yetoazan/yetonazan	(areek)	yegoazan/yegonazan

IBILLI

DXUN

nenbillá/nenbillá	(ni)	ninddoiá/ninddoiá
enbillá/enbillá	(i)	inddoiá/inddoiá
dxebillá/dxebillá	(a)	dxoiá/dxoiá
genbizá/genbizá	(gu)	ginddoiázá/ginddoiázá
dxebizá/dxebizá	(areek)	dxoiezá/dxoiezá

Jakingarriak: —Ikus, konparabidez, Zeanuri'ko jokoak:

ñenbian/ñenbinan	(ni)	niñoian/
enbillen/	(i)	iñoian/
yebian/yebinan	(a)	yoian/
genbiazan/genbinazan	(gu)	giñoazan/
yebiazan/yebinazan	(areek)	yoiazan/

NOR-NORK-*dun* adizkerak

EKARRI

NI

GU

nenkarrá/nenkarrá	(ik)	genkazá/genkazá
ñenkarrá/ñenkarrá	(arek)	gendxakazá/gendxakazá
ñenkarren/ñenkarren	(areek)	gendxakazá/gendxakazá

A

AREEK

ñenkarrá/ñenkarrá	(nik)	ñenkazá/ñenkazá
ekarrá/ekarrá	(ik)	ekazá/ekazá
dxeekarrá/dxeekarrá	(arek)	dxeekazá/dxeekazá
genkarrá/genkarrá	(guk)	genkazá-genkazá
dxeekarren/dxeekarren	(areek)	dxeekarrezá/dxeekarrezá

NORK-NORI-NORK-*dun* adizkerak

EKARRI (Nor bait edo zer bait)

NIRI

GURI

ekastá/ekastá	(ik)	ekaskuá/ekaskuá
dxeekastá/dxeekastá	(arek)	dxeekaskuá/dxeekaskuá
dxeekastén/dxeekastén	(areek)	dxeekaskuén/dxeekaskuén

ARI

AREI

nekartxá/nekartxá	(nik)	nekartxá/nekartxá
ekartsá/ekartsá	(ik)	ekartsá/ekartsá
dxeekartxá/dxeekartxá	(arek)	dxeekartxá/dxeekartxá
genkartxá/genkartxá	(guk)	genkartxá/genkartxá
dxeekartxén/dxeekartxén	(areek)	dxeekartxén/dxeekartxén

IRI

(nik)	nekastá/nekastá
(arek)	ekastá/ekastá
(guk)	genkastá/genkastá
(areek)	ekastén/ekastén

Jakingarriak: —Ona emen, konparabidez, Zeanuri'ko jokoak:

NIRI

GURI

enkastan/	(ik)	enkaskun/
yekastan/yekastanan	(arek)	yekaskuan/yekaskunan
yekastien/yekastienan	(areek)	yekaskuen/yekaskuenan

ARI

AREI

ñenkartsoan/ñenkartsonan	(nik)	ñekaskien/ñekaskienan
enkartsoan/enkartsonan	(ik)	enkaskien/
yekartsoan/yekartsonan	(arek)	yekaskien/yekaskienan
gaienkartsoan/geienkartsonan	(guk)	gaienkaskien/gaienkaskienan
yekartsoen/yekartsoenan	(areek)	yekaskieen/yekaskieenan

IRI

(nik)	nekastaan/nekasnan
(arek)	ekastaan/ekasnan
(guk)	genkastaan/genkasnan
(areek)	ekastáien/ekasnáien

Oarra: Ekarri diran adizkiok naiko dirala uste dot, leen aldian erabiltzen diran Oleta ta inguruko aditz-jokoak zein eratakoak diran jakiteko. Orregaitik, beste aditz-sintetikoen jokorik ez dot agertzen.

OLETA'N GAUR EGITEN DAN EUSKERA-MOTA

Aitte-seme-alaben artien

Aitt.—Bai, amaiketxu mesede ein txaz nik auzuko orri neure bitza guztidxen, baie esker txarra ta zittalkeridxe baiño etxoaz beragandik ordeztartu. Etxe ondolik bera duen erreka ori bitarteko dogula bixi ixen gozak dxaidxo giñanetik, eta alan be, bata Ameriketara eta bestie Erroman edo egon bagiozak lez ibilli ixen gozak beti-beti. Bata bestiegana beti muker eta begi oker, egundo gure ezpanetan irri-barrerik ikusi barik.

Sem.—Aitte, ta nundik etorri zan, ba, orrenbesteko asartie zuen bidxon artien?

Aitt.—Nundik etorri zan diñustek, nundik? Uskeri batetik, mundu zittal onetan geidxenetan pasetan dan lez. Umetan eta mutikotan alkarregaz eitten genduzá geure olgetak, bixi be auzu-auzuen bixi giñá ta. Baie ni bera baiño geitxuau ixeten nitzá askotan. Pelotan eitten genduenien, gitxigaitik baie neuk irabazi. Saltoka genbizenien, apur-apurtxu bategaitik ezpazá be, neuk geitxuau eitten ñoá. Arbola zein atx-puntara igo bier zanien, pausutxu bat edo bi neu aurretik. Uger genbizela, arnasarik artu barik ur-azpidxen egoten be, neu nausi.

Oixe ixen zá nire pekatue. Ortixik artu dxustá itzelezko amorru, ikusi eziñe, gorrotue, ta begidxen aurrean be eniñduá ikusi gure, ta bidien nentorrela ikusten baniñduá, beste bat artuko dxoá neugaz tril ez eittarren.

Gero umetako gorroto a geittuten eta geittuten dxun zá urtiakaz eta orrá auzu-auzuen bixi ixen dien gixon bi bata bestiaren areridxorik aundidxenak balitzozak lez bixitza guztidxen bixi. Siñistu be ezin leikek ikusi barik, baie olantxe dok.

La canción del Rey Abarca
Abarcaren cantua

P. JORGE DE RIEZU

Años atrás, remitido de la Biblioteca Nacional de París por M. Devoto, *Directeur de Recherche du C.N.R.S.*, llegó a mis manos en xerocopia un artículo, *Basque Popular Poetry*, firmado por Francisque Michel (Bordeaux, Sept. 21, 1858), donde se transcriben y comentan dos poesías vascas. Conocía yo la segunda de ellas, *Maitena*, variante de *Zelüko izarren bidia*, que trae J.-D.-J. Sallaberry en sus *Chants Populaires du Pays Basque*; no así la primera, *Abarcaren Cantua*, que nunca vi mencionada en cancioneros ni revistas (1), con ser tal su mérito, en sentir del articulista (Fr. Michel), que bien podía competir con *Altabis-carraco Cantua*.

Leído el artículo con la atención que el tema, el autor y la gentileza del remitente se merecían, lo guardé en las tapas de *Le Pays Basque* de Fr. Michel. Y no ofreciéndose oportunidad de airearlo, durmiendo quedó allí hasta hoy, en que, requerida mi presencia en el libro-homenaje a D. Manuel de Lecuona, he pensado que al autor de *Literatura Oral Vasca* y del libretto de la *Opera Zigor* no le ha de sonar sino bien *Abarcaren Cantua*, la *Canción del Rey Abarca*, en su doble faz, literaria y bibliográfica.

Muy extraño es que, en todo un siglo y más, el eco de la misma no haya llegado a nuestras latitudes. ¿Será que solamente los vencedores tienen derecho a la supervivencia y a la fama? Porque nuestra canción, presentada en concurso, no obtuvo el galardón apetecido. Quede al criterio del lector el juzgar sobre su mérito literario; pero tanto ella como el artículo de Fr. Michel han tenido historia, que es preciso esclarecer.

Transcribimos en primer lugar el artículo de Francisque Michel,

(1) De pasada menciona J. de Urquijo *Abarcaren Cantua* en un artículo sobre *La Crónica de Ibañeta-Cachopin* (RIEV, 1934, p. 542).

donde está comprendida la Canción del Rey Abarca; le seguirá la réplica de Antoine d'Abbadie y la rectificación de Fr. Michel.

Respetamos fielmente los títulos de las canciones y los textos, con su grafía, según los hallamos en los lugares que se citan. Y nos ha parecido oportuno intercalar, entre corchetes [], alguna que otra apostilla aclaratoria.

POESIA POPULAR VASCA (BASQUE POPULAR POETRY)

MR. URBAN:

Es de todos conocido el siguiente pasaje del libro intitulado *The Bible in Spain*, del ameno escritor George Borrow: "Preguntará quizá alguien aquí si los Vascos no tienen poesía popular, como la mayoría de las demás naciones, aunque sea poca y de escasa importancia. No carecen, ciertamente, de canciones, baladas y estancias, pero de un carácter que en manera alguna merece llamarse poesía", etc... Pareciéndome un tanto severo este juicio, traté durante los pasados años de vindicar el genio poético de los Vascos, tan osadamente puesto en litigio. El resultado de mis investigaciones vio la luz en un libro que ha tenido favorable acogida tanto en este país [Inglaterra] como en los Pirineos (2). Mas habiendo vuelto de entonces a esta parte a visitar aquellas montañas [de Euskalerría], he conseguido reunir nueva cosecha, que espero presentar pronto al público. En tanto llega la oportunidad de hacerlo, permítame ofrecerle un espécimen de esas reliquias de poesía popular antigua, que bien puede competir con el *Altabiscarraco Cantua*, universalmente reconocido como una joya del género:

ABARCAREN CANTUA (Basa Nafartarra)

1. "Belzuncec Abarcari,
Erregue handiari,
Agur eta berri:
Galde du Iruñarrac

LA CANCION DEL REY ABARCA (en dialecto bajonavarro)

"Belzunce al gray Rey Abarca,
agur y un aviso: Pide el [pueblo] pamploñés venga a marchas forzadas, porque en sus puertas

(2) Alude a su libro *Le Pays Basque, sa Population, sa Langue, ses Moeurs, sa Littérature et sa Musique*, Paris-Londres et Edimbourg, 1857

Eguiteaz lasterrac,
Han baitu Moroa
Beharrez khoroa.

2. "Abarcac Belzunceri,
Guduco lehoinari,
Esker eta berri:
Ez-t'ekhia mendietan
Higaranen bietan
Non ez-ten Moroa
Izaten ehoa.

3. "Erreguec berehala
Escaldun bil dabila,
Erraiten diela:
"Etsaya da oldartu,
Iruñan nahi sarthu.
Ez-ta egoteric,
Hel oro utciric.

4. "Elhurra da Belaten,
Bideric ez ikhouston,
Lanhoec ematen;
Arranoac ikharez,
Oro egoten hotzez.
Abarca ez beldur,
Ez lagunac uzkur.

5. "Moroec ustez nihor
Etzeitekien ethor,
Eguin zuten leihor.
Oni' (3) aseric janhariz,
Beroturic edariz,
Argaz alde huntan
Oro zauden lotan.

tiene al Moro, codicioso de la corona.

"Abarca al león de las batallas Belzunce, gracias y un aviso: No traspondrá el Sol dos veces las montañas, sin que sea exterminado el Moro.

"Va el Rey al punto a reunir a los Vascos, diciéndoles: "El enemigo se ha alzado en armas e intenta apoderarse de Pamplona. No hay tiempo que perder. Aquí [sin falta], dejándolo todo".

"Nieve en Belate, no se ve un camino, niebla cerrada; el águila tiembla; todo lo entorpece el frío. [Pero] Abarca no se arredra, ni sus huestes vacilan.

"Ajenos de toda sorpresa, los Moros acomodan sus tiendas de campaña. Bien comidos, bien bebidos, entréganse aquende el Arga todos al sueño.

(3) ¿Será ongi?

6. "Goiz aldia zelaric,
Nihon gabe horiric,
Ez argui, ez kheric,
Escalduna da sortzen,
Sarraskiz abiatzen.
Moro harritua
Egon hondatua.

7. "Zembat dire agueri
Emanac ihesari,
Urian igueri?
Mendico aldapetan
Erreka bazterretan
Othe da batere?
—Ez itzalic ere".

"Al rayar el alba, —ni arreboles,
ni luz, ni humo por parte algu-
na—, irrumpe el Vasco y entra a
degüello. Despavorido el Moro,
queda exterminado.

"¿Cuántos [di] se ven [a salvo]
huyendo, [o] a nado en el agua?
¿Queda acaso alguno por las fal-
das de la montaña o en las már-
genes del río? —¡Ni sombra!".

¿A qué batalla alude la canción? ¿Quién fue el Abarca mencio-
nado en ella? Sin duda D. Sancho II, Rey de Navarra, que vivió a prin-
cipios del siglo X, el cual obtuvo dos victorias sobre los Moros: la
primera en 907, junto a Pamplona, puesta en asedio por aquella época;
la segunda en Valdejunquera, donde hay un paraje llamado *larraña*
Mauru, que quiere decir *campo de los Moros* (4).

¿Habremos, pues, de afirmar que la canción es cotermporánea del
suceso? Temerario sería el afirmarlo. Por otra parte, el canónigo In-
chauspe, a quien debo la pieza poética, juez competentísimo —con Su
Alteza el Príncipe Luis-Luciano Bonaparte— en estas materias, no va-
cila en declararla genuina. En vista de una autoridad como la suya, no
puedo menos de tenerla por antigua; abrigo, con todo, mis dudas sobre
si no se habría compuesto por atestiguar la antigüedad de la familia
Belzunce, si bien no había por qué hacerlo.

Hasta aquí Francisque Michel, en lo tocante a la *Canción del Rey*
Abarca.

(4) Vea por su cuenta el lector si encajan en la Historia los hechos que
dice Fr. Michel.

* * *

Más que la canción en sí y el juicio de todo un Fr. Michel sobre
ella me sorprendió el silencio general en torno de la misma. ¿Tal si-
lencio, me preguntaba, habrá sido absoluto? Imposible. Una nota ma-
nuscrita en la xerocopia, que dice: *From the Gentleman's Magazine,*
october, 1858, 25 ejemplares en separata, fue el cabo suelto por don-
de vino a desenredarse la madeja. Acudí al *Essai d'une Bibliographie*
de la Langue Basque de J. Vinson, en cuyo segundo tomo, sección *Jour-*
naux et Revues, apartado XCII (p. 769), hallé las siguientes referencias
bajo el epígrafe *Gentleman's Magazine*:

Vol. V, new series, p. 321-383, oct. 1858.—*Basque popular poetry*,
por Fr. Michel.

Vol. VI, n. s., p. 226, mars 1859.—*Modern antique basque poetry*,
par Ant. d'Abbadie.

Vol. VI, n. s., p. 338, avril 1859.—*Basque poetry* (réponse à M.
d'Abbadie), par Fr. Michel.

Era, pues, evidente la contienda habida entre Fr. Michel y A. d'Ab-
badie sobre la Canción de Abarca.

Hemos dado *in extenso* el artículo de Fr. Michel a que alude la
primera de las dos referencias. Cuanto al contenido de las dos restantes,
no disponiendo de los números correspondientes de dicha revista, J. Vin-
son nos lo da resumido en su *Notice Bibliographique sur le Folk-Lore Bas-*
que (París, 1884), capítulo *Chants Historiques Nationaux* (p. 29-56),
apartado III.—*Le Chant d'Abarca* (p. 30-31).

REPLICA Y RECTIFICACION

He aquí la réplica de A. d'Abbadie, en que se declara la historia
de la Canción de Abarca:

"En el mes de agosto del pasado año [1858] recibí, como otras
veces, las composiciones poéticas —de no más de 50 versos— para el
certamen, y entre ellas la Canción de Abarca, cuyo manuscrito aún con-
servo. Envié copias a los dos jueces designados por mí, los cuales, a
instancia mía, convinieron en nombrar un tercero. Uno de éstos, vasco

muy docto, por supuesto, reside actualmente en Londres. El dará fe de la veracidad de estos hechos, que son muy recientes; y, cuanto a fecha, él considera la Canción de Abarca como un bebé de dos años (*as a suckling babe two years old*), compuesta para otra oportunidad anterior por un autor *viviente*. Esto nos aleja del poema de tiempos de Matusalén que en el número de octubre [1858] su revista [de usted] encaldea a los lectores. Ausente el canónigo de Bayona, mi amigo Inchauspe, creo deber mío afirmar que él nunca soñó en atribuir más de 10 años de antigüedad a dicha canción, que recibió a petición mía, a la que, de acuerdo con sus dos colegas, no otorgó nuestro premio anual”.

Con la siguiente respuesta puso Fr. Michel honroso término, como convenía en *Gentleman's Magazine*, al breve pase de armas habido entre caballeros. Decía así en dicha revista inglesa (abril, 1859, p. 338) el autor de *Le Pays Basque*: “Reconozco de grado que M. d'Abbadie, siendo vasco, entiende mejor que yo estas cosas y, por tanto, me avengo a creer que los llamados *Abarcaren Cantua* y *Altabiscarraco Cantua* son supercherías (*forgeries*)”.

Perdónenme los manes de aquellos eminentes vascófilos la osadía de terciar en su contienda; mas no me resigno a dejar al lector con la ingrata impresión del calificativo de superchería, aplicado a ambas canciones. Que lo fuera la segunda, no cabe duda. Pero el caso de nuestra canción, *Abarcaren Cantua*, es distinto. Aquí no hubo necesidad de sacarla de algún archivo conventual inexistente, ni de inventar antiguas tradiciones que no lo fueron, ni de urdir falsedades y engaños. El poema brotó espontáneo de la fantasía y del entusiasmo del autor y sin doblez fue presentado en concurso. Podrá discutirse la veracidad del fondo histórico en que se sitúa la acción. Mas ¿cuántas obras bellas no habría que raer de la historia literaria, si se le negara al poeta la prerrogativa de crear, graciosamente otorgado por las musas?

Heuty (¿nombre o seudónimo?) fue el autor de *Abarcaren Cantua*, presentado en el certamen de 1858, que se celebró en Urruña (Laburdi). En él fueron jueces el canónigo Inchauspe, el capitán Duvoisin, —a quien sin nombrarle alude A. d'Abbadie en su réplica—, y un tercero, cuyo nombre ignoro. No obtuvo Heuty el codiciado premio, sino mención honorífica.

* * *

Mi querido amigo D. Manuel: aquí acaba mi cuento. Menguado, por fuerza, había de ser el don del pobre, como el cornado de la viuda; pero los Maestros saben apreciar el valor de una parvedad, cuando la voluntad es grande.

Lecaroz, 20-Dic.-1976

Lekuona'tar Manuel, euskal biderakusle

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Argiak argitu, maitasunak gozatu, zuzentasunak egitu egin bear dau. Gizonaren balioak imillaunpean estaltzea, egoki, ez da. Ta orrez gañera, zuzentasunaren aurka doa, argiak ba, bere izatez, illunak kendu ta onaren bizia zabaldu bear dau. Euskal talentu ederrak artu zenduzen, Manuel jaun adiskidea, gure lur guztian zear edatzeko. Zure laguneen eginbearra da, ta egizkoa deritxot, zure lana aipatzea. Ixiltzea ostera, zuzengabekeria izango litzake, eguzkiak, beti ta edonun, argi ta berotasun zabaltzaille izan bear dau-ta. Euskal izar dizdiratsu onen barri zabaltzea, bide ta mendi illunei argi egitea bezela da.

Gizona, egiña izan dan bezelakoa da. Ez gure naiz ta ez gure egi-tez ez giñan, emen, agertu. Berezko legez sortu giñan euskaldun. Izen ederra da. Lur au ta emengo jendeak elkarren artean landuteko egiñak gara. Ementxe, sortu bear dabe euskal lurra landuteko lugin trebeak, burdiñak eralduteko langille almentsuak, buruak argitzeko euskal maisu zuzenak ta euskotar borondatedunekin Jaungoiko erria sortu ta azke-neraiño eutsi eragingo deutsen apaiz zintzo ta erri-zaleak.

Gure gizon-zaiñetan euskaldun odol berezia doa. Berdinik ez dozu inguruan. Mendi ta janari, aize ta giro, inguru berezi ta euskaldunen ederrak sortu eban Añamendi barrenean kantauri itxasoari begira.

Odol ori, ementxe, berezitu zen mendi, arru, lan ta lagun izake-raz. Ta gero, odolak ots egiten eban seme leiñargien barruan. Dan, dan atearen otsa. Odola deika dago. Ta seme askoren odola otz otz. Urri-ñeko jakituri, urriñeko izkuntza, urriñeko intxaurrak otsak aundiak, ta an dabilzaz usainka, etxeko solóa landu gabe talentu aundiarekin. Amaren etxea ez jorratu ta ez landu nai ez dabelarik. Ezer tristerik ba'da, ori bai dala ziñez, amarentzat ankerkeria. Zenbat negar egin ete dau ama lurrek olango semeak direla-ta...! Onezkero il egingo zen gure ama, seme leial tegi bat izan ez ba'leu. Bai. Ume onak izan ditu, langilleak, errimeak, zintzoak, Lekuona Manuel jauna bezela etxe bizitzaren garra ta egia ta amarenganako zorra, barruan, asmatu ebenak.

Geroztik, amaren odol garbia ta berezia xurgatu eban-ta, semearen indar dardara guztiaz ekin eutson bizi ori zabaltzen. Odolaren deia eder ta sakonena da ta barrutik dei dagitzo egizko dan semeari. Odola bera egia da. Ta euskal odol onegaz lan dagianak, etxeko bizia zabaltzen dau, saillik sail, euskal gizadian.

Erriaren arloak asko dira. Guztiak bearrezko, guztiak eder, ta euren ezaugarrienetarikoak euskera soil soilla. Euskerak erabagi bear dau geienbat, euskotarreen bizia etxean eta kanpuan. Izkuntza zentzundunak Euskalerrri zentzunduna, euskera garbiak erri berezia, euskera sendoak enda sendo, zindo ta indartsua agertu bear dau. Erria da guretzat izkuntzaren liburu zabal, jakiturizkoa. Or dago euskal gogoaren bizi ta mamia, egiz oretua ta gizaldiz gizaldi egiña. Giro ori zuengandik artu genduan, Lekuona jauna, ta erriak, ondo, emon deusku, aldiz aldi, obetzen joan dan euskera bakana.

Gure erri-zeruak ba-ditu euskal izar dizdiratsuak berezko doaz ta norbere lanez nabarmendu direnak. Ortxe, izar artean zagoz, beti, argirik oberena zabaltzen euskal erri gureari. Zure izkuntza eder, sakon, indartsu, mamintsua deika geunkan gure enda ta lanaren edertasuna agertzen. Ori dala-ta, egarriz gengozen, noz, zure idazkairan bat ikusiko, idazkera bikain ortatik bizia artzeko. Edertasuna ikusten genduan ta ederra guregandu nairik genbiltzezan. Euskal literatur ederra.

Baña orrez gañera, gure gogo askatu egiten zen, adimena edegi ta gure naimena gosetu, esango neuke. Literatur orren bizia jaiotasuna norberarenganatzeko leia, bizi bizi, asmetan zan gure barnean. Iturri opa-ro bat ziñan, ur garden asegarri eriotan.

* * *

Lurrak bere giro ona bear dau ta aziak bere edertasuna. Bizkide-tasan zorioneko ontatik fruitu ederrak sortzen dira. Lur mamintsu ta arolak, laztanki, artzen dau azi garbi osasuntsua, ta bien bitartean, landara sendoa azten bizi gózatsu artan. Gizonak ere bere nortasuna, garra, odola bear dau biziaren ardatz bezela. Oñiarri baliotsu onek gabe, azi erkiñaren antzeko litzake gizona. Euskaldunak euskal giro on bat ere bearreko dau, erriari dagokiozan fruitu onak emon al izateko.

Almen eta inguru eder onek jaiotzatik artu zenduzen arako jaioterri mamintsuan. Zuk, berez, zenkarren doia illezkorra, gurasoak eta

gizarteak orbiztu ta mardulduten lagundu eutsuen. Egiz, ikusten zirenak eta entzuten direnak euren irudimena sartu eben gure barnean. Umeta-ko janariak, mendi ezaupideak, abesti gozo nai indartsuak, betirako itxi eutsuezan bizia, etorkia, jantzia...

Geroztik, orduan arturiko giro, erreztasuna, poza, beti, dabiltz indar egiñez laguntzen. Bizitz inguruko zertzelada guztiak izketan ari jakus. Ta barruaren poza ez da motela. Landara barria lur onean azi ta gizen-tzen da, zu lur ontan egin ziñen bezela.

* * *

Zugatz eginda zengozen euskal jakintz ta izkuntza ederrenarekin. Fruitua emon bear zen Seminarioko gazte baratz jori artan. Gogo ba zen. Baña gure erria zapalduta aurkitzen zen. Orain ikusten dut argi ta indartsu, noraiñoan, egon giñan oinperatuta. Gazte batzuk esnatu ziran. Urte gitxi barru Jainko jakituria euskaldun jendeari emon bear... janari ori emoteko bidea izkuntza zen, ta zenbat gazte euskerarik tutik ikasi gabe... Jaungoikoaren maitasuna, Jaungoikoaren egiak nola adierazi, bizitasunez nola agertu...! Berezko legean, au da, ziurki, Jaungoiko legea, euren izatearen erara erriei Jainko jakituria, salbamen bidea emon ezin, bear zen egokitasunez. Au pekatua ez al zen?

Egoera ta jokabide larri artan, egia agertzeko bidea kendu nai euskuen. Euskerak ez eukan Eleiz eskolan tokirik. Lapurka bezela talde bat ari giñan zerbaite egin nairik Jainko garrak bultz eraginda. Zu ziñan, ordu artan, gure indar puskea bakarrik. Egia esan bear dot. Ezer ez artan, guretzat guztia ziñan. Jainko itzak muturreko morrailerik ez leukean bear, baña gizonek euren erara jarri nai zituen Jaungoikoaren irakatsiak.

* * *

Gure lana oso txikia izan zen, erriaren aurrean egiteko geunkan arazo ta arloaren aurrean. Betiko bizirako bidea lurra da. Ta guretzat Euskalerrria. Emengo arazoak, Jaungoikoaren eran, ondoen, agertzeko bidea nai genduan. Izkuntza ikasi. Besterik ez... Ta lege bidezko orri jarraitzearen, bakoitzak dakigu, bean asi ta gorafio zer esan ta zer egin euskuen. Baztertu, zalatu, mindu...

Ta zu, on egiñaren ordaiñez, etxetik atera zinduezan, baña alperrikakoa etzan izan. Gizon sendoaren adoreak edonun lan egin legike, etxean eta auzoan. Zuk etxetik at, gogoz ta gogor, jokatu zendun jaioterriaren alde.

Geroz, gizon euskaldun tajuzkoak Euskaltzaindia'ren buru jarri zinduezan. Zuzena ta egokia zen. Ainbeste lan, ainbeste euskal izkuntzaren ezaupide artu zendun urte askoren buruan. Euskal liburuak, gure bertsolariak, guztia ezaguna zendun.

Baña beste idazti bat zabal zabalik egoan guztion begien aurrean. Argiz, izkuntzaz ta esakera egokiz beterik dago: gure Euskalerrria. Ortxe, atxurtu eben euskal jakitun gailenak eusko endak eukan izkuntza artzen. Zenbat egun, zenbat urte igaro dituzu euskal gizadi ortan batzen eta landutzen. Ekin eta ekin, erri maitiari bere bizia xurgatu zeuntzan. Erriko jakituriak duindu zinduzan gorengo mailara eldu arte, ta bertan emon eutsuen jarlekua.

• • •

Orain etorriko da, txikiena ez zen atzezko jokadea. Etxeko semeak dira. Guraso jakintsuari, bere euskal nortasun aundian ezpata sartuaz, azken ordaña beren eretxiz emon nai dautse. Euskaltzaindiko buru izatea kendu dautse gizon urtez orniduari, baña jakituriz buru argi ta euskal izar dizdiratsuari. Mailuka, olantxe, joa izan zara batetik eta bestetik. Baña zuk, betidanik, maite zendun erria, euskera euskeraz egiten dabena, zurekin dago, gogoz, zu berarekin bezela.

Baña zer diñot: gizonaren aunditasuna, nun, dago... Zarata ar-tean... txaloetan... besteak zapaltzen... egia loitzen... egiari bere zera kentzen norbere interes, asmoen alde...! Utikan ortik... ez olakorik... jakituriz ta gizontasunez bizia ikusi ta erriaren alde norbere indarrean eran zur ta gogoz jokatzea da egizko gizonaren aunditasuna. Golpeak artu ta onez erantzun... ixiltasunean ta beti, lan ta lan ari Euskalerrriaren alde, onen bizia geruago ta ederragua izan dedin. Bere bizian, oparo ta indartsu, bizi dedin.

Ta azkenez, euskera, nirea, zurea ez da bakarrik. Gure erriarena da. Euskaldunak emon eutsuen, ta zuk seme gogoz ta alegin aundiz, ederturik, apal eta eusko indarrez Euskalerrriaren eskuetan utzi duzu.

Aramaxo'ko ollarra

(*Erri jakintza edo Folklore*)

TOLOSA'TAR P. "TXINDOKI'K"

ARAMAXO'KO BALLERA EDO ARANA

Bada, Araban, mendi ta basoz inguratutako aran edo ballera bat, erdi ugarte antzo, iru probintzik mugatzen duten baztertxo bat, antziña artzain askoren sorleku edo obeto esateko sorgiñleku: Aramaixo bere izenez. Emen lau aizeetara nun-nai sortzen dira an emenka, negar malko antzera, ura arrastaka daramaten iturri ugariak. Eta gauza jakingarri bat: Gantzaga (au Aramaxo'ko elizaurre edo auzo bat da) gain-ganean euria jausten danean ur-zipritziña, iru aldeetara zabaltzen da: bata Nerbion edo Ibaizabal errekarra doa Arrazola ta Durango zear; Otxandixotik barrena Ebro errekaruntz eta irugarrena Deba errekarra Ibarra-Aramaxo'ko Udala aurrez miazkatuta.

An-emenka sakabanatutako auzune edo elizaurre ugari ditu Aramaixok. Batzuek goigoietan Etxaguen, Aixola ta Gantzaga; ballera erdian, lekaturik Azkoaga ta Baraxuen; bazter aldeetan Untzilla, Uribarri ta Olaeta. Baño etxe guztien ganetik, garbi ta txukun, eleixa gallurtzen da.

BURRUKA GOGORRAK

Denbora batean eztabaida ta ixtilu gorriak izaten zituzten euren artian ardi, auntz, bei ta biorren ugazabak. Mugarriak batzuek aruntzago, besteak onuntzago, sarritan egiten ziran orrelako mugarri-aldaketak. Bederatzi elizaurrek edo anteiglesiak osatzen dabe Aramaxo'ko aran edo ballera, Olaeta auzoakaz batera. Gero ta gogorragoak ziran eztabaida ta asarre eta etzala orrela luzaro aurrera jarraitu bear pentsatzen zan. Eta bestalde gauzak ezin zezaketela orrela aurrerantzian jarraitu eta aldatu egin bearko zirala.

ERABAGIXE (Erri jakintza edo Folklore)

Alegiñak egin arren ezin ziran alkar konpondu eta ganorazko alkar-aditze zuzen eta bardin bat gura eben. Azkenean Leixe izeneko aitzulo batean bizi zan bakarti (santon) batengana jo ebien. Au bere kate sendo ta pisutsuakaz egunero jeixten ei zan otoitz egitera Andra Marien baselizatxo edo ermitara. Ain xaarra eta argala zan, bere bizarra elurra bezin txuria, bularretataño jeixten ei jakon. Eta denpora batian ain sendo egon zanari, azurrak besterik etxakon geratzen. Bere azurrak berriz oso fiñak ei ziran. Eta otoitz egiten eguzkitan egon oi zanian, ez ei jakon sometan euren geritzia baño.

